

ANIZTASUN EZKUTUAK

AURKIBIDEA

ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

Idoia Mendía* 6

ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

José Manuel López Rodrigo* 7

I. SARRERA:

ERLIJIO-ANIZTASUNA, NORTASUNA ETA GIZA

ESKUBIDEAKEUROPAN ETA EUSKAL KONPLEXUTASUNEAN

Eduardo J. Ruiz Vieytez 10

Ikerketa 10

Erljio-aniztasuna aztergai 12

Erljioa eta erljio-aniztasuna nortasun kolektiboaren elementu gisa 13

Erljioa eta erljio-aniztasuna giza eskubideen xede gisa 15

Testuingurua: Europatik EAEko konplexutasunera 22

Erljioak eta nortasunak Europako historian 22

Erljioa Euskal Herriaren gatazka-testuinguruan 27

Eraitza: lanaren egitura 30

II. ESPARRU KONTZEPTUALA: SEKULARIZAZIOA ETA ERLIJO-ANIZTASUNA 33

Sarrera: politikarien jarrera erljio-aniztasunaren erronken aurrean 33

Sekularizazioa mendebaldeko modernitatearen bidegurutze gisa 34

Pentsamendu laikoa eta herritarrak: pluralismoaren baldintzak eztabaidan 38

III. EUSKAL HERRIA ERLIJOEN BIDEGURUTZE HISTORIKO GISA 41

Kristautasunaren aurreko euskal erljioa 41

Euskal Herriaren kristautze motela 44

Euskal historiako beste erljioak 45

Hurbileko garaiak eta aniztasun haziak euskal erljiosotasunean 49

Oinarriko kristau komunitateak Euskal Herrian 51

IV. EGUNGO ERLIJO GUTXIENGOAK EAE-N 55

Eliza ortodoxoak 57

Ortodoxia Euskal Autonomia Erkidegoan	58
Bilboko Santu Guztien parrokia	59
Donostiako kapera ortodoxo errumaniarra	62
Irungo San Marko parrokia	64
<i>Erritu Zaharreko Eliza Ortodoxoa.....</i>	<i>65</i>
Ukrainako Eliza greko-katolikoa	66
Eliza protestanteak.....	68
Eliza-antolamendua	71
Lotura moduak	72
Elizako eta komunitate-bizitzako kide izatea	73
Eliza ebanjelikoak EAEn.....	76
Amarako Eliza Ebanjelikoa (Donostia)	78
Hernaniko Eliza Ebanjelikoa	78
Irungo Eliza Ebanjelikoa.....	79
Santutxuko Kristau Komunitate Ebanjelikoa (Bilbo)	81
Durangoko Eliza Ebanjelikoa.....	83
Gasteizko Eliza Ebanjeliko Mendekostearra.....	84
Kristoren Gorputza Eliza Ebanjelikoa (REMAR)	86
Juventud con una misión	87
Hand of God Ministry (Bilbo)	88
Mendekoste Eliza – Church of Pentecost (Bilbo).....	89
Eliza Mendekostear Batua (Bilbo).....	90
Jesusen izenaren Eliza Ebanjeliko Apostolikoa (Bilbo).....	91
Munduko Argiaren Eliza (Bilbo)	92
Mundu ebanjelikoarekin loturiko zenbait gai	93
<i>Hedabideak eta iritzi publikoa.....</i>	<i>94</i>
Zazpigarren Eguneko Eliza Kristau Adbentista	98
Jehovaren Lekuko Kristauen Eliza.....	99
Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Eliza.....	102
<i>Ezaugarri historikoak eta egitura</i>	<i>102</i>
Lectorium Rosicrucianum (International School of the Golden Rosycross)	106
Islama eta bere aniztasuna	108
Islamaren berrezarpena EAEn.....	111

<i>Senegaleko Dahirak</i>	115
Euskadiko komunitate musulmanen ezaugarri komunak	117
<i>Kultu-guneak</i>	118
<i>Hilerriak</i>	120
<i>Erregistroak</i>	122
Budismoa	124
Bahá'í fedea	129
Zientziologiaren Eliza	131
Espiritualtasun mugimendu berriak	133
<i>Alalba elkarte</i>	134
<i>Nazioarteko Byakko mugimendua</i>	135
<i>Lanza del Vasto jaunaren Arka</i>	135
<i>Euskal paganismoa</i>	136
V. ERLIJIO ARTEKO ELKARRIZKETA	138
Erlijio arteko elkarrizketarako egungo zenbait ekimen	138
Côte Basque erlijio arteko elkarte	138
Hamabost bat pertsonak Côte Basque erlijio arteko elkarte eratu zuten Baionan 2000. urtean, Bakearen Aldeko Munduko Konferentziari atxikitako tokiko talde gisa (frantsesez Conférence Mondiale des Religions pour la Paix). Batez ere kristauak (katolikoak eta protestanteak), bahá'íak eta budistak ziren, baina bazeuden taldean hinduismoari loturiko zenbait pertsona, bai eta taoismoari loturiko beste bat ere. Taldeak bazuen beste meritu erantsi bat ere; alegia, Euskal Herri osoan gorpuzturiko lehen erlijio arteko ekimena izan zela.	
.....	138
Bizkaiko Erlijio Arteko Elkarrizketa Mahaia (Unesco Etxea, Bilbo)	
.....	139
Arantzazuko erlijio arteko topaketak eta saioak	139
Lizarrako Foro Espirituala	140
Bilboko Ellakuria zentroa	142
Zumaiako Gune elkarte	142
TALAIPE (Euskal Herriko erlijio arteko mahaien sarea)	143
Erlijio-arteko elkarrizketaren oinarrizko zenbait gako	144
Erdigunerik gabeko unibertsoa	144

Erljioaren arriskurik handiena fundamentalismoa da.....	145
Erljioak zubi izan behar du, ez muga	146
Bakea egiaren gainetik	146
Mintzaira esperientziaren bitartekaria da	147
Elkar entzutea eta hitz egitea gaizkiulertuak argitzeko	148
VI. ONDORIOAK	151
ERANSKINA: GLOSARIOA.....	155
Francisco Díez de Velasco	155
José María Contreras.....	182

ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

Idoia Mendía*

Gure bizitzako zati da erlijioa; edota, erlijioak, haien adierazpideen aniztasuna pluralean zehaztu nahi baldin badugu. Beren burua ateotzat dutenek ere, edota axolagabetasunean dauden horiek ere, hainbat kontzepzio espiritual izango dituzte eguneroko jardunean; batzuetan intentsitate handiagoz, besteetan txikiagoz. Gizartearentzat errealitate garrantzitsu dira erlijioak, eta, horrenbestez, politikarekin ere loturik daude.

Gizartearentzat garrantzia duen oro dago politikarekin loturik. Politika gizabidezko antolaketa arte moduan ulertu behar dugu; lege-erregulazioa edota haren esanetan egon behar duen administrazio-sarea baino askoz ere zabalagoa den zerbait, alegia. Baina bi erakunde-jardun horiek ere gizarte-interdependentzian bilduta daude; hau da, erlijio-adierazpenen eta erkidegoaren artikulazioaren artean. Erakundeen lotura-zentzu horri heldurik jorratuko du Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko erlijio-praktika. Eta Justizia Sailean egingo dugu, egin ere; Giza Eskubideen Zuzendaritzan, hain justu. Izan ere, askatasunak jorrazteko orduan erlijio-erreferenteak zaindu egiten ditugu; bai indibidualak, bai publikoak.

Ordezkatzen dudana Eusko Jaurlaritzaren interesa aldi-aldi gizartearen errealitatea ezagutaraztea da, gure herrian bizikidetzaren bideratze aldera. Ezagutza hori Pluralismo y Convivencia fundazioak gurean eta beste lurralde batzuetan egindako lanaren emaitza da, ondo egiaztatutako metodologiak baliatuta egina eta errekonozimendua jaso dute emaitzak lortua.

Lan honi esker, seriotasunez begiratuko diogu gure gizarteari, eta gertuko auziak ezagutuko ditugu, erakunde horrek berak aztertuta eta tankerako parametroak baliatuta. Emaitza horiek liburu honetantxe dituzue, eta Euskal Autonomia Erkidegoan erlijioen inguruan egindako kalitatezko beste hainbat azterlan ere gaineratu dizkiegu. Guztiak ere ezagutza-multzo bikaina osatu digu, erakundeoi erabakiak hartzen lagunduko diguna, baina, batez ere, gizarte hau osatzen dugunoi gizabidezko kontzientzia pizten lagunduko diguna.

* Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua

ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

José Manuel López Rodrigo*

Espainiako gizartea, oro har, eta Euskadikoa, bereziki, asko aldatu dira azken 30 urteetan sinesmenei dagokienez. Soziologiaren alderditik begiratuta, erlijioaren egungo azterketak ez du zerikusiri handirik Erlijio Askatasunaren Lege Organikoa onartu zuten 1980. urte hartan bizi genuen egoerarekin. Aldaketa horretaz jabetzeko, nahikoa da Euskadiko herri edo hiri bateko kaleetan barrena ibiltzea. Garai batean ia erlijio-adierazpen bakar ziren eliza katolikoaren aldamenen, ohikoa da gaur egun eliza protestanteak, meskitak, Erreinuaren aretoak edota budisten egoitzak aurkitzea.

Espainiako Estatuko erlijiotasunari buruzko inkesta gutxi dago, eta daudenak orain hamar urte pasatxo diseinaturikoak dira, autonomia erkidegoen arabera bereizi gabeak. Hala eta guztiz ere, herritarren erlijiotasun indibidualari buruzko hurbilketa egitea posible da. Ikuspegi kuantitatibotik eta inkesta guztien emaitzak batuta, ikus dezakegu herritarren % 28k bere burua katoliko praktikatzaile gisa definitzen duela; ia % 6k beste erlijio-sinesmen batzuk dituela eta % 9k atea dela edo sinesmenik ez duela dio, inkestak erabilitako kategoriaren arabera. Hau da, herritarren % 45ek baino gutxiagok du erlijioarekin interes espliziturik; dela positiboa, dela negatiboa. Gainerakoetatik, % 45 katoliko ez praktikatzaileak dira, eta % 12k ez duela erlijioarekin interesik dio.

Datu horiek duela hogeita hamar urtekoekin alderatuta, bi joera argi antzeman ditzakegu. Batetik, begien bistakoa da erlijioak garrantzia galdu duela, Europa osoan bitako sekularizazio prozesu orokorraren ondorio, baita gure herrialdean gertaturiko aldaketa politiko eta sozialen ondorio gisa ere (1976. urtean Espainiako biztanleen % 48k bere burua katoliko praktikatzaile gisa definitzen zuen). Nolanahi ere, murrizketa horrek ez du esan nahi erlijioaren aurkako sentimenduak ugartu direnik. Herritarren zati handi baten aburuz, erlijioak apenas duen garrantzirik. Trantsizioan eta demokraziaren lehenengo urteetan erlijioak garrantzi handiagoa zuen, frankismo garaian Eliza Katolikoak Estatuarekin zuen harreman estuaren ondorioz. Garai haietan, eztabaida oso polarizatuta zegoen jarrera «klerikalen» eta «antiklerikalen» artean; dena dela, bi jarrerak ere erlijioa zuten ardatz. Gaur egun, gaiarekin «interesik ez dutenak» gehiago dira, eta erlijioaren inguruan duten ikuspegia hotzagoa da; horri esker, hurbilketa neurrizkoagoa egin liteke. Bestalde, modernitateak eta sekularizazioak erlijioa akabatuko zutela ziotenak oker zebiltzan. Sinestun kopuruaren murrizketa-eritmoa moteltzen joan da, eta badirudi azkenaldian egonkortu egin dela; kalkuluen arabera, biztanleen herena izango litzateke sinestun.

Arestian aipatu dugun bigarren joera erlijio-aniztasunaren gorakada da. Herritar gehienak katolikoak ziren 1980an; gaur egun, ordea, gizartearen aldaketak eta migrazio-prozesuak direla-eta beste erlijio batzuk praktikatzen dituen gutxiengoa hazten ari da. Gutxiengoen erlijio horiek –protestanteak, musulmanak, judutarrak, mormoiak, budistak, Jehovahen lekukoak, etab.– bi milioi eta erdi fededun baino gehiago dituzte Espainiako Estatuan; horrenbestez, gutxiengo garrantzitsua dira kuantitatiboki hitz eginda. Immigrazioa funtsezko faktore izan da aniztasun horren hazkundera, nahiz eta gure herrialdean pluralismoa ez den berria. Nolanahi ere, immigrazioak eta erlijioak bereizita ere funtzionatuko dute. Immigrantetzat lehengo belaunaldia soilik hartzen da: seme-alabak Euskadiko herritarrak dira kulturalki, eta haien erlijio-sinesmenak seguruenik ez dira gurasoen kulturari lotuta egongo.

Dena den, erlijio-profila aldatu bada ere, iruditeria kolektiboa ez da aldatu. Sinesmenei dagokienez, gizartea oraindik ere «klerikalen» eta «antiklerikalen» artean banatuta dagoela ikusten dugu, eta horrek hainbat ondorio ditu. Lehenengoak berezko nortasunarekin du zerikusia; izan ere, erlijio-aniztasuna besteen eta «atzerritarren» kontua dela uste du jendeak oraindik ere. Horrek zaildu egiten die gizarteko kide sentitzea bigarren eta hirugarren belaunaldiei, baita fedez aldatzea erabakitzen duten herritarrei ere. Bestalde, toki-administrazioek gero eta arazo gehiago dituzte hainbat alorretan; esate baterako, gurtza-zentro berriak irekitzeko, beste erlijio bateko herritarrak lurperatzeko, ikastetxeetako edo osasun-zentroetako harremanetan, agintarien presentzia publikoarekin loturik. Askok eta askotan ez dakite kuarteletako, ospitaleetako eta espetxeetako eskaeren ondorioz sortutako arazoak nola konpondu ere. Izan ere, oso zaila da arazo bat konpontzea egokia ez den paradigma batetik abiatuta. Horrenbestez, arazo soziologiko bat dugu aurrez aurre, eta ez arazo ideologiko bat. Eta Konstituzioak berak aitortzen duen funtsezko eskubide bat baliatzearekin dago lotuta. Baina errealitatearen eta iruditeria kolektibo sozial eta politikoaren arteko desoreka gertatzen da erlijioaz hitz egitean.

Eta puntu horretantxe kokatu behar dugu, hain justu, azterlan hau, arazoaren zati handi bat erlijioari buruzko datu eta ikerketa faltak eragiten baitu. *Aniztasun ezkutuak* Euskadiko erlijio-aniztasuna ezagutzeko lehen urratsa da, eta Espainiako Estatuko erlijio-gutxiengoei buruzko txosten-sorta baten zati. Aurretik Kataluniari –*Las otras religiones*–, Valentziari –*Minorías de lo mayor*–, Madrili –*Arraigados*–, Kanariar Uharterei –*Religiones entre continentes*–, Gaztela-Mantxari –religion.es–, Aragoiri –*Construyendo redes*– eta Andaluziari –*¿Y tú (de) quién eres?*– buruzko txostenak argitaratu dira. Datozen hilabeteetan Nafarroari, Murtziari, Extremadurari, Gaztela eta Leoni, Ceutari eta Melillari buruzko txostenak argitaratuko dituzte.

Baina ikerketa bat egin izana ez da nahikoa erlijioaren beharrezko normalizazioari heltzeko. Gai honetan parte hartzen duten hiru eragileek –erlijioak, iritzi publikoa eta administrazioa– ezagutza landu behar dute, hortik abiatuta erlijio-askatasunerako eskubidea gizarte-kohesiorako eta elkarbizitzarako elementu positibo izan dadin.

Argitalpen hau dibulgaziozkoa da, eta erlijioarekiko interes soziologikoa duten pertsonen zein akademia-munduari zuzenduta dago; izan ere, apenas dagoen Espainiako errealitateari

buruzko gai horretako azterlanik. Azterlanaren xedea Euskadiko autonomia- zein toki-administrazioarentzat erreminta baliagarri izatea da, gure lurraldeetako erlijio-aniztasunari buruzko jakintza handiagoa metaturik, kudeaketa hobetu ahal izan dezaten.

Txostenaren atzean Deustuko Unibertsitateko eta Ellacuría zentroko ikerlarien bi urteko lana dago. Lanok Eduardo Ruiz Vieytez irakasleak zuzendu ditu. Bi urtez Euskal Autonomia Erkidego osoan barrena ibili den ikerketa-taldea zoriondu beharra dago, gaur egun Euskadin dauden talde erlijioso ia guztiakin jardun baitu. Emaitza gisa, oso azterlan osatua lortu dugu, errealitatearen berri zehatz ematen duena, azterketarako tresna baliagarria.

Baina, bestalde, esan beharra dago txostenak baduela eragozpen bat. Ikerketa-taldeak jakin badaki liburua argitaratzerako talde erlijioso gehiago ere izango direla gurean, eta beste batzuk desagertu ere egingo direla. Edonola ere, pentsatzekoa da hazkondeak positiboa izaten jarraituko duela. Horrek esan nahi du prozesu oso dinamikoa dugula aurrez aurre, eta hazteko joera hori aztertzen jarraitu beharko dugula. Errealitate hori dela-eta, Erlijio Aniztasunaren Espainiako Behatoki Iraunkorra sortzen lagundu dugu, erlijio-askatasuna Espainiako Gobernuaren Giza Eskubideen Planean sustatzeko neurri gisa.

Azkenik, talde-erlijiosoak eskertu nahiko nituzke, proiektuari eman dioten babesagatik, bai eta inkestei erantzuteko edota elkarrizketetan parte hartzeko erakutsitako pazientziagatik ere.

I. SARRERA: ERLIJIO-ANIZTASUNA, NORTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK EUROPAN ETA EUSKAL KONPLEXUTASUNEAN

Eduardo J. Ruiz Vieytez

Ikerketa

Oraintsu artean, zaila zen Euskadiko erlijio-aniztasunari buruzko testu bat argitaratzea . Eta ez aniztasun faltagatik, erlijio-aniztasuna beti izan baitugu gurean, neurri oso txikian izan bada ere. Dena den, egia da Euskal Herriko aniztasun maila, erlijio kontuetan, oso urria zela orain gutxi arte. Ez da, ordea, beti horrela izan Euskal Herriaren historian, ale honetan erakutsiko dizuegun bezala. Baina egia da azken bost mendeetan ia erabateko homogeneotasuna nagusitu dela Euskal Herrian erlijio-kultuei edo obedientziei dagokienez. Euskal gizartean XX. mendean errotu den antagonismoa erlijioaren eta sekularizazioaren artekoa da, nahiz eta sustraiak aurreko bi mendeetan dituen. Erlijioa, ordea, euskal gizartean hain sendo finkatuta dagoen bertsio kristau-katoliko gisa ulertu izan da gurean ia beti; batez ere, Aro Modernoa iritsi zenetik duela gutxira arte.

Gaur egun, ordea, bestelako kontuak bizi ditugu. Gizarteko errealitate berriak direla-eta, erlijioaren presentziari eta bilakaerari buruzko eztabaidak areagotu egin dira, eta denboran hain urrutikoak ez diren hainbat diskurtso bazterrean geratu dira. Gure ustean, ordea, oso garrantzitsua da erlijio-fenomenoa euskal gizartetik eta tankerako gizarte garatuetatik inola ere ez dela desagertu; are gehiago, birkokatu eta eraldatu egin da aniztasunaren bidetik. Sinesmenak, kideza-sentimenduak eta obedientziak ugaritu egin dira; aniztasuna, azken buruan. Erlijio-aniztasuna ez da erabateko beritasuna, baina gero eta garrantzi handiagoa du gure gizartearen kudeaketa publikoan, erlijio-elementuek politika publikoetan sartuta egon behar ote duten eztabaidatze hutsagatik bada ere. Fenomeno horrek gaur egungo Euskadi ere astintzen du, eta, gure inguruko beste eremu batzuk baino indar txikiagoz astintzen badu ere, erlijio-aniztasun hori aztertzeak eta ikerketa-gai gisa hartzeak erabateko zentzua dauka. Errealitateari egindako argazki honi esker, errealitatearen irudi eguneratuagoa izango dugu, eta agian agertuko zaizkigu ezagutzen ez genituen beste errealitate batzuk ere; horrez gain, erabat komenigarria da argazki hori egitea, gizarte demokratiko garatuetan pil-pilean dauden bestelako eztabaidei heltzeko alde aurreko estrategia gisa.

Horrenbestez, liburu honek euskal gizartearen erlijio-aniztasunari buruzko deskribapena eta azterketa eskaini nahi dio irakurleari. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko erlijio-gutxiengoei buruzko egungo panorama ahalik eta osoena eskaini nahi dugu. Bestetik, erlijio-aniztasunak berekin dakartzan erronka politiko eta kulturalak proposatu nahi ditugu, etorkizuneko azterketei eta eztabaidei begira.

Liburu hau hainbat diziplinako kidez osaturiko taldeak ia bi urtez eginiko ikerketa-proiektuaren emaitza da. Taldearen oinarri akademiko nagusia Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutua (Bilbo) eta «Eraldatze-bidean dagoen munduaren gizarte- eta kultura-erronkak» ikerketa-taldea izan dira. Dena den, unibertsitateko beste zentro batzuek

ere parte hartu dute bertan; esaterako, Teologia Fakultateak edota Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak. Unibertsitateko eremutik at, Bilboko Ellacuria fundazioak ere hartu du parte ikerlanean. Guztira hamabost pertsonak esku hartu dute zuzenean proiektuaren faseetan, hainbat diziplinako irakasleen eta ikerlarien artean; hain zuzen, soziologia-, zuzenbide-, filosofia-, teologia- eta antropologia-alorretakoak. Era berean, Justizia Ministerioaren mende dagoen Pluralismo y Convivencia fundazioak bultzatu du proiektua. Fundazio horrek aurretik ere antzeko lanak sustaturik zituen beste autonomia erkidego batzuetan; hala nola, Katalunian¹, Valentzian², Kanariar Uharteetan³, Gaztela-Mantxan⁴, Madrilen⁵, Aragoian⁶ eta Andaluzian⁷; horien ondoren beste erkidego batzuk etorriko dira. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan eginiko proiektuak Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-proiektu lehiakorren aintzatespena⁸ jaso du, lanak islatzen duen aniztasunaren azterketa politiko sakonagoa eta arlo horretarako politika publikoetarako proposamen erabilgarriak aztertzeo deialdi publikoaren testuinguruan. Dena dela, oraingoz, helburu horiek handiegiak dira ale honetako xedeekin alderatuta, eta sakonago aztertu beharko ditugu aurreragoko lanetan.

Liburu honen kasu konkretuari heldurik, helburua ikerketaren emaitza beste autonomia erkidego batzuetako ikerlariak jarraituriko aurkezpen-eredura egokitzea da, baina, betiere euskal gizartearen tankerako gizarte konplexu bateko erlijio-aniztasunak berekin dakartzan espezifikotasunak aintzat hartuta. Hala ere, ikerketa ez da hutsetik abiatuta egin, lehendik ere bazegoen gaiari buruzko lanik. Giza Eskubideen Institutuan bada erlijio-aniztasunaren fenomeno egungo testuinguruaren funtsezko ezaugarritzat jotzen duen ikerketa-ildo bat. Zehazki, talde islamikoek euskal gizartean⁹ duten presentzia landua zuten aurretik; hori bai, ikuspegi askoz ere analitikoagoarekin, deskriptiboa izan ordez. Era berean, Institutuak antolaturiko beste lan eta eztabaida batzuek landua zuten erlijio-aniztasuna arreta publikoaren xede gisa, duela gutxi ateratako argitalpenen batean ikus dezakegun moduan.¹⁰ Azkenik, nabarmentzekoa da unibertsitateko ikerketa-taldearen zati batek nazioarteko bikaintasunaren IMISCOE sarean parte hartzen duela (International Migration, Integration and Social Cohesion in Europe). Sare horren kluster edo lan-taldeetako batean, erlijio-aniztasuna lanaren bektore nagusietakoa da.

Adierazitakoa gorabehera, esan beharra dago, halaber, Pluralismo y Convivencia fundazioaren bultzada eta Ellacuria fundazioaren parte-hartzea erabakigarriak izan direla egun EAEn ikus daitekeen erlijio-aniztasuna aurkezteko lanari heltzeko. Alde batetik, lehendabizikoak lanerako esparru egokia eskaintzen zuelako, bai eta beste autonomia erkidego batzuetan egiaztatutako metodologia baliagarria ere, kontuan hartuta, gainera,

¹ Estruch, Joan; Gómez eta Segala, Joan; Griera, María del Mar e Iglesias, Agustí (2007), *Las otras religiones: Minorías religiosas en Cataluña*, Icaria editorial, Bartzelona.

² Boades Fuster, Josep eta Vidal Fernández, Fernando (2007), *Minorías de lo Mayor. Minorías religiosas en la Comunidad Valenciana*, Icaria editorial, Bartzelona.

³ Díez de Velasco, Francisco (arg.) (2008), *Religiones entre continentes. Minorías religiosas en Canarias*, Icaria editorial, Bartzelona.

⁴ Hernando de Larramendi, Miguel eta García Ortiz, Puerto (zuz.) (2009), *religion.es. Minorías religiosas en Castilla-La Mancha*, Icaria editorial, Bartzelona.

⁵ López García, Bernabé; Ramírez Fernández, Ángeles; Herrero Galiano, Eva; Kirhlani, Said eta Tello Weiss, Mariana (2007), *Arraigados. Minorías religiosas en la Comunidad de Madrid*, Icaria editorial, Bartzelona.

⁶ Gómez Bahillo, Carlos (koord.) (2009), *Construyendo redes. Mi no rías religiosas en Aragón*, Icaria editorial, Bartzelona.

⁷ Briones, Rafael (zuz.) (2010), *¿Y tú (de) quién eres? Minorías Religiosas en Andalucía*, Icaria editorial, Bartzelona.

⁸ Oinarrizko ikerketako eta ikerketa aplikatuko proiektuen deialdia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza.. Emandako proiektuaren erreferentzia: HU2009-30 proiektua; ikerlari nagusia, Eduardo J. Ruiz Vieytez; Deustuko Unibertsitatea, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua.

⁹ Etxeberria, Xabier; Ruiz Vieytez, Eduardo eta Vicente, Trinidad (2007), *Identidad islámica y espacio público en el País Vasco*, Alberdania, Donostia.

¹⁰ Ruiz Vieytez, Eduardo J. eta Urrutia Asua, Gorka (arg.) (2010), *Derechos humanos y diversidad religiosa*, Alberdania, Donostia.

metodologia hori proiektu orokorrean bestelako gai batzuei heltzeko ere osa zitekeela. Bestetik, Ellacuria fundazioak hainbat erlijio-gutxiengorekin eginiko landa-lan praktikoa zuelako oinarri, eta haren ekarpenaren asmoa guztiz bat zetorrelako erakundearen xedearekin; hau da, ikerketaren bitartez euskal gizarteko erlijio-aniztasun hazkorrari arreta publiko zabalagoa, zentzuzkoagoa eta koordinatuagoa eskaintzea.

Hala, helburuak bat zetozenez, interes praktikoa eta akademikoa kontuan hartuta eta epe luzeko ildo horretako lan-estrategia zehaztu ostean, ale hau taxutzeko prozesuari ekin genion. Dena den, argitu beharra dago lan honek ez duela helmuga izan nahi, bertan aurkezturiko errealitatei buruzko etorkizuneko hausnarketan eta proposamenen abiapuntu ez bada. Erlijio-gutxiengoaren atlasean bilduriko informazioaren zati handi bat Euskadiko gutxiengo talde erlijiosoen arduradunei edo liderrei elkarrizketa sakon eta erdi-egituratu bitartez lortu da. Hortaz, bestelako edota ezohiko dokumentazio-iturriak erabiltzeaz gain, hainbat elkarrizketa zuzen egin zaizkie erlijio-komunitateetako ordezkari, baita euskal erakunde publiko batzuetako arduradunei ere. Informazioa biltzen urtebete pasatxo eman dute, elkarrizketa gehienak 2009an egin baziren ere. Proiektuaren filosofiarekin bat eginda, elkarrizketak ez ziren datuak edo informazio deskriptiboa jasotzera soilik bideratu, baizik eta erlijio-komunitateek aurre egin beharreko etorkizuneko erronka nagusiak ezagutzera, baita egun erakunde publikoekin eta indarreko antolamendu juridikoarekin duten harremana ezagutzera ere.

Halaxe, asmo horrekintxe osatu zen hainbat diziplina, parte-hartze maila eta erlijio- zein nortasun-jatorri berezituak biltzen dituen ikerketa-taldea. Parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiek elkarrekin egindako lanaren emaitza duzue esku artean. Liburuaren egileen literatur adierazpena banatuta egin dugu, batzuek eta besteek zuzenean parte hartu duten eremu jakinen idazketa begien bistako egiteko helburuz.

Erljio-aniztasuna aztergai

Edozer libururen sarrerak hautatutako gaiaren garrantzia, behinik behin, justifikatu beharko luke. Eskakizun hori are premiazoagoa izaten da liburua alde aurreko ikerketa-proiektu baten emaitza denean, edo, kasu honetan bezalaxe, ikerketa liburuan txertatuta dagoenean. Erljio-aniztasunaren fenomenoak gure gizartean duen interpretazio bikoitza hartu dugu guk aintzat, esku artean dugun alea justifikatzeko. Alde batetik, erlijioak gure gizartearen errealitatea konplexuago bilakatzen duten zenbait identitate kolektibo eraikitze orduan duen garrantziagatik. Bestetik, erlijio-aniztasunaren auziak gizarte pluraletan giza eskubideen aitopenearekin eta eskubide horiek baliatzearekin duen loturagatik.

Izan ere, hasteko eta behin, beharrezkoa da erlijioak nortasun kolektiboak eraikitze elementu gisa duen rol garrantzitsua nabarmentzea; gizartearen zenbait sektore esanguratsurentzat, behinik behin. Gizartea eraldatu ahala, oinarritzko funtzionamendu-parametroak berriz planteatu behar dira, gizartearen nortasun eta partaidetza kolektiboak anitzago eta zabalago bilakatzen diren aldetik (horien artean erlijio-oinarriarena) eta gizarteak zein erakundeek fenomeno hori ezagutzen eta aitortzen duten neurrian. Gutxiengo-taldeek erabaki kolektiboko prozesuetan duten lekua edota erlijio-nortasunaren elementuek (edo ez-erlijiosoek) gune publikoen diseinuan izan behar duten irismena gai oso mamitsuak dira, eta ezinbestekoa da haiei heltzea. Horretarako, aurrenik eta behin, ezinbestekoa da gizarte baten izaera plurala egiaztatzea, erlijioak aniztasun hori bultzatzeko zer rol duen aztertzea eta gizarteko gutxiengo taldeen kide sentitzen direnek (kasu honetan erlijio-taldeak) zer ikuspegi duten jakitea.

Bestalde, erlijio-aniztasunak giza eskubideen kontzeptuari eta aplikazioari eragiten die. Eskubide horiek, azken buruan, demokratiko izateko asmoa duen esparruaz ari garenean indarreko sistema politikoak legitimotzat jotzeko balio izaten du. Giza eskubideak edo oinarrizko eskubideak ulertzeak, aitortzeak eta babesteak gogoeta eskatzen du, batik bat eskubide horien hartzaile den gizarteak lehen ez zegoen kultur edo erlijio-aniztasuna bizi badu. Giza eskubideak zer diren edo nola baliatu behar diren ulertzeko moduak, batzuetan, ikuspegi erlijioso edo kultural berezituarekin izan ohi du zerikusia; hortaz, beharrezkoa da ikuspegi horien presentzia antzematea eta ondoren parte hartzeko elkarrizketa irekiei bide ematea. Erlijio-esangura duten zenbait elementu, era berean, eskubideak baliatzeko objektu edo eduki ere izan daitezke, eta garbi dago herritar askok eta askok eskubide horiek baliatzeko nahi zilegia dutela. Horrenbestez, aniztasun-esparru batean eskubideen gaineko diskurtsoa konplexuago eta zabalago bilakatzen du.

Erljioa eta erlijio-aniztasuna nortasun kolektiboaren elementu gisa

Denbora luzez uste izan zen erlijiotasuna gizartearen eta politikaren bilakaeraren modu aurremodernoei loturiko gizarte fenomeno zela; adostasun handiz uste izan ere. Modernotasunaren ezaugarriak aniztasuna eta sekularizazioa izango liriteke; sekularizazioak, ezinbestean, erlijioa eztabaida politikoetatik desagerraraziko luke pixkanaka-pixkanaka, erlijioak gune publikoetan edukiko lukeen presentziari dagokionez, behinik behin.

Garai batean tankera horretako ideiak gailendu baziren ere, gaur egun onartu beharra dago erlijioa ez dela desagertu modernotasunaren amaierarekin batera; aitzitik, indar handiz sartu da berriz eztabaida publikoan. Erlijioa ez da postmodernitateatik at geratzen; aitzitik, hura biziberritzeko balio izan du hein batean, baita konplexuago bilakatzeko edota adierazpen-sorta zabalago batean banatzeko ere. Ilustrazio garaian zabalduak izan ziren kontakizun totalizatzaileen porrotak segurtasun-eza ekarri du oinarrizko erreferentzia-sistemetan, eta litekeena da horrek erlijio-ereduei indar ematen lagundu izana. Bestalde, erlijioa sakonago indarberitu da gizarte batzuetan besteetan baino, baina gizarte-elkarrekintza hazkorra eta biztanleriaren mugimenduek erlijio-eskaintza zabalagoa ahalbidetu dute egungo merkatu globalizatu honetan.

Aldaketa eta alterazio horiek guztiak panorama askoz ere konplexuagoa sortu dute erlijioaren eta nortasunaren arteko harremanei dagokienez. Alde batetik, postmodernitatearen aurreko sekularizazioak deselizartasun prozesua ekarri zuen, eta horrek partaidetzarik gabeko sinesmenaren fenomeno¹¹ eragin zuen; hau da, balio jakin batzuekin identifikatzeko modu laxoagoa, garai batean bezalako antolamendu-konpromiso handirik eskatzen ez zuena. Baina txanpon horren beste aldeak bizirik dirau gure gizarteetan, sinesmenik gabeko partaidetza deritzogun horretan¹²; fenomeno horrek, uste erlijiosoetatik harago, sustrai historiko sakonak dituen nortasun kolektiboa islatzen du, gure gizarte-sareetan bizirik dirauena.

Hain zuzen, hizkuntzarekin batera, erlijioa da Europan eta planetaren zati handi batean nortasun kolektiboak gehien baldintzatu dituen elementua. Orain gutxiko bilakaera sozialak sekularizazio-prozesu azkarra ekarri du euskal gizartera (gizarte garatua den aldetik), baina ezin du ezkutatu erlijioak gure nortasun kolektiboa zehazteko garaian duen garrantzi historikoa. Erlijio nagusiak erabat baldintzatu du ingurune soziopolitiko bakoitzeko kultur

¹¹ Davie, Grace (2000), *Religion in Modern Europe: A Memory mutates*, Oxford University Press, Oxford.

¹² Hervieu-Léger, Danièle (2005), *La religion, hilo de memoria*, Herder, Bartzelona.

bilakaera, eta horixe bera gertatu zaio euskal gizarteari ere. Egungo ohiko erlijio-praktika gorabehera, harreman ukaezina dago talde jakin baten kultura kolektiboaren eta erlijio-tradizioaren artean; horrek berekin dakar gizartea eta bere antolamendua ulertzeko modu jakin batekiko nortasun-lotura. Hori dela-eta, egungo nortasun kolektiboez hitz egitean, ezberdintasun erlijiosoei erreparatu behar zaie, eta pertsonen zein taldeen erlijio-adskripzio zuzena edota erlijio-tradizio lausoagoa aintzat hartu behar dira; izan ere, eragina dute oraindik, nahiz eta sektore asko eta askotan erlijio-praktiken ohitura galdu den.

Hortaz, erlijioak egungo nortasun kolektiboak definitzeko garrantzitsu direnez, justifikatuta dago botere publikoek hari arreta eskaini behar izatea eta arautzea, taldeak gizarteratzeari eta aniztasunari erreparaturik. Erlijioarekin zerikusia duten gaiak eremu pribatura mugatzea ez da komenigarria, ezta bideragarria ere, nortasun pertsonalari eta kolektiboari hain lotuta dagoen aniztasunaren kudeaketa publikoaren ikuspuntutik. Ikuspegi liberaletik, laikotasun sakonena nortasun-adierazpen izan badaiteke ere, esan liteke estatu demokratikoak neutro izan beharko lukeela posizio laizista zorrotzenen eta inspirazio erlijiosoko posizioen gizarte-jokoan, gehiengo edo gutxiengo izanik ere. Egiaz, laikotasun barne-hartzaileak erlijioek bete dezaketen rol positiboa izan behar du oinarri, erlijio horiek eremu publikoan duten presentzia bultzatuta eta gizarte-kohesiorako faktore gisa erabilia. Laikotasunaren ikuskera barne-hartzaileak ez dio kontrarik egiten estatuak erlijio-tradizioen, laikotasunaren, ateismoaren edo agnostizismoaren aurrean izan beharreko neutraltasunari; aitzitik, osatu egiten du. Nortasun kolektiboak eraikitzea ez da estatu demokratikoen ardura, baina ezta nortasun horiek ezabatzea edo ezkutatzea ere. Kontraesankorra litzateke mota guztietako iritzi-aniztasuna oinarritzen duten gizarte demokratiko eta liberalek eremu publiko homogeneoa sortu nahi izatea bizitzaren ikuspegi transzendentalen arloan.¹³ Aitzitik, ikuspegiaren eta nortasunen aniztasun horixe ordenatu behar du aparatua publikoak.

Nolanahi ere den, onartu beharra dago gure egungo gizarteetan bizi dugun nortasun-komplexutasun hazkorraren barruan sinkretismoak, tradizioen bat-egiteak, partaidetzarik gabeko sinesmenak edota espezifikotasun gogoak gero eta irudi polikromatikoagoa sortzen dutela, ulertzen zailagoa, ikuspegi erlijiosotik edo espiritualetik. Erlijioak eta sinismenak elkarri lotuta daude, bat-egiteak eta eraginak sortzen dizkiote elkarri; ondorioz, errealitate berri eta konplexuagoak sortzen dira, katalogatzen zailagoak. Hori guztia dela-eta, beharrezkoa da erlijioaren definizio hutsa pixkanaka zabaltzea, bertan gertakizun erlijioso tradizional handiekin bat ez datozen fenomeno eta adierazpen berriei leku egiteko.¹⁴ Edonola ere, gizarte bateko erlijio-gutxiengoak katalogatzeko zailtasun gero eta handiago horrek ez du inola ere gutxitzen nortasunak eraikitzerakoan erlijioak edo espiritualtasunak duten garrantzia, ezta eremu publikoaren diseinuan duten eragina ere.

Hala, duela gutxira arte gizarte askotan kohesio-faktore zen elementua, gaur egun dibertsifikazio eta aniztasun elementu da. Erlijio-aniztasuna gertaera sozial ukaezina da; ikuspegi hori aintzat harturik, esan liteke gizarte-bilakaera nabarmena eragin duela eta osatu egin duela orain gutxira arte amaitu gabe zegoen modernizazioa. Ondorioz, esan genezake euskal gizartea gizarte plural bilakatu dela, baita erlijio-nortasunari dagokionez ere. Horrenbestez, politika publikoak ere egokitu egin beharko lirateke errealitate horretara.

¹³ Rovira i Llopart, Francesc (2007), «Espacio público y pluralidad de creencias», *Revista cidob d'afers internacionals*, 77, 139. or.

¹⁴ Giza Eskubideen Batzordea (Nazio Batuen Erakundea), *Comentario general número 22: el derecho a la libertad de pensamiento, conciencia y religión (18. artikulua)*, 1993ko uztailaren 30a, CCPR/C/2 1/rev. 1/Add.4., 2. lerrokada.

Erlijioa eta erlijio-aniztasuna giza eskubideen xede gisa

Herrialde demokratiko garatuetakoko sistema politikoak eta konstituzionalak zilegi egiten dituen faktore bat zera da, komunitate politikoa oinarritzko eskubideak bermatzeko antolatzen dela batik bat; alegia, araudiaren «gutxiengo etikoa» izenez ezagutzen duguna osatzen duten eskubideak bermatzeko. Hortaz, politikoki antolatuta dagoen edozer komunitatek gutxieneko eskubide-sorta bat eduki behar du formalki aitortuta, demokratikoki izan nahi badu behintzat; eta, horrez gain, eskubideok bermatzeko mekanismoak ere izan behar ditu.

Horrekin loturik, gogora dezagun gure azterlanaren xedea, hau da, erlijioa, hortxe egon dela beti oinarritzko eskubide edo giza eskubide horien xedean. Ildo horretatik, giza eskubideen adierazpenaren jatorrian bertan, erlijioaren inguruko askatasun konkretua eta indibidualizatua dago, erabat aitortuta eta onartuta egon ere. Badira eztabaida edo desberdintasun gehiago eta handiagoak sortzen dituzten giza eskubideak. Erljio-askatasuna, ordea, esan genezake nazioarteko zein herrialde barneko testu juridiko eta politikoetan errekonozimendu handiena duen giza eskubideetako bat dela, dela antzinako testuetan, dela egungoetan. Izan ere, erlijio-askatasuna estatu demokratiko gehienek konstituzioetan antzeko formulazioekin dago bilduta, bai eta giza eskubideen babesa bermatzen duten nazioarteko arau guztietan ere, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onarturiko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik hasita. Hauxe dio Aldarrikapenaren 18 artikulua:

«Pertsona orok pentsamendu-kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna, baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta erlijio-aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere».

Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna izenarekin ezagutzen dugun dokumentuekin jarraituz, 1996ko Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunak ere barne hartzen du erlijio-askatasuna eskubide babestuen multzoaren barruan, eta Aldarrikapen Unibertsalak baino formulazio xehatuagoa egiten du. Hauxe dio Itunaren 18. artikulua:

1. Pertsona orok pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna du; eskubide horrek bere baitara bilduko du euren aukerako erlijioa edo sinesmenak izatea edo bereganatzea, bai eta euren erlijioa edo sinesmenak banaka edo kolektiboan agertzeko askatasuna ere, jendaurrean nahiz modu pribatuan, kultu, erritu-ospakizun, eginera eta irakaskuntzaren bidez.

2. Inork ez du neurri hertsagarririk jasango, aukerako erlijioak edo sinesmenak izateko edo bereganatzeko norberaren askatasunari kalte egiten badio.

3. Norberaren erlijioa edo sinesmenak agertzeko askatasunaren muga bakarrak legeak ezarritakoak izango dira, baldin eta segurtasuna, ordena, moral edo osasun publikoak edo gainerako oinarritzko eskubide eta askatasunak babesteko beharrezkoak badira.

4. Itun honetan parte hartzen duten estatuak gurasoen askatasuna errespetatzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta, hala denean, legearen arabera tutoreen askatasuna ere, seme-alabei euren pentsaerekin bat egiten duen erlijio- eta moral-hezkuntza eskain diezaieten.

Baina eskubideen dimentsio erlijiosoa ez dago Ituneko artikulua honetan bakarrik jasota; 27. artikulua ere biltzen du, «erlijio-gutxiengoak dauden estatuetan» gutxiengo horietako

kideei beren erlijioa praktikatzeko askatasuna aitortzen baitie. Deribatu hau oso garrantzitsua da guretzat; izan ere, hari esker Itunak erlijio-askatasuna giza eskubide gisa ulertzeko bidea erakusten digu, eta, halaber, erlijio-aniztasunaren eta erlijio-gutxiengoaren presentzia eremu politiko berean biltzen du. Aurrerago erakutsiko dugun moduan, erlijio-askatasuna, giza eskubide den aldetik, ezin da ulertu eta ez da ulertu behar aniztasun edo pluraltasun ideiatik bereizita.

Azkenik, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna osatzen duten dokumentuekin amaitzeko, 1966an aurrekoarekin batera onarturiko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak hezkuntzarako eskubidea biltzen du 13. artikuluan; gurasoek edo tutoreek seme-alabentzat edo tutoretzapekoentzat beren sinismenekin bat datorren hezkuntza erlijiosoa edo morala aukeratzeko askatasuna biltzen du artikuluko horrek, estatu bakoitzak ezartzen dituen gutxienerako arauak beteta.

Horrez gain, kontuan hartu behar dugu giza eskubideak babesteko adierazpen eta tratatu guztiek, orain arte aipaturikoek barne, bazterkeriaren aurkako klausulak dituztela. Klausula horietan bazterketa zer elementutan ezin dugun oinarritu zehazten da; horien artean, erlijioa.

Klausula horiek guztiak eta tankerako besteak errepikatu egiten dira giza eskubideei buruz Nazio Batuen esparruan harturiko beste hitzarmen edo adierazpenetan ere. Dokumentu horien guztien artetik, bi interesatzen zaizkigu: batetik, *Bizi diren herrialdea jatorrizko herrialde ez duten pertsonen giza eskubideei buruzko aldarrikapena* nabarmendu nahi dugu, Batzarrak 1985eko abenduaren 13an onartutakoa, eta, batez ere, *Gutxiengo nazional edo etnikoetako, edo erlijio eta hizkuntza gutxiengoetako kide diren pertsonen eskubideen aldarrikapena*, Batzarrak 1992ko abenduaren 18an onartua. Azken hori ez da juridikoki loteslea estatuentzat, eta oso interesgarria da agintari publikoek positiboki jarduteko ildo argiak biltzen baititu, bertan aitorturiko eskubideak babestu ahal izateko. Horrenbestez, estatuak behartuta daude erlijio-gutxiengoaren eskubideak betetzen direla bermatzeko neurriak hartzera, baita erlijio eta pertsona horien gainerako nortasun-elementuak babesteko neurriak hartzera ere. Testu horrek berak gutxiengoaren «nortasun erlijiosoa» babesteko eta bultzatzeko estatuen betebeharra biltzen du (1. artikulua), baita kultur eta erlijio-bizitzan parte hartzeko gutxiengo horretako kideen eskubidea ere (2. artikulua); horiek guztiak jarraibide oso interesgarriak dira erlijio anitzeko gizarteetan eremu publikoak diseinatzeke orduan.

Europa osoko erakundeei dagokionez, araudien egoera antzekoa da. Europako Kontseiluak du kontinente zaharrean giza eskubideak eta demokrazia zaintzeko ardura, eta erakunde horren barruan Giza Eskubideen Europako Hitzarmena gailentzen da (1950. urtean onartu zen, eta kontseiluko 47 herrialde kideek berretsi dute). Arau hori, zalantzarik gabe, Europako giza eskubideen funtsezko parametroa da, eta 9. artikuluan erlijio-askatasunari egiten dio erreferentzia, hitz hauekin:

1. «Pertsona orok pentsamendu-kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo usteak aldatzeko askatasuna, baita norbere erlijioa edo usteak bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, praktikaz, kultuz eta errituak gordez azaltzeko askatasuna ere».

2. Norberaren erlijioa edo sinesmenak adierazteko askatasunak ezin ditu legeak gizarte demokratiko batean segurtasun publikorako, ordena, osasun edo moral publikoa babesteko, edo besteen eskubide edota askatasunak babesteko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak baino murrizketa gehiago jasan.

Era berean, erlijioa hitzarmenaren 14. artikuluko bazterkeriaren aurkako klausulan dago bilduta. Bertan erlijioa aitzaki duen bazterkeriarik ez dela onartuko esaten da, hitzarmenak biltzen dituen eskubideez gozatzeko. Klausula horrek beste edozer eskubidetarako ere balioko du, nahiz eta hitzarmenean jasota egon ez (halaxe dio hitzarmenaren 12. protokoloak, 2005etik indarrean dagoenak).

Europako erakunde-esparruari heldurik, garrantzitsua da, halaber, 1995ean onarturiko Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmena aipatzea. Europako estatu gehienak atxiki zitzaizkion, Frantzia, Grezia eta Turkia izan ezik. Nazio Batuen esparruan bezalaxe, gutxiengoaren eskubideei (kasu honetan, erlijio-gutxiengoei) erreferentzia egiten dieten arau espezifikoak txertatzea ezinbestekoa da eskubide hori gizarte pluralen esparruan interpretatzeko, bai eta gutxiengoan dagoen komunitate erlijioso bateko kide diren pertsonen kasu bereziko ere. Esparru-hitzarmenak gutxiengoaren erlijio-askatasuna onartzen du zazpigarren artikuluan; zortzigarrenean, aldiz, berariaz aitortzen du erlijio-gutxiengoetako kide diren pertsonak beren erlijioa edo sinismenak adierazteko duten eskubidea, baita erakunde erlijiosoak, organizazioak eta elkarteak sortzekoa ere. Hitzarmen bereko 12. artikuluan ezarritakoari jarraiki, estatuek beren gutxiengoaren erlijioa ezagutarazteko neurriak hartuko dituzte beharrezkotzat joz gero.

Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarrak ere ebazpen eta gomendio ugari hartu ditu erlijio-askatasuna aitortzeari, erlijioen arteko bizikidetzari edo erlijioaren gaineko tolerantziari dagokionez. Konparazio batera, 1993an hartutako Biltzarraren 1.202 Gomendioak malgu izatea aholkatzen die Europako estatuei erlijio-praktikak elkartzeko orduan, egiazko gizarte demokratikoa eraikitzeko. Erlijioari eta demokraziari buruz 1999an onarturiko 1.396 Gomendioak, berriz, gizarteko erlijio guztientzat garapen-baldintza berak bermatzeko beharra nabarmentzen du, eta beren egitura juridiko eta instituzionalean erlijio-praktika horiek egokitzeko lan egitera bultzatzen ditu estatu kideak.

Ikusten dugunez, erlijioa giza eskubideen oinarritzko sektorearen oinarrian dago, eta aldarrikapen edo hitzarmen guzti-guztiek hartzen dute barne, bai unibertsalek, bai Europakoek. Are gehiago, erlijioari gero eta gehiago erreparatzen zaio aniztasunaren ikuspegitik, erlijioen arteko nahitaezko bizikidetzatik, bai eta gutxiengoaren erlijio-askatasunerako eskubidearen errespetutik eta babesetik ere. Horrek guztiak errespetua, tolerantzia eta abstentzionismo-jarrera eskatzen du estatuen aldetik, noski. Baina, horrez gain, neurri positiboak ere hartu behar dituzte, beste sinesmen batzuk dituzten pertsonak, gutxiengoa izan ala ez, edozer gizarte demokratikotan oinarritzko eskubidetzat dugun horretaz goza dezatela errazteko, ahalbidetzeko eta bultzatzeko.

Horrek guztiak ez gaitu harritu behar aintzat hartzen badugu, egiaz, erlijioa edo, hobeto esanda, erlijio-aniztasuna dela giza eskubideen ideia eta haiek babesteko nazioarteko lehenengo dokumentuen jatorria. Hain zuzen, Erreforma Protestantearen ondorioz mendebaldeko Europan sortu zen aniztasun-esperientziak arlo juridikoan tolerantziaren ideia ekarri zuen, bai eta kontzientzia-askatasuna artikulatzen hasteko beharrezko testuingurua ere. Tolerantzia hori botere publikoetara ere zabaldu zen, kontzientzia-askatasuna pixkanaka eskubide natural bilakatu baitzen. Erreformaren eragina erabakigarria da gai honetan, baita zenbait eremu geografikotan sortu zuen aniztasuna ere. Erreformak, bestalde, literatur prestakuntza eta ikasketa-gaitasunarekiko konfiantza modernoa goraiatzeko eta gizaki indibidualak kritikatzeko balioko du. Horrek guztiak

bizkortu eta indartu egin zuen gizabanakoaren askatasun-esferaren ideia, kanpoko interbentziorik gabekoa –ezta ezarritako boterearena ere–.¹⁵

Laburbilduz, Erreformak eragin zuen erlijio-aniztasunak, gizabanakoaren kontzientzia azken agente-arrazoi gisa goraiatzeko, eta Erreformak kristau bakoitza Hitzaz jabe zedin egindako ahaleginak modernitatearen berezko subjektu aktiboa sendotzen lagundu zuten; halaxe egin zuten, halaber, errealitatearen ikuspegi teozentrikoan inspiratu ordez, ikuspegi antropozentrikoan inspiratu zen arrazionalismo kartesiarrak eta garapen zientifikoak ere. Tankera horretako testuinguru ideologikoarekin eta baldintza politikoek, sozialek eta militarrek hala ahalbidetu zutenean, erlijio-gutxiengoen nazioarteko babesak garatzen hasi zen; horixe litzateke eskubideak babesteko Europar hartutako lehenengo ereduak. Garai hartan, nortasun kolektiboak ez ziren hain sendo kristalizatzen hizkuntzaren edo nazio bateko kide izatearen inguruan; aitzitik, nortasun kolektiboak gizarte-klasearen edo erlijioaren inguruan artikulatu ohi ziren. Pentsatzekoa den moduan, erlijio-adierazpen guztiek ez zuten tolerantziaren ideiak irekitako joko horretan parte hartzen, mendebaldeko kristautasunaren bi korrante handietara mugatzen baitzen. Baina, garai hartan, erlijio-aniztasuna (kristautasunaren barruan, nahi izanez gero) beste ikusmolde batzuekin uztartu zen; alegia, giza eskubideak ezarritako botereak mugatzeko esfera gisa definitzeko bide ematen duten ikusmoldeekin, hain zuzen. Gizabanakoen eskubide haiek gaur egun eskubide zibiltzat ditugunak dira. Hortaz, esan genezake erlijio-askatasuna izan dela, gutxienez haren alderdi negatiboan, nazioarteko dokumentuetan aitorturiko eta babesturiko lehen giza eskubidea.

Agerian geratu da erlijio-aniztasuna beharrezkoa zela garapen historiko hori gertatzeko. Erlijioa nortasuna sortzeko elementu indartsua izan da, eta halaxe jarraitzen du izaten; horrenbestez, erlijioa zen gizakien duintasuna legez babesteko hasierako urratsa artikulatu zezakeen funtsezko faktorea. Lan horretan asko lagundu zuen, zalantzarik gabe, Erreforma Protestantearen zati handi baten inspirazioak. Baina oinarri-oinarrizkoa izan zen aniztasun-esperientzia, edo, bestela esanda, erlijio-gutxiengoen eta -gehiengoen arteko bizikidetzak. Ingurune homogeen batean ez zukeen zentzurik izango erlijio edo kontzientzia askatasuna pertsona bakoitzaren berezko eskubide gisa planteatzeko, eta giza eskubideen garapena ez zatekeen bide horretatik joango. Are gehiago, agertoki demokratiko batek gaur egun dibertsitatea, desberdintasunak eta asimetriak eskatzen ditu. Agertoki liberalak aniztasuna ahalbidetzen du; aniztasunarekin bizi da eta aniztasunaren bidez garatzen da. Giza eskubide indibidualen aitortpenak ezinbestean bide horretatik garrantzitsuak, bereziki pentsamendu- edo sinesmen-askatasunak, eta estatua eta komunitate politikoa aniztasun hori aintzat hartzerak behartzen ditu. Aniztasuna saihestea, eremu pribatura baztertea edota existituko ez balitz bezala jokatzea erlijio-aniztasunaren ideia positiboa eta irekiaren kontrakoa litzateke, eta, horrez gain, bakarka edo taldean baliaturiko erlijio-askatasunaren edukari zuzenean erasoko lioke. Estatu batek erlijio-askatasuna baliatzeko eredu bakarra defendatu nahi izango balu, edo, are okerrago, askatasun horrek inolako adierazpen publikorik ez izatea nahiko balu, uniformizazioa inposatzen arituko litzateke. Eta horrek pertsona askoren nortasunaren oinarritzko elementu bat zokoratuko luke, baita jatorrizko giza eskubideetako baten funtsa ere. Azken buruan, erlijio-aniztasuna gizarte demokratiko eta koherente baterako ereduak eraikitzeko oinarri izan daitezkeen humus edo substratu bakarra da, besteak beste. Gizarte horretan, giza eskubideak nortasun ezberdinen bitartez baliatu ahal dira, eta ez nortasun ezberdinen gainetik.

¹⁵ Ruiz Viquez, Eduardo J. (1998), *La protección jurídica de las minorías en la Historia Europea*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 22-24 or., *ibid.* (2003), «Reforma religiosa y constitucionalismo: una clase de Derecho constitucional a través del Monumento internacional de la Reforma de Ginebra», *Estudios de Deusto*, 5 1/2 liburukia, 182-185. or.

Erlijio-aniztasuna sinbolo eta kultura-elementu multzo handi batekin nahasten da, gainera. Elementu horiek, erlijioak praktikatzen dituzten pertsonen sinesmen transzendentaletatik harago doaz. Dela ikuspegi erlijiosoago batetik, dela ikuspegi kulturalago batetik, erlijio-tradizioen aniztasunak eztabaida publikoak pizten ditu edozer gizarte demokratikotan; esaterako, eremu publikoetan edo pribatuetan erlijioan oinarrituriko jantziak edo zeinuak eramateko aukera, hilerriak egokitzea, irakaskuntza-curriculumetako zenbait irakasgai moldatzea, hezkuntza-sisteman erabili beharreko pedagogia, sexuen arteko harremana zenbait eremu publikotan, bizitzaren inguruko ideiak, hainbat eliza edo aitortzaren jarduerak diru publikoarekin finantzatzeari buruzko ideiak eta ereduak, inspirazio erlijiosoko zentroetan egiten diren hezkuntza- edo osasun-jarduerak publikoki homologatzea, laneko jai-egunak egutegian jartzea... Noizean behin eztabaida sozialetan, akademikoan edota politikoetan agertzen diren gai horiek guztiek eta beste askok pertsona konkretuen bizipenei eta esperientziei eragiten diete, eta, azken buruan, gurearen tankerako gizarte pluraletan gaur egun erlijio-askatasunaz gozatzearen esanahiaz eta ondorioez egiten dugun interpretazioarekin du zerikusia.

Hori horrela izanik, indarreko testuen analisiak eta orain arte nazioarteko organo judicial edo kontsultibo nagusiek haien inguruan egin duten interpretazioak ondorio batera garamatza: erlijio-askatasuna berezitateko bi frontetan proiektatzen dela. Alde batetik, zuzenbidearen barne-eremu bat, estatuaren edo beste partikular batzuen interbentzioezaren bidez errespetatzen eta babesten dena, eta estatuari jokaera abstentzionista eskatzen diona, interbentzio-eza bermatu behar denean izan ezik. Bestalde, erlijio-askatasunerako eskubidearen kanpoko alderdi bat dago, erlijioaren kanporantzko erakusketa ahalbidetzen duena; horixe bera da, halaber, erlijio-askatasunerako eskubidearen funtsezko alderdietako bat, adierazpen horiek eremu publikoan egiteko nahitaezko baldintza berekin dakarrena. Alderdi batek zein besteak, baina bereziki bigarrenak, botere publikoen babes aktiboa eskatzen du ikuspegi neutralaren izenean, erlijio-askatasunak errespetuzko eta tolerantziatzko jarrera eskatzen baitio estatuari, pertsona ororen sinismen erlijiosoen inguruan.

Ondorioz, pertsona edo talde bakoitzaren erlijio-askatasunaren barruan berezi egin behar dira, batetik, barneko erlijio-askatasuna, eta, bestetik, erlijioa kanporantz adierazteko askatasuna. Lehenengoa baldintzarik gabe dago babestuta, eta ezin zaio legezko murrizketarik edo mugarik jarri.¹⁶ Erljioa azaltzeko askatasunari dagokionez, edukiak ez ditu ekintza edo adierazpen liturgiko edo zeremonialak bakarrik biltzen; horrez gain, zenbait elikadura-erregimen betetzeko praktikak, janzkera jakin batzuk erabiltzekoak, bizitzako zenbait uneri loturiko erritualak edota talde jakin batek tradizioz erabilitako hizkuntza erabiltzea ere biltzen ditu. Eremu horretan, zenbait muga edo murrizketa jar daitezke, nahiz eta nazioarteko dokumentuetan ezarritako baldintzak beti bete beharko dituzten. Baina benetan nabarmentzekoa da erlijio-aniztasunak jarrera publiko neutrala behartzen duela, eta jarrera horrek ezin dituela interpretazio desorekatu edo baztertzailak eragin kultu edo tradizio erlijioso desberdinen aurrean. Horregatik, Nazio Batzuen Giza Eskubideen Batzordeak dioten bezalaxe, «moralaren kontzeptua tradizio sozial, filosofiko eta erlijioso askotatik dago eratorrita; ondorioz, erlijio edo sinesmen bat adierazteko eskubidearen mugak, morala babesteko helburuarekin, tradizio bakarretik ez datozen printzipioak eduki beharko ditu oinarri».¹⁷

¹⁶ Giza Eskubideen Batzordea (Nazio Batuen Erakundea), *Comentario general número 22: el derecho a la libertad de pensamiento, conciencia y religión (artículo 18)*, 1993ko uztailaren 30a, CCPR/C/21/rev. 1/Add.4. dokumentua.

¹⁷ *Ibid.*, 8. lerroka.

Baina, gizarte demokratiko batek erlijio guztiak izan behar duen neutraltasun publikoak ez du kategorikoki estatua eta erlijioa guztiz bereiztera behartzen; hala, posible da erlijio edo eliza ofizialak egotea, edota Estatuak gehiengoaren erlijio bat aitortzea. Hori ez da erlijio-askatasunaren alderdiak baliatzeko oztopo, baina jarrera horretan inolako bazterkeriarik ez dela gertatzen bermatu beharko da. Arestian aipatu dugun moduan, erlijio-askatasunerako eskubidea erlijio-gutxiengoek beren erlijioa praktikatzeko duten eskubidearekin dago lotuta. Horrek, halaber, aitortza publikoa eskatzen duten fedeei, erlijioei edo elizei errekonozimendu hori ematea eskatzen du.

Halaber, gizarte berean bizi diren hainbat erlijioaren edo elizaren arteko harreman-jokoak, edo eremu publiko bera partekatze hutsak, gizarte demokratikoetan erlijio-askatasunaren kanpo-adierazpena mugatu edo murriztu ahal izatea eragiten du; hain zuzen, hainbat talderen interesak elkartzeko eta sinesmen guztiak errespetatuko direla bermatzeko.¹⁸ Edonola ere, erlijio-aniztasuna demokrazia ideia berezko elementu gisa ulertu behar da¹⁹, nahiz eta horrek gizartean nolabaiteko banaketa dagoela onartzea ekarri. Banaketa hori, noski, errespetatu egin beharko da beti.²⁰ Aniztasuna ez da, lehen esan dugun bezala, gizarte-kohesiorako oztopo, hura osa dezakeen materiala ez bada; izan ere, gaur egun ezin uler dezakegu desberdintasuna (erlijio-desberdintasuna barne) eta haren adierazpen publikoa onartzen ez duen demokraziarik. Zalantzarik gabe, erlijio jakin baten gutxiengotasuna ez da hura adieraztea debekatzeko aitzakia izango, eta horrek esan nahi du ez dela gehiengoaren erabaki eskusiboa eremu publikorako sarbidea ematea.²¹ Horrekin guztiarekin ondoriozta dezakegu gizarte demokratiko bateko botere publikoek ezin dutela baloratu erlijio-sineskerak²² zilegi diren ala ez, alderdi horretan adierazi dugun neutraltasun-printzipioan oinarrituta. Neutraltasuna nortasun erlijiosoa duten talde guztietan proiektatuko da, taldeok kide asko ala gutxi izan, edo gizarte horretan tradizio luzea ala laburra izan.

Ildo horretatik, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak adierazi du Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 27. artikuluari buruz, erlijio-gutxiengo bat egotea, beren erlijioa praktikatzeko eskubide eta guzti, ez dagoela Estatuaren iritzia mendean, irizpide objektiboen mendean, baizik.²³ Aldi berean, Batzordeak adierazi du etorkinen taldeek edo atzerritarrek ere erlijio-gutxiengoak osa ditzaketela Itun horretan ezarritako zentzuan. Bestalde, Europar gutxiengoaren definizio murriztaileagoa defendatu ohi dugu eta, zenbait kasutan, herrialdekoak ez diren pertsonak edo duela gutxiko immigrazio-mugimenduekin etorritako komunitateak baztertu egin ohi ditugu. Irizpide murriztaile hori, dena den, ez da oso praktikoa herrialdeko pertsonen eta atzerritarrek osatutako gutxiengoaren erlijio-komunitateentzat. Edonola ere, gutxiengoak direla alde batera utzita, berriki ezarritako talde erlijiosoa gizabanakoz osatuta daude eta, hortaz, erlijio-askatasunaren jabe diren aldetik, beren sinesmenak adierazteko eta agerpen hori ahalbidetzeko egokitzapenak eska ditzakete.

Erljio-askatasunaren arloko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia kasuan kasukoa da hein batean, seguruenik hainbat herrialdeetako errealitatei aplikatu

¹⁸ Giza Eskubideen Europako Auzitegia, *Kokkinakis Greziaren aurka* kasua, 1993ko apirilaren 19ko epaia, 33. atala.

¹⁹ Giza Eskubideen Europako Auzitegia, *Besarabiako Eliza Metropolitarrak Moldaviaren aurka* kasua, 2001eko abenduaren 13ko epaia, 119. atala; *Refah Partisi Turkiaren aurka* kasua, 2001eko uztailaren 31ko epaia, 69. atala.

²⁰ Giza Eskubideen Europako Auzitegia, *Agga Greziaren aurka* kasua, 2002ko urriaren 17ko epaia, 58-60 atalak.

²¹ Giza Eskubideen Europako Auzitegia, *Barankevich Errusiaren aurka* kasua, 2007ko uztailaren 26ko epaia, 31. atala.

²² Giza Eskubideen Europako Auzitegia, *Besarabiako Eliza Metropolitarrak Moldaviaren aurka* kasua, 2001eko abenduaren 13ko epaia, 123. atala; *Manoussakis eta beste Greziaren aurka* kasua, 1996ko irailaren 26ko epaia, 47. atala; *Refah Partisi Turkiaren aurka* kasua, 2001eko uztailaren 31ko epaia, 91. atala.

²³ Estatuan gutxiengoak egotea ez dago Batzordearen ustez haren hautematearen mendean, baizik eta horrela dela berez: dok: CCPR/C/79/Add.80, apartado

behar baitzaie eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9.2 artikulua kontzeptu juridiko zehaztugabe ugari biltzen baitu. Horregatik, jurisprudentziari helduta, ez dugu erlijio-askatasunak gutxiengo erlijio-komunitateei ekartzen dizkien ondorioei buruzko koadro osoa lortuko. Gainera, moral publikoak, ordena publikoak eta eskubideen muga gisa jokatzeko duten kontzeptuei buruzko tankera horretako aipamenek osagai kultural oso handia izaten dute. Auzitegiak berak onartzen du ez dela posible erlijioaren ikuspegi bateratua antzematea Europako gizarteetan, eta erlijio-sinesmenen kanpoko adierazpenen inpaktua aldatu egiten dela garaia eta testuinguruaren arabera.²⁴ Horrek guztiak erlijio-askatasunaren jatorrizko edukiaren interpretazioa lantzen jarraitzea behartzen gaitu, batez ere ale honetan jorratzen ari garen gutxiengo erlijiosoen jarrerari dagokionez.

Egiteke dugun interpretazio-lan honetan garrantzi handia dute hainbat kontzeptu teknikok, giza eskubideen jokoaren gizarte zibilaren nortasun-aniztasunera egokitzen baitute. Bereziki, zeharka diskriminatzea edo «berdinketarik diskriminatzea»²⁵ oso erabilgarri izan daitezke bizikidetzaren erlijio-aniztasunaren arabera arautzeko unean. Era berean, zentzuzko egokitzapena izeneko kontzeptu juridikoa oso baliagarri suertatu da Kanadan, erlijio-aniztasunari heltzeko orduan; beraz, komenigarria litzateke horixe bera Europako errealitateetan ere aplikatzea. Beraz, zentzuzko egokitzapenaren kontzeptua erabilia, Kanadako Gorte Gorenak onartu du lege batek helburu laiko baliadun bat lortu nahi duenean, baina zenbait pertsonaren erlijio-askatasuna murrizten duenean, pertsona horiek egokitzapenak eskatzeko eskubidea dutela; normalean legea aplikatzeko salbuespena izaten da, baldin eta konponbide hori interes publikoarekin bateragarria bada.²⁶ Hala, erlijio-neutraltasunaren printzipioa botere publikoen gaineratik jartzen da, baina ez gizabanakoen gaineratik. Zentzuzko egokitzapenaren jatorria ez da legegintzako formulazioa, baizik eta jurisprudentzian itxuratzen doan berdintasunerako eskubidearen ikuspegia.²⁷ Kanadako zentzuzko egokitzapenaren auziak janzkerarekin, elikadurarekin, laneko egutegiarekin, kultur espazioekin edota ikur erlijiosoak eramatearekin loturiko kontuak aztertu ditu.

Edonola ere, Kanadan egin duten zentzuzko egokitzapenaren hurbilketa giza eskubideak aniztasunari erreparatuta egokitzeko teknika juridikoak eskaintzen dituen aukeretako bat baino ez da.²⁸ Erlijio-aniztasunari dagokionez, beharrezkoa da erlijio-askatasunerako eskubidearen beste irakurketa bat egitea, aniztasuna aintzat hartuta, eskubide horren kanpoko alderdia barne. Beharrezko pluralizazio juridiko horrekin etorriko den aniztasunaren kudeaketa-ereduaren bidez, pertsona orok Konstituzioak aitortutako oinarriko eskubideak gozatu ahal izango ditu, bereziki erlijio-askatasuna, bere nortasunaren bitartez eta ez bere nortasuna gorabehera. Nortasun horretan, erlijio-desberdintasuna funtsezko elementu izan daiteke, batez ere gutxiengoan dauden komunitateetako kide diren pertsonen kasuan.

²⁴ Giza Eskubideen Europako Auzitegia, *Sabin Turkiaren aurka* kasua, 2005eko azaroaren 10eko epaia, 109. atala.

²⁵ Kontzeptu hori Giza Eskubideen Europako Auzitegiak erabili zuen lehenengo aldiz *Thlimmenos Greziaren aurka* kasuan, 2000. urteko apirilaren 6ko epaia.

²⁶ Kanadako Gorte Gorena, *R.V Edwards Books eta Art Ltd [1986]* kasua, *Supreme Court Review* 713, 32. orria, 1986ko abenduaren 18ko epaia.

²⁷ Bosset, Pierre (2007), «Les fondements juridiques et l'évolution de l'obligation d'accommodement raisonnable», in Jézéquel, Myriam (zuz.), *Les accommodements raisonnables: quoi, comment, jusqu'où? Des outils pour tous*, Éditions Yvon Blais, Cowansville, 10. or.

²⁸ *Vid.* Ruiz Vieytes, Eduardo (2009), «Reasonable accommodation: going beyond the European Convention on Human Rights to reflect the plurality in national institutional settings», in (hainbat egile), *Institutional accommodation and the citizen: legal and political interaction in a pluralistic society*, Europako Kontseilua, Strasbourg, 127-142. or. *Ibid* (2009), «Crítica del acomodo razonable como instrumento jurídico del multiculturalismo», *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, 18. zk.

Testuingurua: Europatik EAeko konplexutasunera

Nortasun kolektiboez eta giza eskubideen interpretazioez hitz egiten dugunean, testuinguru sozial eta politikoak garrantzi handia izaten du. Ale honetan, egungo euskal gizartearen erlijio-aniztasuna aurkeztuko dugu, eta testuinguru historikoa, geografikoa eta politikoa erabakigarriak izango dira hemen aurkezturiko errealitatea behar bezala ulertzeko, baita aniztasun hori nola kudeatu aztertzeko eztabaida zentzuz bideratzeko ere. Aldi berean, atariko atal honetan, lanaren zenbait elementuri buruzko azalpenak eman behar dira; izan ere, azterlana biltzen duen arloak baldintzatuko baititu bai elementuok, bai lanaren egitura.

Aurreko atal batean adierazi dugun moduan, erlijioa nortasun kolektiboa artikulatzeko elementu boteretsua izan da, eta halaxe jarraitzen du izaten. Euskal herritarrak ez daude ideia horretatik kanpo, baina beren bilakaeran zenbait berezitasun izan dituzte. Eta horrexegatik taxutu dugu atal hau, testuingurua emateko. Horri esker, hainbat gako historiko eta kultural izango ditu irakurleak, lanari eman nahi izan diogun ikuspegia justifikatze aldera. Bestalde, euskal gizartearen Europako egituraren beste pieza bat da, eta erreferentziako gainerako kultur eremuarekin batera egin du aurrera. Horrexegatik, erlijioek Europako historian izan duten rol identifikatzailea laburbilduz hasiko dugu atal hau; ondoren, Euskal Herriko elementu espezifikoak nabarmenduko ditugu, liburu honen egitura eta edukiaren zati bat ulertzeko baliagarri izan daitezkeelakoan.

Erljioak eta nortasunak Europako historian²⁹

Erljio-kontuetan, aniztasuna aspalditxoko ezaugarria da Europako kontinentearen historian. Alde batetik, argi dago kristautasunak Europako lurralde gehienek garapen politikoan erabateko garrantzia izan duela azken bi mila urteetan, baita nortasunaren garapenean ere. Bestalde, Europako mundu kristauak prozesu zismatiko oso garrantzitsuak bizi izan ditu eta, ondorioz, bereizitako erlijio-adierazpenak sortu dira, baita bata bestearen kontrakoak ere, gure aroaren lehenengo urteetatik. Horri erantsi behar diogu judaismoak, islamak eta tankerako zenbait erlijio egiazko presentzia nabarmena eta luzea izan dutela Europan, hainbat mendetan. Edonola ere, Europako historiako erlijio handiak Liburuaren hiru tradizioetara mugatu dira orain oso gutxira arte. Baina horrek ez du murrizten Europako erlijio-aniztasunaren sakontasuna eta garrantzia, dela historikoa, dela gaur egungoa.

Europako aniztasun hori osatzen, berebiziko garrantzia izan dute kristautasunaren barruan sortu diren desberdintasun kulturek eta eklesiastikoez. Egungo kristautasuna, bere dogmatikarekin eta antolamenduarekin bat, lautan bana daiteke: katolikoak, protestanteak, ortodoxoak eta ekialdekoak (azken talde horren barruan sartuko ditugu Armeniako eta Siria mendebaldeko kristauak, asiriarrak eta koptoak). Baina homogeneotasun handiagoa edo txikiagoa duten kredo-talde horietako bakoitzaren barruan ere, desberdintasun handiak daude errituari, liturgiari eta antolamenduari dagokionez. Desberdintasun horiek guztiek eragin handia izan dute Europa barruan nortasun kolektibo desberdinak eraikitze orduan. Esate baterako, mundu protestante konplexuak adskripzio nazionaleko eliza luteranoak, komunitate kalbinistak eta presbiterianoak edota Eliza Anglikanoa bera biltzen ditu, beste hainbat adarrez gain. Eliza katolikoari dagokionez, berriz, hainbat arrazoi historiko direla-eta erritu eta hizkera liturgiko berezituak dituzten

²⁹ Atal hau duela gutxi argitaraturiko testu honetatik hartu dugu: Ruiz Vieytez, Eduardo J. (2010), «Religiones, identidad y derechos humanos. Cuestiones y debates para el siglo XXI», in Ruiz Vieytez, Eduardo J. eta Urrutia Asua, Gorka (arg.), *Derechos humanos y diversidad religiosa*, Alberdania, Donostia, 25-31. or.

komunitateak biltzen dira, nahiz eta guztiek ere Erromako Aita Santuaren gidaritza onartzen duten. Horien artean, nabarmentzekoak dira Europa erdialdeko greko-katolikoak, Libanoko maronitak, Ekialde Ertaineko taldeak, eta ekialdeko gainerako eliza katolikoak. Eliza ortodoxoei dagokienez, tradizioz oinarri nazionalaren barruan antolatu izan dira, Konstantinoplako aitalehenaren nagusitasun nominal hutsaren pean, nahiz eta eliza ortodoxo guztiek ez duten aintzatespen orokorra, alderdi politikoan dauden nortasun-gatazkekin bat. Armeniako eta Etiopiako elizen barruan ere lotura handia dago nortasun nazional jakinekin. Ekialdeko beste eliza kristauak, berriz, normalean gutxiengoan erlijio-taldeak identifikatzen dituzte, bereizitako bokazio nazionalik gabeak. Oro har, Egipton, Ekialde Ertainean eta Indiara bitartean egon ohi dira, inguru gehienbat musulmanean.

Kristautasunaren konplexutasun izugarri horren oinarrian bi prozesu historiko berezitu daude. Bi prozesuok garai historikoagatik eta eragin geografikoagatik daude berezita. Lehen IV. eta XI. mendeen artean gertatu zen, eta halaxe sortu ziren ekialdeko elizak. Era berean, orduantxe banatu ziren ortodoxoak eta mendebaldeko kristauak ere. Bestela esanda, Erroma gainerako patriarkatuen gainetik egotea ipini zuten zalantzan, eta eliza autozefaloen arteko berdinketaren ideia nagusitu zen. Erromako Inperioaren garapen politikoak, lehenik, eta Bizantziokoarenak, ondoren, zerikusi handia izan dute kristautasunak Europan izan duen bilakaerarekin, bai eta eliza eta kultu berezituak pixkanaka sortzarekin ere. Ondorioz, Armeniako kristautasunak bide berezitua hasi zuen hasiera-hasieratik; izan ere, kristautasuna iritsi zen garaian, Armenia Erromatar Inperiotik kanpo zegoen. Bestalde, Kristoren izaerari edo Mariari eman beharreko tituluari buruzko tentsioek bereizketa gehiago eragin zituzten ondoren. Nestorianismoa Efesoko Kontzilioaren (431) ondoren sortu zen, eta Kaltzedoniako Kontzilio ezagunak (451), berriz, zatiketa monofisita handia markatu zuen; azken horrek eragin latza izan zuen Antiokiako (Siria, gaur egun Turkiako lurraldean) eta Alexandriako (Egipto) patriarkatuetan, eta halaxe sortu ziren eliza siriakoa eta koptoa, hurrenez hurren. Ondoren, hainbat fasetan, Erromaren eta Konstantinoplaren arteko aldea handitzen joan zen, bi egoitzen arteko banaketa politikoko gero eta handiagoak lagunduta. Horren ondorioz; mendebaldeko kristautasuna eta kristautasun ortodoxoa behin betiko bereizi ziren 1054an.

Kristautasunaren bigarren zatiketa-prozesu historiko handia XVI. mendean gertatu zen erdialdeko eta mendebaldeko Europan; Erreforma izenarekin ezagutzen duguna, hain zuzen. Zatiketa hori modu heterogeneoan eta, hainbatetan, dibergentean gertatu zen, eta izugarri zabaldu zen komunitate kristau berrien kopurua eta espazio publikoetan agertzeko modua. Arrakasta lortu zuen lehen erlijio-erreforma Lutherrek gidatutakoa izan zen. Erreforma horren erdigune geografikoa Wittenberg hirian koka dezakegu. Ikuspegi berri hori Alemaniako eta Suitzako eremu handietan gailendu zen, bai eta Europa iparralde osoan ere. Europa iparraldean eliza nazionalak sortu ziren, herrialde bakoitzeko botere tenporalari irmo loturik. Lehenengo prozesu horren ondoren beste batzuk etorri ziren. Horietatik nabarmengarriena Kalbinek gidaturikoa izan zen, batez ere Genevatik zabaldu zena. Kalbinismoa Eskozian, Probintzia Batuetan eta beste hainbat herrialdetan nagusitu zen, eta indar handiz ezarri zen Suitzako, Frantziako, Ingalaterrako eta Hungariako zenbait sektore eta eremutan. Edonola ere, elizak eta botere tenporalak zorrotz bereizteko premisaren pean. Azkenik, Ingalaterran eta Galesen gauzaturiko erreforma-prozesu bitxiaren ondorioz, erlijioa antolatzeko bide berri bat sortu zen, kasu honetan, monarkiari estu lotua.

Eliza Katolikoak, joera erreformista horiei erantzuteko, Trentoko Kontzilioa (1545-1563) antolatu zuen, bai eta Jesusen Konpainia sortu eta bizkor garatu ere. Kontrarreformak Europa Erdialdeko eremu zabalak eta herriak katolizismora itzultzea lortu zuen, batez ere Alemanian, Hungarian eta Polonian. Prozesu berari esker, muga katolikoak zabaldu egin

ziren zenbait eliza ortodoxori tokia kenduta, Kieveko metropolitak Aita Santuaren autoritatea errekonozitzea lortu baitzuen 1596an. Gertaera horri esker jaio ziren eliza greko-katolikoak; eliza horiek, harrezkero, bizantziar erritua eta hizkuntza liturgiko propioak gordetzen dituzte, eta identifikazio-rol oso garrantzitsua bete dute gutxiengo komunitate askotan hainbat botere politikoren aurrean, bereziki Rutenian eta Transilvanian.

Erljio islamikoari dagokionez, Europan bi prozesu historiko handiren bidez izan du presentzia. Lehenik, herrialde arabiarren zabalkundea VII. eta VIII. mendeetan. Herrialde horietatik Afrika iparraldeko biztanleak sartu ziren Europan mendebaldeko Mediterraneotik barrena; batez ere, Iberiar Penintsulan eta Sizilian. Bigarrenik, Turkiako otomandarren hedatze progresiboa. Otomandarrak Anatoliatik etorri ziren; XIV. mendetik aurrera Balkanetan sartu eta bertan geratu ziren ia sei mendez. Kasu horretan, dena den, sunien, xiiten, alauitarren, drusoen, ismaeldarren, zaiditen, ibaditen eta tankera horretako beste hainbat fede-korronteren arteko desadostasunek ez zuten eragin handirik izan Europako kontinentean. Europako biztanle musulman gehienak suniten islamaren kide ziren. Hori bai, interpretazio edo tradizio erlijioso ezberdinak hortxe egon ziren, baita egitura politikoa nagusi bakoitzetik eratorritako antolamendu ezberdinak ere.

Islamak kristautasunaren konplexutasuna osatu zuen, Europako eta inguruetako nortasun erlijiosoak deskribatzeko lanean. Hori horrela izanik, islamak Sirian, Egipton eta VII. mendean Bizantziar Inperioari irabazitako gainerako lurraldeetan izan zuen arrakasta azkarraren arrazoi bat, kristauen artean lehendik zeuden desadostasunak izan litezke. Ortodoxoen eta monofisiten arteko doktrina-ezberdintasun larrien aldean erlijio ulerterrazaz zen islama, bai eta Jesukristoren bakartasun eta hirukoiztasun izaerari buruzko arrazoibide konplexuen aldean ere. Eta ez zegoen amaigabeko eztabaida dogmatikoetan sartuta. Aldi berean, Kaltzedoniako Kontzilioaren ondoren, desberdintasun erlijiosoek bestelako desakordio politikoak eragin zituzten. Tesi monofisitek nolabaiteko protonazionalismoa bideratzeko balio izan zuten Sirian eta Egipton; ortodoxiak, berriz, postulatu inperialekin bat egiten zuen argi eta garbi, greziar kulturako komunitateen babes handiarekin. Bestalde, katolikoaren eta ortodoxoen ustezko fede-komunitateak ere ez zuen behar beste indar izan, Turkiako otomandarren bultzadari eta Balkanetako eremu zabalak islamera bihurtzeari modu koordinatuan erantzuteko. Alderantziz, esan genezake VIII. mendeko arabiarren zein geroagoko turkiarren erasoetan, kristautasunaren zenbait sektorek inbasioa erabili zutelako erlijio bereko beste talde edo partiduen boterea murrizteko. Musulmanen aurka kristauek elkartzuta gurutzadak egin zituztela esatea irudi erredukzionista da, eta ez du batere ongi islatzen Europak oro har izan zuen bilakaera historikoa.

Bestalde, historian denbora-tarte luzeetan, musulmanak nagusi ziren Europako eremuetan, erlijio-tolerantzia nahiko handia izan zela nabarmentzekoa da, agian talde musulmanek ez zutelako nahikoa indar demografiko lurralde horietan gehiago izateko. Hortaz, Otomandar Inperioak erlijio-askatasun printzipioa ezarri zuen talde kristau eta judutarrentzat Balkanetako lurraldeetan, otomandarren Millet sistemaren bitartez; sistema horrek nolabaiteko autonomia bermatzen zien erlijioan oinarrituta antolaturiko taldeei. Hala, Istanbulerako patriarka greziarrak Balkanetako biztanle ortodoxoen gainean botere handiagoa izan zuen, Bizantziar Inperioaren ondoren izandakoa baino. Botere horrek XIX. mendera arte iraun zuen gainera.

Azkenik, judutarren presentzia aspaldikoa da Europan, Tenpluaren bigarren suntsipena baino lehenagokoa. Judutarren Europako komunitateek ere nortasun-desberdintasunak zituzten euren artean, baina kasu guztietan gutxiengo talde itxi izateak nortasun hori

gehienbat erlijioaren gainean eraikitzea eragin zuen. Nortasunaren arabera neurtuz gero, Europako judaismoaren banaketa handiena berandu gertatu zen: judutar sefardiak (hispanikoak) eta judutar askenaziak (germanikoak). Bi taldeen arteko banaketa geografikoa normalean hizkuntzan islatzen zen (ladinoa edo Mediterraneoko hizkuntzak eta yiddisha). Bereizketa hori bat dator Iberiar Penintsula, Italiakoa eta Balkanetakoa Europako gainerako lurraldeetatik bereizten dituen lerro horizontalarekin.³⁰ Judutarrak hainbat herrialdeetatik kanporatu egin zituzten, eta pixkanaka zokoratzen joan ziren. Hala, XX. mendearen hasieran, Europako biztanle judutarrak oso kontzentratuta zeuden ardatz geografiko jakin batean; herrialde baltikoak, Polonia, Ukraina eta Galitzia, harik eta Moldaviaraino iritsi arte. Era berean, Europako beste hainbat hiritan ere kontzentratu ziren; esaterako, Salonika, Iasi, Bialystok, Vilnius, Chisinau. Edonola ere, judutarrak onartzea edota erbesteratzea Europako gizarteetan konstante bat izan da, baita judutarren jarduerak eta presentzia erregulatzea ere. Izan ere, judaismoa Europako historiaren zati da, beste bi erlijio-tradizio handiak bezalaxe.

Prozesu horien guztien emaitza gisa, Europako nortasun kolektiboak askotan moldatu dira, erlijioa (kultua) kohesioa lortzeko edo besteengandik bereizteko puntu nagusi gisa hartuta. Erlijioaren eta nortasunaren arteko harremana agerikoa izan da Europako historia osoan, baita desberdintasun linguistikorik edota bestelakorik gertatzen ez den testuinguruetan ere. Desberdintasun horiek dira, esaterako, Bosnia eta Herzegovinako egungo errealitatearen oinarria. Gaur egun hiru hizkuntza daudela esaten bada ere, hizkuntza-sistema serbokroaziarrari esker, probintzia historiko horietako herritar guztiak ulertzen dute elkar. Probintzia horietan hegoaldeko eslaviar biztanleak bizi dira. Hala ere, erlijioak hiru komunitate bereizi desberdinatu dituzte egunetara arte. Etnikoki apartekoa den talde honen lehenengo bereizketa Erromatar Inperioaren zatiketarekin eta mendebaldeko (katolikoa) eta ekialdeko (ortodoxoa) guneen sorrerarekin gertatu zen. Ondoren, XII. mende amaieratik XIV. mendera bitartean bogomilismoa indartu zen Bosnian (katolikoek zein ortodoxoek heresiatzat hartutako kristautasunaren ikuspegia); gorakada horren ostean, halaber, herritar ugari islamera bihurtu zen. Horren ondorioz sortu zen egungo komunitate musulmana, komunitate bosniako izenez ere ezagutzen dena. Fenomeno horri berari esker, Novi Pazarreko Sandzak barrutian gutxiengo musulman garrantzitsu bat ezarri zen (gaur egun lurralde hori Serbia eta Montenegro artean dago banatuta). Gutxiengo hori Bosniako komunitate musulmanen eta Otomandarren Inperioko Albania, Mazedonia eta Traziako gainerako komunitate musulmanen arteko lotura zen.

Kroaziarren eta serbiarren arteko banaketaren oso antzekoa gertatu zen Europa iparraldean, finlandiarren eta karelioen artean. Kristautasuna ez zen Europa iparraldeko inguru horietara iritsi XII. eta XIII. mendeetara arte. Errusiar ortodoxoak iparraldeko lurraldeak eta Ladoga lakuaren inguruak ebanjelizatu zituzten, Novgorodeko apezpikutzan oinarrituta. Olonets hirian ezarri zuten apezpikutzak. Bestalde, suediar katolikoek (geroago luteranoak) egungo Finlandia eta Kareliako istmoa ebanjelizatu zituzten, Abotik abiatuta. Hala, hizkuntzagatik eta kulturagatik batutako finlandiarrak eta kareliaoak bi erlijio-tradizio ezberdinekin identifikatu ziren, eta, azkenean, bi biztanleria-taldeen arteko banaketa legitimatu zuten.

Elizak eragindako bereizketa batek banandu zituen, era berean, erruteniar greko-katolikoak eta tradizioz ortodoxoak ziren ukrainarrak, XVI. mendearen amaieran. Desberdintasun erlijiosoa bi arrazoigatik sendotu zen. Alde batetik Kontrarreformari esker

³⁰ Magosci, Paul Robert (1995), *Historical Atlas of East Central Europe (A History of East central Europe, volume I)*, University of Washington Press, Seattle, 108. or.

eta, ondoren, etnikoki eslaviarrak ziren lurraldeak Austria katolikoaren eta Errusiar inperioaren artean banatzearen ondorioz. Mendebaldeko Ukraina (ekialdeko Galitzia) Sobietar Batasunean sartu zenean, komunitate horren zati handi baten aurkako errepresio gogorra hasi zen. Haien nortasun kolektiboa ez zen erabat egokitzen Ukrainako mugetara, eta nagusitzat jotako botere eklesiastikoa Sobietar Batasunetik eta haren eraginpeko herrialdeetatik kanpo zegoen. Komunismoa erori ondoren, Europa erdialde-ekialdeko eliza greko-katolikoak berreskuratu egin dituzte, eta haien egitura muga politiko berrietara egokitu da. Gutxiengo pomakoa eta biztanle bulgariarrak bereizten dituen arrazoia ere erabat erlijioso da. Pomakoak bulgariarren hizkuntza-taldekoak dira, eta Rodope mendien alde banatan bizi dira, Greziako eta Bulgariako estatuen artean. Baina musulmanak dira erlijioz, turkiarrek mendeetan eduki baitituzte mendean. Erlijio-desberdintasun hori dela medio, eta kontuan izanik Bulgarian gutxiengo direla, pomakoek antzekotasun politiko gehiago dituzte Bulgariako gutxiengo turkiarrekin, nahiz eta beste hizkuntza bat hitz egiten duten. Azkenik, agerikoa da gure kontinenteko desberdintasun erlijiosoen beste ezaugarri batzuk ere izaten dituztela (hizkuntza, bereziki) nortasun-kolektiboak bereizteko orduan. Halaxe gertatzen da Europa erdialde-ekialdeko hainbat nazioekin eta haien gutxiengoekin. Hungariako katolizismoak Errumaniaren ortodoxiari egin behar izan dio aurre Transilvanian. Era berean, albaniarren kasuan, musulman edo katoliko izatea bereizketa handia da inguruan dituzten greziar, bulgariar edo serbiar ortodoxoen aurrean.

Azkenik, Europa mendebaldeari dagokionez, Irlandako kasua nabarmentzekoa da. XVIII. eta XIX. mendeetara arte, hizkuntza zen uharte hartako identifikazio-faktore ukazina; azken bi mendeetan, ordea, erlijio-adskripzioak gainditu egin du hizkuntza, identitate-elementu gisa. Hain zuzen, Ipar Irlandako komunitateen arteko gatazkak tradizio katolikoko eta protestanteko taldeen arteko gatazka gisa aurkeztu izan dizkigute beti. Dena den, azalpen hori zehatz-zehatza ere ez da, bertako gatazkak helburu politikoekin baitu zerikusia, erlijiosoen baina gehiago; edonola ere, ezin uka dezakegu erlijio-tradizioaren indarra adskripzio eta mobilizazio tresna gisa.

Era berean, etorkizuneko Europar Batasunaren lurralde-mugei buruzko eztabaidetan ere ikus dezakegu erlijioak edo tradizio erlijiosoen nortasun-ezaugarri garrantzitsu izaten jarraitzen duela. Turkia Batasuneko estatu kide gisa onartzea komeni ote den eztabaidatzean, ez dituzte auzi ekonomikoak edota giza eskubideen zein demokraziaren estandarrak betetzearen ingurukoak soilik kontuan hartzen; sarritan Europaren nortasunari buruzko eztabaida izaten dute atzean. Erlijioaren edota tradizio erlijiosoko kulturaren pisuak zer nolako garrantzia duen agerian geratzen da, erkidego politiko horren amaierako esparrua irudikatzen dugun unean.

Azken finean, azaldutako prozesuek eman dute Europako kontinenteko tradizio erlijiosoen panorama konplexua. Sortutako desberdintasunetako askok bereizitako nortasun kolektiboak justifikatzeko balio izan dute, edo balio dute oraindik. Baita eremu publikorako sarbidean bereizitako eskaerak aurkezteko ere. Nahiz eta herrialde gehienetan erlijio-disidentziak indarrez jazarri zituzten mende luzeetan, batzuetan, XVII. mendetik aurrera, unean uneko hainbat bizikidetzak akordio lortu zituzten, kultu ezberdinak gizarte politiko berean batera bizitzeko aukera eman zutenak. Testuinguru horretantxe sortu ziren, arestian aipatu bezala, besteen sinesmenak onartzeko eta errespetatzeko ideiak; eta ideia horiek dira, hain zuzen, giza eskubideen eraikuntza ideologikoaren jatorri historikoa.

Erlijioa Euskal Herriaren gatazka-testuinguruan

Lan honek gaur egun euskal gizartean aurki ditzakegun gutxiengo erlijiosoen deskribapena biltzen du, baina aurreko garai historikoei buruzko erreferentziak ere baditu. Hala, egungo errealitatea kokatzeko edo gertatzen diren zenbait fenomeno azaltzeko balia ditzakegu erreferentziok. Argitu beharra dago errealitate sozial, kultural edo erlijiosoen euskal adjektibazioak zenbait arazo planteatzen dituela. Batez ere errealitateen deskribapenari ikuspegi historikoa ematen zaionean. «Euskal» zeri jarri eta zeri ez liburu honen xedeetatik at dagoen eztabaida da; nolana ere den, azaldu behintzat egingo dugu, irakurleari erreferentzia gisa zer parametro hartu ditugun adierazteko, behinik behin. Alde horretatik, egungo Euskal Autonomia Erkidegoa da ale honetako edukiaren muga. Nolanahi ere, Euskal Herriaren kasuan saihestezina da euskaltasunaren bestelako esangurak azaleratzea errealitatea deskribatzerakoan; batez ere, beste garai historiko batzuetako ikuspegiak txertatzen ditugunean edota, muga administratiboez aritu ordez, muga kulturalak edo linguistikoak aipatzen ditugunean.

Hortaz, Euskal Herriko aniztasun erlijiosoaren bilakaera historikoari eskainitako kapitulua aipatzen dugunean, bestelako errealitate historiko eta identitarioa izango ditugu hizpide, egungo banaketa administratiboekin bat ez datozen muga geografikoak eta kulturalak dituena. Nortasun kolektiboak muga administratibo sortu berriek eraiki dituztenetan, ikuspegi historikoak ez du arazo handiegirik ematen, aurrez zehazturiko muga jakin batzuen barruan gertaturiko historiaz ari baikara. Baina, Euskal Herriari gertatzen zaion moduan, nortasun kolektiboa (oinarri etnokultural edo linguistikoa) historikoki egungo edozer banaketa administratibo baino askoz ere zaharragoa denean, talde horren jarraipena nahitaez izango da egungo lurralde-eremu zehatza ez bezalakoa.

Euskal Herriko edo euskal herrietako (italieraz gure herriari deitzen dioten moduan) aniztasun erlijiosoaren bilakaera historikoaz hitz egitean, zalantzarik gabe azken bi milurtekoetan lurralde eremua asko murriztu duen errealitate etnokultural eta linguistiko batez ari gara. Gaur egun ere, oinarri kulturala duen errealitate hori ez dator guztiz bat erakunde politikoekin edo lurralde-erakundeekin; izan ere, batetik, argi dago ez duela Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoa hartzen, eta, bestetik, errealitate hori Nafarroako Foru Erkidegoko eta Frantziako Pirinio Atlantikoen departamentuko zati batzuetara ere heltzen da. (Azken horiez hitz egiteko Ipar Euskal Herria terminoa erabili ohi dugu; bertan, adierazitako ibilbide kulturalak bizirik dirauela begi-bistakoa da edonorentzat.)

Arrazoi horiek direla-eta, justifikatuta egongo da liburuko kapituluren batean egun Euskal Autonomia Erkidegoari ez dagozkion leku edo eskualdeak aipatzea, leku horiek Euskal Herriaren esperientzia historikoari estu lotuta baitaude edo egun Euskal Herriaren zati baitira, nahiz eta ez izan Euskal Autonomia Erkidegokoak. Horixe da Ipar Euskal Herriko lurraldeen kasua. Hori horrela izatearen arrazoa Euskal Herriko historia erlijiosoaren zenbait elementu azaltzeko beharra da, autonomia-erkidegoak edo foru-lurraldeak sortu baino askoz ere lehenagokoak baitira. Litekeena da, era berean, momentu jakin batzuetan erreferentzia horiek egin behar izatea ere, erlijio-dinamikak edo erlijio-arteko elkarrizketak hizkuntzan edo kulturean oinarrituriko parametroekin bat antolatzen direnean, banaketa administratiboetan oinarritu ordez.

Azalpen hori egin ondoren, salbuespen horiek gorabehera, gure lanaren muga geografikoa egungo Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeak izango direla berriro ere

esan beharra dago; horrenbestez, egungo komunitateen deskribapena egiterakoan, erreferentzia administratibo horri ahalik eta zorrotzen atxikiko gatzaizkio.

Euskal testuinguruak badu nabarmentzeko beste ezaugarri bat ere; hau da, baldintza geografikoak. Euskal Herriaren geografia fisikoa, dela zentzu hertsian, dela zabalean, ez da Europako beste eremu batzuetakoa baino bereziagoa. Baina esan beharra dago Iberiar Penintsula eta Europako gainerako eskualdeak lotzen dituen ia nahitaezko pasabide dela. Urte luzez bestelakorik nabarmendu nahi izan badute ere, eta nahiz eta jende askoren subkontzientean tankera horretako ideiak bizirik dauden, Euskal Herria ez da inondik ere geografikoki isolatutako lekua. Egia da Euskal Herriak orografia zaila duela isurialde atlantikoan. Baina, ibar estuak edukiagatik ere, Euskal Herria ez da European barrena ibili diren herrientzat oztopo gaindiezina; ondorioz, Europa aldean gertatutako eragin kulturalak edota erlijiosoak igarotzeko traba ere ez. Guztiz kontrakoa, historiak sobera erakutsi baitigu herri ugari egon edo igaro izan dela euskal lurretan. Historikoki mendietan isolatuta egon den Euskal Herriak, isolamendu geografiko horri esker bere hizkuntzari eta tradizioei eutsi dienak, ez du batere justifikaziorik. Pirinioen erdialdea eta ekialdea mendebaldeko bazterra baino askoz ere malkartsuagoak dira; bi isurialdeak banatzen dituzten Pirinio aurreko mendizerrak erraz igarotzeko modukoak dira, Asturias eta Kantabria isolatzen dituen Kantauriar mendikatearen gainerako zatiarekin alderatuta. Are gehiago, Ipar Euskal Herriko mendixka leunek eta Gaskoniako lautadek (literalki Baskonia) asko errazten dituzte joan-etorriak, ez lurrekoak bakarrik, baita ibaietan zehar ere. Bestalde, euskal lurraldeak itsasoari lotuta egonik, beste kultura batzuekin harremanak izan ditu itsaso bidez, ez Europa barruan bakarrik, baita Ameriketan ere (gogoan izan zer nolako euskal presentzia egon zen Labrador penintsulan eta Ternuan mende luzeetan, edota lurralde horietan oraindik ere ikus daitekeen euskal toponimia).

Horrek guztiak esan nahi du Euskal Herria ez dela inoiz lurralde isolatua izan; aitzitik, muga-eremu izan da, ezberdinen arteko kontaktu-gune. Merkataritza bideek ez ezik, Done Jakue bideek ere zeharkatu dituzte euskal lurraldeak lau aldeetatik, mota guztietako kanpoko-eraginak ekarriz, baita erlijiosoak ere, noski.

Egiaz, Euskal Herriaren espezifikotasun handia ez da lurraldearen geografia fisikoa, kultura bera baizik. Berezi, hizkuntza aurreindoeuropar batek gure egunetara arte bizirik iraun izana, kontinentean bizirik geratu den bakarra; logika historikoari jarraiki, desagertuta behar zuen duela mende asko. Hala ere, nola edo hala, euskal herritarrek inguruan izan dituzten eragin kulturalak bereganatu egin dituzte, berena ordezkatu beharrean. Hizkuntzari dagokionez, horri esker euskarak bizirik iraun du, eta euskal kulturaren hizkuntza espezifikoki bilakatu da, nahiz eta hizkuntzaren alorrean esan daitekeen Euskal Herria eta bertako lurraldeak pluralak izan direla, azken hogeitenean behintzat. Euskal herritarra, bere bizilekuaren eta maila sozialaren arabera, kultur aniztasunarekin ohituta egon da eta, ondorioz, gizarteak hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen zituen hainbat funtzioarako (euskara, latina, gaztelania, gaskoia, frankoa edo, orain gutxiagotik hona, frantsesa). Kultur eta hizkuntz eremutik datorren errealitate plural horixe bera gurutzatzen da orain hemen aztertu nahi dugun aniztasun erlijiosoarekin.

Lanaren kapituluetakoa batean Euskal Herriko erlijio-aniztasunaren bilakaera azalduko dugu, eta euskal herritarren kristautasun aurreko erlijioari egingo diogu erreferentzia, oraindik ere nabaria baita agerpen jakin batzuetan. Nolanahi ere, alderdi historikotik begiratuta, egia da aipatu dugun aniztasun kultural eta linguistikoak ez duela intentsitate bereko erlijio-aniztasuna izan azken bost mendeetan.

Hori dela-eta, testuingurua nolabait azaltzeko, Euskal Herriak Aro Garaikidean bizi izan zuen erlijio-esperientziaren zenbait elementu aipatzeko beharra ikusten dugu. Aurrerago azalduko dugunez, XVI. mendearen ondoren ia guztiz desagertu zen euskal lurraldeetako erlijio-aniztasuna, eta euskal herritarren izaeraren eta kristautasun katolikoaren arteko aparteko identifikazioa hasi zen. Ziurrenik Kontrarreformak izugarritzko inpaktua izan zuen euskal gizartean, eta gizartea erlijio-kontuetan bateratzeko balio izan zuen. Ezin dugu ahaztu Jesusen Konpainiaren sortzaileetako bik jatorri linguistiko eta kultural euskalduna dutela: Ignazio Loiolakoa eta Frantzisko Xabierkoa (Xabier, literalki «etxe berria»). Biek izan zuten eragin handia beren jatorrizko komunitateetan, nazioartean proiektio handia izanagatik ere; bereziki Loiolan (Azpeitia), Gipuzkoa erdi-erdian. Harrezkero, Euskal Herriko espiritualtasunaren gune nagusia izan da.

Aro Modernoan sortu zen «euskaldun fededun» esamoldeak islatzen duen ideia; horren arabera, euskaldun izatea (hau da, euskal hiztuna izatea) eta fededuna izatea bat dira, eta fedea, noski, katolikoa baino ezin daiteke izan. Euskal literatura ere ezaugarri erlijiosoz beteta dago; batez ere, idazle erlijiosoz beteta. Mende luzeetan elizgizonek izan zuten euskal literatur ekoizpenaren monopolio ia osoa; hori, noski, elizak gizarte tradizional hartan eskaintzen zituen prestakuntza aukerekin dago lotuta.

Aro Modernoan euskal nortasuna eta katolizismoa erro-errotik identifikatu ziren, eta identifikazio hori Aro Garaikideko zati handi batera ere zabalduko da. Ondorioz, XIX. mendearen amaieran kostaldeko probintziak bat-batean eta modu masiboan industrializatu zirenean eta herrialdeko ideologia politikoak berrantolatu zirenean, mundu tradizionalaren galeraren aurreko erreakzioak erlijio katolikoaren eta euskal nortasuna defendatu nahi zuten ideologiaren arteko harreman estua eragin zuen. Izan ere, XX. mendearen lehen hamarkadetan antolatu zen euskal mugimendu politiko nazionalak gutxiengoan zeuden beste nazio katolikoak hartu zituen erreferentzia gisa; horien artean daude Irlanda, eta, neurri txikiagoan, Hegoaldeko Tirol edo Quebec. Hala, eztabaida politikoak identifikazio erlijiosoari lotuta egongo da denbora luzez, eta horrek Eliza Katolikoaren bilakaerari ia XX. mende osoan zehar eragingo dio.

Izan ere, euskal lurraldeak hazitoki benetan emankorra ziren Eliza Katolikoarentzat eta haren ordenetako bokazioentzat (jesuitak, frantziskotarrak, eta abar). Gizartearen bizitasun demografikoak ere lagundu zion euskal Eliza Katolikoari hedatzen. Elizak landa-ingurunekeo biztanleetatik jasotzen zuen bokazio kopuru handiena eta, hortaz, euskal kultura tradizionalarekin eta euskararekin ia erabat identifikaturiko oinarriak zituen. Euskal eliza Errepublikako garai nahasietatik babesteko asmo politikoak, zenbaiten ustez, «Gibraltar vatikanista» bat sortzeko ahalegina izan ziren, eskatzen zen autogobernuaren babesean. Euskal Herria lurralde erabat katoliko gisa ikusten jarraitzen zuten, artean, Gerra Zibilak euskal lurraldea literalki bi bandotan zatitu zuenean.

1936ko gerrak eragin ideologiko espezifikoak izan zuen Euskal Herrian. Beste leku batzuetan, «bi Espainien arteko» gatazkatzat jo zitekeen, Eliza garaile irten zen enfrontamendua, hain zuzen. Euskal gizartean, ordea, oso bestelako esanahia izan zuen. Euskal Herrian, sektore katolikoaren zati handi bat (batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan) gatazkaren alderdi galtzailean kokatu zen, eta Eliza Katoliko ofizialak berariazko babesa eskaini zienen kontra egin zuten borroka. Hala, gerra ostean, frankismo garaian, ohiz kanpoko fenomeno gertatu zen; gizartearen alderdi katoliko bat, euskal elizaren zati handi bat barne, gatazkaren galtzaileen aldean geratu zen. Horren guztiaren ondorioz, euskal elizak beste herrialde batzuetan gauzatu zuen misiolari-jarduera (Erdialdeko Amerika izan zen gune nagusietako bat), eta erregimen ofizialak bultzatzen ez zuen proiektio sozial eta

kultural sakona izan zuen. Euskal erlijiotasunak bizirik iraun zuen, bokazio ugarirekin iraun ere, baina Eliza ofizialaren norabidetik zertxobait aldentzen zen bide batean. Euskal eliza mugimendu politiko eta sozial alternatibo ugariren egoitza bilakatu zen. Mugimendu horietako batzuk gure garaira arte iritsi dira eta, gainera, espektro katolikoaren barruan barne-heterogeneotasun gune batean kokatuta. Euskal eliza horren babespean, oinarri ekonomikoko gizarte ekintzak ere sortuko dira; esaterako, Arrasateko mugimendu kooperatibista.

Dena dela, euskal nortasunak erlijio katolikoari oso lotuta jarraitu zuen, hirurogeita hamarreko hamarkadara arte behintzat. Hirurogeiko hamarkadan, elizbarrutiko edo ordena eta kongregazio erlijiosoetako apaiztegiek eliza elikatzen jarraitu zuten, hautagaiz betetzen. Hala ere, errealtate hori bat-batean eten zen hirurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdialdean, eta elizaren oinarri haiek instantzia politiko berrietako agintari bilakatu ziren. Euskal gizartearen sekularizazio prozesua azeleratua eta zakarra izan zen, bizkorra baino gehiago. Apaiztegiak ia bat-batean geratu ziren hutsik, eta gizartea izugarri dibertsifikatu zen garai politiko berrien barruan. Are gehiago, hirurogeita hamarreko hamarkadan, izaera antiklerikal biziko joerek indar hartu zuten euskal gizartean. Hala eta guztiz ere, nortasun erlijiosoek (edo antierlijiosoek) bizirik jarraitu zuten, garaiko euskal gizartearen eztabaida eta haustura politikoetan.

Zalantzarik gabe, gorabehera horiek baldintzatu egin zuten euskal gizartean egungo aniztasun erlijiosoa proiektatzen den testuingurua. Edonola ere, Euskal Herriak gizarte gatazkatsu eta konplexua izaten jarraitzen du oraindik. Gatazkatsua eta konplexua da, esaterako, lurralde mugaketari dagokionez, erakunde-esparru konplexua duelako, pertenezia-sentimendu desberdinak dituelako, hizkuntza aniztasunagatik eta biltzen duen asimetria kulturalagatik. Gizarte honetan pixkanaka biziberritzen ari den erlijio-aniztasuna lur oso desorekatu eta irregularrean ari da ernetzen, eta horrek areagotu egiten du hura aztertzeko interesa eta balizko bilakaera.

Emaitza: lanaren egitura

Aurreko atalean deskribatu dugu gure azterketa zer testuingurutan proiektatu dugun. Esan bezala, testuinguru horrek zenbait inplikazio ditu lanaren amaierako aurkezpenean, eta lanaren egitura azaltzeko balio dute. Lanaren helburu nagusia egungo EAEko erlijio-aniztasuna deskribatzea bada ere, landuko dugun esparru kultural eta sozialean garrantzitsutzat jotzen diren erreferentzia espezifikokoak biltzen ditu liburu honek. Esparru hori, esan bezala, bereziki konplexua da.

Liburua zazpi ataletan dago egituratua, eta horietako batzuk kapitulutan daude banatuta. Azterlanaren eremua justifikatzen duen sarreraren ostean, eta irakurleak baloratu ondoren, dokumentuaren hurrengo kapituluak erlijio-aniztasunari erreferentzia egiteko kontzeptuak azaldu nahi ditu bere testuinguruan, euskal gizartearen tankerako gizarte moderno batean modernotasuna trazatzen duen sekularizazio-prozesuarekin loturik. Horren ondoren, euskal erlijio-aniztasunari ikuspegi historikotik helduko dion kapitulua dugu. Bertan, euskal gizartean beti egon diren deribatu plural batzuk aurkeztuko ditugu. Horrez gain, euskal herriaren ibilbide erlijiosoa deskribatuko dugu kristautasun-aurreko garaitik hasita, egungo gizartean garai hartako zenbait elementu bizirik baitiraute. Euskal Herriko kristautasun-aurreko erlijioaren deskribapen laburrak osatzen du antzinaroko espiritualtasunaren panorama anitza, eta gure kultur eremuan kristautasuna erlijiotasun garrantzitsuaren hasieratzat hartzeko ohiko erredukzionismoa gainditzen lagunduko digu. Bestalde, erreferentzia historiko eta aurre-kristau horiek egokiak dira, egungo mugimendu

espiritual berritzaileenetako batzuk inspiratzen dituztelako edo haiekin bat egiten dutelako, baita erlijio arteko elkarriketa-ekimenetako batzuekin ere.

Irakurleak ikuspegi historikoaren barruan kokatzera bideraturiko kapitulu honen barruan, azken hamarkadetan euskal gizarteko gehiengo talde erlijiosoaren barruan gertatu diren mugimendu garrantzitsuenetako batzuk aipatuko ditugu; bereziki, oinarriko kristau komunitateak, haietako batzuk Euskadin sortuak baitira. Hainbat arrazoi direla-eta, Euskadi erakunde erlijioso independenteentzat lur oparoa izan da hamarkadetan, baita gehiengo den esparru katolikoaren barruan ere; horregatik, atlas honen helburuari erreparatuta, gehiengoaren gutxiengotzat har daitezkeen komunitate-talde eder bat sortu da bertan. XX. mendearen bigarren erdialdean gertatutako fenomeno hori interesgarria dela eta erlijio-aniztasun ez katolikoarekin batera aipatzea merezi duela iruditu zaigu; izan ere, erlijio-pluraltasun handiagoa islatzen du, nahiz eta herrialdeko gehiengoaren fede tradizionalaren barruan izan.

Laugarren atalean, gaur egun EAEn gutxiengoan dauden erlijio-komunitateen deskribapena bildu dugu. Kristautasun protestantearen edo ebanjelikoaren aniztasunaren deskribatzeak, berriz, beste erlijioena azaltzeak baino luzeago joko digu nahitaez. Horrek bi azalpen ditu: batetik, EAEn eliza horien adar asko dagoela eta, bestetik, indar handia hartu dutela jende kopuruari dagokionez. Nolanahi ere, beste kasu batzuetan, literatur hedaduraren eta gizartean duten presentziaren arteko proportzioa ez da batere orekatua; fenomeno hori komunitate musulmanetan ikus dezakegu batez ere. Komunitate horien presentzia handia bada ere, haiei eskainitako kapitulua ez da proportziorik luzea; izan ere, islamak ez du adar edo eliza bereizi asko, mundu ebanjelikoak edo protestanteak ez bezala.

Zehaztasun horiek guztiak eman ondoren, ekialdeko kristautasun edo kristautasun ortodoxo deitzen diogunarekin hasiko dugu aurkezpena; ondoren, erreforman, protestantismoan edo ebanjelismoan jatorria duen aniztasun kristauarekin jarraituko dugu. Inspirazio kristauko aniztasuna beste komunitate batzuei buruzko deskribapena biltzen duen kapituluarekin itxiko dugu; esaterako, Zazpigarren Eguneko Eliza Adbentista, Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Eliza, Jehovaharen Lekukoen Eliza edota Lectorium Rosicrucianum Nazioarteko Eskola. Aniztasun kristauaren ondoren, eta Liburuko erlijioak izenekoekin jarraitzeko, Euskadiko islamari eskainitako kapitulua daukagu. Azkenik, bosgarren kapituluan, elkarren artean desberdinak diren beste tradizio erlijioso batzuk bildu ditugu, egun Euskadin portzentaje oso-oso txikian aurki ditzakegunak. Hemen kokatzen da, lehenik, budismo tibetarra, ondoren, Bahá'í fedea eta Zientziologiaren Eliza, guztiak ere oso berriki ezarritakoak euskal gizartean. Kapitulu beraren barruan, aniztasun erlijioso-espirituala osatzeko, dokumentu honetan «espiritualtasun-mugimendu berriak» deitu ditugun zerrenda laburra erantsi dugu. Izen hori erabiliagatik ere, ez genieke azaldutako gainerako tradizioei baino garrantzi txikiagoa eman nahi; aitzitik, egun dagoen esperientzia eta bizipen aniztasuna goratu nahi genuke, sortu berriak izan ala sendotuak izan, erlijio hitzak esan nahi duenaren eremu semantiko hertsira mugatu gabe.

Argitu beharra dago, halaber, aniztasun ortodoxoa deskribatzen duen kapituluan Euskadiko eliza greko-katoliko ukrainarra aurkeztu dugula. Hori ez da zuzena ikuspegi formal zorrotzetik, eliza greko-katolikoak Eliza Katoliko erromatarraren osotasunaren zati eta kide baitira. Nolanahi ere, hainbat arrazoi direla-eta, elizok gure lanean biltzeko erabakia hartu dugu; izan ere, komunitate horiek antolamendu eta erritu bereziak dituzte, eliza ortodoxoekiko hurbiltasun sinboliko eta estetikoak dauzkate, eta euskal gizartean izaera berritzailea dute, besteak beste. Hala, haiei buruzko azalpena gainerako ekialdeko elizenaren jarraian ipini dugu. Bosgarren zatia, berriz, gizarte jakin bateko aniztasuna

deskribatzeko garaian garrantzitsua den beste fenomeno erlijioso bat biltzen du. Alegia, aniztasun espiritual gero eta handiagoaren ondorioz, azken urteetan sortzen joan diren erlijio-arteko elkarrizketa erregimenez ari gara. Hemen ez ditugu komunitate, eliza edo erakunde erlijioso konketuak deskribatuko, baina argi dago azterketa honetarako egokiak direla; bereziki, ekimen horietako batzuek beste komunitateekin edo espiritualtasun mugimendu berriak izenekoekin duten hurbiltasuna aintzat hartzen badugu. Bestalde, erlijio-sinkretismoa ere hasi da sartzen euskal gizartean. Edonola ere, interesgarria da nabarmentzea Euskal Herrian erlijio-arteko elkarrizketen bultzadan dinamismo nabarmena gertatu izan dela. Fenomeno horrek arreta berezia merezi zuen azterketa honetan, bai eta laneko beste atal batzuetan deskribaturiko taldeekin dituen harremanek ere. Azterlana amaitzeko, ondorio labur batzuk eta zenbait eranskin ipini ditugu. Helburua informazio garrantzitsu eta praktikoa biltzea izan da, irakurlea liburuaren aurreko edozer ataletan eroso koka dadin. Eranskinen artean, EAEko gutxiengo erlijio-komunitateen direktorioa edo zerrenda jarri dugu; hala, nahi duenak, komunitateekin harremanetan jarri ahalko da edo, besterik gabe, kopurua edo kokapen geografikoa baloratu. Argazkien eranskinak, bestalde, gure erkidegoan dauden zenbait komunitateren kultu edo bilera lekuen irudi bisuala eskaini nahi du. Bestalde, irakurlearentzat erabilgarri izan daitezkeen beste material batzuk jarri ditugu eranskinetan; esaterako, bibliografia-zerrenda, zenbait helbide elektronikoen interesgarri ere biltzen dituena. Azkenik, gai honetako bi adituk egiaztaturiko beste bi dokumentu oso erabilgarri jarri ditugu, lana osatzeko. Horietako batean, Jose María Contrerasek egun Espainiako Estatuko aniztasun erlijiosoaren arautzen duen esparru juridikoaren azalpen labur eta pedagogikoa egin du. Beste dokumentuan, Francisco Díez de Velascok hainbat erlijioaren oinarritzko gaiei erreferentzia egiten dieten terminoen glosarioa egin du. Horri guztiari esker, irakurleak nolabaiteko irudi osoa egin ahal izango du egungo euskal gizarteko erlijio-aniztasunari buruz. Hala eta guztiz ere, zenbait datu zehatzen arriskuaz eta aurkeztu dugun argazki finkoaren halabeharrezko bilakaeraz ohartarazi nahi zaituztegu. Horregatik, lanaren alderdirik garrantzitsuena ez dira elementu kuantitatibo edo informatibo konketuak, baizik eta egoeraren irudi orokorra eta bilakaera jakin baten deskribapena. Atal kontzeptualenek, historikoen, baloraziozkoen edota osagarriek protagonismoa izango dute lanean; sakontasun eta osotasun handiagoa bermatuko dute, eta sendotasun handiagoa emango diote zati deskriptiboari. Egun euskal gizartean dugun pluraltasun espiritualaz irakurle bakoitzaren analisisa sendoago bilakatzeko bide eman behar du osagarritasun horrek.

II. ESPARRU KONTZEPTUALA: SEKULARIZAZIOA ETA ERLIJIO-ANIZTASUNA

Fernando Bayón Martín eta Patxi Lanceros Méndez

Sarrera: politikarien jarrera erlijio-aniztasunaren erronken aurrean

Egoki deritzogu erlijio-aniztasunak sortu dituen erronkei erantzuteko ahalik eta praktika politiko egokienak zein diren hausnartzeari. Horretarako, espazio publikoaren modulazio historiko eta sozialak zein diren irudikatu behar da aldeztu aurretik; espazio publiko horretan, aniztasun hori komunitatearentzako ikusgai bilakatuko da, kulturalki eraginkor eta etikoki konprometigarri.

Bizikidetzako espazio publikoa, prozesu administratiboz, araudiz eta ikasketa kulturalaz osaturiko plexu ordenatua izan beharrean, berrinterpretazio politiko tirabiratsuen mende dagoen etorkizuna da. Erlijio-aniztasuna espazio publikoaren egungo eraikuntzaren adiera dinamikoaren bat da; izan ere, lotura sozialak berriro definitzeko moduari eragiten dio, baita estatuek eta autonomia erkidegoek ezberdintasuna artatzeko eskaerak eta ideal berdintzaileak orekatzeko lege-mekanismoak sortzeko moduari ere.

Mendebaldeko modernitatearen bidegurutze-lanak egin dituen kontzeptuetako bat, zalantzarik gabe, sekularizazioa da; hain zuzen, termino horrekin laburbildu dute pentsalari sozial eta politiko askok Europako gizarteetako espazio publikoa osatzeko prozesu determinatzaileen bat. Are gehiago, esan genezake erlijio-aniztasunak gure gizarteetan nola parte hartzen duen eta nola mamitzen den aztertzeko xedez egindako edozer saiakerak, lehenik eta behin, ebaluatu beharko lukeela zer garrantzi izan duen sekularizazioaren hipotesiak gure iruditeria soziala osatzeko prozesuan.

Erljio-aniztasuna, aukera ez ezik erronka politiko ere bada; halaxe diote ia aho batez foro anitzenek. Erantzuna merezi duen fenomeno (edo fenomeno-multzoa) inondik ere.

Nolabait administratu beharrekoa, gehien menderatzen gaituzten metafora sozialen konpultsio ekonomikoa ahituta. Arreta eta kudeaketa egokiak behar ditu, horrenbestez, jorratzen ari garen auziak. Izan ere, erretorika horiek (*erronka, aukera, gatazka, administrazioa, kudeaketa*) bereganatzen eta bultzatzen dituen «guk» horrek, hein handi batean, arazoa arauzkotzat jotzen du aldeztu aurretik; hau da, nola lor daitekeen aniztasun konfesionala errekonozituko eta ordezkatzeko duen bizitza politikoa³¹, bakoitzari dagokion aldearekin.

Eta hori guztia esandako «guk» hori herritarren ikuskera substantzialen mesedetan erabili ezin dela gero eta gehiago sinesten duen zientzia politikoaren testuinguruan, gainera. Gaur egun, erlijio-aniztasunak esparru demokratikoak eta koaliziozko elkarrizketa-prozesuak eskatzen ditu. Hori aintzat hartuta, inklusio zibikoak ezingo luke konforme egon kritikarik gabeko egokitzapenarekin; hau da, «besteari» aldebakarreko egokitzapena ezartzen dioten «joko-arauak» ez dira baliatuko, herritarren ikuspegi komunitaristak baliogabeak izango baitira. Tariq Modood jaunak dioen bezala, herritar izatea ez da bestek

³¹ Cfr. Butler, Judith (2010), *Marcos de guerra. Las vidas loradas*, Bartzelona, Paidós, 192 or. eta hurrengoak.

gu aintzat hartzeko eskubidea izatea bakarrik, baita aintzat hartzeko baldintza horiek eztabaidatzeko eskubidea izatea ere, *ordena baten barruan*.

Zalantzarik gabe, galdera garrantzitsua da (aniztasunaren erronkei erantzuteko zer bizi politiko den egokiena), agian erabakigarria ere bai; baina nekez topatuko diogu erantzunik, ez badugu eremu publikoaren ontologia aintzat hartzen (jakinda eremu publikoaren adierazpena zalantzan dagoela) erlijio-aniztasunaren ideia gatazka edo aukera politiko gisa txertatzen dugunean. Azken batean, soluzio politikoaren labirintoan tokirik aurkituko badugu, alde aurretik eremu hori egokitu duen «araua» zein den ulertu behar dugu; geroago araugintzaren inguruko eztabaidaren funtsa izango den «araua», alegia.

Espazio publikoa modernitatean, bere egitura ideologikoetan eta aldaketako prozesu historikoetan nola modelatu diren «arau» hori, besteak beste, sekularizazioaren bidez azaldu digute filosofiak eta gizarte zientziak.

Sekularizazioa mendebaldeko modernitatearen bidegurutze gisa

Max Weberrek erlijioaren soziologiari buruzko saiakeretan «munduaren xarma-galera» (*Entzauberung der Welt*) kontzeptua txertatu zuen, kultura modernoaren jaiotzari buruzko bere tesiaren luzapen gisa; kontzeptu horren bidez, bizitzaren bide gero eta arrazionalagoari erreferentzia egiten zion, espirituaren alderdi guztietan (ekonomikoa, etikoa, estetikoa, eta abar). Ekarpen honek eta beste askok *status quaestionis* deiturikoa soildu zuten XX. mendearen hasieran. Hainbat eta hainbat diziplinatatik abiatuta, sekularizazio kontzeptua osatzen joan zen. Diziplina bakoitzak interes eta sentsibilitate oso bereziak zituen; dela Troeltsch, Sombart eta Simmelaren gizarte zientzia, dela hogeigarren hamarkadako teologia dialektiko protestantea, bere adierazpen-organoa *Zwischen den Zeiten* aldizkariaren bitartez. Sekularizazioa mundu moderno profanoaren autonomia ulertzeko modua hartu zuten, eraikuntza teologikoen desmitologizazioaren bitartez.

Dena dela, kontzeptuaren inplikazio analitikoak aztertuko bagenu, ez genuke ahaztuko *mundanizazioa* ez dela Historia Unibertsalaren kontzeptu berri baten bitartez zerua/lurra dualismoa deuseztatzea; kontzeptu berri horrek, antza denez, *eschaton* judeokristaua barneratu egingo luke, eta denbora profanoaren kanpotik bat-batean sartzen den gertaera salbagarri eta apurtzaile izatetik espeziearen bilakaera moralarekiko immanente diren prozesu-sorta izatera aldatu, gertakariak berez eta pixkanaka bideratzen dituen prozesu-sorta izatera, alegia. Kontua ez zen izan XX. mende hasieran guztiari buruzko eta denetarako denbora sekularraren ideia immanentea hedatzea; ez zen izan trazezientzia oro urtzea eta, ondorioz, mundutarraren eta jainkotiarren arteko hondar-dualismo oro desagerraraztea, profanoaren eta sakratuaren arteko hondar-dualismo oro, alegia.

Gaur egun sekularizazioa eslogan lauso samar bilakatu da, eta hitzaren erabileraren gainean ia inolako adostasunik ez dago. Horrenbestez, toki batetik bestera oso desberdin erabiltzen dela kontuan harturik, hobe izango da terminoaren historia kontzeptualari jarraitzea, hein batean bada ere. Reinhardt Koselleck³² historialariak azaltzen duen bezala, sekularizazioak muin instituzional nabaria du; haren esanahiaren inguruan ez dago zalantzarik. Terminoa frantsesetik dator eta XVI. mendearen amaieran sortu zen; haren bitartez, erlijio-gizon arrunt bat egoera sekularrera igarotzeari egiten zitzaion erreferentzia (hortaz, klero erregularra *saecularis* izatera igaro zen). Eta horixe da zuzenbide kanonikoak hitzari eman dion zentzu hertsia, gaur arte. Nolanahi ere, 1648ko Westfaliako Bakearekin

³² Aurrerantzean honako lan honetan oinarrituko naiz: Koselleck, Reinhart (2009), *Aceleración, prognosis, secularización*, Pre-Textos, Valentzia, 41. or. eta hurrengoak.

erakunde juridiko hori erabat zabaldu zen. Münster eta Osnabrückeko bake-negoiazioen nahas-mahasean, hogeita hamar urteko gerraren ostean, Frantziako ondareak kontzeptu politiko berri bat ekarri zuen termino zaharraren (*sekularizazio*) bidetik; hala, Erdi Aroko Elizaren ekintza bat izendatuko zuen aurrerantzean, nahiz eta ordura arte ez zen sekularizazio hitza erabili hura izendatzeko. Mandatari frantsesaren aburuz, *sekularizazio* hitzak Elizaren ondareak sekularren eskuetara igarotzea esan nahi zuen.³³

Hortaz, XVII. mendetik aurrera, sekularizazioak, gaur arte indarrean iraun duen zuzenbide kanonikoaren muin bat izateaz gain, adiera politikoa ere badu, Elizaren jabetzak edo aldi baterako ondasunak murriztu edo desjabetzen dituen ekintza juridiko den aldetik; ekintza juridiko hori, gainera, politikoki oinarritua dago, ondasun finantzario horiek xede berrietara bideratzeko (pedagogikoak edota ekonomikoak). Sekularizazioaren adiera juridiko-kanonikoaren eta adiera juridiko-politikoaren arteko tentsioak modernotasunean erabakigarri den terminoaren arrastoa erakutsiko digu; bestela esanda, Estatuak aldi baterako jabetzaren gaineko monopolio gogoia erakutsi zueneko, Elizako agintariak eremu horretatik kanporatuta.

Dena den, gure azterlanerako alderdirik esanguratsuen «sekularizazio» terminoak XVIII. mendetik XIX. mendera izandako esanahi aldaketa da. Hori horrela izanik, 1800. urtearen inguruan terminoak zentzu kanonikoari eusten zion, bere zilegitasun idiosinkrasiko eta guzti. Baina, bien bitartean, sekularizazioaren zentzu juridiko-politiko ere zabaltzen ari zen; hau da, Elizaren pisuaren estatuarengana ari zela igarotzen. Sekularizazio kontzeptuaren ilustrazio berantiarreko egokitzapen honen bidez, terminoari historiaren filosofiarekin hobeto ezkontzen den dimentsioa eman zioten. Eta dimentsio horrexek kokatzen du sekularizazioa gure azterlanerako garrantzitsua den leku kontzeptualean, jarraian erakutsiko dugun moduan.

Horrenbestez, zer da sekularizazioa, egungo filosofia politikoaren eta pentsamendu sozialaren ikuspegitik? Modurik deskriptiboenean, terminoaren erabilerarik ohikoenak mundu modernoaren sorrera azaltzeko hipotesiari egiten dio erreferentzia. Zer dio hipotesi horrek? Europako modernotasunaren eraikuntza nagusiak (Historia Unibertsala, aurrerabidea eta tankera horretako kontzeptuak), egiaz, salbazioaren doktrina judeokristautik ateratako adierazpen teologikoen itzulpen direla, mundu guztiarentzat eskuragarri eginikoak.

Hala, Europako modernotasuna azaltzeko teorema gisa sekularizazioa defendatzeak inplikitzen duenez, pentsamendu modernoak aldarrikatzen duen historiaren filosofiak barne hartzen ditu premisa teologikoak. Eta horrek, aldi berean, irismen handiko ondorio praktikoak ditu jorratzen ari garen gai honetarako: Giacomo Marramaok dioen moduan, modernotasunaren ideia unibertsalista nagusiak (historia, aurrerabidea, iraultza, emantzipazioa...) problematikoago eta eztabaidatuago bilakatu direnean, sekularizazioa (teorema gisa edo gatazka-gune gisa) jatorriz juridiko izan diren aplikazio-eremuetatik atera da, eta nonahi aplikatu daitezkeen kontzeptu bihurtu da (eremurik anitzenetan; esaterako, teologian, filosofian, zientzia politikoetan, soziologian...).

³³ Ezin dugu alde batera utzi Hogeita Hamar Urteko Gerraren egoera konkretuan, izendapen horrek protestanteen aurkako kutsua zuela: Alemaniako printze protestanteek Erreforma deitzen zutena galarazi nahi zitzaizkien, Eliza Katolikoaren lurak konfiskatzea, 1520tik zabaldua zegoen fenomeno. Kosellecken lanez gain, honako azterlan hauetan oinarritu naiz: Marramao, Giacomo (1998), *Cielo y tierra. Genealogía de la secularización*, Bartzelona, Paidós; Ibid. (1989), *Poder y secularización*, Bartzelona, Península. Luhmann; Niklas (2007), *La religión de la sociedad*, Madril, Trotta, 8. kap.; Lübke, Hermann (1975), *Säkularisierung. Geschichte eines ideenpolitischen Begriffs*, Freiburg, Karl Alber; Löwith, Karl (2007), *Historia del mundo y salvación*, Buenos Aires, Katz; Gauchet, Marcel (2005), *El desencantamiento del mundo. Una historia política de la religión*, Madril, Trotta

Aniztasun erlijiosoa kudeatzeko beharraz eztabaidatzen dugun eremu publikoaren ezaugarri nagusia modernotasuna izan da, baina modernotasuna gero eta «desakralizazio» handiago gisa hartuta; hala, gaur egun argi dago konkurrentzia erlijiosoak txikiagotu egiten dituela edozer federen ahalguztiduntasun-fantasiak, fede bakoitzak duen parte-hartze, publizitate eta zentzuzko proiektu erlijiosoa ezartzeko eskubideari kalterik eragin gabe, indarreko lege-esparruei jarraiki. Modernotasunaz eremu publiko desakralizatuaren sortzaile gisa hitz egitea zuzena da, Estatuako politiken ikuspegitik, behinik behin; edonola ere, ez litzateke hain zuzena izango erlijioak gizarte loturak sortzeko rola erabat murriztu duela sinestea, modernotasuna dela-eta. Konfesionaltasuna gizartearen lokailu gisa agertzen da berriz, esaterako, biztanleria-mugimendu handia duten gunetan (adibidez, etorkinak jasotzen dituzten estatuetan), edota elkartze-sareetan nahasmenduak izan dituzten gunetan, antolatzeke premia oso dinamikoak eraginda. Kasu horretan, begi bistakoa da erlijio-sinismena etorkinak kidetasunen arabera geografikoki biltzeko irizpidea dela. Hau da, nazioz haraindiko komunitate-lotura sendotzeko eragile positiboa.

Hori horrela izanik, oso garrantzitsua da eremu publikoaren «desakralizazio» eta «sekularizazio» prozesuen artean lotura akritikoak saihestea. Lehenik eta behin, ezin dugu sekularizazioa galera gisa interpretatu. Sekularizazio-prozesuek ustez hondatutako osotasun erlijiosozko iraganari buruz jarduteko hitzaz abusatzen duten jarrera nostalgikotxo horien artifizialtasuna kontu handiz aztertu behar da. Hermann Lübbek zioen bezala, sekularizazioaz hitz egitean ez gara erlijioaren atrofiaz edo erlijiosotasunaren urritze ez-legitimoaz ari. Ezta gizarte eremuko ezaugarri erlijioso edo eklesiastikoen murrizte kuantitatiboaz ere. Eztabaidagaia ez da modernotasunarekin horrelakorik gertatu den ala ez. Eztabaida dezakeguna zera da, sekularizazioa ote den horri erreferentzia egiteko terminorik egokiena.

Zientzia politikoen eta gizarte zientzien esparruan «sekularizazio» kontzeptuaren izaera konplexu eta polemikoa ulertzeko moduetako bat Hans Blumenberg filosofoak kontzeptu horri eginiko kritika da; batez ere Karl Löwith jaunaren liburu ezagunetik abiatuta (*Weltgeschichte und Heilsgeschehen*). Hona hemen liburuaren tesi nagusia: historiaren filosofia modernoa, aurrerapenaren ideia unibertsalistan oinarriturikoa (*Fortschritt*), orientazio kristaudun historiaren teologia sekularizatu izanaren ondorio da. Sekularizazioa modernotasunaren jaiotza azaltzeko baliatzen duen teoremaren giltza dugu aurrez aurre: ikur teologikoak transzendentziaren aurrean hautsi eta erabat mundutartzen dira, dinamismo historiko immanentera igarota. Prozesu horrek bi adibide pribilegiatu ditu; bata probidentziaren tokian aurrerabidea ipintzea, eta, bestetik, Jainkoak historiako subjektu absolutu izateari utzi eta gizakia ipintzea.

Karl Löwith jaunak behin eta berriz esaten du mendebalde modernoan sekularizazio-prozesuaren unitate kulturalari eutsi egin behar zaiola, eta denborari buruz daukagun «gure» esperientzia gisa tratatu behar dela. Zein da ezaugarri nagusia? Historiaren teologiak eta haren adierazpen sekularizatuak, aurrerabideagatiko fedearen modalitatearen bitartez, etorkizuna ardatz duen denborazkotasuna partekatzen dute; hau da, denborak atzera bueltarik gabe egiten duela aurrera etorkizunerantz. Löwithek dioenaren arabera³⁴, ulertezina da hori modernotasunaren matrize judeokristauaren erreferentziarik eduki gabe, bai oinarritzko ezaugarrietan, bai garapenetan.

³⁴ Honako honi lotzen natzaio: Löwith, Karl (1998), «Historia universal y salvación», in *El hombre en el centro de la historia*, Bartzelona, Herder; Ibid. (2007), *Historia del mundo y salvación. Los presupuestos teológicos de la filosofía de la historia*.

Bi gauza nabarmentzea komeni da. Lehenenik eta behin, «sekularizazioa» zentzu hertsian defendatzen duena ez dago modernotasunaren ondoren erlijiotasunak indarra galtzearen alde. Alderantziz, modernotasunaren ezaugarri nagusietako bat eskatologia judeokristautik sortutako denborazkotasun-fenomenoa dela uste du; modu teorikoagoan esanda, historiaren gainbalorazio modernoa, etorkizuna ardatz duen denborazkotasun gisa, pentsaezina litzatekeela arbaso teologikorik gabe.

Bigarrenik, Löwithen jarreraren aldekoek, sekularizazioa modernotasuna zehazteko hipotesia dela diotenek, erlijio-aniztasuna kudeatzeko interesa duen edonorentzat transzendentzia izugarria duen ideia bat baliozkotu ohi dute beren iritziarekin; hau da, edozer arrazoi gorabehera, Mendebalde kristaua dela, eta, neurri horretan, bere buruaz duen kontzientzia historikoa ere eskatologikoa dela, salbazioa lortzeko fede judeokristauak etorkizunez *blaitzen* baitu modernotasunaren historiaren horizonte mundutartua. Nolabait esateko, sekularizazioak kristautasunaren ondorengo munduaren horizontea zehazten laguntzen du. Mundu horrek bere egin du gizadiari zentzua emango dion helburuaren edo helmugaren ideia; hori bai, garai batean oinarri soteriologikoa ematen zion fede alde batera utzita. Löwithek dioenaren arabera, ekintza-bitartekoak xarma galtzen ari dira eta zentzua bilatzeko ahaleginetan ari gara; matrize eskatologiko kristauaren barruan, ordea. Eta horixe da sekularizazioaren aldeko pentsatzaileen jarrera ondoen definitzen duen ezaugarria (besteak beste, Gianni Vattimo eta postmodernitate-garaiko beste zenbait filosofo).

Vattimok ez ditu alde batera uzten Mendebalde kristaua eta sekularizatua dela dioen tesiaren ondorio teorikoak eta, tarteka, ezta praktikoak ere (jarrera historikoen eta aukera politikoen oinarriaren gainean epaitzen duten aldetik).³⁵ Teoria horri jarraiki, europarrek beren nortasun kulturala berresteko duten beharrak elementu bateratzaile bakarra edukiko luke: guztien jatorri kristaua, modu sekularizatuan. Hortaz, zenbait iruzkingilek horrenbeste aipatzen duten kristautasunaren bizitasun berria, finean, kristautasuna Mendebalde gisa berriro aurkitzea izan liteke, edo, bestela esanda, modernotasuna kristautasunaren alternatiba erradikala dela uste izatea zeinen okerra den ohartzea. Hala eta guztiz ere, kristautasunaren eta Mendebaldearen «baliokidetasunaren» tesiari jarraiki, sekularizazioaz hitz egiteak ez du esan nahi, egile italiarraren hitzetan, egiazko jatorrietara edo bidegabeki abandonaturiko egoera sakratura itzultzea modu integristan; baina ezta kontrakoa ere, hau da, modernotasunak berezko duen bokazio espezifikora, tradizio judeokristauarekiko autonomia den bokaziora itzultzea.

Azken hori da sekularizazioaren teorema sakontasun eta indar handienarekin kritikatu duen egilearekin, Hans Blumenberg jaunarekin, argien loturiko jarrera.³⁶ Bere ustean, sekularizazioa «ilegitimitate historikoaren kategoria» da. Oinarrian «desjabetze» eredu bat dauka eta, haren arabera, jabe legitimoak (modernitatea) berea den ondasun bat nola kentzen dioten ikusten du (aurrerabidea), sorkuntza teologiko baten *remake* mundutartu tankera duen espedientearen bitartez. Blumenberg jaunak aurrerabidea egiazko berritasun gisa aldarrikatzen du, eta eskatologia judeokristauaren besoetatik askatzen du. Sekularizazio kategoria modernotasunaren genealogian aplikatzeak erruaren zama ipintzen dio modernotasunari, nortasunaren usurpazioarena. Modernotasuna «sekularizatutako

³⁵ Honi buruz honako bere liburu honetan: Vattimo, Gianni (2003), *Después de la cristiandad. Por un cristianismo no religioso*, Bartzelona, Paidós, 90. or. eta hurrengoak.

³⁶ Honako honi lotzen natzaio: Blumenberg, Hans (2008), *La legitimación de la edad moderna*, Valentzia, Pre-Textos. Bere pentsamoldearekiko sarrera hemen: Wetz, Franz Josef (1996), *Hans Blumenberg, La modernidad y sus metáforas*, Valentzia, Edicions Alfons el Magnànim. Bayón, Fernando (2008), «Extremismo y desencanto. El nacimiento de la modernidad del espíritu de la política radical», in *ISEGORÍA, Revolución y secularización*, 39. zk., 267-289. or.

ondasun» gisa diagnostikatzea teologiaren oinordeko eskergabeetan oinordekotza irekitzeagatiko erruduntasun-sentimendua piztu nahi duen teologumenoa baino ez da.

Nabarmentzekoa da historiaren ikuspegi eskatologikoa eta progresista ideia oso heterogeneoak direla, sekularizazioaren defendatzaileek diotenaren kontra. Sekularizazio-kategoriak Mendebaldearen eta kristautasunaren baliokidetasunaren gainestimazio abusiboari bide ematen dio, eta, horrez gain, galarazi egiten du mundu modernoan «giza autoafirmazioaren» ideiarene bitartez sartu den aro berria ulertzea, modu irrazionalean eskura dugun borondatearen artetik bide egiten duten norbanakoen erabakiak, naturaz gaindiko indar argiezinei men egiten dietenak (Erdi Aroko absolutismo teologikoa hain ohiko zituenak), modernotasunera iristeko benetako bira kopernikar gisa. Azken finean, Blumenbergen aburuz, kontzientzia historiko modernoa ez da sortu historia sakratuaren ideia kristauaren sekularizaziotik; izan ere, Itun Berriko soteriologia, Löwithek berak onartu behar izan zuen bezala, ezin azal daiteke historiako kontzeptu gisa, edonolakoa izanik ere.

Honaino sekularizazio-kategoriaren inguruan irekitako eztabaiden azaleko errebaso egin dugu. Ikusi bezala, kategoria honek birdefinizio edo birsemantizazio zorrotzak izan ditu eremu juridikoan, bai Erreformaren garaian, bai Aro Garaikidean; batez ere Mendebaldearen eta kristautasunaren arteko baliokidetasunak nabarmentzeko aukerari edo aukera gabeziari dagokionez. Azken puntu hori da, zalantzarik gabe, gure aniztasunaren eremuak nola eraiki diren aztertzeko edozer argudioren froga-harri. Batzuei paradoxa irudituko bazaie ere, sekularizazioaren teorema onartzen duenak aurrez onartzen du, nolabait, aniztasun horren erroa kulturaketa judeokristauan dagoela eta bertatik zabaltzen dela; definitzen lagundu zuten espazio politikoen zein prozesu historikoen urrats liluragabe edo matrize arrazionalizatu gisa bada ere, erabat dinamiko.

Pentsamendu laikoa eta herritarrak: pluralismoaren baldintzak eztabaidan

Aurreko lerroetan sekularizazio terminoaren historia kontzeptualaren errebaso laburra egin dugu, adiera juridiko-kanoniko eta politikotik zentzu filosofiko hertsienara; asmoa eztabaida sortzea izan da, zaila izaten baita eztabaida hori saihestea aniztasun erlijioso administratzeko erronkaren aurrean politikariek zer jarrera duten proposatu behar den bakoitzean. Aniztasunaren joko-eremuaren eraikuntzan lagundu duten prozesu soziohistorikoen kontakizuna da sekularizazioa. Era berean, ikusi dugu sekularizazioak, lotura sozialaren definizioan bulkada erlijiosoak neutralizatuko dituela pentsarazi beharrean, gure espektatiba modernoan eta judeokristautasunaren salbamen-teologiaren arteko nolabaiteko zorrari egiten diola erreferentzia. Ezaugarri horrek berak egiten du aldi berean gogoko eta gorrotatu; ezaugarri horiek direla-eta baliatzen eta gogor aurkatzen dute modernotasunaren iruzkinak egiten dituztenek. Esan liteke sekularizazio «osatugabeaz» hitz egiten dutenek ere, sekularizazioa beti izango dela osatugabe ikusi nahi ez izateaz gain (haien hipotesi nagusia Mendebaldearen eta eskatologia kristauaren arteko harremana nabarmentzea baita), egiaz Jainkoa falta gisa aldarrikatuko luketela, Jainkoaren falta aldarrikatu beharrean.

Baina, iritzi publikoan sekularizazio terminoa beste termino oso desberdin baten lurretan sartu ohi da, nahiz eta termino hori aurrekoaren sinonimotzat hartu izan duten maiz: laikotasunaz ari gara. Lehenik eta behin, esan genezake sekularizazioak modernotasunaren sorrera azaltzeko hipotesi gisa funtzionatu nahi duela, eta modernotasuna kristau salbazioaren dotrinaren bide nagusien gerturatze arrazionalizatu bezala ipintzen duela. Laikotasunak, berriz, marko juridikoa proposatzen du; esparru horren barruan, Estatuaren eta elizen arteko harremanak administratuko dira (modernotasunarekin eta haren ostean definitutako espazio publikoan agertzen diren

elizok, hain justu). Hala, elkarren emantzipazioa eta estatuaren zein erlijioen boterearen autonomia du printzipio juridikotzat.

Hori kontuan izanik, bi galdera egin beharko genituzke. Zer estrategia garatzen dituzte praktika konfesionalek (bereziki monoteismoa ardatz duten gailu dogmatikoetan inspiratuek) nahitaz anitzak diren gune sozialetan beste batzuekin batera bizitzeko? Kontuan izan behar dugu pluralismoa ez dela datu soziologiko hutsa; baizik eta kulturalki desberdinak eta politikoki ezberdinak izatea ez dela gauza bera kontzientziarazten gaituen prozesu-sorta. Administrazio publikoen ikuspegitik, berriz, nola lor erlijio-talde desberdinen elkarbizitza ahalbidetuko duten mekanismoak? Mekanismo horiek *polis* anitzetan aplikatu beharrekoak dira, eta, benetan plural izateko, alferrikako tentazio kulturalistak alde batera utzi eta tradizio guztiak errespetatuko dituen espiritua, sozialki errespetuduna, sustatu beharko du, norberarena edota kanpoko dena diskriminatu gabe. Guztia ere arauzko ordenamendu komuneko inperio demokratikoan, estatuaren indarretik sortuan; jakinik, gainera, estatuaren indarrari ez zaiola arrotz, beste alor batzuetan, aniztasun juridiko mugatua.

Horri loturik, aztertu nahiko genuke zergatik geratzen ote den auzipean laikotasun-programek kulturaltasunaren eta juridikotasunaren arteko oreka-jokoak arbitratzeko gaitasuna; kontuan hartu gabe hamaika aldiz susmagarritzat hartu izan dugula bere berdintasunezko jarrera, politika demokratikoa jakinaren gainean ipintzen duena askatasun zibilen doktrinaren itxurapean. Zergatik mesfidantza hori laikotasunarekin? Are gehiago, zergatik erasokortasun dialektiko hori? Azken buruan, laikotasunak ez du murrizketarik babesten, ezta sustatzen ere, estatu demokratikoetako herritarrek erlijio-konfesio baten aldeko direla modu pribatuan uste izateko eta publikoki adierazteko. Ohiko ordenamendu juridikoaren mugen barruan, herritar batek bere espazio erlijioso jakina modu sinbolikoan artikulatzeko modura jotzea oinarrizko kontzientzia-askatasunaren barruko auzia da.

Nolanahi ere den, kontua da erabakitzea estatuaren indar esku-hartzaileak hartu beharko ote lukeen gutxieneko politiko horretan, horien arabera espazio publikoa desberdintasunak zabaltzea legezatzeko (edo ez) toki izango bailitzateke; edota, aitzitik, modu anbiziotsuagoan, nolabaiteko *ethos* bat altxa ote litekeen desberdintasun hori kudeatzeko, giza eskubideen eta gutxiengoaren babes positiboen alorreko diskurtsoa txertatzeko. Estatuaren neutraltasuna (Konstituzioaren arabera konfesionaltasuna bai, behintzat) ezin liteke taktika indiferente gisa hartu, erlijio-aukeren aniztasuna errekonozitzeko eskaeraren aurrean, aldi bereko aparatu sinbolikoekin, berezitasunak desberdintasun eta kompetentzia sozialaren alorrean bakarrik garatzen dituztenean. Kontzientzia askatasuna, ikuspegi laizistatik, desorekatuta geratuko litzateke erro handienak dituzten talde konfesionalak bati eskubide positiboak errekonozitzean; esaterako, konkordatuak eta estatuarekin lehentasunezko hitzarmenak izatean. Gure espazio publikoen erlijio-aniztasuna babesteak, gainera, ez du esan nahi estatuak hegemonia espiritualak sustatu behar dituenik, edota nortasun unibertsalak ordezkatzeko hasi behar duenik; ezta transzendentzia eta salbamen kontzeptuak kudeatzen hasi behar duenik ere. Askok jota, oinarrizko eskubide eta betebeharrak adimenez erregulatu beharko lituzke; haien arabera, gutxiengo eta gehiengo bakoitzak ondoren bere emantzipazio-idealak proposatuko ditu, baita askatasunaz, komunitateaz eta moralitasunaz duten definizioa ere. Hala, estatuak ez du bere gain hartu beharko haietako edonor gainbabesteko lan ofizialik.

Laikotasuna, defendatzaile filosofikoen arabera³⁷, gizartearen kide guztiek baldintza berberak edukitzea da, borondate orokorrean parte hartzeko eta adierazteko gaitasun berberak dituzte gizarteko kideok, eta beren ezaugarri ez-politikoak (erlijiosoak, etnikoak, sexualak, genealogikoak...) ez lituzke, hasiera batean, estatuak kontuan hartu beharko. Horrenbestez, laikotasuna, nolabait ere, estatuaren ikuspegi errepublikanoarekin loturik dago. Nolanahi ere, kontuan hartu behar dugu formazio eta obligazio esfera lurтарren arteko banaketa arrazionalaren aldekoek (guztiok partekatu behar izaten ditugu *modu errepublikanoan*), eta uste indibidualen esfera pribatuek (nahiz eta azaleratzeko modukoak izan) egingo dutela lehenik ahalegina laikotasuna europartasunaren marka txuri berri bilaka ez dadin, ezta Mendebaldeak desberdintasunaren deserosotasunetatik ezkutatzeko erabiliko duen neutraltasun-mito berri ere, modu ilustratu integristan, erabili ere.

Laikotasuna, horren arabera, sistema arautzaileak parametro dogmatikoei, interes proelitstei eta konfesio gabeko proiektu moralizatzaileei men egitea nahi ez duten herritarrek desio izan beharko lukete, baina baita ordena juridiko hori bera erlijio-kultu defendagarri batean ere sartzea nahi ez duten herritarrek ere. Edonola ere, ikuspegi konfesionaletik begiratuta, kontzeptuaren historiak eta batez ere adiera modernoak ez ditu hain kutsu faboragarriak. Horretarako, Benedikto XVI. aita santuak 2006ko abenduaren 9an legelari katolikoei egindako diskurtsoa gogoratu besterik ez dugu. Bertan, laikotasunaren egungo adierak jatorrian izan zuen adieraren justu kontrakoa duela gaur egun adierazi zuen atsekabe handiz. Izan ere, «kristau leial soil» esan nahi zuen laiko hitzak sortu zenean; hau da, kleroko edota erlijio-estatuak kide ez zena. Erdi Aroan, ordea, botere zibilen eta Elizaren hierarkien arteko kontraesan kutsua hartu zuen, eta garai modernoetan, azkenik, «erlijioa eta bere sinboloak bizitza publikotik erretiratzea, eremu pribatura eta kontzientzia indibidualera eramanda» esan nahi du.

Nolanahi ere den, Zygmunt Bauman jaunak zioen moduan, postmodernitateko ziurgabetasunak nortasunaren alorreko gero eta aditu gehiago eskatzen dituzte: itxura guztien arabera, erlijio-aniztasunaren erronkari gero eta nekezago erantzuten zaio estatuaren neutraltasun taktikoaren abantailak gorapatuta, eta gero eta gehiagotan erantzuten zaio gure egungo agertoki sozialak azalduta, erreperitorio sinboliko anitzei behar zaien bidea emateko (eta behar bezala desberdinduta).³⁸ Espazio publikoak nolabaiteko osaketa alorreko balio-aniztasuna bizi du, testuinguruko sentsibilitate berriaren bidez; aurreko urteetako kultur aniztasunaren estrategia haietatik bestelakoa (ezkerreko zein eskuineko aldeek gogor kritikatu), errealtate sozialaren betelan saildun modukoetara jotzen zuena, desberdintasun-nitxoak sorrarazten zituen, eta, desberdintasunarekiko errespetuaren izenean, tolerantzia-ghettoen arrosarioa egiten zuena, beren artean inolako komunikaziorik gabe eta Mendebaldearen hegemonia entzungorren zerbitzuan.

Sekularizazioaren aldaketa kontzeptualak hobeto ezagututa eta laikotasunaren betiereko azterketa bidezkoak eginda, berdintasun juridikoa eta desberdintasun kulturalak (eta kultuari dagozkionak) harmonizatzeke proiektu gisa, seguru aski modu bidezkoagoan helduko diogu erlijio-aniztasunaren auziari, jakinik aniztasuna bizikidetzatza eta partaidetzatza eremuetan sortzen dela, gure postmodernitateak besterik gabe *tabula rasa* egin ez duen horretan; aitzitik, atxikidura ideologikoz eta blaitze politikoz beterik ageri dira, eta beren historia ezin liteke disimulatu desberdintasunaren erronkak ospatze hutsarekin.

³⁷ Ikuspegi hau modu oso plastikoan azaldu da hemen: Savater, Fernando (2005), «La laicidad explicada a los niños», in *El País*, 2005/11/5

³⁸ Ikus honako ale interesgarri hau: Hainbat egile (2009), *Los otros entre nosotros. Alteridad e inmigración*, Madril, Arte Ederretako Zirkulua. Kulturantzatasunarekiko kritikari buruz, Jameson, Fredric eta Žizek, Slavoj (2003), *Estudios culturales. Reflexiones sobre el multiculturalismo*, Buenos Aires, Paidós.

III. EUSKAL HERRIA ERLIJOEN BIDEGURUTZE HISTORIKO GISA

Joxe Arregi Olaizola eta Jorge Canarias Fernández-Cavada³⁹

Herrialde guztiak bezalaxe, Euskal Herria ere kulturen eta erlijioen bidegurutze izan da antzinarotik, bai jatorrian, bai milaka urtean izan duen bilakaera historikoan. Zerbaitegatik nabarmendu zuen horrenbestetan euskal antropologiaren aitak, Jose Migel Barandiaranek. Den oro erlijiotik sortua da, eta bere nortasuna harreman nolabait baketsu eta naturalen, nolabait inposatu eta gatazkatsuen eremuan eraikitzen jarraitzen da. Zalantzarik gabe, giza zibilizazioaren lehenengo aztarnetatik, orain 150.000 bat urtetik, mendebaldeko Pirinioen alde banatara zabaltzen diren lurretan zenbait ezaugarri bereizgarri antzeman daitezke, argi eta garbi markatutako nortasun kulturala; kultura horren lekukorik adierazgarriena hizkuntza berezi bat da: euskara. Baina nortasun hori ez zen hutsetik sortu, eta milaka urtean ez zen estatiko, geldirik edo itxita geratu, uharte bakartia bailitzan. Hizkuntza bera dugu hemen ere irudirik onena. Jatorri ezezagunetatik eta milaka urtean, bizirik iraun du gaur arte bere berezitasun bitxi eta guzti. Baina haren bilakaera luzeari eta beste hizkuntzekiko interakzioari esker da gaur egun dena.

Erljioa hizkuntza mota bat da, sinesmen, erritu eta arau sistema den aldetik; hizkuntza simboliko oso konplexu eta dinamikoa. Erljio terminoaren etimologia edozer dela ere (*relegere*, Zizeronen arabera), *reeligere* (San Agustinen arabera), *religare* (Laktantzioren arabera), kontua da erljio oro harreman anizkunen mundu kulturalan jaio eta garatzen dela, eta askotan mundu hori indarkeriaz eta krudelkeriaz beteta egoten dela. Eta horixe aplikatzen zaio erljioak Euskal Herrian izan duen jatorri ezezagunari, bilakaera historiko luzeari eta orainaldi zalantzarriari.

Ondorengo orrietan Euskal Herria izan den eta izaten jarraitzen duen erljio-bidegurutzearen sarrera egingo dugu, eta bertan aurkeztuko ditugu gure historia erljioaren funtsezko mugarrak.

Kristautasunaren aurreko euskal erljioa

Garai bateko euskaldunetz aritzean, zalantzan jar liteke egokia den ala ez «erljioaz» hitz egitea, edo egokiagoa litzatekeen «erljioez» hitz egitea. Euskal Herria beti izan da erljioaniztuna,⁴⁰ baina ukalezina da espazioan eta denboran gutxi gorabehera konstante izan diren elementu tipikoak daudela. Eta horrexegatik hitz egin dezakegu «euskal erljioaz», erljio eslaviarraz, bantuaz edo maputxeaz hitz egin dezakegun oinarri berarekin. «Kristautasunaren aurreko» esateari dagokionez, zehaztugabetasun bikoitzaren eragozpena dauka. Alde batetik, ez dakigu oso ondo noiz kristautu zen Euskal Herrian, eta, dena dela, prozesu erabat luzea eta aldakorra izan zen. Beste aldetik, kristautasunaren aurreko erljioaren elementu sakonenetako askok iraun egin dute kristautasunaren barruan, Euskal Herria kristautu ondoren ere. Hori horrela izanik ere, erosotasunegatik, adierazitako hitza erabiliko dugu.

Haitzuloen lurtean kontu handiz induskatuz, mitoak eta kondairak adi entzunez, festa eta ohitura kristauen atzean milaka motibo aurrekristau igarrita, eta Wilhelm Schmidt-en

³⁹ Joxe Arregi Olaizolak idatzi ditu; 4.a eta 5.a, berriz, Jorge Canarias Fernández-Cavadak.

⁴⁰ Intxausti, Joseba (2010), «Euskal erljioetasunaz. Zenbait burutapen historiko», *Hem en* 24.

arrastoari jarraituta, Jose Migel Barandiaranek, Julio Caro Barojak eta beste askok Euskal Herriko erlijio primitiboaren ezaugarri bereizgarriak trazatu zituzten.⁴¹ Baina ez ditugu zehaztasunez azalduko hemen. Arrastorik zaharrenak aurreindoeuroparrak dira, eta beste zibilizazio eta erlijio batzuen antzeko ezaugarriak dituzte. Era berean, Kristo aurreko 2000. urte ingurutik aurrera, herri indoeuoparren hedapen-korrante ezberdinen ondoren bereganatutako elementuak ere baditu. Azpimarragarria da, batez ere, zelden eragina; agian horixe baita ondoen ezagutzen duguna, edo korrante haietako berrienetako bat delako. Baina horrek ez du esan nahi antzinako euskal kultura erlijiosoaren osagai nagusienetako batzuk desagertu direnik.

Neolitikotik (K.a. 4500-2500) euskaldunek eguzkia, ilargia eta zerua gurtu zituzten; «jainko» bihurtu zituzten, kontzeptu nahasgarri hori erabiltzea zilegi bada. Iturrietan eta ibaietan lamiak izeneko espiritu onak bizi dira, emakumezko izakiak (batzuetan gizonezkoak), gauetan zubiak eta trikuharriak eraikitzen dituztenak. Antzinako erlijio guztietan bezalaxe, izaki kosmiko ezberdinen eta jainkoen arteko mugak zehaztugabeak dira. Dena dela, jainko-jainkosak ugari dira, eta aire zabalean, haitzuloetan, iturrien aldamenean edo leku garaietan gurtzen dituzte; zenbait mende geroago, leku horietan bertan, kristauek Andre Mariari edo hainbat santuri eskainitako ermitak eraiki zituzten.

Jainko-jainkosa guztien artean nabarmenena Mari, Maia edo Ama Lur da. Emakumezko jainko lurtarra da, jainko indoeuopar gorenak ez bezala, haiek gizonezkoak eta zerutiarrak baitira. Marik jainkosa gorenaren rola betetzen du, eta hori bat etorriko litzateke mendeetan gure egunetara arte iraun duen euskal matriarkatuarekin.⁴² Marik itxura zoomorfoa (zezena, aharia, akerra, zaldia, sugea, putrea, eta abar) zein gizatiarra hartu ohi du (ile luzeko emakumea, mantu gorriz estalia, eskuetan gaztelua eta herensugea hanketan dituela). Herrialdeko mendirik garaietan bizi da (Anboto, Oitz, Aizkorri, Txindoki...) eta bi seme ditu, Atarrabi (ongiaren irudikapena) eta Mikelats (gaizkiaren irudikapena). Eguzkia eta ilargia ere emakumezkoak dira (Amandre Eguzki, Amandre Ilargi); Mari edo Ama Lurren alabak dira, eta erdian lauburua (normalean lau besokoa) duen disko batekin irudikatu ohi dira.⁴³ Hainbat formako eta besotako eguzki-diskoak (normalean hiru edo lau besokoak) antzinako kultura eurasiar guztietan aurki ditzakegu, Iberiar penintsulatik Alaskaraino, baita Ameriketako antzinako zibilizazioetan ere. Lauburua Mari ama jainkosaren sinboloa da eta, ondorioz, antzinaroan askok esan izan zuten euskaldun zaharrek gurutzeta gurtzen zutela Kristo ezagutu aurretik. Mari tximistaren eta trumoiaren andrea da, euriarena eta lehortearrena, eta, egiaz, izaki guztien ama da. Senar bat dauka, Sugaar (suge arra), baina Maju izenez ere deitu ohi dute; litekeena da, bestalde, Maju Mariren edo Maiaren gizonezko forma izatea.

Antzinako heroien eta jainkotasunen artean beste batzuk ere nabarmentzen dira: Jaun Zuria, iparraldeko lur hotzetatik etorritakoa (zenbait kondairaren arabera Mariren semea)

⁴¹ Barandiarán, Jose Migel (1984), *Diccionario de mitología vasca: Creencias y leyendas tradicionales*, Txertoa, Donostia. Ibid. (1995), *El hombre primitivo en el País Vasco*, Orain, Hernani. Caro Baroja, Julio (1989), *Euskal jainko eta jainkosak, olentzeroa eta sorginak*, Gaiak, Donostia, Ibid. (1984), *Sobre la religión antigua y el calendario del pueblo vasco*, Txertoa, Andoain. Dueso, Jose (1996), *La primitiva religión de los vascos*, Orain, Hernani. Satrustegui, Jose Maria (1995), *Mitos y creencias*, Orain, Hernani. Sorazu, Emeterio (1979), *Antropología y religión en el pueblo vasco*, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Donostia.

Seguruenik, «xamanek» ehizako errituak irudikatu eta betetzen zituzten santutegiak ziren, edo, are gehiago, Ama Lurren erritu sakratuak. Deigarria da Euskadi paleolitikoko haitzuloetako margoak banatuta dauden eremu geografikoaren erdian egotea (Altamira, Santimaniñe, Ekain, Altxerri, Lascaux...).

⁴² Ortiz-Oses, Andrés (1980), *El matriarcalismo vasco*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo. Ibid. (1996), *La Diosa Madre. Interpretación desde la mitología vasca*, Trotta, Madrid.

⁴³ D . Mariren irudia izan liteke.

eta Bizkaiaren babesle bilakaturikoa; Basajaun (Aragoiko eta Pirinioetako mitologian ere aurki dezakeguna), basoen eta artaldean jainu babeslea; Akerbeltz, aker itxura duen eta akelarreetan gurtutako jainkoa, animalien, landareen eta gizakien babeslea, Cernunnos jainko zeltaren oso hurbilekoa edo baliokidea eta kristauak deabruarekin identifikatu zutena (litekeena da jatorrian Mariren irudikapena izatea).

Ortzi jainkoa (zerua) ondorengoa da, eta ezaugarri indoeuropar argiak ditu; hain zuzen, Thor germaniarraren edo Jupiter erromatarraren antzeko figura da. Aymeric Picaud izeneko apaiz frantziar batek XII. mendean Santiago Konpostelakora eginiko erromesaldia kontatu zuen, eta, haren arabera, bidean topatu zituen euskaldunek *Urcia* deitzen zioten jainkoari. Mari eta biak gurtu zituzten gehien, garai handi batean behintzat. Asteko zenbait egunen izenetan dugu haren garrantziaren aztarnarik argiena. Ostegunak adibidez, «zeruko eguneko argia» esan nahi du (paralelismoak argiak dira: *jueves*= Jupiterren eguna; *Donnerstag*= Trumoiaren eguna, *Thursday*= Thorren eguna); ostiralak, adibidez «zeruko ilargia» esan nahi du. Litekeena da jatorrizko aste euskalduna hiru egunekoa izatea (Europar badago beste kasurik). Astelehena, astearen lehen eguna; asteartea, astearen erdiko eguna eta asteazkena, astearen azken eguna. Ondoren, eragin germaniarrak eta latindarrak luzatu bide zuten astea. Beste hainbat bezalaxe, hori ere eztabaidagai da.

Baliteke «sorgin» terminoa «sortu»tik etortzea eta emaginei egitea erreferentzia, erlijio-kontuetan garrantzi oso handia izan baitzuten, baita antzinako euskaldunen gizarte matriarkalean ere. Sorginak, nolabait esateko, Mariren apaiz-emeak ziren, eta gurtza lekuez, zeremoniez, medizina eta erditze arduratzen ziren; zelta druiden antzeko egitekoa zuten. Gizartea patriarkal bilakatzen joan zen heinean eta, are gehiago, kristautzen, sorginak, Europako gizarteetan botereak zituzten emakumeak bezalaxe, guztiz baztertu eta estigmatizatu zituzten. XV. mendetik aurrera kutsu negatiboa hartu zuen sorgin hitzak, eta hortxe hasi ziren bestelako kontuak; Europa osoak ezagutu zuen historia tristea, sorginen aurkako prozesuen historia. Horren adibide tragikoenetako batzuk Pierre Lancre inkisidoreak 1609an Lapurdin eta 1610ean Logroñon Zugarramurdiko akelarreen aurka gauzaturikoak dira.

Nahikoak dira zertzelada horiek euskal gizartean kristautasunaren aurretik erlijio tradizioak bazeudela esateko; horietako batzuk ageri dira oraindik gure egunetan. Gure helburua ez da euskaldunen mundu primitiboaz hitz egitea, hondoko zenbait lerro marraztea baizik, eta, bereziki, zenbait lotura. Gera gaitetzen jatorrizko unibertso haiei buruzko oinarritzko datu edo egiaztapen sorta baten gutxiengoarekin: 1) Antzinako euskal erlijioak ez dauka erlijio indoeuroparren ezaugarri nagusi diren antolaturiko panteoirik, ezta jainko-jainkosa trifuntzionalik ere (subiranotasunaren, gerraren eta arte produktiboen jainko-jainkosak); 2) Antzinako euskaldunen sinismenak eta kultura lurrari lotuta daude (mendiak, haitzuloak, iturriak, ibaiak...), zeruari baino gehiago; 3) Erlijio honetan emakumezko figurak dira nagusi (Mari, Amandre Eguzki, Amandre Ilargi, sorginak...) gizonezkoen gainetik; 4) Normala denez, euskal erlijioak bilakaera eta aldaketa sakonak izan ditu urteetan, nahiz eta ez izan posible urratsak argi eta garbi zehaztea; 5) Normala denez, halaber, euskaldunen erlijioak eutsi egin die bere ezaugarri autoktonoei, baina ez da isolatutako uharte izan; besteekiko kontaktuari esker eraldatzen joan da, bereziki iberiarrekin, zeltekin eta erromatarrekin izandako kontaktuagatik, eta, batez ere, iparraldeko baskoiak K.a III. mendetik hegoaldera hedatzen joan zirenetik aurrera; ondorioz, Nafarroaren erdialdea eta hegoaldea eta Ebro bailara baskoi egin zirenetik aurrera. ⁴⁴

⁴⁴ P Erlijio erromatar ofizialak (panteoi inperialeko jainkoen kultura) izaera publiko-politiko garbia zuen; aldi berean, erromatarrek tolerantak eta inklusiboak izan diren kolonizaturiko jainko-jainkosekin; epigrafiak eskaintzen dizkigun arrastoen arabera zenbait antzinako euskal jainko-jainkosa erromatar panteoian txertatu ziren: *Ihunberri* (ilargiaren

Euskal Herriaren kristautze motela

Euskal Herria kristautu zenekoa gai oso polemikoa da, gure lurraldeko historia erlijiosoarekin zerikusia duten beste hainbat bezalaxe. Horri buruzko datu dokumental gutxi dugu, eta ondorioak irudimenaren edo aurreiritzien mende daude erabat.

XIX. mendearen hasieran, euskaldunen etika eta erlijio paganoa termino idilikoetan deskribatzen zituzten, «prestakuntza ebanjeliko» ia paradisutarrak izango balira bezala. Haren arabera, euskaldunak naturaren tolesgabetasunean bizi ziren; ez zituzten bidegabekeria, anbizioa, zikoizkeria edo gerra ezagutzen; haurrek irakasle jakintsu, bertutetsu, ausart eta argiak izaten zituzten, gutziarik edota aberastasunekiko zaletasunik gabeak; guztiek gurtzen zuten Jaungoikoa, munduaren sortzailea; arimaren hilezkortasunean sinesten zuten; neurritasunean eta elkertasunean bizi ziren, eta ez zuten mendekua ezagutzen.⁴⁵ Horixe da naturalismoaren idealizazio erromantikoaren eta garai hartan hain gustuko zuten etnozentrismoaren euskal bertsioa; horren atzean, erlijioaren eta historiaren ikuspegi erabat kristautuzentrikoa dago. «Basati zoriontsua», benetako erlijioa azaltzen denean, hari atxikitzeke desatzen dagoen «santu paganoa» da aldi berean. Euskaldun paganoak, beren monoteismo sakon eta etika bikainarekin, Jainkoaren Semeari, Jesus erredentore unibertsal bakarrari, ongiatorri egiteko prest zeuden, eta, hura iritsitakoan, berehala onartu zuten apostoluen eskuetatik (Santiago) edo haren dizipuluengandik (Saturnino, Pedroren dizipulu).⁴⁶

Fantasia horiek alde batera utzita, euskaldunen kristautze-prozesuaren nondik norakoak planteatu dira. Erantzunak oso desberdinak dira elkarren artean, datuak ere urriak eta bakanak diren neurri berean. Bixente Latiegi eta tankerako beste hainbatek V. menderako kristautasuna Bizkaiko eta Gipuzkoako mendietan zabaldua zegoela diote.⁴⁷ Beste askok, ordea, kristautasunaren zabalkundea Araba eta Nafarroa hegoaldean VIII. mendetik aurrera gertatu zela diote; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, IX. edo X. mendetik aurrera. Edonola ere, V. mendetik aurrera sakabanatutako nukleo kristauak bazeuden.⁴⁸

jainkotasuna, Iberian zabaldua), *Lacubegi* (zezenari eta ilargiari loturiko jainkotasuna; Uxuen, Nafarroan aurkituriko aldea), *Baigorriko* («Baigorriko deo» idazkuna, St. Gaudens-en aurkitua, egungo Bigorretik gertu). Cfr. Larrañaga, Koldo (2007), *El Hecho Colonial Romano en el Area Circumpirenaica Occidental*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 531-550. or.

⁴⁵ *Historia de las naciones bascas*, Auch (Frantzia), 1818, hemen aipatua: Olabarria, Anastasio (1991), *Introducción del cristianismo en Bizkaia*, Temas vizcaínos 204. zk., BKK, Bilbo, 5-6. or. Gauza bera adierazi zuen Juan Ramón de Iturriza y Zabalak *Historia general de Vizcaya* liburuan; 1785ean amaitua eta Bartzelonan argitaratua 1884an.

⁴⁶ Cfr. Olabarria, Anastasio (1991), *Introducción del cristianismo en Bizkaia cit.*, 5-20. or., Zamacolari buruzko aipua. Egiaz, Zamacolak euskal historiako panegirista klasikoen (Ocampo, Coscojales, Garibay, Cortés Osorio, Henao, Larramendi, Iturriza...) mitoak erreproduzitu besterik ez du egiten, edo, kasuan kasu, historia hispaniarrekoak. Euskal jatorrien idealizazio mitologikoa, oro har, eta jatorri kristauarena, bereziki, salbuespena da. «Todos los pueblos padecieron idéntica fiebre de procurarse una prestigiosa heráldica religiosa» (Olabarria, Anastasio [1991], *Introducción del cristianismo en Bizkaia*, cit., 22. or.), Santiago Galiziera iritsi zen, Ama Birjina Zaragozara joan zen, baita Loretora eta (Italia), etxe eta guzti, Lazaro eta bere arreba Marsellara iritsi ziren, eta Tubal (Noeren biloba) Kantabrian ezarri zen, eta, handik, bere semeak Espainian barrena zabaldu ziren, beste herri fedegabe baten etorrerak suntsituriko benetako Jainkoaren kultuari eutsiz.

⁴⁷ Latiegi Eraso, Bixente (1996), *Denbora zaretako Euskal-Elizaren edestia*. I: *Euskal Kristautasunaren sorkuntza*. Nork, noiz, nola, nondik: *kristautasuna Euskalerrira*, Ollobarren, Wilsen; Ibid. (1997), II: *Euskal kristautasunaren zabalkuntza: bosgarren mendeko Euskalerrri jentilean: gure asaben arteko Kristautasuna*, Ollobarren, Wilsen; Ibid. (2001), III: *Euskal Kristautasunaren sorkuntza: seigarren eta zazpigarren mendeetan: gure asaben arteko Kristautasuna*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz. Kontu handiagoz bada ere, Andrés de Mañaricua ere III/IV eta VIII. mendeen artean kokatzen du kristautasunaren sarrera orokorra. Mañaricúa, Andrés (1978), «La cristianización del País Vasco», in hainbat egile, *Historia del Pueblo Vasco*. I, Erein, Donostia, 71- 72. or.; Ibid. (1981), «Introducción del Cristianismo en el País Vasco», in *Victoriensia* 42, 41. or., Jose Migel Barandiaranek ere Euskal Herriaren kristautze goiztiarra defendatu zuen.

⁴⁸ Caro Baroja, Julio (1980), *Los Vascos*, Istmo, Madril, 270. or.; García de Cortázar, José Ángel (1983), *Vizcaya en la Alta Edad Media*, BKK, Bilbo, 16-17, 39-40. or.; Lacarra, Jose Mari (1971), «La cristianización del País Vasco», in *Estudios de historia navarra*, Ediciones y Libros, Iruñea, 1-31. or. Bizkaian eta Gipuzkoan gure aroko X-XI. mende aurreko oso arrasto arkeologiko kristau gutxi dago eta daudenak ere zalantzazkoak dira (idazkunak, monasterioak, monumentuak...). Eta oso esanguratsua da Kantabriar eskualdean (Euskadi, Kantabria eta Asturias) ez egoitza episkopalik aurkitzea garai bisigodo osoan.

Agustin Azkarateren arrazoizko ondorioaren arabera, kultu kristauaren lehenengo agerpenak azaldu ziren unea gorabehera (gai horrek bigarren mailako garrantzia du), antzinaroko azkeneko mendeek (V-VIII mendeak) dirudite erlijio kristaua gure lurraldeetan poliki-poliki ezartzen joan zen garai nagusia.⁴⁹ Aipamen berezia egin behar zaio VI. eta VII. mendeetako Arabako haitzuloetako eremitorio, zenobio eta basilika multzoari; adibidez, Lañoko Gobak haitzuloei (Arabako Kapadozia), egungo Trebiñu inguruan daudenei.⁵⁰

VIII. mendearen amaieratik aurrera, Santiagora zihoazen erromesek garrantzi erabatekoa izan zuten kultur trukean, bai eta gure lurraldeetan gizatalde kristauak ezartzen ere. Ez dezagun ahaztu biderik garrantzitsuenak Euskal Herriatik igarotzen zirela; bai frantses-bidea, Pirinioak Orreagatik barrena zeharkatzen dituen, bai iparraldeko bidea, Irundik igarotzen dena eta kostaldean jarraitu edo barnealdetik abiatzen dena (Burgosen frantses-bidearekin elkartzen da).

Zeinahi ere den kristautasuna Euskal Herrian gailendu zen garaia, kontu jakina da antzinaroko elementu erlijioso askok bizirik iraun zutela kristau itxurapean; zenbait kasutan, jatorrizko sintesian asimilatuta, edo, besterik gabe, adierazpen kristau berrien ondoan.⁵¹ Milaka urtean erroturiko sinismenak eta errituak ez ziren egun batetik bestera desagertu. Gure garaia arte iritsi diren milaka ohiturak erakusten dituzte kristautasunaren aurreko motibo zaharrak. Orain urte gutxira arte, erramu adar bat (antzinako errituen eta sinismenen lekuko) ikusi izan dugu beti Jesusen bihotzaren plaka kristauaren aldamenean baserri askotako ateetan, edo baserriko ate nagusiaren ateburuetan lizar-egurrez eginiko gurutzetxoak (tradizioaren zuhaitz sakratuz eginikoak) begietsi izan ditugu. Olentzero gurtzea (seguruena Marik bidalitako espiritua neguko eta udako solstizioa iragartzeko) gaur arte iritsi da, nahiz eta erabat sekularizatua, Bizar Zuriren bertsio euskaldun gisa; euskal etxeetara opariak ekartzen dituen ikazkin zakar eta tripontzi itxurakoa.

Arrasto guztien arabera, Mariaren gurtzaren alderdi nagusiak Andre Mariaren gurtza bilakatu ziren. Horri jarraiki, ez da kasualitatea Amabirjinari Andre Mari deitzen jarraitzea; Mari jainkosa izendatzeko erabilitako izen bera erabiltzea, alegia. Pentsatzekoa da Euskal Herriko Andre Mariaren santutegi nagusiak (Begoña, Leire, Orreaga, Uxue, Estibalitz, Arantzazu...) Mariaren antzinako gurtza-lekuak zirela. Joxe Migel Barandiaran entzutetsuak erakutsi zuen eliza eta basiliza kristau asko eta asko kultu paganoko lekuen gainean eraiki zirela (erromatarrak ala ez).⁵²

Euskal historiako beste erlijioak

Euskal Herriko musulmanen eta judutarren historiaz atsekabe handiz baino ezin liteke hitz egin. Teodosio erromatar enperadoreak IV. mendearen amaieran erlijio bakar aldarrikatu zuen kristautasuna; Erromatar Inperioaren ondorengo botereek egiazko erlijio

⁴⁹ Azkarate, Agustin (2004), «El País Vasco en los siglos inmediatos a la desaparición del Imperio Romano», in Hainbat egile, *Historia del País Vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Hiria, 17. or. Cfr. Azkarate, Agustin (2000), «Reflexiones sobre la implantación del cristianismo entre los vascos», in Santos, Juan eta Teja, Ramón (arg.), *El Cristianismo. Aspectos históricos de su origen y difusión en Hispania*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 303-324. or.

⁵⁰ Azkarate, Agustin (1988), *Arqueología cristiana de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en la Antigüedad Tardía*, Arabako Foru Aldundia, Araba, Gasteiz. Araban arrokan induskaturiko 125 haitzulo artifizial aurkitu dira oraingo; eremitorio edo ermita funtzioa zuten, edo agian, etxebizitzak besterik ez ziren.

⁵¹ Cfr. Larrañaga, Koldo (1999), «Proceso cristianizador y pervivencia de rituales paganos en el País Vasco en la tarda Antigüedad y Alta Edad Media», in *Hispania sacra* 104, 613-622. or.

⁵² Barandiaran, Jose Migel (1995), *El hombre primitivo en el País Vasco*, Orain, Hernani. Cfr. Azkarate, Agustin (1988), *Arqueología cristiana de la Antigüedad Tardía en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

bakar gisa onartu edo inposatu zuten pixkanaka, ia modu naturalean. Horixe izan zen Eneko Aritzak (printze kristauak) IX. mendearen hasieran sorturiko Iruñeko Erresumaren kasua (geroago Nafarroako Erresuma izenarekin ezaguna). Kristautasuna Euskal Herrian erabat ezarri baino lehenago, musulmanek eta judutarrek apezpikuen eta apaizen gaitzespen erlijiosoa jasan behar izan zuten, biztanle kristauen ezinikusi soziala ezagutu zuten eta eraso ugari bizi izan zituzten. Musulmanak eta judutarrak defendatzeko botere kristauak eginiko aldizkako ekimen lotsati batzuen ondoren, botere horiek Tora eta Korana praktikatzeko zituztenen aurka ipintzen joan ziren, gero eta gehiago.

Islamari dagokionez, Antzinaroko eta Erdi Aroko Euskal Herrian presentzia oso desorekatua eduki zuen.⁵³ Apenas ezarri zen Pirinio iparraldeko euskal lurraldeetan, are gutxiago Bizkaian eta Gipuzkoan. Aitzitik, Araban eta Nafarroan presentzia handia izan zuen VIII eta XV. mendeen artean, eta alderantzizko botere-harremanak eragin zituen. Hasierako garaietan, 713. urtetik aurrera, musulmanak Ebroren ur-bazterrean iritsi zirenean, Alfontso *Borrokalariaren* garaipenetara arte (1119), *sharia* edo lege islamikoa izan zen nagusi. Bigarren garai batean, 1119tik aurrera, lege kristaua gailendu zen agintean 1516ra arte; urte hartan, Nafarroako Erresumako musulmanak (Gaztelak konkistatu berritan) bihurtzera edo Aragoira joatera behartu zituzten. Nafarroa hegoaldean musulmanak boterean egon ziren bitartean (Banu Qasi sendiaren boterepean lehenengo, eta taifa erresuma gisa gero) kristau guztiak *dhimmi* gisa tratatzen zituzten; hau da, askatasunez bizi eta praktika zezaketen beren erlijioa zerga bat ordaintzearen truke (*jizya*). Kristauak boterea eskuratu zutenean, sinestun musulmanek (mudejar deituak) estatutu juridiko berezia izan zuten; horren bitartez, beren eskubide zibil eta erlijiosoak aintzatetsita geratzen ziren hein batean. Erresumako biztanleen % 17 inguru musulmanak ziren (Cortes, Ablitas eta tankerako udalerrietan % 50etik gora). Ebro erriberan zenbait euskal herritar islamera bihurtu ziren, eta ezkontza mistoak egin zituzten. Tuteran, Ablitas, Cortes eta Ribaforadako XIV. mendeko dokumentuetan izen arabiarra eta ezizen euskalduna duten pertsonak aipatzen dira; esaterako, Mahoma Oxarra, Mahoma Ezquerro eta Mahoma Abarqua.

Nafarroako mudejarrek beren kultura gorde eta garatu ahal izan zuten, baina bigarren mailako herritarrak ziren. Beren egoerak okerrera egin zuen denborak aurrera egin ahala. Lege islamiarra indarra galtzen joan zen, eta Erdi Aroaren amaieraren aurretik justizia kristauen esku geratu zen erabat. Hala, oro har, herritar musulmanak egoera sozial baxuenera erori ziren, Erregeren babespean egon arren eta jazarpenik edo hilketarik jasan behar izan ez zuten arren; azken batean, biztanle mudejarrak produktibo ziren beren lanarengatik eta ordaintzen zituzten zergengatik. Bestalde, esan liteke Nafarroako musulmanen estatutua Gaztelakoena baino hobea izan zela, eta, agian, Aragoikoena baino hobea ere bai.⁵⁴

XV. mendearen amaieran, egoera asko okertu zen musulmanentzat. Errege-erregina Katolikoek 1449tik aurrera hartutako neurri gogorrek gero eta eragin nabarmenagoa izan zuten euskal lurraldeetan. Hala, 1512an Gaztelak Nafarroa konkistatu izanaren ondorioz, lurralde horretan Gaztelako lege berak ezartzen hasi ziren. Bihurtzeko edo erbesteratzeko aukerak aplikatu ondoren, Tuterako, Murchanteko, Murilloko eta beste udalerrri batzuetako meskitak eliza bihurtu zituzten, baina kristautuek XVIII. mendera arte jasan behar izan

⁵³ Bereziki honako lan honetan oinarritu naiz: Intxausti, Joseba (2008), «Islama eta euskal herritarrak. Zenbait topaleku historiko gogoratuz», in *Hemen* 19, 57-82. or. Cfr. baita ere Fernández, Ernesto (1994), «Cristianos, judíos y musulmanes en las comunidades vascas: más allá de un enfrentamiento de religiones», in García Fernández, Ernesto (zuz.), *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV - XVI)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 117-145. or.

⁵⁴ Intxausti, Joseba (2008), *Islama eta euskal herritarrak*, cit., 66. or.

zuten odol zikina izatearen estigma eta segregazio soziala. Estigma horrek eragin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan ere, nahiz eta ia musulmanik ez egon; izan ere, musulmanek kutsatu ez izana merkataritzarako argudio gisa baliatu zuten sarritan. Gehienak bota eta gainerakoak bihurtu ondoren (orain morisko izena hartuko dute), islamaren presentzia lau mendez desagertu zen. Gaur egun, ordea, islama Euskal Herriko fenomeno kultural, erlijioso eta politiko garrantzitsuenetako bat da berriz, Iberiar Penintsulan eta Europan gertatzen den bezalaxe.

Gutxiengo judutarrari dagokionez, XIII. mendean gorantz egiten ari ziren komunitateak zeuden Gasteizen, Tuteran eta Lizarran, bai eta txikiago batzuk ere Vianan, Funesen, Haron, Naiaran eta Iruñean. Nolanahi ere, haien egoera gero eta zailago bilakatu zen, gizartearen gehiengo kristaua baitzen. Gasteizko judutegia penintsularen iparralde osoko handienetakoa zen eta mila bat pertsona bizi ziren bertan XV. mendean. Gainera, beren hilerria ere bazuten, egungo Judizmendi (judutarren mendia) parkean. Halaber, 1486ko martxoaren 1ean, Errege Probisio bat eman zuten Balmasedako (Bizkaia) judutarrak babesteko.⁵⁵

Baina benetan nabarmentzekoa dena zera da, arrazoi sozioekonomikoek eta sentimendu antisemita zaharrak sustatutako judutarren kontrako etsaitasuna. Antisemitismoa kristau ebanjelioetan bilduta zegoen jada, eta Elizaren historia osoko gaitz handietako bat da. Ez zen kristauen ezaugarri eksklusiboa izan, eta arrazoiak edo arrazoi nagusiak ez ziren erlijiosoak bakarrik, bai eta kulturalak, politikoak eta ekonomikoak ere. Dena dela, erantzukizun kristau historikoa da, eta ondorio larriak izan zituen. Bestalde, agerpen nabariak izan zituen lurralde baskoietako Elizan, batez ere Behe Erdi Aroan, nahiz eta penintsulako gainerako erresumen atzetik joan.

Letrango Kontzilioaren 47. kanonak (1215) debekatu egin zien kristauei merkataritza-trukeak izatea judutarrekin, baina xedapen hori ez zen Nafarroan aplikatu, ezta Araban eta Bizkaian ere, Nafarroari atxiki baitzitzaizkion 920an (Gipuzkoa banandu berri zen 1200. urtean, Gaztelari lotzeko). Hori dela-eta, Gregorio IX.a aita santuak judutarrekiko harreman profesionalen eta ezkontza-harremanen arriskuari buruz ohartarazi zuen Nafarroako Antso VIII.a erregea, eta judutarrak bestelako arrokekin jantzaraz zituan agindu zion. Ez dirudi ohartarazpena aintzat hartu zuenik, Aita Santu berak helburu bera zuen bulda bat zuzendu baitzion Teobaldo I.ari, eta hark ere ez zion kasurik egin. Hala ere, haren oinordeko Teobaldo II.ak judutarrei lukurreria bitartez lortu zituzten ondasun guztiak kentzeko bulda bat eskatu zion 1257an Alexandro IV.a aita santuari. 1276an judutarren matxinada bat gertatu zen, eta izugarritzko sarraskiarekin ito zuten.

XIV. eta XV. mendeetan, ordurako kristaututa zegoen Euskal Herriko gizartea «judutarren aurkako ideologia eraikitzen joan zen; ideologia hori bazterkeriaren, segregazioaren eta judutarren gutxiagotasunaren justifikazioan oinarritzen zen».⁵⁶ Izaera erlijiosoko arrazoiak izaera sozioekonomiko eta lanekoekin estu lotuta zeuden. Judutarrak

⁵⁵ http://www.euskomedia.org/galeria/A_24357

⁵⁶ Díaz de Durana, Jose Ramón (1984), «La crisis de la sociedad feudal. Las luchas de bandos», in Agirreazkuenaga, Joseba (zuz.), *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos*, II. liburukia. *De la Romanización a la conquista de Navarra: siglos I-XVI*, Lur, Donostia, 329. or. Cfr. González Mínguez, César (1999), «Sobre la marginación de los judíos del País Vasco en la edad media: mito y realidad», in Hainbat egile, *Marginalización y exclusión social en el País Vasco*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 55-80. or. Mina ematen du, adibidez, 1904an Gipuzkoako Institutuko ekitaldi-aretoan Mariano Arigita y Lasa apaizak egindako hitzaldia irakurtzeak: «Los judíos en el País Vasco: su influencia social, religiosa y política». XX. mendeko kristauak anker jokatzeko jarraitzen du judutarren aurka, haien jazarpenaz hitz egiten ari den bitartean, eta «arrazoai jainko-hiltzaile», «madarikatu» eta «zitab» gisa tratatzen jarraitzen du. Ikus hemen: <http://atzoatzoakoa.gipuzkoakultura.net/c77f11/index.php>.

ziren ia mailegu-emaile bakarrak eta lukurrerian ibiltzen ziren, baina hori beste lanbide batzuetan aritzeko jartzen zitzaizkien trabekin zegoen lotuta. Hainbat judutegi eraso zituzten Nafarroan 1328an (Lizarra, Los Arcos, Andosilla...); 1428an, berriz, Gasteizko udalbatzak jantzietan bereizgarri bat eramatera behartu zituen judutarrak, baita belauniko jartzera ere Guztiz Santua (eukaristian kotsakraturiko ogia) igarotzen zenean. Halaber, lurra lantzea edota igandeetan eta jaiegun kristauetan lan egitea debekatu zien. Urtebete geroago, gasteiztar talde bat judutarren ghettoan sartu zen; iraindu egin zituzten eta tratu txarrak eman zizkieten. Bilboko udalbatzak galarazi egin zien 1475ean Medina de Pomarreko merkatari judutarrei hirian sartzea, eta, hamabost urte geroago, beste ordenantza batek debekatu egin zien bertan lo egitea. Gaztelako eta Aragoiko Errege-erregina Katolikoen aginduak betez, 1492an gertatu zen musulmanen eta judutarren kanporatze tragikoa; handik gutxira, gauza bera egin zuten Bizkaiko jaurreriko Batzar Nagusiek ere.

Kanporatu ondoren, Aragoiko eta Gaztelako judutarrek Nafarroan bilatu zuten babes. Tuter eta Tafalla izan ziren kanporaturiko judutarren hiririk gogokenak, judutar komunitate handiak baitzeuden hiri horietan. Baina «jende-oldea hain handia zenez, bi hiriek fronte komuna egin zuten haiengandik babesteko».⁵⁷ Dena dela, Nafarroako Erresumak laster jarraitu zion Gaztelaren bideari, eta 1498an judutarrak kanporatzeko dekretua argitaratu zuen. Tuterako judutar gehienak batera «bihurtu» eta bataiatu ziren, baina, orduan, judutar eta musulman bihurtuen zuzeneko edo zeharkako jazarpena hasi zen, odol zikina edo fede faltsua izatearen susmopean. Bataioa onartu ez zutenek erbesteratu egin behar izan zuten, eta horietako asko Baionan ezarri ziren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beren anaietako asko bezalaxe. Baiona garaiko juduartasun-foku nagusietako bat bilakatu zen, eta gaur egun ere judutar komunitate garrantzitsua dago bertan.⁵⁸

Azkenik, labur bada ere, ezin liteke aniztasun erlijiosoari buruzko panorama hau osatu Ipar Euskal Herrian zenbait eliza protestanteren presentzia garrantzitsua aipatu gabe, batez ere Erreforma ondorengoak edo kutsu kalbinistakoak, XVI. mendeko Erreformaren jatorritik bertatik. Horren arrazoi nagusia Margarita Angulemakoak, Henrike II.a Albretekoaren emazte eta Nafarroako Erreginak (1517-1549), eta bere alabak, 1555etik 1572ra Nafarroako erregina izandako Joana Albretekoak, Erreforma beso zabalik onartu izana da. Joana Albretekoa, bestalde, kalbinismora bihurtu zen 1560an, eta erlijio hori inposatu zuen Behe Nafarroan eta Biarnon; hau da, egun Iparralde osatzen duen lurraldearen zati handi batean. Erreforma horren eragina nabarmena izan zen euskal kulturarentzat, Biblia lehenengo aldiz euskarara itzultzea ahalbidetu baitzuen. Itzulpena Joannes Leizarragak egin zuen 1571n, eta horixe izan zen historian euskaraz argitaraturiko bigarren liburua.⁵⁹ Eliza erreformatuak gure garaira arte iraun du Iparraldean, baina haren eragina askoz ere nabarmenagoa izan zen XVI. mendetik XVII. mendera arteko garaian, Luis XIV.ak Nanteseko Ediktuak indargabetu zituen arte. Ediktuok Nafarroako Henrike III.ak aldarrikatu zituen 1598an, katoliko bihurtu eta gero Frantziako Henrike IV.a bilakatu zenean.

⁵⁷ *Los Vascos. Mitos, leyendas y costumbres*, I. liburukia, Lur, Donostia, 1984, 366. or.

⁵⁸ Baionako familia judutar bateko kide zen René Cassin, 1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Batzar Orokorrak onarturiko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren aitatzat hartzen dena. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak urtero ematen duen giza eskubideen sariak Ipar Euskal Herriko judutar ospetsuaren izena darama.

⁵⁹ Lehenengo Bernat Etchepareren «Linguae Vasconum Primitiae» lana izan zen, Bordelen (Frantzia) argitaratua 1545ean.

Aro Modernoaren hasieratik gaur egunera arte 500 bat urte igaro dira, eta kristautasuna erabat nagusi izan da euskal gizartean.⁶⁰ Kristautasunak Euskal Herrian erlijioa monopolizatzeko hainbat modu aurkitu zituen. Kristautasun katolikoa oso-oso errotuta egon zen Euskal Herrian hainbat mendez; horren erakusgarri, euskal lurralde guztiek misiolari ugari bidali izana kontinente guztietara. Edonola ere, ez zuten eramaten bertara ebanjelio purua, ez baita halakorik existitzen, baizik eta kultura jakin batean txertaturiko ebanjelioa.

Hurbileko garaiak eta aniztasun haziak euskal erlijiosotasunean

Vatikanoko II. Kontzilioak (1962-1965) Eliza Katolikoaren bizitzaren XX. mendeko banaketa ezartzen du. Iraganarekin nahita hausten duen kontzilioa irudi hutsa dela ohartaraztea betiko leloa bada ere, ezin uka daiteke amaitu zenetik gauza asko aldatu direla Elizan. Aldaketa horien artean sartu behar da komunitate txikiek edo oinarriko eliza-komunitateek gero eta protagonismo handiagoa dutela, baita elizako mugimendu berriek ere.

Elizaren barruan helburu jakin bat lortzeko elkartzen diren fededunen taldeak egotea ez da, ordea, gauza berria. Erlijio-ordenak eta kongregazioak Ebanjelioan ezarritakoa zorrotzago jarraitzen duen bizitza egiteko zenbait fededunen nahitik jaiotakoak dira. Denboraren joanean, kofradia eta elkarte ugari sortu dira debozioa praktikatzeko edo karitatezko ekintzak gauzatzeko helburuarekin. Bestalde, Ekintza Katolikoko mugimenduek, gerra arteko garaitik kontzilio garaira arte Europako eta Ameriketako herrialde latinoetan indar handia izan zutenek, asko lagundu zuten Elizaren zereginean laikoen parte-hartzea antolatzeke premia antzematen.

Vatikanoko II. Kontzilioak esperientzia horiek bildu zituen, eta Elizaren dimentsio garrantzitsuenetakotzat jo zuen Jainkoaren Herriko kideek Elizan parte hartzeko bizimodu desberdinak eramatea. Era berean, Kontzilioak berariaz aitortu zuen fededun guztien elkartzeko eskubidea, apostolutzarekin, errukiarekin edota karitatearekin lotutako helburuetarako. Eta laikoek Elizaren misioan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra dutela aldarrikatu zuen. Hemendik aurrera ulergarria da mundu guztian talde, komunitate, elkarte eta mugimenduak sortzea, fededunen ekimenez eta hainbat espiritualtasun kutsu eta formarekin. Aniztasun horri kritikak egin dizkiote ahaleginak sakabanatzea dela uste dutenenek, baita partiduko edo lider edo sortzaile jakin batzuen pertsonalitatearekiko gurtza espirituaren ondorio dela uste dutenenek ere.

Elkartze-mugimendu hau eta Vatikanoko II. Kontzilioaren erabakiak praktikan jartzeari buruzko borrokak garai berean gertatu ziren. Nolanahi ere den, Vatikanoko II. Kontzilioa bera eta bere xedapenak aplikatzeko moduak eztabaida ugari sorrarazi ditu Eliza Katolikoaren barruan, eta Kontzilioa amaitu zenetik nahiko maiz agertzen da lehen oso gutxitan gertatu ohi zen fededun-taldeen desadostasun publikoa artzainen aurrean, doktrinarekin edo diziplinarekin loturiko gaien inguruan.

Euskal Herriko Eliza Katolikoa bereziki sentikorra izan da Vatikanoko II. Kontzilioaren jasotze-prozesuok, laikoen rolaen errebalorizazioarekin, elkarten loratzearekin eta elizaren inkonformismoarekin. Vatikanoko II.a gertatu baino lehen, fededunek hierarkiarekin

⁶⁰ Cfr. Olaizola, Juan María (1992), *Historia del Protestantismo en el País Vasco*, Pamiela, Iruñea. Kristautasuna Europako erlijio bakar bilakatu zen unean, Europaren bihotzean desberdintasunak sortzea oso esanguratsua da. Eta oso tragikoa da desberdintasun horiek erlijio-gerra luze eta krudelak eragitea. Lehenengoa saihestezina da, bigarrena, tamalgarría.

zuten adostasun eza ezaguna zen euskal Elizan. Gerra Zibilaren ondoren (1936-1939), nazionalkatolizismoak gero eta banaketa handiagoa ekarri zuen erregimen frankistaren aurka zeuden apaizen, laikoen eta apezpikuen artean. Espainiako Gobernuak apezpikuak izendatzen modu aktiboan hartzen zuen parte 1941etik, Espainiako erregeen aurkezpen-privilegio zaharra birbiztu zenetik, gerora 1953ko konkordatuan berretsitakoa. 1949an Gasteizko diozesia banatu zen (egungo Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea biltzen zuena), Bilboko eta Donostiako diozesi berriei bidea irekitzeko, bai eta barruti zibilak eta elizakoak bat egitea ahalbidetzeko ere. Banaketa hori arrazoi historikoek, demografikoek eta pastoralek bultzaturikoa izan bazitekeen ere, argi dago erregimen frankistak euskal kleroa zatitzeko eta ahultzeko asmoz egin zuela, klero horren zati handi bat aurka baitzuen. Diozesi berri horiek sorrarazi ondoren, egoitzetan Gobernuak izendaturiko apezpikuak jarri zituzten.

Berrogeita hamarreko hamarkadan nahasmen sozial handia bizi izan zen Bizkaian eta Gipuzkoan. Greba ugari egon zen, eta ondoren erregimenaren errepresioa etortzen zen. Langileen eskubideen defentsan ezarri zituen Euskal Herriko kleroak bere ahalegin guztiak garai hartan, nahiz eta euskal nortasuneko fenomeno kulturalak jasan zuten asfixia-politikak ere behin baino gehiagotan salatu zituzten, hizkuntzak jasandakotik hasita. Hala, 1960ko maiatzean, protesta-ekitaldi deigarri bat gertatu zen: 339 apaiz euskaldunek Iruñeko artzapezpikuari eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko apezpikuei eskutitz bat idatzi zioten, eta publikoki banatu zuten. Idazkiak Gerra Zibilaren amaieratik Espainiak eta, bereziki, Euskal Herriak jasan behar zuen askatasun falta eta errepresioa aztertzen eta salatzen zituen; frankismoaren zilegitasuna zalantzan jartzen zuen, erregimenak berak bere ideologiaren zutabe gisa aldarrikatzen zuen doktrina katolikoarekiko zituen kontraesanengatik; eta hierarkia katolikoari sistema politiko horri emandako laguntza leporatzen zion.

Hurrengo urteetan, apezpikuak erregimenari lotuegi zeudela zioten apaizen kontrako jarrera ugari izan ziren, bai eta apezpikuek bidegabekeriak eta giza eskubideen urratzeak salatzeke betebeharrari bizkar ematen ziotela baieztatzen zutenen kontrakoak ere. Joan XXIII.a aita-santuaren *Mater et Magistra* (1961) eta *Pacem in Terris* (1963) entziklikak eta Vatikanoko II. Kontzilioko *Gaudium et Spes* (1965) pastoralaren sorrerak argudio indartsuagoak edukitzen lagundu zuten, erregimenak giza eskubideak, oinarrizko askatasunak, gutxiengo etnikoen eta kulturalen eskubideak edota langileenak urratzen zituenean. Hirurogeiko hamarkadan eta hirurogeita hamarreko lehenengo urteetan apaizei sermoiengatik isunak jarri zizkieten, elizetako itxialdiak gertatu ziren eta Zamorako konkordatuazko kartzelaren urteak izan ziren. Testuinguru horretan, sarritan gertatu ziren agintari frankisten eta Ekintza Katolikoko mugimenduen arteko gatazkak (elkarte hori eta bere jarduerak Konkordatuaren 34. artikulua babesten zituen). Orduan, apezpikuek debekatu egin zuten 1967an erregimenaren kritika oro, eta mugimenduak bururik gabe utzi zituzten; ondorioz, ezinegon handia sortu zen, eta militante asko, Ekintza Katolikoa utzi, eta oposizioko elkarte politiko eta sindikaletara joan ziren.

Baina aldaketaren aldeko apezpiku laguntzaileak (aurkezpen eskubidetik at zeudenak) izendatzeko Vatikanoren politikari esker (gubernuek izendapenak kontrola ez zitzaten), Espainiako apezpikutzak berritzen joan zen; hala, hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialderako, apezpiku gehienek ez zuten beren burua Gerra Zibiletik sortutako gubernuarekin identifikatzen. Alde horretatik, denborak ez ziren bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko hiru elizbarrutien artean. Bilbokoan krisia latzagoa izan zen, agian Bizkaiko biztanleen konplexutasun soziologiko handiagoagatik eta, ziur aski, Pablo Gurrupide (1956-1968) apezpikuak gobernatzeko zeukan moduagatik. Hura hiltzean, 1968ko azaroan,

elizbarrutiko mintegiak ezin zuen behar bezala funtzionatu, bertan hirurogei bat apaizeko taldea baitzegoen giltzapetuta, Eliza hierarkikoa euskal herritarren eta beren kulturaren errepresioaren konplize zela uste zutelako protestan. Egoera eutsiezin horren ondorioz, Pablo VI.ak garai hartan Santanderreko apezpiku zen José M^a Cirarda bizkaitarra izendatu zuen Bilboko administratzaile apostoliko. Cirarda apezpikuaren administrazio-urteetan (1968-1971) Vatikanoko II. Kontzilioak eskaturiko erreformak martxan jarritako aldaketak hasi zituzten; horren ondorioz, agintari zibilekin bestelako jarrera izan behar zen, eta arreta handia eman behar zitzaion euskal kulturaren espezifikotasunari. Antonio Añoveros apezpikuaren apezpikutzak ere (1971-1978) ildo horretatik jarraitu zuen. Añoveros frankismoan Elizaren eta Estatuaren artean gertaturiko harremanen krisirik handienaren protagonista izan zen nahi gabe 1974an; hain zuzen, herrien eskubide kulturelei buruzko doktrina sozial katolikoaren azalpen bat emategatik. Bilborekin bateratsu, Donostian ere aldaketa gertatu zen diozesira Jacinto Argaya (1968-1979) iritsi zenean, zeinak 1972tik aurrera Jose M^a Setien izan baitzuen apezpiku laguntzaile eta oinordeko elizbarrutian. Gasteizen, ordea, Francisco Peraltaren (1955-1978) apezpikutzak kleroaren alderdirik kontserbadoreena eduki zuen diozesiaren gobernuan, elizbarrutiko apaizen eta laikoien ezinegona agerikoa bazen ere. Vatikanoko II.a amaitu zenetik Franco jenerala hil zen arteko hamarkadan (1965-1975) Euskal Herriko Eliza Katolikoaren elizbarrutietako ezaugarri nagusia kontzilioak eskaturiko berritzea gauzatzeko ahaleginak izan ziren, baita erregimen frankistarekiko aurkakotasun gero eta handiagoak sortutako gatazkak ere. Ideologia nazionalkatolikoak, erreakzioz, hierarkiarekiko hoztasuna eragin zuen kleroaren eta laikoien zati batean, euskal herritarren zapalketa kulturala eta politikoa aintzat hartzen ez zuela leporatzen baitzioten. Aldi berean, erregimenaren ustez euskal elizbarrutietako apezpikuak onberegiak ziren, konibenteak izatera iristeraino; izan ere, helburu separatistekin bat zetozela zioten. Agintari frankistek euskal kleroaren zati batek ETÅri laguntzen ziola ere salatu zuten. Nolanahi ere, sarritan sinetsarazi nahi izan denaren aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako elizbarrutietako apezpikuek ez dituzte inoiz ETÅren hilketak eta bestelako indarkeria moduak onartu.

Dena dela, Franco jenerala hil eta Espainian trantsizio politikoa hasi zenetik, Euskadiko apezpikuen erabakiek kritikak jasotzen jarraitu dute; bai euskal herritarrek jasan beharreko indarkeria estrukturala indarrez eta argi salatzen ez zirela ziotenen aldetik, bai ETÅren eta inguruaren ekintzak behar adinako biribiltasunarekin salatzerakoan uzkurto egiten zirela ziotenen aldetik.

Oinarriko kristau komunitateak Euskal Herrian

Edonola ere, arestian esan bezala, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren aldaketa handiak jarri ziren abian Eliza Katolikoaren hainbat dimentsiotan. Aldaketok hainbat alderdiri eragiten zioten; esaterako, liturgiari, katekesiari, ekintza pastoralari, apaizen prestakuntzari eta kongregazio erlijiosoei. Elizaren berrikuntzaren agerbideetako bat talde eta elkarte berrien jaiotza izan da, batez ere laikoek sorturikoak edo zuzendurikoak. Elkartze-fenomeno horren barruan nabarmentzekoak dira oinarriko eliza-komunitateak eta mugimendu berriak.

Jainkoaren Hitzak esperientzia kristauan zer-nolako balioa duen aurkitu izanaren ondorioz sortu ziren oinarriko eliza-komunitateak, bai eta gizartea eraldatzeko konpromisoaren premiaren ondorioz ere. Mundu osoan zabaldu ziren, baina agian errezatzeko, Biblia irakurtzeko, katekesirako, giza eta elizako esperientziak partekatzeko eta elkarrekin konpromisoa hartzeko biltzen diren kristau-taldeen eredu honek Latinoamerikan izan du garapen handiena eta harrera onena apezpikuen aldetik. Medellinen 1968an eginiko

Latinoamerikako Apezpikutzaren II. Konferentzia Orokorrean erreferentzia egin zioten oinarriko kristau komunitateen errealitate horri, eta herri-pastorala berritzeko ezinbesteko elementu zirela esan zuten.

Oinarriko eliza-komunitateen hedadura oso lotuta dago Latinoamerikako hirurogeiko hamarkadatik laurogeiko hamarkadara arteko egoera politiko, sozial, ekonomiko eta erlijiosoarekin. Argi dago horren bitartez Eliza Katolikoa ebanjelizazioa herritar gehienei zabaltzen saiatu zela, baita haiek elizako bizitzan txertatzea bultzatzen ere, subkontzientean bada ere. Haren hazkundera askapenaren teologia izenez ezagutzen den pentsamendu-korrontearen garapenari lotuta dago, teoria horren egileetako askok esanbidez inkardinatzen baitzuten beren hausnarketa komunitate horien esperientzian. Zenbait estamentuk ez zuten onartu oinarriko eliza komunitateen teologo horietako batzuek aurkezten zieten Eliza modu berria, Eliza hierarkikoari kontrajarria. Hala, zenbait kasutan, Elizaren erakundearekiko kritika hipertrofiatutzat jotzen zutenaren gehiegikerien aurka ohartarazi zuten jendea, eta komunitate horiek aktibismo politiko eta sozial hutsera mugatzen zirela adierazi zuten.

Elizako mugimendu berrien fenomeno desberdina da, kontzilio-ondorengo berritasun handia baitira. Elkarre multzo oso heterogeneoa da, batzuek izaera karismatiko edo suttsua dute, baina guztiek dute berritzeko grina eta Ebanjelioa erabat bizitzekoa. Mugimenduetan garrantzi handia izan ohi du sortzaileen edo liderren irudiak. Normalean nolabait zentralizatuta dagoen nazioarteko antolamendua izaten dute, eta beren eredia tokiko elizetako komunitate txikietan ezarri hedatzen dira. Mugimendu berrien adibide ezagunak dira Camino Neocatecumenal izenekoa, Chiara Lubich-en Fokolareen Mugimendua, Comunione e Liberazione, Catholic Charismatic Renewal, Berritze Karismatiko Katolikoa eta beste hainbat.

Mugimendu berri horien hedapenak zailtasunak ere ekarri ditu, pastoralarekin lotura handiagoa dutenak doktrinarekin baino. Mugimenduetako bakoitza oso desberdina izateak eta nazioartekotasunak ez dute erraztu parroketako eta elizbarrutietako bizitzan ondo txertatzea, ezta ohiko jardueran sartzea ere. Elkarre horien muturreko aniztasunak baztertu egiten du erabat inolako orokortzerik egiteko aukera, baina kontua da elizako mugimendu berri horiek Joan Paulo II.a eta Benedikto XVI.a aita santuen onspena izan dutela eta horrela adierazi dutela bai haien zuzendari bidualitako hainbat mezu partikularretan, bai Erroman gaur arte eginiko nazioarteko bi kongresuetan (1998 eta 2006). Biek nabarmendu dute, alde batetik, tokiko elizek aniztasuna onartu behar dutela beren elizbarrutietan eta lekua egin behar dietela errealitate berri horiei eta, bestetik, mugimenduen betebeharra dela ordezkariak duten parroketako eta elizbarrutietako bizitza pastoralean sartzea espiritualtasun-modua absolutizatu gabe.

Euskal Herriko Eliza Katolikoak ere izan du ikustekorik talde, komunitate eta mugimendu sorreraren dinamika horretan, eta bereziki emankorra izan da oinarriko komunitateen sorkuntzan. Eliza honetan sortutako adierazpenak sailkatzeko irizpideak ezartzeko aukera ugari dago; parrokia batekiko atxikipena, erakunde erlijiosoekikoa edo batere ez hartzekoa kontuan hartuta; indarra komunitate-bizitzan edo balio ebanjeliko konkretuetan jartzen den aintzat hartuta, eta abar. Elizbarruti bakoitza desberdina da, baina autonomia erkidegoko elizako elkarre-errealitatea aztertuta gutxi gorabeherako elkarre sorta bat ezar dezakegu, haiek sortu ziren unearen eta Eliza erakundeari, ordena erlijiosoei edo elizbarrutiei atxiki zitzaizkien unearen arabera (edo horietako bati ere ez).

I. Lehenik, Ekintza Katolikoko mugimenduak daude: Ekintza Katoliko Orokorra, Gazteria Langile Kristaua, Ikasle Kristau Gazteak, Ekintza Katolikoko Langile

Ermandadea. Elizaren ebanjelizazio-jardunean parte hartzen duten elkarteak dira, eta elizaren hierarkiari estu lotuta daude. Elkarte horietako kide kopurua eta elizbarrutiko bizitzan duten pisua txikiak dira gaur egun. Berrabiarazteko ahaleginak egin arren, ez dute lortu hirurogeiko hamarkadako krisiaren aurreko dinamismoa berreskuratzea.

2. Bigarrenik, erlijio-institutuei loturiko komunitateak eta taldeak daude, oro har, haien ikastetxeetatik abiatuta ezarriak. Funtzionamenduari, tamainari eta jardueri dagokienez, haietako askok beherago jasotako oinarri-komunitateen antza dute, ezberdintzen dituen alderdietako bat institutu erlijioso batekiko lotura baita. Kategoria horretako adibide batzuk Bizitza Kristauko Komunitateak (jesuitak), Itaka Komunitatea (eskolapioak), Maristen Anaitasunak (Anaia Maristak), Ebanjelio eta Solidaritate Komunitateak (klaratarrak), eta La Salleko Komunitate Kristaua (La Salleko Anaiak) dira. Beste kongregazioen ingurunean ere badaude erreferentzia-taldeak, baina ez dute adierazitakoen adinako antolakuntza-maila.

3. Hirugarrenik, aurreko ataletan adierazitakoen aldean, jatorri, garapen eta enfasi ebanjeliko desberdina duen komunitate sorta bat bildu dugu. Kasu gehienetan gazteen edo helduen, denbora libreko taldeen eta antzeko beste talde batzuen katekumenotzatik jaiotako oinarri komunitateak edo komunitate txikiak asko dira, eta oso desberdinak elkarren artean, batez ere Bilboko diozesian. Horietako asko elizbarruti edo eskualde jakin bateko parrokiari atxikita daude, eta kideek bertako jarduera pastorealean aktiboki parte hartu ohi dute; beste batzuk, ordea, ez zaizkio parrokia jakin bati lotzen eta hedapen handiagoa dute autonomia erkidegoan. Komunitate horietako batzuek, esaterako Fe y Justicia, Sal y Luz, Acción Solidaria komunitate kristauak, edo Adsis komunitateak, Eliza Katolikoaren barruko fededunen elkarte pribatu gisa eratzea aukeratu dute, baina gehienak ez dira instituzionalizazio formaleko maila horretara iristen. Hona hemen antzeko beste komunitate batzuk: Bidari, AILEDI-El Salvador, Zurbarango Komunitatea eta Kristau Elkarte Herritarrak (Euskal Herriko Apez Koordinakundeari atxikiak). Elkarte horien gehiengoak harreman kritikoagoa izan du apezpikuekin eta noizbait haien iritzi soziopolitikoak argi eta garbi ukatzera iritsi dira, baina beti azaldu dute Elizaren elkartasunari eusteko borondatea. Edonola ere, Eliza Katolikoak beste erakunde mota bat edukitzearen aldeko dira, besteak beste, gutxiago hierarkizatua. Alderdi horiekin bat egin dute institutu erlijiosoei loturiko zenbait komunitatek ere. Komunitate horietako batzuek beren lurralde-eremua tokiko eremuari lotzen diote. Baina beste batzuek, jatorria Euskadin izanagatik ere, penintsulako beste leku batzuetan edo beste herrialde batzuetan ere komunitateak dituzte. Horien artean daude, adibidez Fe y Justicia eta Acción Solidaria komunitate kristauak eta Adsis komunitateak. Bestalde, Euskal Herriko Apez Koordinakundeari loturiko Kristau Elkarte Herritarren ezaugarri nagusia euskal herritarrek jasandako zapalketa salatzea izan da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Baionako elizbarrutietan aurki ditzakegu.

4. Azkenik, Elizako Mugimendu Berriak izenekoak daude; mugimendu horiek garapen handiagoa jasan dute azken hamarkadetan eta, gorago adierazi dugun moduan, nazioartean zabalduak daude. Euskal Autonomia Erkidegoko elizbarrutian Camino Neocatecumenal, Seminario del Pueblo de Dios, Renovación Carismática, Obra de María (fokolareak) eta beste batzuk aurki ditzakegu. Nolanahi ere, gaur arte, haien presentzia eta jarduerak ez dira bereziki nabarmendu Euskal Herriko elizbarrutietan.

Ezinezkoa da EAEko elizbarrutietako komunitateen eta mugimenduen zerrenda osoa ematea edo haien kide kopurua zehaztasunez ezagutzea, ez baitago errealitate horri

buruzko azterlan espezifikorik. Inola ere ezin liteke pentsa elizbarrutietako eta parroketako jarduera osoa edo gehiengo hartzen dutenik, haiei batu behar baitzaizkie katekesia, liturgia eta prestakuntza emateaz, errezoaz eta ekintza karitatiboaz edo sozialaz arduratzen diren pertsonak. Baina, zalantzarik gabe, haien jarduera eta presentzia Euskadiko Eliza Katolikoaren elementu bereizgarria da, nortasunaren ezaugarri bat.

Oinarri-komunitateetako eta erlijio-institutuei loturikoetako batzuek harremanak dituzte Somos Iglesia, Redes Cristianas eta tankerako plataformekin. Plataforma horiek eliza antolatze, pentsatzeko edo espiritua berritzeko modu berriak sustatzen dituzte, eta, askoren ustez, elizaren hierarkiak defendatzen dituen moduekiko alternatiboak, kontrakoak edo osagarriak dira. Edonola ere, horrek ez die galarazten elizbarrutietako egitura ofizialen zati izatea, Bizkaiko Elizako Komunitateen Kontseiluaren edo parroketako eta elizbarrutietako kontseilu pastoralen kasuan bezalaxe. Bestalde, Ekintza Katolikoko mugimenduak nekez atxikiko zaizkio eliza publikoki kritikatzeko ekimenari, beren osaeratik diocesiko apezpikuarekin erakunde bakarra osatzen dutela ulertzen baita.

Egungo ikuspegitik, hirurogeita hamarreko hamarkadatik sortutako oinarri-komunitate hauen etorkizuna ziurgabetasunez beteta dago. Neurri batean, gizartearen gehiengoaren sekularizazio prozesuak eta euskal gizartearen pixkanakako postmodernizazioak indarra kendu diote komunitateei azken urteotan. Horixe ondorioztatzen da komunitateen belaunaldien osaerari erreparatuta behintzat, ez baitirudi haien berrikuntza-prozesua ziurtatuta dagoenik. Dena dela, euskal Elizaren barruan gertatzen ari diren egiturazko aldaketak alde batera utzita, komunitate horiek aurreko hamarkadetan izandako eraginak aipamen bat merezi zuen Euskadiko aniztasun erlijiosoaren bilakaerari buruzko deskribapen honetan. Azken batean, oinarri-komunitateek aurre hartu diote nolabait egun areagotzen ari den aniztasun erlijiosoari, eta dagoeneko ez da gehiengoaren fedearen mugetan geratzen, muga horiek erabat gainditzen ditu, hurrengo kapituluan adieraziko dugun bezala.

IV. EGUNGO ERLIJO GUTXIENGOAK EAE-N

Ekialdeko kristautasuna eta kristautasun ortodoxoa, *Andrea Ruiz Balzola eta Eduardo J. Ruiz Vieytes*

«Ortodoxia» terminoa grezierako *orthos* («zuzena», «egiazkoa») eta *doxa* («iritzia», «sinesmena») hitzetatik dator, eta hainbat erlijioekin edo edozer ideologia edota pentsamendurekin lotuta erabil daiteke. Kristautasunaren eremuan, ortodoxo terminoa Elizak ofizialki babesturiko doktrina bereizteko erabili zen. Lehenengo kontzilio ekumenikoen aurretik (IV. mendearen hasieran), kristautasunaren barruan gertaturiko desberdintasun nagusiak *homousia* (trinitarismoa) eta, besteak beste, Arriok defendatzen zuen *heterousia* doktrinaren artean gertatzen ziren. *Homousia* Elizaren doktrina ofizial bilakatu zen Nizeako Kontzilioan, 325ean, eta, ondorioz, ortodoxia izena hartu zuen. Hala, lehenengo kontzilio ekumenikoetan hartutako erabakiek doktrina ortodoxo kristaua markatu zuten, eta hainbat korrante eta interpretazio bereizi ziren, denborarekin. 1054ko zismaren ondoren, kristautasuneko bi zatiak ortodoxotzat hartu ziren arren, pixkanaka terminoa Konstantinoplari lotutako elizei eman zitzaizkien, eta Eliza erromatarra, denboraren poderioz, «katoliko» adjektiboarekin identifikatuta geratu zen.

Eliza ortodoxoak kristautasunaren eskema orokorrean behar bezala kokatzeko, beharrezkoa da kristau elizen hainbat adar bereiztea, guztiak multzo berean sartzea nahasgarria izan baitaiteke. Mendebaldeko tradizio handiak –katolikoak, protestanteak edo biblikoak– alde batera utziz gero, ekialdeko kristautasunaren barruan hiru familia handi bereiz ditzakegu. Beste edozeren gainetik, tradizio bizantziar edo kaltzedoniarreko eliza ortodoxoak daude; bere garaian Kristoren izaera bikoitzari buruzko Kaltzedoniako Kontzilioaren (451) ebazpenak onartu zituztelako hartu dute izen hori. Normalean eliza ortodoxoek hitz egiten dugunean haiei buruz ari gara eta, besteak beste, elkarren artean elkartasunean egotea eta Konstantinoplako Patriarkaren ohorezko gorentasuna onartzea dituzte ezaugarri nagusi.

Baina, egun euskal gizartean aurki ditzakegun eta aipatu berri ditugun eliza ortodoxoek harago, bi eliza-familia kristau daude ortodoxiaren ideari zein ekialdeko elizen kontzeptu geografikoagoari lotuta. Lehenik eta behin, kaltzedoniarrek ez diren eliza ortodoxoak daude, aurrekaltzedoniar ere deiturikoak. Ekialdeko ortodoxia izenekoa da, eta Kaltzedoniako Kontzilioaren ondoren aurrekoetatik bereizitako elizak biltzen ditu; batzuek monofisita terminoa erabili ohi dute mespretxuz haiei buruz hitz egiteko. Eliza horiek garapen handia izan zuten Alexandriako eta Antiokiako patriarkatuetan oinarrituta. Lehenengotik Eliza ortodoxo koptoa eta etiopiarra (eta 1994tik eritrearra) sortu ziren, eta bigarrenetik Eliza ortodoxo siriarra edo Siriako mendebaldeko Eliza (jakobita izenarekin ere ezagutzen dena), Irakeko, Irango eta India hegoaldeko hainbat eremutan zabalduak. Talde horretan sartu behar da, bestalde, Eliza apostoliko armeniarra; azken hau aurrekaltzedoniarra da ez-kaltzedoniarra baino gehiago, kontzilio hartan ez baitzen ordezkari armeniarrik izan.

Armenia munduko lehenengo herrialde kristautzat jo da eta bere elizak patriarkatu tradizionalekin izan duen harremana hotza izan da beti, nahiz eta bere doktrinak ekialdeko gainerako ortodoxoen doktrinetatik gertu egon. Elizok Konstantinoplako eliza ortodoxoek aldarrikaturiko zazpi kontzilio ekumenikoetatik hiru baino ez dituzte onartzen. Azkenik, ondo bereizitako adar bat garai batean Ekialdeko Eliza Asiriar Katoliko Apostoliko garrantzitsuak ordezkaturikoa da. Efesoko Kontzilioaren (431) ondoren sortu zen, ez baitzituen kontzilio horren tesiak onartu. Eliza nestoriotar edo ekialdeko eliza siriar deitu izan dute; goieneko unea Erdi Aroko lehen mendeetan ezagutu zuen eta asko zabaldu zen Asiako zenbait lurraldetan, Txinan eta Indiako zati batean barne (oraindik bizirik jarraitzen du hor). Era berean, Iraken eta mendebaldeko herrialderen batean ere badu talde txikirik.

Hirugarrenik, eliza ortodoxoen mundua eta Eliza Katoliko Latindarrarekiko obedientziari eusten dioten ekialdeko beste eliza batzuen bereizi beharra dago. Azken horiek ekialdeko eliza katoliko edo eliza greko-katoliko izena hartu dute. Libanoko Eliza Marondarra eta Eliza Italogreziarra izan ezik, eliza guzti-guztiak datoz beste ekialdeko tradizioen batetik edota tradizio ortodoxoren batetik. Hala, zatiketa historikoak eragin dituzte, eta, horien bitartez, patriarka erromatarren gorentasuna onartzen hasi ziren, ekialdeko estiloko edo estilo bizantziarreko beren erritualari eustearen truke. XVI. mendearen amaieran sortzen hasi ziren Eliza mota hori ez dago European bakarrik; eliza ortodoxoek (konstantinopolitarrak izan ala ez) fededun-oinarri handiena duten lurraldeetan ere badaude. Eliza horien zatirik handienak eten egin zuen zegoen komunitatearekin, eta Erromarekin bat egin zuen XVII. eta XVIII. mendeetan. Alderdi juridikotik begiratuta Eliza Katolikoaren zati dira eta, hortaz, ez dira gure azterlanaren xedean sartzen. Baina haien liturgiak eta zeremoniak eliza ortodoxoekiko edo ekialdeko elizekiko gertuko egiten ditu; beraz, horrek nahastu egin ditzake pertsona asko. Euskal Herrian duela gutxi bi komunitate greko-katoliko sortu dira; hori horrela izanik, justifikatuta dago haiei buruzko erreferentzia labur bat sartzea kapitulu honetako atal espezifiko batean, nahiz eta nabarmendu behar dugun elizon jatorri «ekialdetarrak» Eliza Katolikoaren kide izatea ez duela galarazten (eliza horren barruan *sui iuris* elizak dira). Hortaz, termino juridikoetan, ez dira gizarte honetako erlijio gutxiengo bat.

Azkenik, aipamen berezia merezi dute aurreko elizetakoren baten tradizio ortodoxotik edo ekialdeko tradiziotik abiatuta, haiengandik bereizi zirenek; bai doktrina arrazoiek bultzatuta, bai onartu ez zituzten elizako erreformek edo erritualek bultzatuta. Horixe da, adibidez, Erritu Zaharreko Eliza Ortodoxo Lipoveniarraren edo Erritu Zaharreko Eliza Ortodoxoaren kasua, gaur egun Euskadin presentzia duena eta ezin litekeena aurrekoekin batera jarri.

Labur esanda, ez «ortodoxo» adjektiboak, ez «ekialdeko» izenlagunak, ez dute erabat balio aurreko lerroetan aipatu ditugun elizen multzoa definitzeko. Alde batetik, erromatar nagusitasunaren mende dauden eta jatorria ekialdean duten elizak daudelako. Bestetik, eliza horietako bat ere ezin delako erabat ekialdekotzat jo, beren fededunetako gero eta gehiago mendebaldeko herrialdeetan bizi baitira, sarritan beren ezarpen eremuetatik oso urrun geografikoki. Nolanahi ere, kapitulu honetan aipatuko ditugun eliza guztiak «ortodoxia» errotulu generikoaren barruan bil daitezke; ortodoxia Eliza Katoliko

Latindarraren (erromatarra) eta protestantismoaren zentzurik zabalenean sorturiko elizen multzoaren faktore aglutinatzaile eta bereizletzat hartuta.

Eliza ortodoxoak

Eliza ortodoxo kaltzedoniarrek (edo, besterik gabe, Eliza Ortodoxoa) oinarri nazionalako elizen komunitate kristaua osatzen dute, eta lehenengo zazpi kontzilio ekumenikoetatik eratorritako doktrina partekatzen dute: Nizea (325), Konstantinopla (381), Efeso (431), Kaltzedonia (451), Konstantinopla II (553), Konstantinopla III (680-681) eta Nizea II (787). Munduan dituzten jarraitzaileen kopuru osoa kalkulatzea zaila da, baina litekeena da 225 milioi fededunetik gora izatea. Eliza Katolikoak edo eliza protestanteek ez bezala, eliza ortodoxoek leial jarraitzen dute aipaturiko lehenengo bi kontzilio ekumenikoetan onarturiko kredo nizenokonstantinopolitarra. Erromako Elizatik behin betiko banaketa 1054. urtean gertatu zen formalki, baina desberdintasunak lehenago sortu ziren. Eliza konstantinopolitarrak eta erromatarrak berriro ere batzeko ahaleginek porrot egin dute hainbat arrazoi direla-eta.

Kristautasun ortodoxoaren zabalkundea, batez ere, Inperio Bizantziarraren ondoren gertatu zen; bereziki, Konstantinoplako patriarkatuaren garaian. Hala, jatorrizko lau patriarkatuetatik, Antiokia, Jesuralem eta Alexandria nahiko azkar erori ziren potentzia musulmanen eskuetan. Horrez gain, Kaltzedoniako Kontzilioak eragindako banaketek kristautasuna Afrikan edota Asian ezartzeko aukera asko murriztu zuten; bereziki, kaltzedoniar tradizioko kristautasuna. Ordainetan, Bizantziar Inperioak herri eslaviarren zati handi baten kristautzea lortu zuen Erromarekin lehia gogorrean, eta, aldi berean, Finlandiako herri batzuk eta Balkanetako zenbait komunitate latindar ere kristautu zituen. Mundu ortodoxoan, Konstantinoplako patriarkaren nagusitasuna ohorezkoa baino ez da, eta elizaren antolamendu nagusiak zerikusi handia du gorabehera politikoeekin, eliza ortodoxoek oinarri nazional argia izan ohi baitute.

Hortaz, gaur egun, Eliza Ortodoxoa hamalau eliza autozefalok eta zenbait eliza autonomok osatzen dute. Lehenengoak independenteak dira zentzu guztietan; barneko gatazkak konpontzen dituzte eta liderrak aukeratzen eta kotsakratzen dituzte. Bestalde, eliza autonomoek independentzia txikiagoa dute, eliza amatik jaso behar baitute lider berria izendatzeko baimena. Eliza bat autozefalotzat jotzeko, eliza ortodoxo guztietako patriarkek hala aitortu behar dute. Horregatik, elizen banantze-prozesuak eta eliza independente berriak sortzekoak konplexuak eta alderraiak izan daitezke sarri, eta, ondorioz, bere burua izendatu duten elizak egotea litekeena da, zenbait patriarkak bakarrik onartutakoak.

Gaur egun dauden hamalau eliza autozefaloek hainbat eliza biltzen dituzte: jatorrizko patriarkatuak, gerora oinarri nazionalarekin sorturiko patriarkatuak, eta duela gutxiago sorturiko beste eliza independente batzuk (nazionalak izan ala ez). Hona hemen hamalau elizen zerrenda: Konstantinopla (Patriarka Ekumenikoa da burua, Istanbulen du egoitza eta Turkian, Greziako zenbait lurraldetan eta Ameriketako, Europa mendebaldeko eta Australiako diasporan du eskumena), Alexandria, Antiokia, Jerusalem, Errusiako Eliza Ortodoxoa (Moskuko patriarka buruzagi duena), Georgiako Eliza Ortodoxo eta Apostolikoa

(Tbilisiko patriarkak zuzendua), Serbiako Eliza Ortodoxoa (Belgradeko patriarka du buru), Errumaniako Eliza Ortodoxoa (Bukaresteko patriarkak zuzendua), Bulgariako Eliza Ortodoxoa (Sofiako patriarka buru duena), Zipreko Eliza, Greziako Eliza, Albaniako Eliza, Txekiako Lurraldeetako eta Eslovakiako Eliza Ortodoxoa eta Poloniako Eliza Ortodoxoa. Bestalde, Ameriketako ere badago Eliza Ortodoxoa, baina haren autozefalia ez dago unibertsalki onartua; izan ere, nahiz eta Moskuko Patriarkak independentetzat jotzen duen, Konstantinoplakoak oraindik ez du hala aitortu. Adierazitako eliza autozefaloetatik, lehenengo bederatziek patriarka bat dute lider gisa, eta gainerako seiak, duela gutxiago sortutakoak, apezpiku edo metropolita batek zuzentzen ditu. Eliza autonomoen artean, aintzatespen unibertsala dutenak Sinai Mendikoa (Jerusalemgo patriarkatuaren autonomia) eta Finlandiakoa dira (Konstantinoplak eman zion autonomia 1918an). Beste kasu batzuetan, ordea, errekonozimenduak partzialak baino ez dira. Adibidez, Estoniako Eliza autonomotzat jotzen du Konstantinoplak, baina ez, ordea, Moskuk; izan ere, Errusiako Elizaren exarkatu baten barruan sartzen du Estonia. Kontrako egoera gertatzen da Txinako eta Japoniako Eliza autonomoekin; Moskuko patriarkatuak biak onartzen ditu, baina Konstantinoplakoak ez. Zenbait herrialdetan, eliza autonomoek edo autozefalo izendatuek aitortzak gurutzatuta dituzte, eta horrek egoera konplexuak sortzen ditu. Horren adibide garbia da Ukrainako kasua. Herrialde horretan, gaur egun Ukrainako Eliza bat, Moskuko Patriarkatuaren arabera autonomia dena, eta beren burua independente izendatutako bi eliza bizi dira batera. Azken bi eliza horiek patriarkatua Kieven dute: Ukrainako Eliza Ortodoxoa eta Ukrainako Eliza Ortodoxo Autozefaloa. Hiru horiei Ukrainako Eliza Grekokatolikoa erantsi behar zaie, erritu bizantziar tradizionalari eusten diona baina Erromarekin eliza-elkartasunean dagoena.

Azkenik, beren burua eliza autozefalo edo autonomo izendatu duten baina komunitate ortodoxoko inongo elizak onartu ez dituen eliza ortodoxo multzo bat ere badago. Horien barruan sartu behar dugu Erritu Zaharreko Eliza Ortodoxo Lipoveniarra, jatorri errusiarreko sinestun-komunitateak biltzen dituen Errumaniako Eliza (Moskuko Nikon Patriarkaren erreformak onartu ez zituztenek XVII. mendeko bigarren erdialdean sortutako eliza). Sinestun zaharrak eliza ortodoxoari atxikita ez dauden lau eliza-egituratan biltzen dira; horietako bat Erritu Zaharreko Eliza Ortodoxo Lipoveniarra da.

Ortodoxia Euskal Autonomia Erkidegoan

Eliza ortodoxoek egun Euskadin duten presentzia azken hamarkadetan gertaturiko migrazio-prozesuen ondorio da. Berez, Euskadiko komunitate ortodoxoetako kide izatea, berezko tradizio handiagoa duten beste lekuetan gertatzen ez den bezala, zuzenean eliza horietako fededunen nazionalitatearekin dago lotuta, Serbiako Eliza Ortodoxoaren kasua salbuetsita. Euskal Autonomia Erkidegoan bost eliza ortodoxo daude. Horietako lau beren jatorrizko patriarketatik independenteak dira eta Konstantinoplarekin eta gainerako mundu ortodoxoarekin daude elkartuta (Errumaniako, Errusiako, Georgiako eta Serbiako Eliza Ortodoxoak). Bosgarrena, berriz, aurrekoetatik bananduta dago, eta Danubioko deltatik etorritako sinestun zaharren komunitateek osatzen dute (Eliza Ortodoxo Lipoveniarra). Adierazitako egitura horietako batek ere ez du hamar urtetik gorako antolamendurik, eta horrek erakusten du ortodoxia Euskadin kontu berria dela.

Errumaniako Eliza Ortodoxoa

Euskadiko errumaniar parrokia ortodoxoak Europa hegoalderako eta mendebalderako Errumaniako *metropoli*a ortodoxoaren mende daude. *Metropoli*ak Parisen du egoitza, eta apezpikuak eta metropolitak zuzentzen dute. Pariseko metropoliak Frantziako, Suitzako, Espainiako, Portugaleko, Italiako, Erresuma Batuko, Irlandako eta Herbehereetako parrokien gaineko eskumena du. Pariseko artxidiozesiaren mende Italiako diozesia dago, egoitza Erroman duena; 2008tik, berriz, Espainiako eta Portugaleko diozesia (Madrilen du egoitza), apezpiku batek zuzentzen duena.

Patriarkatuak Errumaniatik bidalitako apaizak arduratzen dira Euskadiko hiru parrokia ortodoxo errumaniarrez. Apaiz horietako bakoitzak parrokiako kontseilu baten laguntza izaten du, eta kontseilu horrek, aldi berean, komunitateko kide kopuru aldakorra dauka. Nahiz eta ez dagoen debekurik emakumeek kontseilu horretan parte hartzeko, egiaz, beti gizonak osatu ohi dute. Emakumeek aktiboki parte hartzen dute parrokiako batzordeen bitartez dohainak biltzen, txikientzako jardueretan eta parrokiak mantentzeko eta garbitzeko lanetan.

Kosme eta Damian Santu eta Mediku Eskuzabalak Errumaniako Parrokia Ortodoxoko apaiza, era berean, Espainia iparraldeko artzapez ere bada. Artzapezak parrokia kopuru jakin baten ardura du, eta apezpikutzaren eta parrokia bakoitzaz arduratzen diren apaizen arteko figura da, nahiz eta parrokia bakoitzak apezpikutzarekin komunikazio zuzena izan.

Euskadiko komunitate ortodoxo errumaniarra azken urteetan gertaturiko immigrazioaren emaitza da; horren ondorioz, Euskadin 14.617 errumaniar bizi dira, EAE osoan modu desorekatuan banatuta. Errumaniar talde handiena Bizkaian bizi da eta 8.687 lagun dira; Gipuzkoan 4.096 bizi dira eta Araban, berriz, 1.384.⁶¹ Horiei jatorriz moldaviarrak diren biztanleen zati handi bat erants diezaiokegu; guztira 427 pertsona. Oro har, esan liteke biztanleria gaztea dela; nahiko orekatua, bi sexuen presentziari dagokionez. Gizonezkoek, gehienbat, eraikuntzan, garraioetan eta industrian jarduten dute; emakumezkoek, berriz, etxe-zerbitzuan eta adinekoak zaintzen. Familia horietako askok eta askok, hasiera batean, bi edo hiru urterako etortzeko asmoa zuen. Edonola ere, banantzeek, berriz elkartzeko prozesuek eta Euskadin seme-alabak eduki izanak asko behin betiko Euskadin geratzea eragin du.

Bilboko Santu Guztien parrokia

Bilboko Santu Guztien parrokia (Derio) 2006ko apirilaren 15ean sortu zen ofizialki. Data hori baino lehen, Euskadin ezarritako komunitate ortodoxo errumaniarrak liturgia emateko apaiz bat eskatu zion Parisko metropolitari. Hasieran, metropolitak bidali zuen apaiza Kantabrian eta Bizkaian ezarritako errumaniar komunitate ortodoxoaz arduratu zen, baina, bi komunitateen tamaina eta lana betetzeko zailtasunak aintzat hartuta, metropolitak beste apaiz bat bidali zuen Kantabriara. Horren ostean, lehendabizi bidalitakoa Bizkaiko

⁶¹ Immigrazio Behatokiak, Ikuspegik, 2009rako emandako behin-behineko datuak.

errumaniar komunitate ortodoxoaren arduradun geratu zen. Kultuetarako eraikina San Kristobali dago eskainita, eta Bilboko apezpikutzak laga dio Errumaniako komunitate ortodoxoari.

Biztanle errumaniar eta moldaviar guztietatik, 200 inguruk eman dute izena parrokiaren erregistroan. Jainkoaren Liturgiara joaten direnen kopurua oso aldakorra da, eta nabarmen hazten da garrantzi berezia duen festaren bat antolatzen denean; esaterako, Pazkoan edo Mendekostean. Alde batetik, fededunen kopurua parrokiaren kokapen geografikoarekin dago lotuta; ia biztanle errumaniarrik ez dagoen hiri inguruko gunen batean baitago, eta horrek industrialagoak diren beste herri batzuetatik etortzera behartzen ditu familiak. Bestetik, kontuan izan behar da ortodoxoen egutegi erlijiosoa batzuetan ez datorrela bat laneko egutegiko jaiegunekin, eta, ondorioz, fededunak ezin izaten dira ospakizunetara joan. Kultua errumanieraz egiten da, larunbat arratsaldeetan hasten da eta igande goiz osoan jarraitzen du. Batzuetan, fededun ortodoxo greziarrak, errusiarak edo georgiarrak ere joaten direnez, apaizak gaztelaniaz hitz egiten du.

Parrokiaz arduratzen den apaizak normalean gizonez osaturiko parrokia-kontseiluaren laguntza izaten du. Gainera, hainbat batzordetan emakumeek ere parte hartzen dute. Komunitateak, organismo horien bitartez, parrokia liturgia ortodoxoari egokitu ahal izateko (ikonoak erosteko) dohainak bildu ditu, baita apaizari eta bere familiari laguntzeko ere, misiolari gisa etortzen baitira eta ez baitute soldatarik izaten. Bestalde, komunitate erlijiosoa erreferentzia-leku garrantzitsu bilakatzen da etorkin iritsi berrientzat, bertan laguntza ekonomikoa eskura baitezake komunitateak sorturiko funts txiki batetik, baita ostatu hartzeko, lan egiteko eta abarretarako informazio baliagarria ere.

Parrokian gauzatzen diren jarduera erlijiosoez gain, komunitateak parrokia-eskola sortu du Bilboko Ellakuria zentroan, eta hogeit bat neska-mutil joaten dira. Katekesira joateaz gain, errumaniera eskolak ematen dituzte, baita Errumaniako historia eta geografia ere. Eskola horiek goi-mailako ikasketak dituzten edo Errumanian irakasle gisa lan egiten zuten komunitateko pertsonen eman ohi dituzte.

Gasteizko Kosme eta Damian Santu eta Mediku Eskuzabalak parrokia errumaniar ortodoxoa

Kosme eta Damian Santu eta Mediku Eskuzabalak parrokia errumaniar ortodoxoa 2007ko uztailean sortu zen, Gasteiza apaiz berri bat iritsi zenean. Aurretik, komunitate ortodoxo errumaniarrak beste apaiz bat zuen, eta kanpotik joan behar izaten zuen Gasteiza. Ondorioz, ezin izaten zuen beti Liturgia Santua eman. Apaiz berria etorri zenean eta Gasteizko apezpikutzak katolikoarekin ezarritako harremanen bitartez, apezpikutzak Espiritu Santuaren Eliza Katolikoan dagoen espazio txiki bat laga zion errumaniar komunitateari. Eta gaur egun hortxe egiten dute igandeetako kultua, nahiz eta bataioetan, ezkontzetan eta tankerako okasio berezietan elizan bertan egiten dituzten. Apaizak eta bere familiak hasiera-hasieratik izan dute Eliza Katolikoaren laguntza. Hain zuzen, Gasteizko apezpikutzak katolikoak ostatu eman zien, bai eta errumaniar komunitate ortodoxoa antolatzeko kontaktu-zerrenda oso erabilgarria ere. Bestalde, komunitatearen laguntza ere izan dute (bai jatorrian, bai helmugan); bereziki, kultua egiten duten aretoa egokitzeko, eta ikonoak, bataiarria eta liturgiarako beste objektu batzuk erosteko.

Parrokiako erregistroan 350 bat pertsonak eman dute izena, baina kultuetara joaten diren fededunen kopurua asko aldatzen da: 30etik 80ra bitarte igandeetan eta 500 pertsona inguru ospakizun garrantzitsuenetan. Biztanle gehienak errumaniarrak dira, baina batzuetan moldaviarrak eta georgiarrak ere hurbildu ohi dira. Hala izanez gero, zeremonia errumanieraz egiten da baina gaztelania ere erabiltzen da hainbat momentutan.

Oro har, jatorriz errumaniarrak diren gasteiztarrek eraikuntzan, ostalaritzan eta etxe-zerbitzuan egiten dute lan (azken horretan bereziki emakumeak aritu ohi dira). Biztanleak gazteak dira, familia ugari daude eta erdi mailako ikasketak dituzte. Igandeetan Liturgia Santura joan ohi direnetako asko ez ziren praktikatzaileak beren herrialdeetan, baina orain nahiko maiz joaten dira. Mezaren ondoren, kafea eskaintzen dute. Horrenbestez, eliza elkartzeko gune bilakatzen da, erlijio-gune izateaz gain, apaizaren hitzetan.

Komunitate ortodoxo errumaniarrak ez du bestelako jarduerak gauzatzeko inolako elkarte kulturalik sortu, baina horixe da epe laburreko helburuetako bat. Nolanahi ere, testuinguru erlijiosoan jarduerak eta topaketak egin dira beste erlijio-talde batzuekin, bereziki katolikoekin, baina baita komunitate protestante ebanjelikoekin ere.

Donostiako kapera ortodoxo errumaniarra

Kapera txiki hau Lasarte-Oriako Arantzazuko Andre Mariaren elizaren beheko aldean dago, eta 2009an herrira iritsi zen apaiz errumaniar ortodoxoari eskaini zioten behin-behineko konponbidea da. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izapideak egiten ari dira Donostiako Ubako Andre Mariaren eliza erabili ahal izateko; bertan, urtean behin bakarrik egiten baita meza katolikoa.

Gipuzkoan erroldaturiko biztanle errumaniar gehienak ortodoxoak dira. Edonola ere, asko eta asko, ijitoen etniakoak, protestanteak dira. Gipuzkoan ezarritako errumaniarren % 40 inguru Errumaniako ukrainar gutxiengoko kide dira, eta normalean herrialdeko ipar-ekialdetik etorri ohi dira. Berezia da datu hori, inondik ere. Oro har, jende gaztea da; gizonezkoek eraikuntzan eta garraioan egiten dute lan, eta emakumeek, berriz, etxerbitzuan. Gipuzkoan erroldaturiko errumaniar ortodoxoak geografikoki sakabanatuta daude, baina asko herri industrialetan bizi dira, esaterako, Andoainen, Ordizian, Beasainen, Irunen edota Donostian. Horrenbestez, bizileku-eredu hori ikusita eta jakinik apaizak komunitatean zer denbora laburra daraman, ulertzekoa da igandeetan liturgiara etortzen diren fededunen kopurua ez oso handia izatea, nahiz eta nabarmen igotzen den ospakizun bereziren bat dagoenean.

Igandeetan kapera katoliko txikian ematen dute meza, eta xehetasun txikiak jartzen dizkiote kultu ortodoxoa gauzatu ahal izateko. Kultua errumanieraz egiten dute eta, hein batean, ukraineraz ere bai. Zenbaitetan, apaizak frantsesa ere erabili izan du frantziar biztanle ortodoxo gehiago etorri direlako. Sortze-prozesuan dagoen parrokia eta komunitatea denez, oraindik ez da parrokia-kontseilurik sortu eta, ondorioz, ez da bestelako kultur, hezkuntza, kirol edo antzeko jarduerarik egin.

Errusiako Eliza Ortodoxoa

Espanian parrokia ortodoxo errusiar ugari dago (Madril, Las Palmas, Tenerife, Oviedo) eta 2007tik Errusiako Eliza Ortodoxoaren Espainiako lehenengo tenplua dago Altean. Nolanahi ere, ez dago parrokia errusiar ortodoxorik Euskadin, ez baitago errusiar jatorriko biztanle asko.⁶² Urte askoan, familia horietako asko Biarritzeko tenplu ortodoxo errusiarra joaten ziren aukera zutenean. Tenplua XIX. mendean eraiki zuten aristokrata errusiarren koloniarentzat. Dena dela, hogeita hamarreko hamarkadan Moskuko Patriarkatutik bereizi zuten tenplua aldi baterako, eta Konstantinoplako Patriarkatuaren eskuetan geratu zen. Tenpluko fededunen batzarrak, parrokoa buru zuela, berriz ere Moskuko Patriarkatuari atxikitzeko erabakia hartu zuen 2004an. Baina 2005ean, Baionako Auzitegiak ezeztatu egin zuen erabaki hori eliztar talde txiki batek hala eskatuta. Hori ikusita, tenplua Moskuko Patriarkatuaren mende egotea nahi dutenek eskatu dute hilean behin apaiz bat etor dadila; horretarako, komunitateak Baionako hotel batean lokal bat alokatuko dute.

Baionako ospakizunetara frantziar komunitate ortodoxoa etorri ohi da batik bat, eta, tarteka, Gasteizen, Santanderren eta Bilbon bizi diren jatorri errusiarreko fededunak ere etortzen dira, baita jatorriz letoniarra baina errusiar gutxiengoaren zati den Irungo familiaren bat ere. Hala ere, Baionarako bidaia garestia eta nekeza da familia errusiar ortodoxo horientzat eta, horregatik, ospakizun garrantzitsuetan egiten dute bidaia; Eguberrietan edota Pazkoan, alegia.

⁶² Errusiar jatorriko 653 biztanle daude Euskadin, Ikuspegik 2009rako emandako datuen arabera. Gehienak emakumeak dira, horietako asko bertako gizonekin ezkonduak.

Errusiar komunitate ortodoxoarentzako beste aukera bat beste herrialde batzuetako meza ortodoxoetara joatea izan da; esaterako, Errumaniakoetara edota Serbiakoetara. Hala ere, hizkuntzaren zailtasunek eta, bereziki, aitortzeko ezintasunak Euskadiko errusiar komunitatea mugiarazi egin dute, apaiz errusiar ortodoxoa eduki ahal izateko. Oraingoz, Moskuko Patriarkatuak Espainian izendaturiko apaiz errusiarretako bat urtean hiru edo lau aldiz etortzea lortu dute. Komunitatea Gasteizko agintari katolikoengana hurbildu zen Babesgabetuen Eliza erabiltzeko baimena eskatzera, eta lortu egin zuten. Lehendabiziko ospakizun ortodoxo errusiarra 2005ean egin zuten han, eta, harrezkero, apaizak etortzen jarraitu du. Hala, elizako parroko katolikoak hala eskatuta, Gasteizko apezpikutzarekin harremanetan jarraitzen du. Ospakizun esporadiko horietara errusiar jatorriko biztanleak etorri ohi dira, nahiz eta batzuetan Bilbon, Irunen, Santanderren eta Logroñon bizi diren ukrainarrak ere etortzen diren. Mezak, *eslavoieraz* egiten dira, herrialde eslaviarretako ortodoxiaren hizkuntzan.

Georgiako Eliza Ortodoxoa

Euskadiko komunitate georgiarra ez da oso handia⁶³ eta, batik bat, Araban eta Bizkaian daude bilduta. Biztanle horien zati handi bat, bereziki Gasteizen ezarritakoa, Svaneti eskualdekkoa da. Georgia iparraldean dago eta berezko hizkuntza dauka: *svan*. Biztanleak gazteak dira, eta eraikuntzan, ostalaritzan, garbiketan eta etxe-zerbitzuan jarduten dute gehienbat. Espainiako egungo egoera ekonomikoak eta Georgian bizi-baldintzak nolabait hobetu izanak asko eta asko beren jaioterrira itzultzea edo penintsulan lan bila abiatzea ekarri du. Premia erlijiosoek bultzatuta, Gasteizen ezarritako komunitateak Georgiako Etxea kultur elkarte sortu zuen 2008an. Ehun bat kide dituen elkarteak lokal bat alokatu du eta, bertan, Georgiako apaiz batek meza ematen du igandeetan eta bestelako ospakizun batzuetan. Georgiako Eliza Ortodoxoa Espainian errekonozituta ez dagoenez, apaiz horren egoera nahiko zaila da, turista bisarekin sartu ohi baita herrialdean. Hala, hiru hilabeteren buruan bere herrialdera itzuli behar izaten du eta bisa berritzeko izapideak egin arte itxaron Gasteiza itzultzeko. Une honetan, elkarte egoera hori konpontzeko lanean ari da, eliza gisa izen emateko dituzten aukerak aztertuta. Meza elkartearen lokalean ematen dute igandeetan, eta aste barruan hainbat jardura egiten dituzte, esaterako, katekesia. Lokala erritu ortodoxora egokitzeko berri dute, aldarea eraiki diote, ikonoak jarri, eta abar. Berriztatze-lanak, alokairua eta apaizaren bidaiak komunitateak ordaintzen ditu. Igandeetako mezetara 50 bat pertsona joaten dira; nolana ere, lokala inauguratu eta lehenengo meza eman zuten egunean, Erramu egunean, askoz ere jende gehiago agertu zen. Kasu horretan, urrutiko hirietako jendea inguratu zen, Madrildik eta Zaragozatik, adibidez. Baina normalean, igandeetan, Bilboko, Iruñeko eta Logroñoko jendea joan ohi da. Meza georgieraz ematen dute, eta, hizkuntzaren zailtasunak gorabehera, errumaniarrak, errusiarrek edota katolikoak ere joan ohi dira. Elkartearen ustez, kultuan entzun daitezkeen georgierazko koruak eta musika dira horretarako arrazoia.

Elkartearen helburua eliza propioa izatea da, komunitate ortodoxo guztiek bezalaxe. Erlijioaren garrantziak eta kultuak Euskadin bertan egiteko aukerak inportantzia handia du; izan ere, apaiza dutenetik, batasun eta kohesio handiagoa dituztela antzeman dute. Epe laburrean egin nahi dituzten beste jardura batzuk haurrei georgiera eskolak ematea eta helduagoi euskara eta gaztelania irakastea da.

⁶³ Ikuspegik 2009rako emandako behin-behineko datuen arabera, georgiar jatorriko 254 pertsona bizi dira Araban, 227 Bizkaian eta 49 bakarrik Gipuzkoan.

Serbiako Eliza Ortodoxoa

Serbiako Eliza Ortodoxoak hamasei milioi kristau ortodoxo biltzen ditu Serbian, Montenegron, Bosnia-Herzegovinan, Mazedonian eta Kroazian. Espainiako Serbiar Patriarkatuaren mende dauden parrokia ortodoxoen multzoa Europa Mendebaldeko Elizbarrutiaren barnean dago sartuta. Elizbarrutiaren egoitza Parisen dago, eta estatu-mailan artzapez bikario baten mende daude. Espainiako Serbiar Eliza Ortodoxoaren historia Bartzelonan hasi zen hirurogeita hamarreko hamarkadan, tradizio ortodoxoarekin interesatzen hasi ziren kataluniarrek sorturiko komunitate baten ondorioz. Garai hartan, Bartzelonan zeuden ortodoxo bakarrak greziar komunitate ortodoxo txiki batekoak ziren, eta apezpikutzak katolikoak lagatako eliza batean ematen zuten meza. Arazoz eta zailtasunez jositako ibilbide nahiko konplexuaren ondoren, komunitate txiki hori osatzen zuten fededun guztiak Serbiako Patriarkatuak babestu zituen 1988an. Ordurako, komunitatea katalanek osatzen zuten, baina baita jatorri errumaniarreko kide gehiagok ere. Gaur egun, Bulgaria, Georgia, Ukraina, Errusia eta tankerako herrialdeetatik datozen pertsona-kopuruak gora egin duenez, parrokia berriak ireki dituzte Katalunian eta Mediterraneoko beste leku batzuetan. Horien artean, nabarmentzekoa da Irunen sortu eta garatu den serbiar komunitate ortodoxoa.

Irungo San Marko parrokia

Irunen kokaturiko parrokia txiki honen jatorria Errenterian dago; 2004an funtzionatzen hasi zen kapera pribatu txiki batean, hain justu. Ekimena egun parrokiako apaiz denak jarri zuen abian; jatorriz ipar-amerikarra da eta emakume euskaldun batekin ezkondu dago. Familiarekin Euskadin ezartzea erabaki zuten. Komunitate horrek premia erlijiosoetarako Bartzelonara, Madrilera edo Biarritzera joan behar izaten zuten eta, horregatik, komunitate ortodoxo txikiak antolatzea eta kapera bat sortzea erabaki zuten (komunitate horiek ez ziren derrigor jatorriz serbiarrak); hala, 2005ean Pariseko apezpiku serbiarraren bedeinkapena jaso zuten. Serbiako Patriarkatuarekiko lotura adierazitako apaizak bideratu zuten Pariseko Saint Serge Institutuaren bitartez; horren ostean, Parisek errekonozitutako eta abalaturiko Bartzelonako Sant Gregori Palamás Teologia Eskola Ortodoxoarekin jarri zen harremanetan. Hortaz, hauxe da fede horri loturiko biztanleen migrazio-prozesuaren ondorioz sortu ez den komunitate ortodoxo bakarra.

Eskola katalanarekin izandako lotura horrek azaltzen du hasiera-hasieratik Bartzelonako bikario ortodoxo serbiarraren bisitak eduki izana eta, komunitateak pixkanaka gora egiten zuten heinean, klero erregularra bidaltzen joan izana Jainkoaren Liturgia, bataioak eta tankera horretako beste hainbat jai ospatu ahal izateko. Parrokia Irunen dago 2008ko urritik, eta bi apaiz eta diakono bat ditu. Bestalde, parrokiarekin konpromiso handiena duten kideek parrokia-kontseilu bat ere osatu dute. Zeremonietan hizkuntza bat edo bestea erabiltzen dute, segun eta zer jatorritako jendea joaten den. Batzuetan, zeremonia berean bizpahiru hizkuntza erabiltzen dituzte (errumaniera, eslavoia, frantsesa, serbiera, euskara eta gaztelania dira ohikoenak).

Larunbat arratsaldeko bezperez eta Jainkoaren Liturgiaz gain, igandeetan helduentzako prestakuntza liturgikoa ere ematen du parrokiak. Horretaz gain, elikagaiak eta arropa ere banatzen dituzte. Hasieran, Errenteriako lehendabiziko kapera sortu aurretik musika bizantziarrari eskainitako kultur elkarteak sortu zuten, eta, kaperaren errekonozimendu ofiziala jasotakoan, elkartearen jarduerak amaitu egin ziren.

Erritu Zaharreko Eliza Ortodoxoa

Eliza hau komunitate errusiar-lipoveniar gisa ezagutzen da, eta sei milioi fededun inguru ditu mundu osoan. Nikon patriarkak eginiko erreformekin ados ez zegoen fededun-talde batek Errusiako Eliza Ortodoxotik banantzeko erabakia hartu zuen XVII. mendearen bigarren erdialdean, eta halaxe sortu zen. Bizkaian bizi diren errusiar-lipoveniarrak Errumaniako Danubio ibaiaren deltatik etorritakoak dira, eta herrialde horretan gutxiengo dira Errusiatik alde egin zutenetik, duela bi mende baino gehiago. Komunitate horretako lehenengo pertsona 1995ean iritsi zen Euskadira, eta ahaidetasun eta auzotasun sareen bitartez sorturiko migrazio-kate baten aitzindari bilakatu zen. Ondorioz, denborarekin, biztanleria errusiar-lipoveniarra Ibaizabal erdialdeko eremuan kokatu da batik bat (Zornotza, Iurreta, Durango). Gaur egun, gune horietan banatutako 500 familiak osatzen dute komunitate errusiar-lipoveniarra. Jende oso gaztea da, eta adingabe asko ditu. Gizonak eraikuntzan eta garraioan egin ohi dute lan, eta emakumeek, berriz, garbiketean eta etxe-zerbitzuan. Guztiek hitz egiten dute errumanieraz, beren jatorriagatik, baina errusieraz egiten ere badakite.

Erritu Zaharreko Eliza Ortodoxoaren patriarkak Bizkaian ezarritako komunitatea bisitatu zuen 2005ean, eta antolatzaera eta ospakizun erlijiosoak egitera animatu zituen. Bisita 2007an errepikatu zuen. Harrezkero, komunitateak antolatzeko ahalegina egin zuen, eta Durangoko kultur etxeak alokatzen dien areto batean mezak egiten hasi ziren. Azkenik, Errusiar Lipoveniarren Kultur Elkartearen bitartez, lokal bat alokatu zuten Zornotzan; bertan, aldizka liturgia ospatzen hasi ziren, baita bataioak, Pazkoa, Mendekostea, eta abar ere. Lokala material-biltegi izan zen lehenago; horregatik, zaharberritze-lan handiak egin behar izan zizkieten erlijio-ospakizunetarako egokitzeko. Gainera, aldare bat eraiki zuten, eta zenbait ikono erosi edo ekarri zituzten Errumaniatik. Prozesu hori guztia dohaintzekin eta komunitatearen lanorduekin ordaindu zuten.

Erritu Zaharreko Eliza Ortodoxoaren egitura hierarkikoa da. Burua Patriarka da, eta, haren ondoren, apezpikuak, apaizak eta, azkenik, abeslariak daude. Komunitate errusiar-lipoveniarraren arazoetako bat gaur egun liturgiak egiteko apaizik ez edukitzea da. Lan horiek egiteko apaizaren tokian abeslariak aritzen dira. Abeslariak, meza eman dezaketen arren, ez dute egiteko berbera; izan ere, aldarea apaizak bakarrik ireki dezake eta abeslariak emandako meza laburragoa da. Errumaniatik apaiz bat etorri izan da okasio berezietan, Pazkoa eta tankerako festa garrantzitsuak ospatzeko. Une hori, gainera, kide berrien bataioak egiteko aprobeztatzen dute.

Ohiko liturgiak, hau da, apaiz batek emandakoak, larunbat arratsaldean hasten dira eta igande goizean jarraitzen dute. Liturgian erabilitako hizkuntza eslavoia da. Mezatara joaten den jende-kopurua asko aldatzen da, meza abeslariak ematen duen edo apaizaren bisitaren batean egiten den kontuan hartuta. Azken kasu horretan, askoz ere jende gehiago joaten da. Pazkoan edo Hirutasunaren festan, eskualdeko errusiar-lipoveniar komunitateko kide gehienez gain, Castro Urdialesekoak, Lleidakakoak edo Zaragozakoak ere etorri ohi dira, bertan bizi baitira batere antolakuntza erlijiosorik ez duten komunitateko zenbait kide.

Unerik garrantzitsuena eta kide gehien bildu zituena 2007an gertatu zen, Patriarkaren bigarren bisitaldian, zeinak Pazkoa ortodoxoaren ospakizunak zuzendu baitzituen Durangon. Okasio horretarako, kulturarako gune gisa egokituriko eliza zahar bat laga zieten; San Agustín kultur gunea, hain zuzen. Bisita hori zela-eta, harremanetan ipini ziren

Bilboko apezpikutza katolikoarekin, eta eliza propioa izateko aukera aztertu zuten, garrantzi handiko puntua baitzen errusiar-lipoveniar komunitatearentzat.

Errusiar-lipoveniar komunitateak kultur elkarte eratzeke arrazoi nagusia beren erlijio-kultua egin ahal izateko gune baten beharra izan zen. Orain, beste jarduera erlijioso batzuk egiteko aukera aztertzen ari dira; esaterako, katekesia. Bestalde, kultur jarduerak egin dituzte tokian-tokian, eta futbol talde bat sortu dute: Lipa Amorebieta. Duela gutxi Euskal Ligan jokatzeko hasi da, lurraldeko hirugarren mailan.

Ukrainako Eliza greko-katolikoa

Arestian esan bezala, eliza greko-katolikoak ez dira egiaz inolako gutxiengo erlijiosoak, gure gizartean gehiengo duen Elizako kide baitira. Hala ere, ekialdetik datozenez eta kultuetan eta antolakuntzan berezitasunak dituztenez, normalean eliza bereizi gisa hartzen ditu gizarteak. Eliza hau duela gutxi agertu da euskal gizartean; hori dela eta, komenigarritzat jo dugu hari buruzko aipamen bat egitea ekialdeko kristautasunari eskainitako kapituluan. Baina horrek ez du esan nahi gure antolamendu juridikoari begira gutxiengo erlijioso direnik.

Gaur egun, Eliza greko-katoliko ukrainarreko kide diren bi komunitate txiki daude Euskadin, bata Gasteizen eta bestea Irunen. Bi komunitate txiki horiek hilean behin artatzen ditu Iruñeko Mintegian 2006tik bizi den apaiz greko-katoliko batek. Eliza horrek Iruñean dituen aurrekariak 90eko hamarkadan Europa ekialdeko herrialdeetako biztanleen etorrerarekin daude lotuta; etorri berriekin hasi ziren Eliza Ortodoxoaren lehenengo ospakizunak, zeinetara ortodoxoak eta greko-katolikoak joaten baitziren. 1995ean apaiz greko-katoliko bat eskatu zuen komunitate horrek, eta halaxe hasi zen Iruñera urtean behin joaten, meza ematera. Ondoren, egungo apaiza iritsi zen arte, meza hilean behin ematen zuen beste apaiz bat arduratu zen komunitateaz.⁶⁴

Iruñeko eta Gasteizko komunitate ukrainarrak harremanetan ipini ziren, dela senitartekoak zirelako, dela jatorri berekoak zirelako. Harremana ezarri ostean, hilean behin meza ematen hasi ziren (hilabete bakoitzeko hirugarren igandean), San Bizente elizako kaperan. Irunen, berriz, semea erritu greko-katolikoaren bitartez bataiatzeko interesa zuen pertsona baten deia ondorioz sortu zen harremana. Une horretatik aurrera, apaiz greko-katolikoa harremanetan jarri zen Iruneko komunitate txikiarekin eta hilean behin meza ematen hasi zen. Bestalde, Euskal Herritik kanpo, apaizak Zaragozako komunitate greko-katolikoaren premiak ere asetzen ditu.

Mezak erritu bizantziarrean egiten dira, ukraineraz. Bertara joaten direnetatik gehienak ukrainarrak badira ere, errusiar jatorriko jendea ere badago, batez ere Gasteizen. Normalean 30 edo 50 pertsona inguru joan ohi dira. Baina, Pazkoan eta tankerako ospakizun garrantzitsuetan kopuruak nabarmen egiten du gora. Mezez eta garrantzi berezia duten egunez gain (Pazkoa eta Aste Santua, esaterako), bataioak eta ezkontzaren bat ere egiten dituzte. Horrez gain, hiru katekesi talde ere zuzentzen dituzte, hiri bakoitzean bat.

Egiten dituzten ospakizun erlijiosoetako batzuk ez datoz bat hemengoekin, eliza greko-katolikoak egutegi juliotarra erabiltzen baitu. Hori dela-eta, komunitateak ekitaldi horietara lanegunik galdu gabe joateko aukera izan dezan, etorkizunean Euskadin egutegi

⁶⁴ Espainian, guztira, 14 apaiz grekokatoliko daude, batez ere Madrilan eta Mediterraneo inguruan.

gregoriotarra jarraitzea ari da aztertzen apaiza, nahiz eta Ukrainan juliotarra jarraituko duten.

Ukrainarrak talde gaztea dira, bai EAEn, bai Nafarroan. Gizonak gehienbat eraikuntzan aritzen dira, eta emakumeak, berriz, etxe-zerbitzuan, batzuetan barneko gisa. Nolanahi ere, egungo baldintza ekonomikoen eta langabeziaren hazkunderaren ondorioz askok lana galdu dute, eta Ukrainara itzultzea aztertzen ari dira. Bestalde, biztanle ukrainarrek ikasketa maila handia dute eta, adibidez, luze gainditzen dute Nafarroako batez besteko maila.

Komunitate greko-katolikoaren asmoetako bat eliza propioa izatea da, bertan mezak maizago egin ahal izateko eta behar duten pertsoneri arreta eskaintzeko. Ukrainarrek beren migrazio-proiektuaren gainean duten ziurgabetasunak eta Ukrainara gero eta jende gehiago itzultzeak behin eta berriz atzeratzen dute erabakia. Bestalde, ez dirudi eliza bat lortzeko aukera handirik dagoenik, ez behintzat Iruñean. Interes berezia duen beste gai bat eskola sortzeko proiektua da; bai prestakuntza erlijiosoa eskaintzeko, bai hizkuntzak, historia edota geografia irakasteko. Hala, lau hirien premiak aseko lituzkete: Irun, Gasteiz, Iruña eta Zaragoza.

Beste talde erlijiosoekin etengabeko harremanak izaten dituzte, batez ere eliza ortodoxoarekin. Iruñearen kasuan, distantziak laburtzen saiatzen ari dira, bi elizek partekatzen duten iragana dela-eta. Bestalde, Errumaniako eta Ukrainako apaiz greko-katolikoek topaketak egin dituzte Madrilan

Kristautasun erreformatu eta ebanjelikoa, Lidia Rodríguez Fernández eta Luzio Uriarte González

Eliza protestanteak

EAEen ezarritako familia protestante nagusien historia eta mapa Egun EAEen dauden eliza protestante edo ebanjelikoen espektro zabala ulertzeko, lehenik eta behin, protestantismoa jatorriz erlijio kristaua dela esan behar dugu, eta berez dela plurala eta anitza. Erreformaz hitz egitean gure burura Martin Lutherren irudia bakarrik etortzen bada ere,⁶⁵ hainbat teologo izan ziren XVI. mendeko erreforma-proiektuaren protagonista, eta sarritan garapen independenteak eta elkarren artean desadostasun handiak izan zituzten: Luther bera Alemaniako estatuetan, Zwinglio Suitzan, Kalbin Frantzian eta Thomas Kramer Ingalaterran, besteak beste. Erantsi beharra dago, halaber, Erreformak boladaka egin zuela bidea, bata bestearen atzetik etorritako aldaketekin. Hori dela eta, berez aurrekoak diren mugimenduei erreferentzia egiterakoan, Lehenengo Erreformaz hitz egiten dugu; adibidez, XII. mendearen hirugarren herenean sortu ziren mugimendu baldotarrak edo Jan Huss erreformistaz jardutean. Erreforma Magisterial deitzen diogu XVI. mendeko tradizio luteranoa edo kalbinista biltzen duenari (EAEen Eliza Luterano alemaniarrek edo Eliza Ebanjeliko espainiarrek leudeke). Azkenik, Erreforma Erradikala dugu, hainbat mugimendu biltzen dituen terminoa, horien artean daude baptistak, egungo eliza baptisten arbasoak. Eliza Anglikanoari dagokionez, eliza protestanteen barruan sartu ohi da, eta hemen ere halaxe egingo dugu. Edonola ere, jatorriari eta eraketa konfesional eta instituzionalari erreparatuta, zentzu hertsiko Erreformako elizetatik desberdina da eta Eliza Katolikoaren eta konfesio protestanteen arteko erdibidean dago.

Adierazitako lehenengo mugimendu erreformatzaileen ondoren, beste batzuk etorri ziren eta, ondorioz, eskema gero eta konplexuago bilakatu dute. Pietismoa XVII. mendean sortu zen Europa erdialdean eta XVIII. mendean ere izan zuen eraginik; azkenik, XIX. mendean, pietismotik eratorritako zenbait talde edo izendapen agertu ziren. Erreforma «erreformatzeko» hainbat ahalegin egin zituzten familia protestante handien barnean; esaterako, Metodismoa XVIII. mendean, eta Anaien Batzarra XIX. mendeko Ingalaterran, biak ere Anglikanismoaren barruan. Adibideok eta beste batzuek erakusten digute nola joan den pixkanaka sortzen egungo izendapen, eliza eta talde ebanjelikoen multzo izugarria.

Laburbilduz, esan genezake eliza protestante guztiek bat egiten dutela oinarrizko zenbait printzipiotan; esaterako, Bibliaren eskusibotasunean fede eta portaera arau gisa, salbazioan fede bakar gisa edo Jesukristoren zentralitatean. Hala eta guztiz ere, enfasi teologiko dibergenteak eta antolakuntza egitura oso desberdinak dituzte. Garapen hori xehetasun handiagoz aurkezteak gainditu egiten du sarrera honen helburua; beraz, hurrengo orrietan Euskadin egun ezarritako elizen zein taldeen historia eta berezitasunak labur aipatuko ditugu, besterik gabe.

EAEko errealitate konkretuari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu bertan daudela ordezkaturak Europako, Afrikako eta Ameriketako eliza anglikanoa eta protestantea osatzen duten familia handiak. Euskadin ezarritako elizetako bat bera ere ez da XIX. mendea baino

⁶⁵ Zentzuz beteriko asoziazioa da, 1517ko urriaren 31n Wittenbergeko gazteluko elizaren atean jarri zituen 95 tesiek mugimendu erreformatuaren hasiera ezarri baitzuten, eta haren hausnarketa teologikoak Erreformaren lau lema handietan izan zuen eragina: *Sola Scriptura*, *Sola Gratia*, *Sola Fide* eta *Solus Christus*. Nolanahi ere, luteranismoak, berez, oihartzun oso txikia du euskal ebanjelismoaren mapan.

zaharragoa. XVI. mendean zenbait teologok eta elizgizonek Erreformaren pentsamenduarekin bat egin zuten; esaterako, Toledoko Bartolome Carranza artzapezpikuak. Nukleo erreformatuak sortu ziren Valladoliden eta Sevillan, baina Inkisizioaren errepresioak, zenbait baldintza historikori lotuta, galarazi egin zuen eliza komunitate iraunkorrak sortzea. Inkisizio-prozesuen ondorez, erasmita, gogargietsi edo luterano gisa salaturiko zenbait erruztatu akabatu zituzten. Eta, horren eraginez, erbestean zeuden gutxi batzuek bakarrik lortu zuten publikoki protestanteak zirela esatea; esaterako, Casiodoro de Reinak, Juan de Valdésék edota Antonio del Corrok. Horregatik, XVI. mendeko Espainiako Lehenengo Erreformaz hitz egiten den arren, egiaz ez zen Alemaniako estatuetako, Ingalaterrako edo Frantziako mugimenduekin aldera daitekeen antzekorik egon, eta talde erreformatuen ezinegonek ez zuten inolako jarraitutasunik izan Espainiako koroan. Hala ere, Erreformaren bultzadari eta Nafarroako erregina Joana III.a Albretokoari zor diogu 1571n Itun Berria lehendabizikoz euskaratu izana. Joanes Leizarraga izan zen itzultzailea.

Bigarren Erreformara arte itxaron behar izan zen Iberiar penintsulan, beste mugimendu protestante bat sortzen hasteko 1870etik aurrera. Horregatik, EAEn ezarritako elizarik zaharrenak Hirutasunaren Eliza Anglikanoa eta Espainiako Eliza Ebanjelikoa dira. Bien jatorria 1880tik aurrera Euskadira etorritako atzerritar familiak dira (lan-arrazoiek bultzatuta etorritakoak, batez ere meatzaritzara). Anaien Batzarrak 1881ean Donostiara iritsitako Allison eta Gordon Gullick misiolari britainiarrek sortutakoak dira. Nolanahi ere, egun hirian dagoen elizaren jatorria askoz ere berriagoa da.

Bigarren Errepublikaren babesean zenbait izendapen edo eliza ebanjeliko ezarri berriak baziren ere, Frankoren diktaduraren errepresioa jasan behar izan zuten. Hala, berriz ere, komunitate protestanteen garapena eten egin zen, kultura debekatu eta lokalak eta hilerriak desjabetu baitzituzten. Gaur egun oraindik agerian dago garai haietatik datorren orbana; izan ere, artzain askok eta beren alargunek ez dute pentsioa jasotzeko eskubiderik, frankismoan Gizarte Segurantzari ezin izan baitzioten kotizatu.

Espainiako protestanteen zapalketa-egoerak nazioarteko komunitatearen atentzioa erakarri zuen 50eko hamarkadatik aurrera, eta, haiek eginiko presioari esker, 44/1967 Legea onartu zuten, nolabaiteko legezko tolerantzia erlijiosoa ahalbidetzen duena. Lege horrek, nolana ere, zentsurari eusten zion eta fede protestantearen adierazpen publikoa debekatzen zuen. Ingalaterrako Elizaren atzerritartasun egoerari eta misiolarien esku zeuden nazioarteko hainbat eliza ebanjelikoren presentziari esker, zenbait komunitate protestante ezarri ziren, artean fede bakarreko Estatuan. Ondorioz, 60ko hamarkadaren amaieran lehenengo eliza baptisten, lehenengo talde mendekostearren eta kasu berezia den Filadelfiako Elizaren jaiotza ikusi genuen EAEn. Filadelfiako Eliza 1965ean sortu zen Euskadin, eta ijitoen artean ezarpen handia lortu duen mugimendu autoktonoa da. Batez ere merkatari ibiltarien bitartez zabaldu da eta, ondorioz, egun ijitoen % 10 edo % 15 ebanjelikoak dira, nahiz eta ijitoak ez diren kideak ere badituzten. Fedeari beren balio tradizionalen defentsa erantsi diote; esaterako, adinekoen autoritatea, emakumeen rola eta birjintasunaren errespetu handia, ahaidetasun-harremanen garrantzia. Halaber, beren ohituretan eta kulturaren primeran kulturaturtako liturgia sortzen jakin dute. Aldi berean, hezkuntzarako sarbidea bultzatzeko ekimenak, prestakuntza-kanpainak, drogazaletasuna prebenitzeko kanpainak eta beste asko sortu dituzte.

Frankismoaren azken urteetan ezarri ziren eliza ebanjeliko gehienak EAEn, batez ere, 1978ko Konstituzioaren ondoren. Halaxe eratu ziren, batik bat, Anaien Batzarreko kide diren elizak, Bilbon, Donostian eta inguruko herrietan Evangelismo en Acción ekimenari

esker sorturikoak; era berean, orduan eratutakoak dira komunitate mendekostearrak ere, Finlandiako Joan eta Marietta Varis misiolariak hasita. Azken horietako gehienak Jainkoaren Batzarreko kide dira gaur egun. Laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera ezarritako mugimendu mendekostearrak aipamen berezia merezi du, egungo mapa protestantea osatzeko izan duen eraginagatik. Mendekosteartasuna Ipar Amerikako eliza protestanteen barruan sorturiko mugimendu erlijiosoa da, eta ehun urte inguruko historia du. Azkenean, hainbat tradiziotatik etorritako izendapen multzoa batu zituen. Horregatik, gaur egun eliza horren barruan enfasi teologiko eta kultural oso desberdinak aurki ditzakegu; esaterako, Jainkoaren Batzarra (FADE), EAEn ordezkari zabalaren eliza-anaitasuna. Mendekostear izendapenak alde batera utzita, 1960tik aurrera Espiritu Santuari buruzko sinismenen zati bat onartzen duten eta eliza mendekostearren⁶⁶ liturgia bereganatzen duten gizabanakoak, elizak eta izendapenak sortu ziren. Edonola ere, beren berezitasunari eutsi zioten, eta ez zioten jatorrizko izendapenaren kide izateari utzi.⁶⁷ Azkenik, XX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadan sorturiko taldeek berez mugimendu bat osatuko dute, nahiz eta mendekosteartasun klasikoaren korrante zabalean sartuta egon. Sarritan, Espiritu Santuaren Hirugarren Olatu izena ematen diete beren buruari, baita Boteredun Ebanjelismo ere (*power evangelism*), beren ospakizunetan zenbait «botere-manifestazio» egiten dituztelako; esaterako, gaixotasunak sendatu, artzainak edo komunitateko kideren batek komunitateari esaten dizkion profetia hitzak, hizkuntzen dohaina errezo-denboran, eta abar. Oso azkar hedatu dira Latinoamerikan eta Afrikan, eta, gaur egun, Latinoamerikako hamar ebanjelikotatik zortzi gutxienez mendekostearrak dira.

Hurrengo atalean, EAEn ezarritako azken talde horietatik bost aurkeztuko ditugu. Oro har, lehen belaunaldiko immigrazioari loturiko eliza nazionalak edo etnikoak dira. Komunitate horiek 2000. urtetik aurrera biderkatu dira batez ere, eta Afrikatik eta Latinoamerikatik etorritako pertsonak osatzen dituzte, gehienbat. Oro har, beren herrialdeetan elizarekin kontaktuan zeuden pertsonak izan ohi dira, tradizioari eusten saiatzen direnak; adibidez, kultua beren ama hizkuntzan eginez, tokian dauden komunitateetan sartu ordez.

Prozesu historiko hori jasotzearekin estu lotuta dago elizen ordezkariari eginiko elkarrizketak irakurtzean antzeman daitekeen gai terminologiko bat; alegia, protestante/ebanjeliko binomioaren erabilera, elizako kideei eta taldeari berari erreferentzia egiteko.⁶⁸ Kontzientzia historiko sendoa izanik beren burua XVI. mendeko Erreformaren printzipioekin identifikatzen duten erlijioek «protestante» hitza erabiltzen duten beren buruez hitz egiteko. Instituzionalizazio maila handiko komunitateak izan ohi dira, eta lotura federatibo indartsuak izaten dituzte, bai Euskadin bertan, bai Euskaditik kanpo. Tradizio komun horrekin kritiko diren edo gehienetan tokiko elizaren edo izendapenaren sortzaileari loturiko erreferente historiko berriagoak dituzten taldeek «ebanjeliko» gisa hitz egiten dute beren buruez, eta, askotan, uko ere egiten diote protestante deiturari. Nolanahi ere, irakurleari nabardura gehiegi ez emateko, lan honen sail deskriptiboetan alde batera utzi dugu bereizketa terminologiko hori, eta bi terminoak erabili ditugu.

Adbentistek, mormoiek eta Jehovaren lekukoek aparteko aipamena merezi dute. Haien jatorria eliza ebanjelikoetan badago ere, gaur egun talde horretatik kanpo daude. Izan ere,

⁶⁶ Horregatik, hasieran, «neomendekostear» deitzen zitzairen.

⁶⁷ Doktrina mendekostearrak Ameriketako Estatu Batuetako elizan hasi ziren barneratzen, eta laster atxiki zitzaizkion korrante horri eliza baptistak, luteranoak, menotarrak, metodistak eta presbiterianoak.

⁶⁸ Eliza ebanjelikoen kideei «ebanjelista» deitzea ez litzateke, inola ere, zuzena izango. Termino horrek, Mateo, Marko, Lukas eta Joan Itun Berriko lau ebanjelistei egiten die erreferentzia, edo elizako komunitateko kide ez diren pertsonak ebanjelizatzeaz edo katekizatzeaz arduratzen direnei.

ez dira protestantismoaren zatitzat hartzen, eta beraiek ere ez dute beren burua hala ikusten, baizik eta beren antolamendu-egitura eta enfasi teologiko propioak dituzten kristau gisa; eliza edo komunitate bibliko izenarekin ezagutu ohi ditugu. Kasu jakin batzuetan bakarrik jartzen dira eliza protestanteekin harremanetan (esaterako, Elizen Munduko Batzordean eta tankerako foro ekumenikoetan) edo atxikitzen zaizkie partekaturiko erakunde juridikoei (Espainian, FEREDeren kasua dugu). Hori guztia dela-eta, kapitulu honetan ez dugu EAEko komunitate adbentisten, Jehovaharen lekukoen edo mormoiak deskribapenik bildu, eta ale honetako hurrengo kapituluan sartu ditugu, «Kristau inspirazioko beste komunitate batzuk» izenburupean.

Eliza protestanteen antolamendua eta lotura-moduak

Eliza-antolamendua

Eliza ebanjelikoak hiru oinarrizko egituratatik abiatuta antolatzen dira, familiaren arabera. Zentralizatuenetik deszentralizatuenera, egitura horiek apezpiku-antolamendua, presbiterianoa eta kongregazionala dira, nahiz eta modu mistoak ere badauden izendapen jakin batzuetan. Nolanahi ere, tokiko elizek autonomia handia dute beren barne-funtzionamenduari dagokionez, baita federatuta daudenen kasuan ere. Askotan, komunitatearen barne-dinamikari eragiten dioten izendapenek ezarritako jarraibideak batzar nagusian berretsi behar izaten dituzte.

Lehenik, gotzain-elizak apezpiku baten ikuskaritzapean hierarkikoki antolatuta egoten dira, eta erabakitzeke ahalmen handia duten batzar nazionaletan edo sinodoetan oinarritzen dira. EAEren kasuan, horrela antolatzen diren elizak Espainiako Gotzain Eliza Erreformatuaren (IERE) kide izan ohi dira; azken hori Komunio Anglikanoari eta Alemaniako Eliza Luteranoari loturik dago, aldi berean.

Bestalde, antolamendu presbiterialaren ezaugarri nagusia presbiterioaren aginte nagusia da. Presbiterioa pertsona-talde bat da eta, artzainarekin batera, tokiko komunitatearen kontseilua edo presbiterioa osatzen dute. Aldian behin, presbiterio guztiak biltzen dira herrialdeko edo eskualdeko sinodo batean, batera egin beharreko ekintzen inguruan erabakiak hartzeko. Espainiako Eliza Ebanjelikoa hala antolatzen da, baina berezko ezaugarriak ditu. Kasu honetan, presbiterioak eskualde jakin bateko elizetako ordezkariak osatzen dituzte, eta, horregatik, presbiterio bakar batek hainbat eliza zuzentzen ditu, presidente baten bitartez. Zehazki, Iparraldeko sinodoak Kantabriako, Euskadiko, Errioxako eta Aragoiko elizak biltzen ditu. Bestalde, Anaien Batzarren elizen antolamendu-sistemak baditu antzekotasunak sistema presbiterialarekin, baina ez dute presbiterio izena erabiltzen; haren tokian, «adinekoen batzarra» terminoa baliatzen dute eta eliza kongregazionalak bezalako bilerak egiten dituzte. Ez dute sinodorik antolatzen, nahiz eta Evangelismo en Acción erakundeak EAEn sorturiko komunitateek lotura estuak partekatzen dituzten, bai harremanei dagokienez, bai ekintzen aldetik. Eredu presbiterialetik gertu dagoen antolatzeke beste eredu bitxi bat Filadelfiako Eliza da. Eliza honek hainbat gunetan banatu du Espainia, Valladoliden zentralizaturiko presbiterio nazional handi baten moduan. Presbiterio nagusiak Zuzendaritza Batzorde izena du, eta hamabi adinekok osatzen dute. Aurrerago ikusiko dugun bezalaxe, ale honetan behin bakarrik agertuko da. Edonola ere, lurraldeko ordezkariak izendatutako artzain batek zuzentzen dituen hainbat tokiko elizekin batera aurkituko dugu, eta aholkulari gisa adinekoen talde bat izaten dute.

EAEko eliza ebanjelikoetan zabalduen dagoen antolaketa-sistema kongregazionala da; haren ezaugarri nagusia batzar gisa funtzionatzea da. Ondorioz, kideek parte-hartze zuzena

izaten dute erabakiak hartzerakoan eta erabateko autonomia tokiko mailan. Elizako kontseilua edo zuzendaritza batzordea artzainak (gizona zein emakumea) eta kopuruz aldagarria den pertsona-talde batek osatzen dute. Kontseilua arduratzen da batzordean bozkatuko diren proposamenak osatzeaz. Hala eta guztiz ere, kongregazioak edo eskubide osoko kideek hartzen dituzte elizaren etorkizunerako erabaki garrantzitsuak bozketa bidez; esaterako, artzain berri bat aukeratzea edota higiezinak erostea. Haren egitura edozer dela ere, eliza barruko lan-eremu bakoitza antolatzeko modua eta garapena horretarako aukeraturiko komunitateko kideen esku geratzen dira; haiek arduratuko dira emakumeak prestatzeaz, haurrak hezteaz, ebanjelizatzeaz, gizarte ekintzaz, liturgiari, animazio soziokulturalaz, eta abarrez. Zerbitzu horiek betetzen dituztenen deitura-aniztasunak ere azalpen bat behar du. Ale hau prestatzeko eginiko elkarrizketetan, aniztasun handia antzeman dugu eliza bakoitzeko gobernu-organoen nomenklaturan. Diakono talde bat koordinatzen duen artzaina dago (eliza baptistetan bezalaxe), langileek eta diakonoek osaturiko taldea zuzentzen duten adinekoak (Anaien Batzarren kasua), eta profeta edo apostoluak (eliza mendekostear askotan antzematen diren karismak, eta abar). Desberdintasun horiek izendapen bakoitzaren espezifikotasunari dagozkie, eta tokiko komunitatea osatzen duten eklesiologiak islatzen dituzte; ondorioz, arduradunak izendatzeko modua bera nortasun-ezaugarri bat da berez.

Artzainaren figurari dagokionez, hura ulertzeko modua eta hari dagozkion eskumenak taldearen araberrakoak dira. Zenbait izendapenen nortasun-zeinuetan emakumeak eta gizonak ministerioan baldintza berberetan onartzea aurreikusita dago; beste kasu batzuetan, ordea, aukera hori erabat baztertuta dago, Anaien Batzarretan edo Filadelfiako Elizan, esaterako. Artzainaren gobernu mota aldakorra da; batzuetan koordinatzaile-animatzaileak edo elizako jardueren kudeatzaileak izaten dira; beste batzuetan, aldiz, eredu pertsonalistagoak eta karismatikoagoak gailentzen dira, eta botere betearazle handia izaten dute batzarretik at.

Duela gutxi ezarritako taldeak alde batera uzten baditugu, kasu gehienetan tokiko elizek prestakuntza teologikoa duten artzainak bilatu ohi dituzte; bai mintegietara joanda trebatu direnak, bai izendapen bakoitzaren sareen bitartez prestatu direnak. Artzainak (gizona ala emakumea) komunitatearentzat erreferentzia moral eta espiritual izaten dira; horrenbestez, nolabaiteko maila akademikoa izateaz gain, kristauen mezua zabaltzeko, zaintza espiritualerako edota harreman pertsonaletarako gaitasunak ere izan behar ditu. Horrekin loturik, katolizismoarekin gertatzen ez den bezala, artzain gehienak ezkondata egoten dira, oso positibotzat jotzen baitute familia bat osatzea haien ministerioa ongi betetzeko.

Lotura moduak

Aniztasun protestanteak bi oinarrizko lotura eta lankidetzaren modu aurkitu ditu, eta biek ere aurreko atalean deskribaturiko espektro ebanjeliko zabala biltzen dute. Lehenengoak izendapenetan antolatzen ditu tokiko komunitateak. Kontzeptu horrekin kidetasun konfesionalak dituzten eta tokiko maila gainditzen duten antolamendu instituzionala (eskualdeko sail eta guzti) osatzen duten taldeei egiten diegu erreferentzia. Sarritan, eliza izendapen jakin batean sartzen da, sortzaileak harekin zuen loturaren bitartez. Baina gerta liteke, eta ohikoa izan ohi da, pertenezia aldatzea elizaren barneko bilakaera dela-eta. Horixe da Santutxuko Komunitate Kristau Ebanjelikoaren eta Barakaldoko Siongo Eliza Kristauaren kasua.

Izendapen bakoitzak besteetatik desberdintzen dituen espezifikotasun edota enfasi bereziak ditu. Espezifikotasun horiek elizaren antolamenduari (episkopala, presbiterioa eta

edo kongregazionala) zein teologiari eragin diezaiokete (haurren edo helduen bataioak, sakramentuen kopurua eta ospakizuna, emakumeak ministerioan sartzeko aukera, espiritualtasunaren bizipenaren ezaugarriak, eta abar). Hortaz, Espainiako Batasun Ebanjeliko Baptista (UEBE) osatzen duten tokiko eliza baptistak, Espainiako Eliza Ebanjelikoari (IEE) atxikitako komunitate luterano, metodista eta erreformatuak, Espainiako Jainkoaren Batzarren Federazioko (FADE) kide diren kongregazioak, eta Espainiako ijito-komunitate gehienak biltzen dituen Filadelfiako Eliza Ebanjelikoak aurkituko ditugu. Erregistratuta dauden izendapenarekiko mendetasun instituzionala desberdina da kasu batetik bestera, tokiko komunitate bakoitzaren atxikitze askearen eta borondatezkoaren mende baitago.

Aipatzekoa da, halaber, Betelgo Eliza Ebanjelikoa eta Kristoren Gorputza eliza protagonista izan dituen egoera berezi bat. Bi kasuetan, drogazaleen artean eginiko gizarte ekintzatik sortutako izendapenak dira, nahiz eta egun kideen aniztasuna handia den. Bestelako kasu bat da duela gutxi ezarritako Church of Pentecost edota Eliza Mendekostear Batua (bigarren horretako kide gehienak azken urteetan Afrikatik eta Latinoamerikatik etorritako immigranteak dira). Lotura handiak dituzte jatorrizko herrialdearekin, haien antolamendu-egiturak hierarkia zorrotza du eta oso zentralizatuta dago. Hortaz, kasu gehienetan, komunitatearentzako erabaki garrantzitsuenak Madrilgo gobernu-organoetan hartzen dituzte; horiek, aldi berean, dagokion jatorri-herrialdearen mende daude.

Izendapen horiekin batera, eliza-federazio edo elkarte horietako kide ez diren tokiko komunitate independenteak aurki ditzakegu, gehienak mendekostearatasunaren eremuan; Justizia Ministerioan bakarrik egoten dira erakunde erlijioso gisa erregistratuta. Izen-emate hori Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelisten Federazioaren (FEREDE) bitartez egiten da eta lotura juridiko formala izaten da. Baina ez du batere eraginik barne-kudeaketan edota komunitatearen jardunean.

Bigarrenik, komunitate protestanteak lurraldearen arabera elkartzen dira. Autonomia erkidego guztietan daude hainbat eliza biltzen dituzten erakundeak, gorago deskribaturiko izendapen-adskribatzea gorabehera. EA Eren kasuan, Euskal Herriko Kontseilu Ebanjelikoa (EHKE) da; bertan, komunitate kidetu guztiek ordezkariak izaten dituzte batzarrean erabakiak elkarren artean hartzeko. EHK Erenkin batera, aipatu beharra dago laguntza eskatzen duten toki-komunitateei zerbitzua ematen modu transbertsalean lan egiten duten hainbat GK Eren eta erakunderen lana. Izendapen-arteke erakundeak izaten dira eta hainbat alderditan eskaintzen dute laguntza; adibidez, ikasleen pastorean eta unibertsitatekoan (GBU), presoei kartzeletan laguntzen, eta abar.

Sarritan, nazioarteko erakundeak izaten dira; adibidez, Juventud con una Misión elkarte (Estatu Batuetan sortu zen, eta egun 170 herrialdetan baino gehiagotan dago).

Elizako eta komunitate-bizitzako kide izatea

Komunitate ebanjelikoak izaera-komunitateak dira; hau da, konbertsio eta bataio prozesu baten ondoren sartzten da haietan. Komunio Anglikanoak bataio katolikoaren balioa aitortzen du; gainerako eliza ebanjelikoetan, eskubide osoko kide izateko eliza horretan bataiatuta egon behar da edo beste eliza protestante bateko bataio-ziurtagiria aurkeztu behar da. Kasu gehienetan helduen bataioa bakarrik jotzen da baliozkotzat tokiko

komunitateko kide izateko.⁶⁹ Horregatik, bereizi egiten dira, alde batetik, kideen liburuan erregistratuta dauden eskubide osoko kideak, erabaki-batzordeetan ahotsa eta botoa dutenak, eta, bestetik, komunitatearen ospakizunetara joaten diren eta parte hartzen duten jarraitzaileak, baina bataiatuta ez daudenak eta, ondorioz, bozkatzeko eskubiderik ez dutenak.⁷⁰

Atxikimendu pertsonal, kontziente eta borondatezko horrek berekin dakar diskurtso ebanjelikoan «erlijio» eta «fede» kontzeptuak kontrajartzea. Lehenengoak kutsu negatiboa du eta gizakiaren eraikuntzat hartzen da, edo Jainkoarengana hurbiltzeko magia edo superstizio besterik ez den gizakiaren ahalegintzat; bigarrenarekin, ordea, salbatzeko nahitaezkoa den fede kristauaren eskuratze pertsonalari egiten diote erreferentzia.

Atxikimendu pertsonalak eta kontzienteak ere esanahi berezia ematen diote «eliza» terminoari hizkera ebanjelikoan. Protestante batek «elizaz» hitz egiten duenean ez da hierarkia bati buruz hitz egiten ari, katolizismo soziologikoaren hizkera arruntean gertatu ohi den bezala, ezta bere komunitatea zuzentzen duen gobernu-organismoaz ere, baizik eta tokiko elizako fededunen multzoari buruz lehenik, eta Eliza unibertsalari buruz, bigarrenik. Gainera, eliza hitzarekin ez zaio igandero kultua egiteko biltzen den batzar liturgikoari erreferentzia egiten; aitzitik, komunitate kontzeptuak berebiziko garrantzia hartzen du (harreman pertsonal esanguratsuak edo solidaritate-loturak ezartzen dituzten pertsonari egiten die erreferentzia komunitateak). Horixe da normalean mahaiaren inguruan egiten diren gizarte ekintzek eliza ebanjelikoen bizitzan duten garrantziaren arrazoia. Bazkari eta afari komunitarioak izan ohi dira, baita egun garrantzitsuen ospakizunak; esaterako bataioak, Eguberrietako jaialdiak, eta abar.

Eliza ebanjelikoetako kideen parte-hartzea Erreformatik datorren eta barne-funtzionamendua ulertzeko garrantzi handia duen beste printzipio teologiko batek zuzentzen du; «sinestunen apaizgo unibertsalaz» ari gara. Horren arabera, pertsonaren eta Jainkoaren arteko harremana pertsonala eta zuzena da, eta ez dago erakundeen bitartekotzaren beharrik; horregatik, komunitateko kide guztiek Elizako bizitzan parte hartzeko eskubide bera dute. Ondorioz, protestanteek beren elizekin duten lotura igandeeetako kultuetara edo aste barruan egiten diren bileretara joatea baino harago doa. Eliza ebanjelikoek parte-hartze maila handia izaten dute, eta sinestunak ekitaldi berezien prestakuntzan inplikatzeko dira. Ekimen horiek, normalean, ebanjelizazioarekin eta aisiako eta denbora libreko jarduerekin egoten dira lotuta, baita komunitatearen sailak garatzearekin (haurrak, gazteria, emakumeak, pertsona helduak, gizarte ekintza) eta elizako gobernu egituratzearekin ere. Oro har, emakumeek eta gizonek eskubide berberak izaten dituzte, emakumeen ministerioa onartzen ez duten elizetan izan ezik.

Aste barruan antolatzen diren ospakizunetan garrantzi berezia dute otoitz komunitarioari eta Biblia aztertzeari eskainitako bilerek (kide guztiei zuzendutakoak), bai eta talde espezifikoek eskainitakoek ere (emakumeak eta haurrak, esaterako). Asteko otoitz-bilera bertaratuen artean solidaritate-harremanak sortzeko gune izan ohi da, norberaren bizipenak (kezkak, premia jakinak, osasun-arazoak, eta abar) besteekin partekatu ostean otoitz espontaneoari eskainitako denbora izaten baita oro har. Horrez gain, komunitatearen interesez eta konpromisoez ere hitz egiten dute; esaterako, proiektu komunei, egoera

⁶⁹ Eliza anglikanoak, luteranoak eta erreformatuak alde batera utzita, EAeko eliza ebanjelikoek helduen bataioak bakarrik egiten dituzte, uretan sartuta, katekesi espezifikoak jaso ondoren.

⁷⁰ Eliza Ebanjeliko baten kide izateko kide-tza-liburu ofizialean erregistratuta egotea ezinbestekoa da; ondorioz, haurrak eta bataiatu gabeko helduak ez dira zenbatzen –haurrak bataiatzen dituzten protestanteen kasuan izan ezik; esaterako, IIEREN kasua–.

soziopolitikoari edo antzeko gaiei buruz. Bibliaren azterketa protestantismoaren ezaugarri nagusietako bat da, Eskrituran sakontzea ezinbestekoa baita espiritualtasun ebanjelikoarentzat. Fededunen prestakuntza biblikoak garrantzi handia du eta, horregatik, kideen eta bertaratuen adinei eta maileri egokitzen zaizkien ikastaroak antolatzen dituzte maiz.

Igandean kongregazio osoa bildu ohi da, gainerako elizetan bezalaxe. Erreforma Magisterialaren ostean sortutako elizen ezaugarri nagusia liturgia tradizionalagoa da; gainera, Eliza Katolikoaren antza duen ziklo liturgikoa jarraitu ohi dute. Gainerako eliza ebanjelikoetan, liturgia espontaneoagoa izaten da, fededunek gehiago parte hartu ahal izaten dute; kultura sinpleagoa, alegia. Baina, liturgia ebanjelikoaren tradizioa edozer dela ere, bi elementu bereizgarri daude: alde batetik, Bibliaren adierazpenaren zentraltasuna (sermoi edo prediku deitzen diote, ez homilia), eta, bestetik, gurtzari eskainitako denbora. Gurtzan musika eta errezo komunitarioak izaten dira nagusi, eta bertan antzematen dira eliza ebanjeliko desberdinen arteko aldeak. Era askotako musika-estiloak aurki ditzakegu; gehienbat XIX. mendean konposaturiko ereserki klasikoak izaten dituzte, baina baita pop estiloko musika-taldeak ere. Eliza mendekostearren kasuan, musikari eskainitako denbora askoz ere luzeagoa da gainerako eliza ebanjelikoetan baino, eta adierazpen propioak izaten ditu; esaterako, glosolalia edo bestelako adierazpen karismatikoak.

Aurreko guztiari Jaunaren afariaren edo afari santuaren ospakizuna erantsi behar diogu, elizaren arabera sarriago edo bakanago egiten dena. Nabarmendu beharra dago sakramentuek dimentsio teologiko oso desberdina dutela eliza protestanteen kasuan. Luteranoek eta erreformatuek bataioa eta afari santua edo eukaristia hartzen dituzte sakramentu gisa, eta ez beti, gainera; aldiz, beste ezein izendapenek ez ditu sakramentutzat jotzen, sinbolotzat baizik.

Adierazitako ospakizun sozialekin eta erlijiosoekin batera, eliza ebanjelikoek laguntzako eta izaera kulturalerako jarduerak antolatzen dituzte komunitateetako boluntarioen bitartez. Ondorengo orrietan argi geratuko den moduan, oso ohikoa da elizek gobernu kanpoko erakundeak, kultur elkarteak edota laguntzakoak sortzea janaria biltzeko eta banatzeko, aisiako eta denbora libreko jarduerak egiteko, memoria historiko protestantea sustatzeko, eta abarretarako.

Azkenik, eliza ebanjelikoen bestelako alderdi bereizgarrietako bat finantzaketa modua da. Adierazitako kasu guztietan, komunitateak kideen ekarpen boluntarioekin mantentzen dira. Bereziki, Erreforma Erradikalaren oinordekoek Elizaren eta Estatuaren beharrezko bereizketa defendatzen dute; horrek berekin dakar kultuari dagokion oro diru publikoz lagundu ezin izana (jarduera erlijiosoen finantzazioa, artzainen soldata, eta abar). Autofinantzaketa horrek komunitateko kideen gain jartzen du erantzukizuna, eta haiek egin behar izaten diete aurre lokalak erosteko edota alokatzeko gastuei, mantentzekoei, baita haiek administratzen dituzten pertsonen soldatei ere.

Salbuespena misiolariak izaten dira; izan ere, jatorrizko elizak ordaindu ohi die, baldin eta elizako artzainak lan sekularrik ez badu eta kongregazioak soldata ordaintzen ez badio. Ekarpenean espontaneo edo irregularrei eskaintza deitzen diete, eta dohaintza erregularrei, berriz, «hamarren».

Bestelako trataera dute elizek egiten dituzten kultur eta laguntza programek; horretarako, laguntza publikoetara jotzen dute sarri, Pluralismo y Convivencia fundazio publikoaren aurrekontu-partidak barne. Laguntza horiek protestantismoaren historia ezagutarazteko eskatzen dituzte, baita kolektibo behartsuen artean janaria banatzeko

elikagai-bankuak garatzeko edota erakusketak eta bestelako ekitaldiak egiteko udaletxeetako gizarte-lokalak erabiltzeko ere.

Eliza ebanjelikoak EAEn

EAEn eliza protestante edo ebanjelikoak ugaritu izana eta beren arteko harremanak aintzat hartuta, aurkezpen honetan ez dugu Euskadiko kultu-lekuen eta komunitateen azterketa sakona egin nahi; aitzitik, irakurleari gure gizartean gero eta ugariagoa den erlijio pluraltasunaren eta dinamismoaren laginik adierazgarriena eskaintzea da gure helburua. Aurkezpenari heltzeko, Euskadiko eliza ebanjelikoak biltzen dituen Euskal Herriko Kontseilu Ebanjelikoari buruzko erreferentzia bat egingo dugu. Ondoren, fede eta izendapen ezberdinen aurkezpena egingo dugu, ordena kronologikoan. Lehenik eta behin, Elkarte Anglikanoari eta historikoki anglikanistotik eta Anaien Batzarretik datozen eliza libreen taldeari buruz hitz egingo dugu. Ondoren, Erreforma Magisterialetik eta Erradikaletik datozen elizak deskribatuko ditugu eta, azkenik, mugimendu mendekostear zabalari eta duela gutxi ezarritako elizei buruz mintzatuko gara.

Euskal Herriko Kontseilu Ebanjelikoa (EHKE)

Kontseilua 80ko hamarkadan sortu zen, legeztatu ahal izateko kudeaketa-aldi luze baten ondoren.⁷¹ EHKE erakunde publikoen aurrean ahotsa izan nahi duen eliza-federazioa da, EAEnko protestantismoaren ordezkaria. Erakunde honek ez du eskumen doktrinalik, ezta komunitateen barne-funtzionamenduan esku hartzeko botererik ere. Egitura demokratikoa da eta elizetako ordezkariak ditu batzordekide. Tokiko komunitate bakoitzak boto bat emateko edo ordezkari bat izateko eskubidea du, 35 kideko edo frakzioko; gehienez ere, bost ordezkari. Urtero biltzen den batzarrak ezartzen ditu Kontseiluaren jarduera-ildoak, eta botazio bidez aukeratzen du organo betearazle lanak egiten dituen batzordea. Hiru kidek (Lurralde Historiko bakoitzeko bana), presidente batek, presidenteorde batek, idazkari batek eta diruzain batek osatzen dute Batzordea.

EHKEko kide izateko oinarrizko irizpideen arabera, komunitateak finkatuta egon behar du eta benetako eliza izatea nahitaezkoa da; ez du interes edo pertsonen aprobetxatzeko asmo ezkuturik izan behar, eta elizok estatutu onartu eta legezkoak izan behar dituzte.

Kontseiluaren jarduera enblematikoetako bat ETB2k ematen duen telebista-programa da. Telebista publikoan saio bat edukitzea urrats garrantzitsua izan da ebanjelikoak komunikabide publikoetan sar daitezen; aurrerantzean, ez dira albistearen objektu soil izango, informazio-subjektu ez bada. Batzordeak ahalegin handia egin du programari laguntzeko; programak, berriz, baldintzatu egin du Batzordearen garapena, hein batean behintzat.

Batzordea eliza ebanjelikoen egungo egoerari eta etorkizunari buruzko gai garrantzitsuek lantzen ari da. Ondorioz, lehendabiziko lekuan etorkinak daude; izan ere, migrazio-boladak erronka handia dira kulturartekotasunarentzat eta izendapen ezberdinen arteko topaketarentzat. Hala, eragin handia dute eliza ebanjeliko askoren bizitzetan. Garrantzi handiko beste gai bat erlijio-arteko elkarrizketa da. Horren inguruan hainbat sentzibiltate

⁷¹ Txosten hau egin zen unean, Kontseiluaren buru David Gómez zen, Felipe Lobo presidenteordea eta Alberto Sánchez idazkaria.

daude Batzordearen barruan, nahiz eta topaketaren eta elkarrizketaren aldeko jarrera gero eta gehiago nagusitzen den. Gizarte-gaiak dira Batzordearen beste gai garrantzitsuetako bat. Horrekin loturik, beste erakunde eta gizarte elkarte batzuekin lan eta topo egiteko nahia dago, baita tokiko administrazioetan parte-hartze handiagoa izateko ere, lankidetzeta maila handiagoak lortzeko; eliza askok urrats garrantzitsuak eman dituzte norabide horretan.

EHKEk kezkatzeko bi arrazoi ditu; alde batetik, elizen erabileretarako lokalak irekitzeko araudia eta, bestetik, kultuari eskainitako eremuen erabilera leku publikoetan (esaterako, aireportuetan, ospitaleetan edota kartzeletan). Kontseiluaren ustez, leku horiek ekumenikotzat jo beharko liriateke. Era berean, protestanteek urteroko errenta-aitorpenean beren elizak aukeratu ahal izatea ere nahi dute, bai eta beren proiektuei lagundu ahal izatea ere.

Etorkizunari begira, EHKEren aburuz, erronka handia da lokal propioak eta irisgarriak edukitzea, Kontseiluaren premiak ase ahal izateko. Xede hori zuzenean lotuta dago mundu ebanjelikoa gizartearen aurrean ikusgarri egiteko premiarekin; hori lortzeko ahalegin berezia egiten ari dira erakundeen arteko harremanak sustatzeko, baita elizen artekoak ere.

Espainiako Gotzain Eliza Erreformatua

Espainiako Gotzain Eliza Erreformatua Justizia Ministerioan erregistratuta dago, eta FERDEko zein EHKEko kide da. Hirutasunaren Eliza izenarekin da ezaguna, eta Eliza Anglikanoko kide da; berez, EAeko eliza anglikano bakarra. Canterburyko apezpikuari nolabaiteko nagusitasuna aitortzen dion elizen elkarte batek osatzen du Eliza Anglikanoa. Probintzia bakoitzak artzapezpiku bat dauka; herrialdeko buruzagi gorena den apezpiku presidente bat, alegia. Espainiako Estatuaren kasuan, apezpiku anglikano bakarra dago, eta hogei bat eliza. Tokiko elizaren buru artzaina izaten da. Artzain horrek teologia ikasketak egin behar izaten ditu, eta apezpikuak aukeratzen du. Artzainak erretore lanak egiten ditu, eta komunitateko beste kide batzuek ekonomo, musika eta hezkuntza funtzioak betetzen dituzte.

Hirutasunaren Elizak Sondikan dagoen kapera katoliko zahar bat erabiltzen du. Espainiako Eliza Ebanjelikoaren kasuan bezala, Ingalaterrako immigrantek ekarri zuten gurera 1880 inguruan, nahiz eta egungo eliza 1992an ezarri zen ofizialki. Hasieran ingelesez hitz egiten zuen komunitate horrek, baina, gaur egun, kultur aniztasuna da nagusi: bederatzi herrialdeko kideak dituzte eta hamar hizkuntza hitz egiten dituzte, liturgian ingelesa eta gaztelania bakarrik erabiltzen badituzte ere.

Oso kide gutxi dituen arren, eliza oso irekia da eta bazkide askok bisitatzen dute; gainera, horietako batzuk katolikoak izaten dira. Berez, harreman onak ditu Eliza Katolikoarekin. Beste erlijioei dagokienez, erlijio-artekeo zenbait topaketatan eta bileratan ere hartu dute parte. Hasieran, kideak britainiarrak baino ez ziren, normalean negozio-gizonak. Gaur egun, egoera askoz ere pluralagoa da. Bereziki, Afrikatik eta Latinoamerikatik etorritako kideek zailtasun ekonomiko handiagoak izan ohi dituzte.

Erronka gisa, Hirutasunaren Elizak bere burua ezagutarazi du.

Gainera, konpondu beharreko bi arazo logistiko ditu; alde batetik, lokal eskasia eta, bestetik, kultu-lekura garraio publiko iristeko aukera.

Anaien Batzarrak

Anaien Batzarren Elizen errealitatera hurbiltzeko, EAEko hiru komunitate adierazgarrienak aurkeztuko ditugu; hain zuzen, Donostiako, Hernaniko eta Irungo elizak.

Amarako Eliza Ebanjelikoa (Donostia)

Donostian 1881etik daude presentzia ebanjelikoaren zantzuak, Allison eta Gordon Gullick iritsi zirenekoak, baina egungo eliza 1975ekoa da. Amarako Eliza Ebanjelikoa Anaien Batzarrari dago lotuta eta FEREDeko kide da.

Guztira 80 bat pertsonak osatzen dute, gehienak donostiarrak dira, eta, gainerakoak, Honduras, Ekuador eta Kolonbiakoak; dena dela, azken horietako asko oraindik ez dira kide formalak. Eliza bikote nahiko gazteek, haurrek eta gazteek osatzen dute. Kultuan gehien parte hartzen dutenak emakumeak dira. Kideen lanbideari dagokionez, aniztasun handia dago; langile autonomoak, besteren konturako langileak eta enpresariak aurki ditzakegu.

Elizak Sendas/Zidorrak izeneko gobernuz kanpoko erakunde bat sortu du formalki, Kuban gizarte-proiektuak gauzatu ahal izateko, baita Familia eta Ezkontza Aliantza Indartzeko Elkarte ere (Euskadi), helburu eta balio kristauean oinarrituriko familia ardatz duena. Bi elkarteek izaera juridiko propioa dute, eta ez da elizako kide izan behar haietan parte hartzeko. Horrez gain, elizakoak ez diren langileak ere kontrata ditzakete. Elkarte horiekin batera, elizak gizarte laguntzak ematen ditu hainbat egoerari eta gertaerari erantzuteko.

Asteko jardueri dagokienez, astelehenetan Ekuadorreko kitxua talde bat biltzen da beren hizkuntzan errezatzeko, baina ospakizunera edonor joan daiteke. Ostegunetan otoitz-bilera bat egiten dute. Gazteak larunbatetan biltzen dira, eta igandea egun mugitua izaten da (bilerak egiten dituzte goizez eta arratsalde, baita otordu komunitario bat ere).

Amarako Elizak harreman ona du handik hurbil dagoen parrokia katolikoko apaizarekin, eta une jakin batzuetan parrokiaren lokalak erabili dituzte batere trabarik gabe. Inguruan mormoi komunitate bat ere badago, baina ez dute harremanik haiekin.

Hernaniko Eliza Ebanjelikoa

Hernaniko eliza Donostiako taldetik sortu zen 1982an eta, hortaz, Anaien Batzarreko eta FEREDeko kide ere bada. Kasu honetan, artzainak lan sekularra egiten du eta, denbora librean, elizako artzain-lanak egiten ditu. Kide kopurua nabarmen hazi da immigrazioari esker. Gehienak Perutik eta Kolonbiatik etorritakoak dira eta, batik bat, emakumeak edo seme-alaba helduak dituzten bikoteak dira.

Barne-elkarrizketa egin ondoren, gizarte-laguntza eliza-komunitatetik antolatzea erabaki du elizak, gobernuz kanpoko erakunde bat sortu beharrik gabe. Erabiltzen duten lokala alokatu egiten dute, baina ez da behar bezain handia komunitate osoa hartzeko. Batzuetan udalari lokal bat eskatu ohi diote, eta gizarte-erabileratarako birgaituriko ermita zaharra erabiltzen uzten diete. Dena dela, udalarekin ez daukate harreman samurra. Zenbait hiletatarako, Eliza Katolikoaren tenplua ere erabili izan dute.

Euskara, Hernanin harremanetarako hizkuntza nagusi dena, pixkanaka sartzen ari da elizaren jardueretan. Liburuxkak bi hizkuntzetan daude, baita web orria ere; kultuan zenbait euskarazko kantu sartzen ari dira. Gainera, igandeetako eskolak hizkuntza horretan egiten duen talde bat ere badago.

Irungo Eliza Ebanjelikoa

Donostiako taldetik abiatuta sortu zen Irungo eliza, eta, hortaz, Anaien Batzarraren barruan dago eta FEREDeko kide da. Une honetan Irungo elizak Amarako elizarekiko nolabaiteko autonomia-prozesua bizi du.

Irungo eliza 1992an jarri zen martxan, Espainiako familia-talde baten bitartez. Kide gehienak langileak dira, baina badago unibertsitate-titulua duen gazterik ere. Batez beste 35 edo 40 urte dituzte. Kultura 60 bat lagun joaten dira, gehienak emakumeak; Ekuadorrekoak, Kolonbiakoak, Brasilgoak eta, guztira, hamabost herrialdeetako pertsonak dira.

Alderdi ekonomikoei dagokienez, Irungo elizak artzainaren eta lokalaren gastuak ordaintzen ditu. Lokala jabetzan dute eta hipoteka ordaintzen ari dira. Kasu honetan, elizako jarduera guzti-guztiak gaztelaniaz egiten dituzte.

Espainiako Eliza Ebanjelikoa

Euskal Herrian eliza honen lehenengo aurrekariak 1880koak dira; familia ingelesak, alemanak, frantsesak eta suitzarrak bertako meategiak ustiatzera etorri zirenekoak, hain justu. Tradizio protestanteo familiak ziren eta lotura erlijiosoak ezarri zituzten beren artean, elkarrekin bizitzeko eta fedea partekatu ahal izateko. XIX. mendetik elizak hainbat egoera bizi izan ditu; oparoaldiak eta hazkunde handiko garaiak, baita jazarpen eta zailtasun denborak ere. Frankoren diktadura garaian etxe partikularretan bildu behar izan zuten, baina 1995ean gaur egun Bilbon duten tenplua erosi zuten, nahiz eta Donostiako komunitatea Bilbokoaren aurrekoa izan.

Espainiako Eliza Ebanjelikoa Espainia osoan dago banatuta. Justizia Ministerioan erregistratuta dago eta FEREDeko kide da. Euskadin 40 bat kide egonkor eta konprometitu daude; horiekin batera, hain lotura estua ez duten baina kultuetara joan ohi diren beste fededun batzuk ere badaude. Kideen jatorri geografikoa askotarikoa da; besteak beste, europarrak, ipar-amerikarrak, afrikarrak eta latinoamerikarrak daude. Batez beste 55 urte dituzte. Eliztarren zati handi bat gizarteko klase ertaineko kide da, baina etorkinak direnek zailtasun ekonomiko handiagoak dituzte. Komunitate honetan gizonak gehiago dira emakumeak baino.

Eliza Ebanjelikoa kideen ekarpenei esker finantzatzen da. Ez dute kanpoko laguntzarik jasotzen, ezta administratibotik edo beste lekuren batetik etorritakorik ere, eta artzainari komunitateak ordaintzen dio. Espainiako Elizak artzainak prestatzeko mintegi bat dauka. Tokiko elizaren barneko gobernua kontsistorio baten kargura dago (batzorde antzeko bat) eta artzainak parte hartzen du bertan. Urtean zehar bilera bat edo bi egiten dituzte elizako kide guztiek. Elizak bi bilera egiten ditu astean, bietako bat asteburuan, kultua ospatzeko. Elizak ez du gizarte-jarduerarik egiten, baina elizako kide batzuek, banako gisa, gizarte

ekintzekin konpromisoa dute. Aldizka, hedapen jardueraren bat egiten dute kalean eta bakearen aldeko lan-kanpainetan parte hartu dute EAEEn.

Elizaren ordezkariak administrazio zentralarekin harreman ona dutela diote. Pozik daude egungo harreman eta errekonozimendu mailarekin; dena dela, espazio publikorako sarbidea Eliza Katolikoarena baina mugatuagoa dela diote. Eusko Jaurlaritzarekin duten harremana ere positiboki baloratzen dute. Komunitatearen arazo espezifiko bat artzainen eta haien familien egoera ekonomikoa da, askok ezin izan baitzuten Gizarte Segurantzaren kotizatu diktadura garaian, eta gaur egun ezin dute erretiro-pentsioa eskuratu. Agintarien ustez, Eliza Katolikoa irekita dago elkarrizketa ekumenikorako. Nolanahi ere, gizarteak ez dakiela oso ondo protestanteak non kokatu esaten dute. Harreman onak dituzte gainerako eliza ebanjelikoekin eta katolikoarekin, eta hainbat erlijio biltzen dituzten foroetan ere parte hartu ohi dute.

Espainiako Eliza Ebanjelikoak Euskadin duen desafio handienetakoa bat gizartearengana gehiago hurbiltzea da, eta elkarren arteko harremanak estutzea edota zerbitzu gehiago eskaintzea ere bai. Arduradunen iritziz, espiritualtasuna ere berritu beharra dago; horrez gain, elizatik igaro diren kide ohiak berreskuratzea ere planteatu dute.

Espainiako Batasun Ebanjeliko Bautista

Eliza Bautistak 80ko hamarkadan hasi ziren agertzen Euskadin; bai Gasteizen, bai Bizkaian eta Gipuzkoan. Azken bi lurralde horietan, Valdepeñaseko (Ciudad Real) familia batzuk etorri izanaren ondorioz sortu zen. Gasteizen misiolari batzuen jarduerarekin dago lotuta Eliza Bautistaren sorrera. Eliza horiek Justizia Ministerioan daude erregistratuta, eta Espainiako Batasun Ebanjeliko Bautistako, FERDEKO eta EHKEko kide dira.

Bizkaiko Eliza Bautista (Ibarrekolanda, Bilbo)

Inguruan jaiotako pertsonak eta Afrikako zein Latinoamerikako etorkinek osatzen dute komunitatea. Emakumeak gizonak baino zertxobait gehiago dira. Bizkaian 190 bat fededun daude guztira. Kideen adinari dagokionez, nahiko anitza da; haur asko dago, baita nahiko gazteak diren bikote ugari ere. Profil sozioekonomikoa ere anitza da, eta hainbat maila sozialetatik datoz.

Artzaina da elizako burua, eta diakono talde batek laguntzen du. Urtean bi aldiz Eliza Bautista bakoitzak batzarra egiten du fededun guztiekin. Eliza bat independente izan dadin, ezinbesteko baldintza da gutxienez 50 kideko komunitatea izatea. Artzaina elizak mantentzen du eta artzain izateko prestakuntzen barruan teologia ikasketak sartzen dira, eliza baptistek helburu horretarako dituzten mintegietan egin beharrekoak.

Eliza Bautistak asteko egun guztietan egiten ditu jarduerak, baina igandea da kultu eguna. Gainerako egunetan, errezoak, prestakuntza, topaketak eta bestelako jarduerak antolatzen ditu. Era berean, zenbait jarduera egiten dituzte leku publikoetan urte barruan.

Eliza Bautistak Compartir izeneko gobernu kanpoko erakunde bat eta antzeko beste erakunde batzuk dauzka; esaterako, Espainiako Emakume Misiolari Bautisten Batasuna, prestakuntza, hezkuntza eta gizarte ekintzaz arduratzen dena. Erakunde horietan Eliza Bautistako kide ez diren pertsonak ere parte har dezakete. Era berean, komunitateko

zenbait kidek bisitak egin ohi dituzte kartzelara, zahar etxeetara eta beste toki batzuetara. Gainera, immigrazioarekin loturiko gaiak jorratzen dituzte, eta arropategi bat eta elikagai-banku bat dute. Irratsaio bat ere badute irrati publikoan, eta euskaraz zein gaztelaniaz egiten dute bertan. Normalean erabili ohi dituzten lokalak beren jabetzakoak izaten dira eliza ezarri ondoren. Kanpoko laguntzarik jasotzen ez dutenez, beren gastu guztiak kideek ordaintzen dituzte.

Erlijio-arteko elkarrizketaren arloan, tarteka topaketa ekumenikoetan parte hartu izan dute, baina ez dute harreman handirik beste erlijioekin. Erakunde publikoekin duten harremanari dagokionez, oro har, ez dute arazo larririk izan administrazioekin, baina zailtasunak izan ohi dituzte jarduera publikoak egiteko lokalak utz diezazkieten. Biztanleekin harreman onak izaten dituzte biltzen diren lekuetan, baina, oro har, jendeak beraien buruz oso gutxi dakiela antzematen dute.

Etorkizuneko erronka gisa, Bilbo inguruan lokal handiagoak lortu nahi dituztela diote, erosoago bildu ahal izateko. Oinarrizko beste kezka bat gizartearekin harremanak estutzea da, jendeak gehiago ezagut ditzan.

Santutxuko Kristau Komunitate Ebanjelikoa (Bilbo)

Santutxuko Kristau Komunitate Ebanjelikoa erakunde erlijioso gisa dago izena emanda Justizia Ministerioan. FEREDeko eta Espainiako Batasun Ebanjeliko Bautistako kide da, eta EHKEEn parte hartzen du. Hirurogeita hamarrek hamarkadan hasi zuen ibilbidea lurralde hauetan, Finlandiako misiolari baten lanaren ondorioz. Hasieran profil karismatiko eta gaztea zuen, eta gerora protestantismoaren tradizio historikoetatik gertuago dagoen bideari heldu dio.

Komunitatea 60 kidek osatzen dute, eta haur eta nerabe asko dago. Gehienak bertako biztanleak dira eta gizon-emakume proportzio bera dago. Kideek batez beste berrogei eta berrogeita hamar urte bitarte dituzte. Bikote asko dago eta gehienetan emakumeek zein gizonak lan egiten dute.

Elizaren bilerarik garrantzitsuena igandeetan izaten da, hori baita kultu eguna. Astean Biblia aztertzeko topaketak egiten dituzte, baita gazteen arteko topaketak eta otoitz-taldeak ere.

Santutxuko Kristau Komunitate Ebanjelikoa kongregazionalista da. Elizak artzaina aukeratzen eta mantentzen du. Emakumeak ere izan daitezke artzain. Erabiltzen duten lokala Elizaren jabetzako da eta beren diruz erosi zuten, kanpoko diru-laguntzarik edo bestelakorik jaso gabe.

Elizak GKE bat dauka eta beste batekin lankidetzan aritzen da (Proyecto Moises), haurrak babesean hartzeko eta Gineako eskolei laguntzeko programetan. Arlo sozialean, komunitateak urte askoz parte hartu du Bilboko liburu-azokan eta duela gutxi Durangoko liburu eta disko azokan parte hartzen hasi da.

Administrazioarekin dituen harremanei dagokienez, elizaren ordezkariak elkarrizketabide argiagoen eta legedi garatuagoaren hutsunea sumatzen dute. Bestalde, zenbait funtzionariok ezagutza falta handia duela ere antzeman dute. Komunitateak harreman ona du Eliza Katolikoarekin, eta bere liderrek interesa dute erlijio-arteko elkarrizketan; horren

erakusle da Unesco Etxeak sustaturiko erlijio-arteko elkarrizketa foroan eta beste nazioarteko foro batzuetan parte hartu izana. Hala eta guztiz ere, mundu ebanjelikoaren inguruan mesfidantza eta ezjakintasuna dagoela hautematen dute.

Etorkizunerako erronkei begira, helburuak harreman ekumenikoan sakontzea, eremu publikoan toki gehiago izatea eta gizartean beren burua ezagutaraztea dira. Azkenik, immigrazioa ere erronka handia da eliza protestante guztientzat, ordezkarien ustez

Jainkoaren Batzarren Espainiako Federazioko kide diren elizak

Jarraian aurkeztuko ditugun eliza mendekostearrak Jainkoaren Batzarren Espainiako Federazioan daude bilduta, baina bakoitzak bere autogobernua du. Esandako federazioak konbentzio bat egiten du urtero, eta bertan Zuzendaritza Kontseilua eta Zuzendaritza Batzordea izendatzen dituzte. Aldi berean, federazioak hainbat sail ditu bere jardura behar bezala gauzatu ahal izateko. Jainkoaren Batzarrak eskualdeen edo anaiarten arabera daude antolatuta. Espainia barruan, Euskal Autonomia Erkidegoa Iparraldeko Anaitasunaren barruan dago, eta bertan daude, halaber, Errioxa, Kantabria eta Nafarroa. Erdialdeko Anaitasuna Madrilen dago, eta berak bermatu behar ditu oinarrizko erabakiak. Horrenbestez, adibide bat ipintzearren, artzainaren egiaztatutuna ezin du tokiko elizak eman, Madriletik etorri behar du.

Eliza bakoitzak batzorde bat du, eta batzordeak barne-erregelamendua. Batzordean onartzen dituzte, konparazio batera, funtzionamendu-estatutuak. Estatutuak iraunkorrak dira, baina erregelamendua nahiko erraz alda daiteke. Batzordeak artzain jakin bat onartzeko edo ez onartzeko eskumena dauka, eta diakonoak ere batzordean aukeratzen dituzte. Alde horretatik, eliza bakoitzak artzain bat aukeratzen du, betiere munduan barrena sakabanatuta dauden Jainkoaren Batzarren ministerioaren barruan. Artzaina da tokiko elizako buru, eta, eliza berean artzain bat baino gehiago badago, horietako bat izango da presidentea. Tokian tokiko elizak presbiterioak gobernatzen ditu; hau da, artzainek eta adinekoek osatutako taldeak. Organo horrek modu kolegiatuan egiten du lan. Bestalde, eliza bakoitzeko Batzordea artzainak, diakonoek eta ministroek osatzen dute. Eliza bakoitzean hainbat ministro egoten dira, eta bakoitza hainbat jardura eta zereginekin egoten da lotuta: ebanjelismoa, gizarte-ekintza, misioak, alabantza-taldea, eta abar.

Astean zehar otoitz-bilera bat egiten dute komunitate mendekostearrek. Igandetan igandeko kultua egiten dute, honako hauek biltzen dituenak: abestiak, salmoak, testigantzak, hitzaren aldarrikapena, artzain ofizialaren edo artzain gonbidatuaren predikua, komunitatearen premiak edo egoerak konpontzea eskatzeko otoitza eta amaierako abestia. Gainera, komunitatea Biblia aztertzeke biltzen da. Horrez gain, zenbat gai espezifiko ere jorratzen dituzte, bai Hitzarekin loturikoak, bai bestelako gertaerekin edo gai moralekin loturikoak (eutanasia, abortua...). Jardura horiek guztiak batzarreko kideei irekita egoten dira, baita joan nahi duen edonori ere, nahiz eta normalean ez duen elizatik kanpoko inork parte hartzen. Elizek Aste Santua ospatu ohi dute data berezi gisa, eta batzuek Erreformaren Eguna eta Bibliaren Eguna ere ospatzen dute.

Jainkoaren Batzarrek prestakuntza teologikoko zentro bat ere badute: Jainkoaren Batzarren Goi Mailako Teknologia Zentroa (CESTAD, gaztelaniako siglen arabera). Duela gutxi, administrazioa ikasketa horiek aitortzen eta homologatzen hasi da; urrats oso

garrantzitsua, inondik ere. Bestalde, Compartir gobernuz kanpoko erakundearen parte hartzen dute; lekuaren arabera hainbat izen hartu ohi dituzte erakundeak.

Durango Eliza Ebanjelikoa

Eliza mendekostear hau 1981eko martxoaren 6an eratu zen, eta hasieran Bilboko kongregazioari lotuta zegoen. Eliza hau Finlandiako Juan Varis artzainak gazte-talde batekin eginiko lanaren emaitza da. Komunitatea behar adina hazi zenean, Bilboko Elizatik independizatu zen. Durango Eliza Ebanjelikoa Jainkoaren Batzarren Espainiako Federazioko, FEREDeko eta EHKEko kide da, eta Eliza Ebanjelikoen Misio Departamentuarekin lankidetzan aritzen da.

Komunitate hau 50 pertsona inguruk osatzen dute, eta haiexek hartzen dira Elizako kide gisa. Elizako kide izateko lehenik eta behin bataiatu egin behar da. Kide kopurua anitza da; horien artean, euskal herritarrek, Estatuko beste leku batzuetatik etorritako familiak eta Boliviatik, Ekuadorretik, Errumaniatik, Argentinatik eta Erresuma Batutik etorritako pertsonak daude. Generoari dagokionez, gehienak emakumeak dira eta, batez beste, 50 urte baino gutxiago dituzte. Eliza immigrazioari esker ari da zabaltzen une honetan, baita elizako kideen ahoz ahoko lanari esker ere.

Urtean behin, normalean urte hasieran, anaien arteko bazkaria egiten dute eta opariak ematen dizkiote elkarri. Aitzitik, Eguberrietan ez dute Kristoren jaiotza ospatzen (historiarekiko fideltasunagatik), baina familia eta lagunekin jaialdi bat egiten dute. Ekainean Misioen Eguna ospatzen dute eta, horrez gain, Erreformaren Eguna eta Bibliaren Eguna antolatzea ere planteatu dute. Noizbait, kultura gelan jardueraren bat egitea planteatu dute, baina, oraingoz, ez dute behar adina baliabide. Noizean behin kartzeletara eta ospitaletara joaten dira, baina ez elizak berak antolaturiko jarduerak gisa.

Komunitateak helduen bataioak egiten ditu, pertsonak horrelako erabaki bat hartzeko ezaguera eta kontzientzia duenean. Bataiatu ondoren elizako kide bilakatzen dira baina, hori baino lehen, elizara joaten diren pertsonak bisita-erregimenean daudela ulertzen da. Elizak jabetzan du bere lokala. Durango Udalak jarduerak gogaikarrien barruan sailkatu du elizaren baimena eta, hori dela-eta, inbertsio handia egin behar izan dute lokala isolatzeko. Tokiko administrazioarekiko harreman-plano horretan, artzaina kexatu egiten da irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa katalogatzeko aukerarik ez dutelako eta, ondorioz, zerga guztiak ordaindu behar izaten dituztelako.

Durango Eliza Ebanjelikoak harreman puntualak ditu Eliza Katolikoarekin, nahiz eta apenas duen harremanik beste erlijioekin. Komunitateak proiektu sozial bat babesten du Errumanian. Bertara elizako kide bat joan zen misiolari lanetara eta muturreko pobrezia-egoeretan lan egitera. Era berean, Trujillo (Peru) hirian beste gizarte proiektu bat dute, bertan bizi den elizako familia batek babestua. Proiektu horiek laguntza ekonomikoa jasotzen dute batik bat eta, batzuetan, elizako kide profesionalak bidali izan dituzte tokira, bertan sortzen diren premietan lagun dezaten. Ekarpenean hori hainbat eliza ebanjelikotan parte hartzen duen Misioen Departamentuaren bidez egiten da.

Kanporako irudiari dagokionez, bizilagunek talde arrarotzat hartzen dituztela adierazi izan dute. Horren arrazoia, haien ustez, informazio eza eta beren izaerari buruzko ezjakintasuna da.

Gasteizko Eliza Ebanjeliko Mendekostearra

Komunitate honi Gasteizko Eliza Ebanjeliko deitu ohi diote, eta erakunde erlijioso gisa izena emanda dago Justizia Ministerioaren erregistroan. Horrez gain, 2007. urtetik Jainkoaren Batzarren Espainiako Federazioan eta FEREDEn parte hartzen du, eta Euskal Herriko Kontseilu Ebanjelikoko kide da.

Komunitate honen ibilbidea 1975ean hasi zen. Urte hartan Finlandiako misiolari batzuk iritsi ziren Gasteiza, eta halaxe hasi zuten mugimendu mendekostearra. Hasieran jende gutxi biltzen bazen ere (nahikoa zuten etxe partikular bat talde osoa bertan sartzeko), elizak eutsi egin dio hazkunde prozesuari eta, ondorioz, lokal berriak bilatu behar izan ditu premia berrietara egokitzeko. Finlandiako artzain bat hasiera-hasieratik izan zen bertan eta 2000. urtera arte lagundu zion elizari; urte horretan erretiratu egin zen, eta une horrek taldearen bizitza markatu zuen. Aurkezpen historiko hau laburra izango den arren, 80ko hamarkadan gertaturiko beste bi datu esanguratsu aintzat hartu behar ditugu. Alde batetik, hamarkada horren hasieran Gasteizko komunitate ebanjeliko mendekostearra Jainkoaren Batzarretako kide bilakatu zen. Bestetik, 1983-1984 aldian REMAR taldea sortu zen komunitatearen barruan. Talde horri buruz aurrerago hitz egingo dugu. Azkenik, nabarmentzekoa da eliza honek egiten duen misio-jarduna, bere ezaugarri nagusietako bat baita. Hari esker, komunitatea Santanderrera zabaldu da eta obra ebanjelikoa ireki du Kantabriako hiriburuan.

Guztira 160 kide finko baditu ere, beste ehun bat bisitari jasotzen dituela kalkulatu dute. Arestian adierazi dugun bezalaxe, elizako kideen kopurua etengabe hazi da urte hauetan eta osaera ere aldatu egin da. Aldaketa horren datu nabarmengarrietako bat jatorri geografikoa da. Hasieran kide guztiak bertakoak baziren ere, orain erdiak immigranteak dira, bereziki latinoamerikarrak. Elizako kideen ezaugarri orokorren laburpen bat eginez, esan genezake tokiko biztanleen % 80 Euskadin jaiotakoa dela. Generoari dagokionez, emakumeak gailentzen dira (% 60) eta, adinari dagokionez, gehienak 25 eta 65 urte artekoak dira, gazteen taldea nahiko handia bada ere. Familia egitura aintzat hartuta, kasu askotan familia osoa da elizako kide, baina baita familiako kide bakanak ere. Aintzat hartu beharreko beste datu bat guraso bakarreko familia-kopuru nahiko handia da. Ikuspegi ekonomikotik, tokiko biztanleak gizarte klase ertainekoak dira, eta immigranteek, berriz, zailtasun ekonomiko handiagoak dituzte. Elizako kide gehienak Gasteizen bizi badira ere, fededunak ez dira hiriko gune espezifiko batean kontzentratzen.

Elizaren antolamenduari dagokionez, hiru estamentuk osatzen dute presbiterioa: artzainek, langileek eta diakonoek. Lehenengo lekuan artzainak daude; hau da, artzain presidentea eta bost artzainkide. Horietako bat arduraldi osoz dago liberatuta. Elizako langile-taldeari dagokionez, elizaren arloetan lan egiteko borondate ministeriala erakutsi dutenak ordentzen dira, eta haien izaten dira departamentuetako buru (gizonak, gazteak, haurrak, emakumeak, bikoteak, ezkongabe helduak, eta abar). Hurrengo mailan eta aurkezpenaren logikari jarraiki, diakonoak daude; gauza praktikoekin izaten dute lotura batik bat (elizaren mantenua, soinua, idazkaritza eta abar). Gaur egun komunitatean sei diakono daude ordenduta.

Antolamenduz harago, elizaren bizitzari eta egiturari eragiten dion arren, elkarrizketan artzainek adierazi digute elizak une historiko garrantzitsua bizi duela, ikuspegi tradizionaletik egitura zelularrera igaro delako; horri esker, harremana hurbilekoagoa eta arinagoa da, eta artzaintzari eta komunitatearen misioa betetzeari beste konnotazio bat ematen dio. Planteamendu berri horren arabera, zelulak etxe partikularretan biltzea da

asmoa. Txostena egiten ari ginen unean, hiru gazte-zelula, gizonezkoen hiru eta emakumezkoen sei zelula zituzten.

Elizako kideen topaketa-uneak asko dira, eta askotarikoak. Kultuari dagokionez, bi une nagusi daude: astearteko otoitza eta igandeko kultura. Gazteek larunbatetan egiten dituzten topaketak ere esanguratsuak dira, baita haurren igandetako eskola eta helduentzako irakaskuntza-eskola ere (ostegunetan izaten da, bi mailatan egituratuta). Zenbait jarduera lokaletatik kanpo egiten dira; esaterako, *irteera ebanjelistikoak*. Haien helburua elizaren eta mezuaren berri ematea da, liburuxkak banatuta (jarduera bi pertsonako taldeetan egiten da) eta kalean bertan egiten diren beste jarduera batzuen bitartez. Kultu eta prestakuntza ebanjelistarekin zuzenean lotuta ez dauden beste jarduera batzuk ere badaude; esaterako, elizako dantza-taldea.

Alderdi ekonomikoari erreparatuta, eliza hamarrena kobratuta finantzatzen da. Lan ministeriala gauzatzen duten elizako kide guztiak ordaindu behar dute hamarrena nahitaez; gainerakoentzat, berriz, aukerakoa da, nahiz eta, egiaz, Bibliaren agindutzat hartzen den. Horri esker artzain presidenteari eta, beharrezkoa denean, beste artzainen bati ordaintzen diete. Ekarpen horiekin, elizak bi mila metro koadro inguruko lokal bat erosi du. Edonola ere, inbertsio handia egin behar izan du; bai erosteko, bai egokitzeko. Lokalaren egoerari eta erabilerari buruz, esan beharra dago udalak ez duela elizatzat jotzen, biltegitzat baizik. Bestalde, 70 bat nigeriar ebanjelikok eta Gasteizko beste eliza batek ere erabiltzen dituzte lokalak.

Elizak Compartir gobernuz kanpoko erakundea babesten du, eta bertan parte hartzen du. GKEak bi formatu edo bertsio ditu: Compartir Gasteiz eta Compartir Errumania. Lehenengoak Gasteizko errumaniar jatorriko immigranteekin egiten du lan, eta haien oinarritzko premiak asetzen ditu (esaterako, elikadura eta bestelakoak). Plantamendu horretatik abiatuta, Elikagai Bankuari laguntzen diote, batez ere banaketa-sarea erraztuz. Compartir Errumania atalak Errumaniaren bertan egiten du gizarte-ekintza. Baina, ekimen horietaz gain, komunitatearen barruan sentiberak dira baztertuta dauden biztanleekin eta, horregatik, laster gai horrekin loturiko ekimenak egin ahal izatea espero dute.

Euskararen erabilerari dagokionez, badakite hizkuntzaren presentzia oso txikia dela, eta, gazteek helduek baino gehiago hitz egiten dutela argi duten arren, eliza barruan ez dute ia erabiltzen.

Gizarteak beren elizari buruz ikuspegi desitxuratua duela sentitzen dute. Ildo horretatik, herritar arruntek taldea sekta marjinal eta arriskutsutzat hartzen dutela uste dute, edo, asko jota, pertsona arraro gisa ikusten dituztela. Bereziki, hedabideek ezjakintasun handiz jokatzeko dutela ikusten dute, oso zehaztasun gutxirekin hitz egiten baitute haietaz eta oraindik sekta arriskutsuen zerrendan kokatzen baitituzte. Laburbilduz, ez dute uste hedabideek objektibotasunez tratatzen dituztenik.

Elizak harreman gutxi du ebanjelikoak ez diren bestelako kristauekin, tarteka Eliza Katolikoarekin ekintzaren batean parte hartu badute ere, bereziki urte paulotarra zela-eta. Hala ere, begi bistakoa da ez dagoela inolako elkarrizketa egonkorrik haien artean. Hori horrela izanik ere, ikuspegi optimistagoa dute eta topaketarako lehen baino borondate handiagoa ikusten dute; bai katolikoaren aldetik, bai ebanjelikoaren aldetik. Beste erlijioekin harreman oso txikia dute, eta daukatena maila pertsonalean batez ere. Estatuaren laikotasunari buruz, erabat ados daude aniztasunarekiko eta demokraziarekiko errespetua

sustatzen duen estatuarekin. Nolanahi ere, beren elizaren ahotsak, beste talde eta pertsona indibidual batzuenekin alderatuta, oihartzun txikia duela sentitzen dute, eta bereziki larria

Kristoren Gorputza Eliza Ebanjelikoa (REMAR)

Eliza hau Justizia Ministerioan erregistratuta dago eta FEREDeko kide da. Gasteizen sortu zen, 80ko hamarkadaren erdialdean, droga-mendetasuna duten pertsonak eta gizarte-bazterkeria egoeran bizi direnak errehabilitatzeko gizarte-lanarekin loturik. Gaur egun EAeko hiru lurralde historikoetan dago eliza eta, gainera, nazioarteko 50 bat herrialdeetan egiten du lan. Ondorioz, gizarte-ekintza izan da (batez ere droga-mendetasunarekin loturikoa) Kristoren Gorputza Elizaren sorkuntza-gune. Nolanahi ere, gaur egun gizarte-lanaren eremua zabaldu egin da eta, besteak beste, asistentzia eskaintzen dute ospitaleetan eta kartzeleetan. Gizarte-bazterkeriako eremuetan egiten duten lanaren ondorioz, gizarte-zenbait onarpen-arazo izan dituztela diote. Era berean, kexu dira gizartearen zenbait sektorek sektatzat hartu eta katalogatu dituelako.

Komunitate horien gizarte-programetako zuzendarietako asko artzainak dira aldi berean. Eliza honetan artzain izendatzera iristea bizitza-estiloarekin eta norberaren testigantzarekin dago lotuta batik bat; hortaz, artzain izateko prestakuntza ez da toki jakin batean jasotzen, eta ez da inolako titulazio berezirik eskuratzen. Elizaren bizitzan nabarmentzekoa da zenbait kide (baita zenbait familia oso ere) komunitate-erregimenean bizi direla eta ondasunak partekatzen dituztela.

Aste barruan, besteak beste, emakumeen topaketa, Biblia aztertze bilerak eta otoitzerako topaketa egiten dituzte. Horiek guztiak astean behin egiten dituzte, egun jakin batean. Asteburuan, berriz, gazteen bilera larunbatetan izaten da. Igandeetan kultu berezia egiten dute. Horren ostean, ospakizun berezirik egon ezean, hainbat familiak elkarrekin bazkaltzeko aprobetxatzen dute.

REMAR elizak bi kide mota bereizten ditu. Alde batetik, elizaren gizarte-ekintzarekin lotura zuzena duten parte-hartzaileak daude. Eta, bestetik, gizarte-ekintzarekin zuzenean lotuta ez dauden kideak daude; horien artean, hainbat bikote eta pertsona solte. Adin-tartea gero eta anitzagoa da. Hasieran jende oso gaztea zen, hogeitaz ingurukoa. Baina, gaur egun, 40 edo 50 urte dituzte eliztarrek batez beste, eta normalean bikoteak izan ohi dira. Dena dela, gazte-talde handi samarra dute. Kide gehienak bertakoak izan ohi dira, baina Gipuzkoan eta beste zenbait tokitan immigranteek osatzen dute taldearen erdia (gehienbat latinoamerikarrek).

REMAR eliza elkartasun-ekonomian oinarritzen da; horri esker eusten dio, eta, gainera, hainbat proiektu babesten ditu hirugarren munduko herrialdeetan. Era berean, bulego bat, liburutegi-zerbitzua eta irratietxe bat ditu, baita hainbat denda ere Euskal Autonomia Erkidego osoan banatuta. Erabiltzen dituzten lokaletatik, batzuk alokairuan ditu (Gipuzkoako eta Arabako egoitzak), eta beste batzuk bere jabetzakoak dira (Bizkaia).

Administrazioarekin duen harremanari dagokionez, ordezkariak diote gero eta harreman hobea lortu dutela pixkanaka. Harreman ekumenikoei eta erlijio-arteko elkarrizketari dagokionez, adierazi dute ez dutela ia harremanik beste erlijioekin, une honetan hori ez baitago elizaren lehentasunen artean. Adierazi dituzten etorkizuneko erronken artean, komunitatearen hazkunde kuantitatiboa eta kualitatiboa daude. Horrez gain, belaunaldi

gazteekin ondo konektatzeagatik kezkatuta daudela adierazi dute, gazte horiek elizaren barruan integratuta senti daitezen lortu nahi baitute.

Juventud con una misión

Juventud con una Misión (JCUM) ez da eliza bat berez, baizik eta nazioarteko elkartea. Loren Cunningham jaunak sortu zuen 60ko hamarkadan AEBetan. Gaur egun, 173 herrialdetan dago eta 16.000 pertsonak lan egiten dute bere misioaren alde. Bere planteamenduari jarraiki, ez dago izendapen ebanjeliko jakin bati lotuta, eta, horregatik, kongregazio ebanjeliko guztiak lan egin dezake, bai eta tokian-tokian ezarritako elizei lagundu eta zerbitzatu ere, prestakuntza eta gaikuntza eskainiz.

Txileko pertsona batzuen bitartez hasi zen JCUM Euskal Autonomia Erkidegoan, baina, hori baino lehen, Madril en aritu ziren misiolari. Ondoren, 90eko hamarkadan, Bilbora joan ziren eta halaxe finkatu zuten elkartearen presentzia EAEn. Taldea Justizia Ministerioaren erakunde erlijiosoan erregistroan jasota dago, eta FEREDeko kide da.

JCUMen misioa autonomoa da estatu bakoitzean; Espainiaren kasuan, buru bat du, bai eta hari laguntzen aritzen den bost pertsonako lankide-taldea ere. Erakundeak lagunak eta jarraitzaileak eginiko ekarpenetatik lortzen ditu baliabide finantzarioak. Lagun edo jarraitzaile horiek Estatukoak zein atzerrikoak izan daitezke; batez ere, Mexikoko, Hego Ameriketako, AEBetako edota Europako misioetakoak. Antolamendu-esparru eta eremu geografiko horren barruan, Bilboko nukleoa txikia da oraindik. Boluntario gisa eta ordainsaririk jaso gabe lan egiten duten zazpi lankidek osatzen dute. Bilbon, lankideen etxeetan biltzen da JCUM taldea, baina alokatutako lokal bat ere badu, eta hor egiten dute prestakuntza. Erakundeak, bestalde, GKE bat du eta hura arduratzen da lokalaren alokairuaz. Taldea duela gutxi hasi da lokala erabiltzen eta, gaur egun, egokitzapen-lanak egiten ari dira bertan; besteak beste, intsonorizatzen, sartzeko arrapalak eraikitzen, komunak jartzen, eta abar.

Elkartearen lan nagusietako bat prestakuntza da. Prestakuntzaren barruan, bi modalitate eskaintzen dizkie interesa duten eragile misiolari. Lehenengoa bost hilabetetan dago egituratuta; denbora-tarte horretan, programako parte-hartzaileak erakundearen bertan bizi dira. Beste modalitatea hainbat elizatan lan egiten ari direnei gaeuz eskaintzen diena da. Ikasle gehienak Hego Amerikatik etorriak dira, eta, horien artean, askoz ere ugariago dira emakumezkoak.

Duela gutxi ezarritako elizak

Atal honetan EAEn azken hamabost urteetan ezarri diren elizak bildu ditugu. Elizok eta beren sorrera lehenengo belaunaldiko immigrazioarekin oso loturik daude. Ezaugarri nagusi eta orokor gisa, kideak Afrikako edo Latinoamerikako leku jakin batetik etorriak direla esango genuke.

Elizok finkatze-prozesu dinamiko bat bizi dute, eta gizarteratze-baldintza oso prekarioak dituzte. Normalean, zailtasunak dituzte kultuutarako lokal bat lortzeko, eta ez dute beren kabuz higiezin bat erosteko aukerarik izaten. Elizon artean zabaldua dagoen beste ezaugarri bat gehienak federatu gabe egotea da; horrek erakusten du lotura oso txikia edo loturarik ez dutela beste eliza edo talde erlijioso ebanjeliko batzuekin. Aitzitik, eliza hauek

mendetasun-harremana izaten dute bakoitzaren jatorrizko egoitzarekin, eta, ondorioz, hizkera eta tradizioak oso hurbil daude jaio diren herrialdeetakoetatik.

Eduki ohi dituzten premiak direla-eta, ezarri berri diren elizek barne-elkartasuneko sare aktiboak eratu ohi dituzte, kideek jasaten dituzten egoera prekarioei aurre egin ahal izateko eta ahal den heinean haiek arintzeko. Talde gazteak dira batez beste. Alderdi ekonomikoari begiratuta, murgildutako ekonomiako lanak egiten dituzte eta lan kontratuak eskuratzeko zailtasunak izaten dituzte.

Atal honetan bost egoera espezifiko bildu ditugu; horietako bi Afrikarekin loturikoak, eta hiru Latinoamerikarekin. Kasu guztiak sakon deskribatu nahi izanez gero, gaiari buruzko monografia bat beharko genuke. Gainera, denboran egonkortasun gutxi duen errealitatea da, oso azkar aldatzen baita. Horregatik, zaila da errealitate horren argazki fidagarria lortzea, baita epe laburrean ere.

Hand of God Ministry (Bilbo)

Talde erlijioso honen presidente eta liderra 2001ean etorri zen Bilbora. Iritsi zenetik hainbat lokal erabili dituzte, eta, gaur egun, Bilboko Mazustegi kalean daude, alokaturiko lokal batean. Nigeriarra da jatorriz, eta han eliza ezarrita eta errotuta dago. EAEn, ordea, Bilbon biltzen den taldea baino ez dago, nahiz eta Iruñean eta Valentzian ere badauden beste talde batzuk.

Eliza Justizia Ministerioan erregistratuta dago elkarte erlijioso gisa eta, gaur egun, izapideak egiten ari dira EAEn erregistratzeko. Ez da FEREDEko kide, baina harekin harremanetan jarri nahi du. Elizak bi elkarte eratu ditu, eta funtsean gizarte-funtzioak betetzen dituzte.

Elizako kideak afrikarrak dira (Liberia, Kongo, Senegal, Ghana, Nigeria eta Angola), lehenengo belaunaldiko etorkinak, eta gizarte urrakortasun egoera garbian daude. Horren isla dira, besteak beste, normalean izaten dituzten lanak; gehienak prekarioak, aldi baterakoak eta kalitate txikikoak. Taldearen osakerari dagokionez, emakume eta gizon kopurua orekatua da. Ohikoa den bezala, elizaren antolamenduaren barruan gizonen taldea, emakumeena eta gazteena bereizten dira, eta bakoitzak bere arduraduna du. Hizkuntzari dagokionez, eguneroko harremanetan ingelesa erabili ohi dute, baita gaztelania pixka bat ere. Ospakizunean eta mezuaren aldarrikapenean bi hizkuntzak erabiltzen dituzte.

Ospakizunei dagokienez, urtean behin eliza Bilbora iritsi zenekoa ospatzen dute. Taldearen bizitzan garrantzia dute, bestalde, bataioarekin eta ezkontzarekin loturiko ospakizunek. Bataioak ez dira lokalean egiten, baizik eta leku irekietan; esaterako, ibai edo itsas ertzean. Ordezkariek diote agintariek ez dietela inongo trabarik jarri ospakizun horiek egiteko. Elizak kanpora begira antolatzen dituen jarduerari dagokienez, oraingoan, ez dute ezer aurreikusi; ez kalean egiteko jarduerarik, ez gizarte-erakundeetan egitekorik.

Taldearen ezaugarriak direla-eta, barne-elkartasunaren antolamenduak garrantzi handia du, kideek eguneroko bizitzan dituzten premiak oso larriak baitira. Hori horrela izanik, elizak janaria jasotzeko eta banatzeko sare bat dauka, bizilekua bilatzeko laguntza eskaintzen du, eta, kasuaren arabera, lo egiteko gela bat bilatzekoa ere bai. Gainera, egunerokoan bizirauten laguntzeko beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu. Elizako

partaideek dituzten zailtasun ekonomikoak gorabehera, borondatezko ekarpenei esker irauten eta funtzionatzen du kongregazioak, eta ez dute kanpoko inolako laguntzarik jasotzen.

Mendekoste Eliza – Church of Pentecost (Bilbo)

Eliza hau Justizia Ministerioaren erregistroan bilduta dago, harremanak ditu beste eliza mendekostear batzuekin, baina ez da FEREDeko kide.

Mendekoste Eliza Afrikatik etorritakoa da, eta 2001ean ezarri zen EAEn. Hasieran Bilbon sortu zen, hirian migrazio-mugimendu handia egon delako azken urteetan. Bilbon ez ezik, EAEn beste hiri batzuetan ere ezarri da; esaterako, Gasteizen, Durangon edota Donostian. Era berean, beste talde bat Iruñean ere sortu da. Espainian toki batean baino gehiagotan badaude ere, kongregazio hauek askorentzat erreferentzia-eliza Zaragozako da. Elizaren jatorria Ghanan dago, eta, horregatik, huraxe da autoritatea. Afrikako eliza honetatik ateratzen dira Ghanatik kanpo sortzen diren tokiko elizetako liderrak. Eliza hau nazioartean oso zabalduta dago; 70 herrialdetan baino gehiagotan, hain justu. Bilbon, gaur egun, Eliza Katolikoaren lokal batean biltzen dira. Lokal horretatik ateratzen eta beste bat alokatzen saiatu badira ere, zailtasun handiak izan dituzte, bizilagunak kexatu egin baitira zaratekin; horregatik, adierazitako parrokiara itzuli behar izan dute.

Gaur egun, 30 bat pertsonak osatzen dute eliza. Gehienak Ghanakoak dira, baina badago nigeriarrik eta kamerundarrrik ere. Hizkuntzari dagokionez, Afrikako tokiko hizkuntzak eta ingelesa erabiltzen dituzte. Baina gaztelaniaz bakarrik dakien norbait etortzen denean, ez dute arazorik hura erabiltzeko. Fededunek kalifikazio gabeko langile gisa lan egin ohi dute hainbat sektoretan, eta asko langabezian daude. Hala eta guztiz ere, prekaritatea eta lanen kalitate eskasa gorabehera, badago unibertsitate-ikasketak dituen ere. Eliza honetako kideen beste ezaugarrietako bat emakumeen kopuruak gora egin izana da, eta batez beste oso gazteak izatea ere bai.

Elizaren antolamendua sinplea da, eta bi posizio nagusiak liderra eta kultuen arduraduna dira. Horiekin batera hiru edo lau pertsonako taldetxoak dago, eta antolatzeko gobernu-formula kolegiatua erabiltzen dute. Bestalde, emakume-talde bat ere badago, berezko arduraduna duena eta maiz biltzen dena. Ospakizunarekin lotuta, nabarmendu beharra dago zenbait muga dituztela; esaterako, kultura larunbat eta igandeetan bakarrik egin dezaketela, gaur egun erabiltzen ari diren lokala partekatua baita. Hortaz, aste barruan ezin izaten dira elkartu. Kultura, aldarrikapena eta Hitzaren predikua emakumeek zein gizonek egin dezakete. Asteroko ospakizunaz gain, garrantzia eman nahi diote eliza Bilbora iritsi zen egunari. Beste eliza batzuen kasuan aipatu dugun bezala, bataioa ez dute lokalean egiten, baizik eta leku irekiren batean (ibaian, igerileku batean edo itsasertzean).

Gaur egun erabiltzen duten lokala txikiegia da elizak dituen beharretarako. Ez dute alokairurik ordaintzen, baina bai argia eta ura, baita behar diren konponketak ere. Ez dute kanpoko laguntza ekonomikorik jasotzen eta, hortaz, gastu guztiak elizako kideen ekarpenekin ordaintzen dituzte.

Eliza barruan egiten dituzten ohiko topaketez gain, komunitate honek misio eta testigantza jarduerak ere egiten ditu, bai eta ospitaleetan gaixoak bisitatu ere. Jarduera horiek gauzatzeko zenbait zailtasun izaten dituzte. Batik bat hizkuntzarekin loturiko zailtasunak izaten dira, kideek ez baitute gaztelania oso ondo menderatzen. Bada bigarren

zailtasun bat ere; alegia, hemengo pertsonak elizaren sinesmena eta errealitatea ez dituztela ulertzen. Horri guztiari etorkin izatearen arazoa erantsi behar diogu. Giroa oro har katolikoa dela sentitzen dute eta beraiek elementu arrotz direla testuinguru horretan. Horri erantsi behar diogu gizartean nabarmentzeko aukera gutxi antzematen dituztela. Komunitateak harremanak izan ditu tarteka Latinoamerikako beste erlijio-talde batzuekin, baina, horretaz aparte, ez dute harremanik beste eliza kristauekin edo beste erlijio batzuekin.

Eliza Mendekostear Batua (Bilbo)

Komunitate honen izen ofiziala Europako Eliza Mendekostear Batua da, baina Euskadin Bilboko Eliza Mendekostear Batua izenarekin da ezaguna. FEREDeko kide da.

Berez AEBetatik etorria da, eta Espainiara iritsi zen lehenengo taldea Madrilen ezarri zen 1999an. Bilboko eliza Madrildik bidalitako misiolari batek sortu zuen. Koloniar jatorriko misiolari hura elizako kide zen bere herrian, eta halaxe ekin zion Bilbon misioari. Eliza honen ekintza pastorala Latinoamerikako emigranteei dago zuzenduta batik bat. Hiri handietan eliza nabarmen hazi da, Euskal Autonomia Erkidegoan hala izan ez bada ere; arrazoa, ordezkariaren hitzetan, autonomia erkidego honetan Latinoamerikako immigranteen kopurua nabarmen txikiagoa izatea da. Gaur egun 60 kide inguru ditu, gehienak gazteak eta haur txikidun familiak. Apenas dagoen pertsona zaharrik. Elizako kide gehienak Bilboko eremu metropolitarran bizi dira, eta eraikuntzarekin eta etxe-zerbitzuekin loturiko kalifikazio gabeko lanak egiten dituzte.

Elizak nazioarteko antolamendu-egitura du, eta 154 herrialdetan dago. Herrialde bakoitzean eratzen den taldeak autonomia badu ere, eliza guztiek arau eta irizpide berak jarraitzen dituzte. Bilboko egoitza Madrildik elizaren mende dago; bertan, zuzendaritza talde bat dago, presidente batek, idazkari batek, diruzain batek eta zenbait batzordekidek osatuta. Zuzendaritza Batzorde horri eskualde bakoitzeko artzainek osaturiko kideen batzarra gehitu behar diogu. Bilboko elizaren antolamendua askoz ere sinpleagoa da, hastapenetan baitago. Dena den, igandetako eskola bat du. Aldi berean, eliza egituratzeko taldeak osatzen saiatzen ari dira: gazteak, emakumeak eta gizonak, eta igandetako eskola. EAEn komunitateak ez du lotura instituzionalik tokiko beste eliza batzuekin, baina harreman pertsonalak dituzte, batez ere eliza mendekostearrekin.

Lokalei dagokienez, elizak hainbat zailtasun izan ditu eta, gaur egun, ez dauka lokalik topaketak eta elizaren jarduerak egiteko. Denbora-tarte batez lokal bat alokatu dute, baina ezin izan zuten elizaren izenean egin, ez baitzituzten beharrezko legezko eskakizunak betetzen; ondorioz, elizako kide baten bitartez alokatu behar izan zuten. Alokatzeko lege-zailtasunez gain, intsonorizazioari eta beste legezko araudi batzuei egin behar izan zieten aurre. Bestalde, taldeak ez dauka nahikoa sendotasun eta baliabide ekonomiko lokal bat erosteko eta, gainera, alokaturiko lokal batean inbertsio handia egoten da egiteko. Egoera hori itogune bilakatu da elizaren bizitzarako eta garapenerako. Gaur egun etxe partikularretan egiten dituzte bilerak, baina egoera prekarioa da zinez.

Elizaren ohitura da kultua astean hainbat aldiz egitea, bereziki, larunbatetan eta igandetan. Hori dela-eta, lokalik ez izatea zailtasun izugarria da taldeko ospakizunak egiteko. Eliza Bilbora iritsi zenekoa data garrantzitsu eta ospakizun-arrazoiz bilakatu da. Elizarentzat beste ospakizun garrantzitsu batzuk bataioak eta ezkontzak dira. Bataioak hondartzetan egin ohi dituzte, uretan murgiltzeko errituaren bitartez; ezkontzak, berriz, lokalean egiten dituzte, baina orain beste aukera batzuk bilatu beharrean daude. Oraingoz

ez dute bestelako gizarte-jarduerarik egiten, eliza lehenengo urratsak ematen ari baita. Dena dela, ordezkariak diotenez, sarri bisitatzen dituzte ospitaleak eta kartzeletara joateko asmoa ere badute.

Elizak errotu egin nahi du EAEn, baina ez zaie erraza egiten euskal jatorriko biztanleengana iristea. Elizarekiko errezeloak eta aurreiritziak daudela antzematen dute, eta, kasurik onenean, beren kongregazioarekiko ezjakintasuna dela nagusi. Agintarien aldetik ez dute inolako ezinikusirik antzematen, baina ezta babesik ere. Dena dela, administrazioak eskatzen dizkien legezko izapideak neketsuak egiten zaizkie. Eliza gisa, kaleetara, lorategietara, metrora eta tankerako hiri-espazio publikoetara iristeko mugarik ez izatea nahiko lukete.

Jesusen izenaren Eliza Ebanjeliko Apostolikoa (Bilbo)

Komunitate hau Eliza Ebanjeliko izenarekin da ezagunagoa, eta EAEn Bilbon eta Gasteizen ditu egoitzak. Gaur egun ez dago federazio batean ere, baina erakunde erlijioso gisa erregistratuta dago Justizia Ministerioan, ez ordea elkarte gisa. Bilboko kongregazioa elizak alokatutako lonja batean biltzen da gaur egun.

Talde honen jatorria Kanadan dago; handik Kolonbiara eta Ekuadorrera zabaldu zen. Eliza Ekuadorren bitartez iritsi zen Espainiara, handik misiolari bat bidali baitzuten Madrilera 2001ean. Bi urte geroago, misioa Bilbora zabaldu zen eta, aldi berean, Espainiako beste herri batzuetara iritsi zen. Bilbon ezarritako eliza Madrilgo artzainaren agintaritzapean dago. Hark, halaber, Ekuadorreko elizaren aginduak jarraitzen ditu, han baitago agintari gorena. Espainian ezarritako eliza guztiek artzain guztientzako bilerak egiten dituzte aldizka.

Sei urteko epe laburrean hiru artzain izan ditu Bilboko elizak; gaur egun dutena laugarrena da. Azken hori ekuadortarra da eta han ere artzain-lanetan aritzen zen. Prestakuntza berezia jaso du Bartzelonan. Hasieran fededunak Bilboko Casilda Iturrizar parkean biltzen ziren. Ondoren, lokal bat alokatu zuten, baina denbora luzea eman zuten hura egokitzen. Bien bitartean, fededunek adierazitako parkean biltzen jarraitu behar izan zuten. Nabarmendu beharra dago ez zutela inoiz zailtasunik izan kultua parkean igande goizetan egiteko, batere baimenik ez izan arren. Lokala egokitzeko arazo nagusia intsonorizazioa eta bizilagunen errezeloa izan da. Beren lokal propioa, azkenik, 2009an inauguratu zuten.

Elizaren antolamenduari dagokionez, lehenago esan dugun bezala, artzaina da buru eta batzordeen arabera antolatzen da; gaur egun sei batzorde daude. Batzorde bakoitzak zeregin espezifikoa du eta, horien artean, lau dira nabarmentzekoak: gazteak, emakumeak, ebanjelismoa eta gizarte ekintza. Horretaz guztiaz gain, diakonoa dago; artzainari zuzenean laguntzen dio elizaren ibilbidearen jarraipena egiten eta kultura ematen. Batzordea eta diakonoak artzainak aukeratzen ditu urtero.

Bizkaiko komunitateak 70 kide inguru ditu eta gehienak latinoamerikarrak dira (Ekuador, Kolonbia, Bolivia eta Peru), baina badaude beste leku batzuetako kideak ere; esaterako, Filipinetakoak eta Errumaniakoak. Euskal herritarrik ere bada kideen artean. Batez beste nahiko gazteak dira, 25 eta 40 urte bitartekoak eta, halaber, haur txikiak edo nerabeak dituzten familia gazte asko dago. Emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino handixeagoa da, eta eliztar gehienak Bilboko eremu metropolitarran bizi dira. Lanari dagokionez,

normalean eraikuntzan eta merkataritzan lan egiten dute, baita etxe-zerbitzuan ere. Ordezkariek diotenez, beren herrialdeetan titulu profesionala dutenei zail egiten zaiela hura hemen homologatzea.

Komunitatea astean lautan biltzen da kultua egiteko. Kultua laburragoa izaten da aste barruan (asteartea eta osteguna) eta orduete inguru irauten du; larunbatetan eta igandeetan, berriz, luzeago jotzen du eta patxadatsuagoa izaten da. Asteroko erritu horretaz gain, urtean zenbait ospakizun berezi izaten dituzte. Ospakizun oso berezi bat Jaunaren Afaria izaten da, urtean behin. Okasio jakin batzuetan ekitaldi bereziak antolatzen dituzte; esaterako, familiaren astea. Oro har, ordezkariak ez dute antzematen inolako aldaketa kulturalik egin behar izan dutenik kultuetan. Aipatu beharreko aldaketa bakarra ordutegiaren egokitzapena izan da; izan ere, lanetik nahiko berandu irten ohi diren elizako partaideen lan-baldintzetara moldatu behar izan dute ordutegia.

Elizak ez du laguntzarik edo diru-laguntzarik jasotzen erakunde publikoengandik; hortaz, kongregazioko partaideen ekarpenekin mantentzen da. Talde barneko elkartasun-sare bat ere badu, eta atzerritik iristen direnei ostatua eta lana lortzen laguntzen diete, baita gizartean orientatzen ere.

Elizaren jarduera-programaren barruan sartzen dira ospitaletara eta kartzeletara egiten dituzten bisitak. Jarduera horien planteamendua Ebanjelioa partekatzea eta predikatzea da; hala, beren mezua hedatzen saiatzen dira. Ebanjelizatzeke lana kalean ere egiten dute, baita etxez etxe ere. Horrekin loturik, elizako kideen ustean, hemengo biztanleak sinesgogorrik dira ematen dieten mezuarekin, eta, oro har, Jainkoari fede gutxi diote.

Orain arte elizak ez du lankidetzaren harremanik izan beste talde kristau batzuekin, baina harreman pertsonalak dituzte beste eliza ebanjeliko batzuetako artzainekin, batez ere, mendekostearrekin. Dena den, kontaktu pertsonal horiek gorabehera, ez dago koordinazio-harreman formalik.

Munduko Argiaren Eliza (Bilbo)

Eliza honen izen ofizial osoa hau da: Iglesia del Dios Vivo Columna y Apoyo de la Verdad. La Luz del Mundo. Justizia Ministerioaren erakunde erlijiosoaren erregistroan jasota dago eta FEREDeko kide da. Hirurogeiko hamarkadaren amaieran iritsi zen Espainiara, Guadalajarako (Mexiko) misiolari batzuen bitartez. Madrilen hasi zuten jarduera misiolariok, eta handik beste udalerrira batzuetara zabaltzen joan ziren. 1998an Bilbora iritsi ziren, eta hasieran Zorrotzako lokal batean ezarri ziren; han, drogazaleekin eta bazterturikoei laguntzen lan egiten zuten, elizari lotuta dagoen eta *Centro de Rehabilitación del Buen Samaritano* izena duen elkartearen bitartez. Ondorengo urteetan eliza hazten joan da pixkanaka eta, gaur egun, alokaturiko lokal bana dituzte Bilbon eta Gasteizen. Elizako lokalean errehabilitazio zerbitzuak egiten jarraitzen dute elizako kideek.

Munduko Argiaren Elizak egitura hierarkikoa du, eta apostolu bat da presidente eta elizaren nazioarteko zuzendari. Apostolu hori mexikarra da, eta eliza dagoen tokietara bidaiari ibiltzen da etengabe. Elizak egoitza duen udalerrira bakoitzean artzain bat egoten da, beti gizonetako. Artzainari diakonoek laguntzen diote, bai eta hainbat arduradunek, langilek eta misiolariak ere. Bilboko eliza zuzenean dago lotuta Madrilgoarekin, eta haren mende dago jarraibide orokorren arabera.

Eliza barneko jarduerari dagokionez, kultura egunero egiten da arratsaldeko 7etatik 8etara. Igandea egun berezia izaten da; goizez eskola izaten dute, eta arratsaldez ospakizun luzeago bat, 17:30etik 19:00etara. Kultura adiskidetzearekin hasten da eta, ondoren, alabantza, salmo baten inguruko hausnarketa, eskaera-otoitza, ministroen eta misiolarien otoitza eta Bibliako testuren batean oinarrituriko predikua egiten dute. Amaitzeko alabantza-otoitza eta premiengatikotoitza egiten dituzte. Ospakizun mota eta estiloa uniforme da eliza osoarentzat, eta aldatzen den gauza bakarra ordutegiak dira. Ez dute musika-tresnarik erabiltzen eta, hortaz, kantu guztiak *a cappella* izaten dira.

Elizak modu berezian ospatzen du Afari Santua urtean behin; hain zuzen, abuztuaren 14an. Ospakizun honek berezitasun bat du: eliza osoarentzat ekintza bakarra izaten da, Guadalajaran. Afari Santua mundu osoan banaturiko tokiko eliza guztiak jarraitzen dute, pantaila baten edo ordenagailu baten bitartez. Hori dela-eta, Guadalajaran Afari Santua egiten den ordu berean, tokiko eliza guztiak bildu egiten dira eta, nolabait, ospakizun horrekin bat egiten dute. Hala ere, ordezkarien arabera, inoiz Afari Santua Espainian ere egin izan dute. Elizaren bizitzan badago beste ospakizun garrantzitsurik; esaterako, sakramentuak, ezkontzak, haurren aurkezpenak jaiotzeak eta 40 egunera, eta igarotzearen ospakizuna. Azken hori kideek hamalau urte betetzen dituztenean egiten da, eta gazteak fedeari dagozkion erabakiak bere kabuz hartu behar dituela ematen du aditzera.

Elizaren mantenu ekonomikoari dagokionez, ohikoa den moduan, parte-hartzaileen ekarpenei esker finantzatzen dituzte adierazitako jarduerak.

Mundu ebanjelikoarekin loturiko zenbait gai

Gai asko sortzen dira komunitate erreformatuei edo ebanjelikoei buruzko informazio-bilketa egiterakoan. Hasteko eta behin, panorama anitza da eta egoera espezifiko ugari ditu. Garatzen ari den errealitate bat da eta, hortaz, aldaketa handiak gertatuko dira oraindik. Dena den, elkarrizketa guztietan atera diren zenbait alderdi daude; hala, nabardura bereziak dituzten arren, guztiak erakusten dituzte antzeko kezak eta, zenbait kasutan, mundu ebanjelikoaren ezaugarri bereizgarriak ere bai euskal gizartearen esparruan.

Administrazio publikoekin dituzten harremanak

Elizek administrazio publikoekin dituzten harremanen artean maila asko daude eta hainbat gairi eragiten diote. Oro har, eliza ebanjelikoek helarazten duten esperientziaren arabera, harremana ez da erraza eta, zenbait kasutan, baztertzailerik gisa ere ikusten dute. Arlo baten inguruan baino gehiagotan kexatzen badira ere, informazioa biltzeko garaian eliza ebanjelikoen iritziz adierazgarrienak direnak bakarrik zenbatuko ditugu.

Lehenik, gai erlijiosoei dagokionez legeak hutsuneak dituela irizten diote; hutsune horren eraginez, toki-administrazioak (udalek) modu arbitrarioan jokatzeko aukera gehiago dituzte, kasuaren eta egoeraren arabera. Hori horrela izanik, arazo bereziak izaten dituzte lokalak irekitzeko baimenak lortzeko.

Beste alderdi garrantzitsu bat zenbait funtzionariok erlijioarekin eta haren araudiarekin loturiko gaietan duten ezjakintasuna da. Ondorioz, egoera zailak eta tentsiozkoak sortzen dira irakaskuntzan, haurren hezkuntza erlijiosoaren arloan, ospitaleetara eta kartzeteletara sartzeko orduan, ezkontza-batasunetan edo kultu-lekuei eskatzen zaizkien baldintzetan. Berezi, eremu publikoa erabili ahal izatea da eliza ebanjelikoen nahietako bat. Horrek,

sarritan, gatazkak eragiten ditu eta, haien ustez, baztertu egiten dituzte. Ildo horretatik EAEn dagoen erregulazio falta nabarmentzen dute.

Lege-esparruari eta administrazio publikoarekin dituzten harremanei dagokienez, zenbait elizak ez du beharrezko aholkularitza juridiko profesionala jasotzen, eta, ondorioz, arazoak sortu ahala konpontzen dituzte. Pertzepzio orokorra da lege-esparruak ez duela elizen bizitza eta garapena errazten. Artzain batzuek diotenez, zenbat eta gehiago saiatu gauzak hobeto egiten, orduan eta arazo gehiago izaten dituzte. Eliza horien ordezkarien ustez, oro har, esparru arauemailea oso neketsua da, eta Eliza Katolikoaren neurrira dago egina. Nolanahi ere, zerbitzu publikoetan harrera egin dieten pertsonekin izan duten harreman zuzena, oro har, ona izan dela onartzen dute. Oro har, administrazioaren barruan gaiari loturiko araudiaren inguruko ezjakintasuna dago; bereziki, hezkuntzaren eta arlo ekonomiko zein fiskalaren inguruan. Zergei dagokienez, elizetako kideek salatu dute administrazioek ez dakitela komunitateei egindako dohaintzek zer-nola eragiten duten zerga-salbuespenetan, edota banakoek erlijio-erakundeei egindako dohaintzek zer-nola eragiten duten ere ez dakitela pertsona fisikoen errentaren zerga ordaintzerakoan. Adierazi digutenaren arabera, administrazioek ez dakite komunitate ebanjelikoei zer araudi aplikatu behar zaien, Estatuak FEREDerekin lortutako akordioei jarraiki. Beste kontu bat da administrazioa nahita den ezjakin ala ez.

Hezkuntzaren eskumen orokorra Eusko Jaurlaritzari badagokio ere, erlijioa irakasteko eskumena ez dago transferituta. Horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak ezingo duela parte hartu hezkuntza publikoan eliza ebanjelikoek zer-nolako presentzia izango duten eztabaidatzeko garaian. Hezkuntzaren alorrean sentitzen dute protestanteek, bereziki, bidegabekeria. Alde batetik, erlijio irakasle izateko eskakizunak daude. Haietako asko Teologian lizentziatuak dira, eta, gainera, maisutza karrera ere badute. Baina, hori guztia gorabehera, ez daude erlijio-eskolak emateko gaituta. Bestalde, erlijio katolikoari buruzko eskolak ematen direnean beraiek ere erlijio ebanjelikoari buruzkoak jasotzeko eskubidea dutela aldarrikatu dute. Edonola ere, egia da mundu ebanjelikoaren barruan erlijio-eskolen zentzuari buruzko eztabaida dagoela. Askoren ustez, Estatu laiko batean erlijioa familian eta elizan irakatsi eta transmititu behar da, eta ez hezkuntza-sistemaren bitartez. Beste alderdi zail bat zentro protestanteetan eginiko Teologia ikasketen errekonozimendua da.

Gizarte-lanari dagokionez, komunitate ebanjelikoek uste dute Eliza Katolikoak gizarte-laguntzarako elkarrekin antolatze eskubide osoa duela eta, eliza ebanjelikoei, aldiz, ez zaiela horrelako erraztasunik ematen. Eliza Katolikoari eta eliza ebanjelikoei araudi eta baldintza berak ez zaizkiela aplikatzen iruditzen zaie oro har. Bestalde, administrazio publikoa ez da beti hizketakide argia eta, egoera askotan, ez dago garbi norekin hitz egin behar duten edo zein den izapide jakin baterako arduraduna.

Egoera problematiko puntuala izanik ere, bizi osoan elizarentzat lan egiten duten ministroen auziak ondorio praktiko asko ekarri ohi ditu. Ministro horiei bere garaian ez zitzaion Gizarte Segurantzaren kotizatzen utzi, eta, ondorioz, gaur egun ez dute erretiro-pentsiorik.

Hedabideak eta iritzi publikoa

Mundu protestanteak hedabideetan duen tratamenduari dagokionez, jasotako informazio guztiak kritikoa dira; kasurik onenean haien errezeloaz eta mesfidantzaz hitz

egiten dute, eta okerreanean, tratu erabat baztertzailer eta bidegabeaz. Ondorengo lerroetan, jarrera kritiko horren atzean dauden adierazitako arrazoiertako batzuk azalduko ditugu.

Eliza ebanjelikoen ordezkariekin izandako elkarrizketetan behin eta berriz adierazi digute hedabideak oso gaizki informatuta daudela, eta oro har ez dutela batere prestakuntzarik erlijioari buruz, are gutxiago mundu ebanjelikoaren inguruan. Haien ustez, erabiltzen duten hizkera ez da egokia, eta esanahi ezberdinak dituzten terminoak nahasten dituzte; esaterako, «ebanjeliko» eta «ebanjelista» terminoak. Zenbait alderditan hizkuntzaren nahasmendu hori zaurigarria eta bidegabea da oso komunitate horietako kideentzat; adibidez, «sekta» hitza bereizketa gabe erabiltzen dutenean edozer eliza ebanjelikori buruz hitz egiteko. Era berean, estereotipo asko dago, eta zail egiten zaie haiei kontra egitea. Nahiko maiz telepredikatzaileraren irudiarekin edo portaera arraroarekin identifikatzen dituzte artzainak. Horrek guztiaren ondorioz, iritzi publikoa desinformatuta eta desorientatua egoten da, eliza ebanjelikoak benetan direnari buruz.

Hedabideen beste portaera batek ere kexak sortzen dizkie eliza ebanjelikoertako komunitateei; hain zuzen, jasan behar duten isiltze sistematikoak, ez baitira hedabide horietan agertzen, salbu eta iskanbilaren bat gertatzen den edota hedabideek hutsuneak betetzeko albisteren bat behar duten. Dena den, albiste horiek kutsu negatiboa izan ohi dute. Bestalde, erlijio-aniztasunari buruz eztabaidaren bat antolatzen denean katolikoak izaten dira kristautasunaren ordezkari, baita islamarekin edo ekialdeko erlijioekin elkarrizketak izaten dituztenak ere. Era berean, munduko lekuren batean artzain protestante bat hiltzen dutenean, Euskadiko hedabideek kristau edo kooperatzaile gisa aurkezten dute, baina ez dute inoiz esaten zer elizartako kide den. Hori guztia gorabehera, zenbait salbuespen positiboz ere hitz egin digute. Adibidez, beren buruak publikoki ebanjelista gisa aurkezten dituzten kirolariak edota munduko pertsonaia garrantzitsuak. Dena dela, kasu horietan eragin positiboa ez dator hedabideertatik, baizik eta pertsonaia ospetsu horien testigantza partikularretik.

Adierazitako guztia dela-eta, hedabideekiko harremana EHKEren lan-agendan dago. Erakundeak komunitate ebanjelikoaren aukera guztiak baliatu nahi ditu egoerari buelta emateko eta gizartearekin komunikazio hobea lortzeko. Horren erakusgarri da ETBko programari eskainitako denbora eta esfortzu guztia. Hori horrela izanik, elizertako batzuk beren irratietxeari izatearen alde egin dute.

Immigrazioa eta elizertako kide egitea

Laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadan EAEn jatorrizko biztanle asko egin ziren eliza ebanjelikoertako kide; hala hazi zen haien kide kopurua pixkanaka. 2000. urtetik aurrera immigrazioak asko egin zuen gora, batez ere Latinoamerikatik etorritakoak, baina baita Europa Ekialdetik edota Afrikatik etorritakoak ere. Gertaera horrek hainbat ondorio izan ditu eliza horien bizitzan. Hasteko, tradizio eta kultur aniztasunak aberastasuna ekarri du; edonola ere, batzuetan komunikazio-zailtasunak sortzen dira, immigraertetako batzuek ez baitute gaztelania ondo menderatzen. Salbuespen batzuk kenduta, immigraertek dagoeneko EAEn dauden elizetan sartzeko joera izatea interesgarria da, ez baitirudi hori denik joera orokorra Europako beste leku batzuetan eta EBEn; han, immigraertek beren elizak eratu ohi dituzte. Joera hori guztiontzako aberastasun gisa ikusten dute mundu ebanjelikoan.

Aintzat hartu beharreko beste alderdi aipagarri bat immigranteek elizetara hurbiltzeko zer arrazoi izaten dituzten da. Immigrante batek bere herrialdeko Eliza Ebanjelikoan parte hartu badu, Euskadira iristean bere elizan integratzen da, modu egonkorrean eta luzarorako. Baina beste etorkin batzuk beren jaioterrian inolako harremanik izan gabe hurbiltzen dira elizara; hurbiltzeko arrazoia jendea ezagutzea eta gizarteratzea izaten da gehiago. Bigarren kasu horretan, parte-hartzea askoz ere puntualagoa eta egoeraren araberakoa izaten da, funtzionalagoa; hau da, integrazioaren lehenengo uneetan laguntza jasotzekoa. Gizarteratze etapa hori amaitzean, joera normalena eliza bertan behera uztea izaten da.

Bestalde, zenbait talde ibiltari ere sortu dira, agertu eta desagertu egiten direnak edo etengabe lekuz aldatzen direnak, ez baitute parte-hartze egonkorra urteek aurrera egin ahala. Testuinguru horretan bi arrisku agertzen dira. Alde batetik, ezaugarri horiek dituzten zenbait eliza isolatuta geratzea, ondo jokatzeko duten arren, beste elizekin harremanik ez dutelako eta zail egiten zaielako EHKEen integratzea. Eta, bestetik, taldeak modu oso independentean sortzen eta kontrolik gabe mugitzen dira.

Elkarrizketa ekumenikoa eta erlijio-arteak

Jasotako informazioak topaketa ekumenikoari eta erlijio-arteak topaketari buruzko egoera eta ikuspegi ugari erakusten du. Euskal Herriko Kontseilu Ebanjelikoa lanean ari da elkarrizketa hori errazteko, baina jabetzen da elizen barruan zer-nolako aniztasuna dagoen eta bakoitzak zer-nolako autonomia duen.

Oro har, badirudi erlijio kristauen arteko topaketak (katolikoak eta ortodoxoak, gehienbat) nahiko ondo funtzionatzen duela harreman pertsonalen eremuan. Hortaz, kasu askotan eliza ebanjelikoek arazorik gabe erabiltzen dituzte edo erabili izan dituzte parrokiak edo ikastetxe katolikoak lokalak. Era berean, harreman pertsonal adeitsuak ikustea ere ohikoa da. Apaiz katolikoak ere izan dira inoiz Eliza Ebanjelikoaren topaketaren batean. Era berean, eliza ebanjelikoak lokalak irekita egoten dira, eta beste eliza batzuen eskura jartzen dituzte okasioa edo beharra sortzen zaienean.

Erakundeen arteko harremanei dagokienez, ordea, konplexuagoak dirudite eta mesfidantza ageri da. Ildo horretatik, ordezkariak ez dute argi ikusten foroetan eta elkarrizketetan parte hartzearen zentzua eta helburua. Ikuspegi horretatik, eliza ebanjeliko askok ez du inolako harremanik izan pixkanaka EAEn agertzen joan diren beste erlijioekin.

Euskal gizartean txertatzea eta murgiltze linguistikoa

EHKE lanean ari da hezkuntzako zenbait material euskarara itzultzeko. Duela gutxi sorturiko elizetan edota kutsu etniko-nazional handia dutenetan izan ezik, ohiko komunikazio-hizkuntza gaztelania izaten da; bai kultuetan, bai bileretan. Oro har, euskararen erabilera ez dago elizen hurbileko helburuetan jasota. Horrekin lotuta, planteamendu funtzionala dute; hala, euskal gizartean komunikatzeko gaztelania nahikoa dela eta esfortzua eskatzen duten bestelako fronte ugari dagoela uste dute. Ondorioz, zaila da energia soberan izatea Euskadiko hizkuntza aniztasunari arreta eskaintzeko.

Nolanahi ere, panorama orokor horretan badago salbuespen garrantzitsurik. Lehenik eta behin, hainbat eliza inguru euskaldunetan daude, eta, gaztelania komunikazio publikoetan

ohikoa bada ere, euskara aintzat hartzen dute eta kultuan zein bileretan euskaraz egiten saiatzen dira. Bigarrenik, zenbait elizak euskal kulturarekiko sentsibilitate berezia erakusten du, materiala itzultzen dute eta ospakizunetan euskarazko kantuak sartzen dituzte. Hirugarrenik, nabarmendu beharra dago elizetan parte hartzen duten bikoteen seme-alaba gehienek euskara erabiltzen dutela hezkuntza-sistemaren barruan, hein handiagoan edo txikiagoan izanik ere. Ondorioz, zenbait elizak prestakuntza biblikoko ildoren bat ireki du euskaraz, edo helduei euskara irakasteko aukera ere aztertu dute.

Zazpigarren Eguneko Eliza Kristau Adbentista

Zazpigarren Eguneko Eliza Kristau Adbentista AEBetan jaio zen XIX. mendearren erdialdean, planteamendu eskatologikoak behin eta berriro garatzen zituen giro metodisten eta baptisten barruan. Kristau tradizioaz egiten duten garapenak beste komunitateekin tentsio ikaragarriak eragiten dizkie, eta, ondorioz, tradizio ebanjelikoan ez dituzte kristau ebanjelikotzat hartzen. Espainiako Estatuan, Eliza Adbentista Justizia Ministerioan erregistratuta dago eta FEREDeko kide da. Euskadin 1936an sortu zen lehenengo nukleo adbentista. Hasierako talde horretatik abiatuta, gizartea ebanjelizatzeari ekin zioten. Gaur egun Eliza Adbentistak sei kultu-gune ditu EAEn: Donostian, Bilbon, Barakaldon, Zornotzan, Gasteizen eta Basaurin. Elizak gaur egun 500 kide baino gehiago ditu Euskadin.

Eliza Adbentista erakunde bateratua da. Herrialde bakoitzeko Elizaren agintariak bost urtean behin aukeratzen dituzte, tokiko eliza guztietako ordezkariak osaturiko batzar batean. Tokiko elizaren buru artzaina eta adinekoak izaten dira (gizonak zein emakumeak), eta, gainera, departamentuka antolatzen da (osasuna, ebanjelizazioa, gazteak, gizarte-komunikazioa, eta abar). Artzainak bost urtean behin eliza batetik bestera txandatzten dira, eta elizak berak mantentzen ditu, kideek egiten dituzten ekarpenen bitartez. Artzaina da tokiko elizaren buru, eta, artzain izatera iristeko, beharrezkoa da unibertsitateko mailaren batekin bat datorren prestakuntza espezifikoa jasotzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan eliza honetako kide gehienak bertakoak dira, baina errealitatea aldatu egiten da leku batetik bestera. Hala, Zornotzako elizan gehienak errumaniarrak dira eta beste leku batzuetan latinoamerikar ugari dago. Gizonen eta emakumeen proportzioa antzekoa da. Gehienek berrogei urte baino gehiago dituzte, baina gazte eta haur asko dago. Ikuspegi sozioekonomikotik, fededunak egoera oso desberdinetan bizi dira; normalean, etorkinek dituzte bizi-baldintza latzenak.

Larunbata da adbentisten jai eguna. Atsedeen egun hori ostiral gauean hasten da, judutarren tradizioari jarraiki. Larunbatetan egiten duten kultuak bi une garrantzitsu ditu: lehenengoan, Biblia aztertzen dute eta bigarrean, berriz, sermoia edo jainkotiar kultura egiten dute. Kultuaren lehenengo zatia talde txikitara egiten dute, astean zehar landutako testu zatiren batekin; bigarren zatian, artzainak edo adinekoetako batek Bibliako prediku bat aurkezten dute. Larunbat arratsaldean bertan biltzen dira gazteak. Bestalde, ostiralean, atsedeen-denbora hasten denean, adorazioaren kultura egiten dute.

Adra izeneko gobernuz kanpoko erakunde bat dute. Erakunde hori erregistratuta dago, eta EAEnko GGKEen Koordinakundeko kide da. Horren bitartez, elizak gizarte-proiektuetan lan egiten du Bolivian. Proiektu horiek, hein batean, euskal administrazio publikoen diruz laguntzen dituzte. Eliza Adbentistak hezkuntzaren aldeko apustu handia egin du, eta lehen hezkuntzatik unibertsitate arteko ikastetxeak ditu irekita. Edonola ere, EAEn ez dago halako ikastetxerik. Ospitaleetara eta kartzoletara bisitak egiten dituzte, eta, han, babes espiritualak eskaintzen dute. Radio Adventista Bizkaia izeneko irrati-etxea dute, 24 orduz funtzionatzen du eta eduki espiritualak, prestakuntzakoak eta informatiboak zabaltzen ditu.

⁷² 3.1 atala, batik bat Lidia Rodríguez Fernándezek eta Luzio Uriarte Gonzálezek idatzi dute; 3.2 eta 3.3 atalak Gorka Urrutia Asuarenak dira, eta 3.4 atala, berriz, Saioa Bilbao Urkidirena.

Lokalak jabetzan dituzte, eta baldintza onetan. Elizaren baliabideekin erositako eta mantendutako lokalak dira, kanpoko laguntzarik gabe.

Komunitate honetako kideek parte hartu nahi duten guztiei irekitzen dizkiete ateak. Gizartean ondo txertatu direla eta harrera ona dutela sentitzen dute. Beren esanetan, euskal gizartea tolerantia da eta aniztasuna zein erlijio-askatasuna errespetatzen ditu. Testuinguru horretan, ebanjelizazioa zailtasunik gabe egin dezaketela sentitzen dute. Eusko Jaurlaritzarekin dituzten harremanei dagokionez, konforme daude gaur egun dutenarekin eta maiz joaten dira bileretara edo administrazioak egiten dituen deialdietara.

Erljio-arteke elkarrizketari dagokionez, Eliza Adbentistaren arduradunen iritziz, elkarrizketa maila egokia dute eliza ebanjelikoekin. Eliza Katolikoari dagokionez, gonbidatu dituzten bilera guztietara joan dira. Etorbizunerako erronka handien artean, egungo gizarteak bizi duen kultura postmodernoa nabarmentzen dute. Kultura postmoderno mota horrek desafio espezifikokoak ekartzen dizkio familia-bizitzari, bai eta euskal gizartean zerbitzua eman eta ekarpenak egin nahi dituen Eliza ebanjelizatzaileari ere.

Jhovaren Lekuko Kristauen Eliza

Jhovaren Lekuko Kristauen Eliza indar handiena duen erlijio minoritarioetako bat da EAEn, bai eta Espainiako Estatuan ere. Elizaren lehenengo aitzindariak XX. mendearen hasieran iritsi ziren Iberiar penintsulara, eta, harrezkero, etengabe zabaldu eta ezarri dira. 2008rako 109.000 kide baino gehiago zituen, 1.413 kongregazio ingurutan bilduta.

Fede erlijioso gisa aitorturiko taldean sartu zen 2006an, Erljio Askatasuneko Aholku Batzordeak hala eskatuta; Justizia Ministerioak ematen duen «errotze nabarmendun» fede kategoriarekin sartu ere. Garai hartan, ebanjelikoei, musulmanei, judutarrei eta mormoiei bakarrik aitortzen zitzaien kategoria hori. Harrezkero, budistek bakarrik lortu dute.

Jatorria

Jhovaren Lekuko Kristauen Elizaren jatorria XIX. mendearen amaieran dago; 70eko hamarkadaren hasieran, hain zuzen ere. Pensilvanian (AEB), Jhovaren Lekuko nazioarteko erakundeko lehen presidente izan zen Charles Taze Rusell jaunak bultzatuta, ikasketak biblikoko talde bat osatu zen, Bibliaren Ikasleak izenarekin ezagunago egin zena. Taldea liburu sakratuaren mezuan sakontzeko interes berezia zuen pertsona-talde batek sortu zuen, beren ikasketak partekatu ahal izateko helburuarekin. Gertaera horretatik ondorioztatzen denez, hasiera-hasieratik, Bibliak eta bere azterketak garrantzi berezia dute Jhovaren Lekuko artean. Eskrituren ikasketaz gain, predikua ere Lekuko beste jardura nagusietako bat da. Predikua elizak berak argitaratzen dituen hainbat lan banatuta egiten dute. Hortaz, hasiera-hasieratik, argitalpenak eta predikua eliza honi estu lotuta daude. Elizak argitaraturiko lehenengo lanetako bat 1879koa da, *Zion Watchtower and Herald of Christ's Presence* (Siongo zelata dorrea eta Kristoren presentziaren heraldoa) aldizkariaren lehenengo alea atera zenekoa. Gaur egun *La Atalaya* izena du aldizkariak, eta beren argitalpenen artetik hedapen handiena duenetako bat da.

Eliza Watchtower sozietatearekin paraleloan hazi zen erakunde gisa. Sozietate hori Bibliaren Ikasleek osatzen zuten, eta beren mezu gehiago hedatzea zuen helburu. Zion's Watch Tower Tract Society sortu zuten 1881ean, eta Taze Rusell izendatu zuten haren

presidente 1884an; legez eratu zen urtean, hain zuzen. Gaur egun Watch Tower Bible and Tract Society du izena elkarteak (Biblien eta Talaiaren Itunen Sozietatea, euskaraz). 1909tik egoitza nagusia Brooklynen dute, New Yorken. Gerora, 1914tik aurrera, elkarteak AEBetarik kanpora zabaltzen hasi zen. Gaur egun munduko 230 herrialdetan baino gehiagotan daude, eta, mezua prediku bidez zabaltzeko, argitalpenak 392 hizkuntzatan baino gehiagotan egiten dituzte; izan ere, Lekuko eniritz hizkuntza ezin da izan oztopo Jainkoaren mezua eskuratzeko. Sozietateak Elizaren hainbat lan argitalpena, inpresioa eta banaketa bultzatzen du; bai bere egoitza nagusitik, bai eskualdeko sukurtsaletatik.

Rusell hiltzean, Joseph Franklin Rutherford bilakatu zen elizako lider eta sozietateko bigarren presidente. Haren agindupean, 1931ko uztailan, Jehovahen Lekuko izena ofizial egitea erabaki zuten. Eliza sortu zenetik 2010era arte sei presidente izan ditu Watch Tower sozietateak. Baina, presidentea edukiagatik ere, eliza Gobernu Erakundeak zuzentzen du (erakunde hori elizaren egoitza nagusian dago, New Yorkeko Brooklyn auzoan). Erakundeak esperientziadun adinekoen taldeak osatzen du, eta Elizak behar bezala funtzionatzen duela gainbegiratzen dute.

Sinesmenak eta antolamendua

Jehovaren lekukoek Jehovahari sinesten dute; horixe da Jainkoaren izena Itun Zaharraren arabera, eta Jesukristoren jarraitzaile eta bere mezuaren predikatzaile dira. Biblia da eliza honen erdigune, sortu zenetik. Bibliaren garrantzia agerian geratzen da, hura aztertzen eta interpretatzen ematen duten denborari erreparatzen badiogu; azterketa horren arabera antolatzen dute beren bizitza eta hala egiten dute Jainkoaren Erresumaren prediku publikoa. Predikurako, lekukoak Watchtower sozietateak argitaratzen dituen lanetan oinarritzen dira. Alde batetik, argitalpenak prestakuntzarako eta Biblia aztertzeko gidak dira. Bestalde, lekukoak argitalpenetan oinarritzen dira beren prediku-lanean Elizaren mezua hedatzeko.

Gutxiengoan gainerako erlijioetan bezala, testu biblikoetan oinarrituta, Jehovahen Lekukoek diote apostoluak hil eta gero apostasia handi batek kristautasunaren jatorrizko ideiak okerbideratu zituela. Biblia aztertuta sinesmen horiek gainditu nahi dituzte, jatorrizkoen kontraketat jotzen baitituzte; hala, Eskriturekin bat egiten duten sinesmenetara itzuliko lirateke.

Horrekin loturik, Jehovahen Lekukoek ez dituzte Gabonak ospatzen esate baterako, ezta jaiotzak ere; izan ere, ospakizun horiek paganotzat jotzen dituzte. Jesukristoren heriotza urtero ospatzen dute Jehovahen Lekukoek. Horixe da beren egutegiko ospakizun nagusia, eta Aste Santu katolikotik gertu egiten dute, egun beretan ez bada ere. Jesukristoren heriotza ospatzen duten data zehatza finkatzeko, judutarren ilargi-egutegia hartzen dute oinarri. Egutegi horren arabera, Jesukristo Nisan hilaren (egutegi bibliko hebrearreko lehen hila) 14an hil zen, eta, urtearen arabera, martxoko edo apirilko egun bat izan daiteke.

Jesukristoren heriotza ospatzeaz gain, urtean hainbat bilera egiten dituzte, horien artean garrantzitsuenak batzarrak dira. Hiru batzar mota daude: nazioartekoek lau egun irauten dute; barrutikoek hiru, eta pertsona asko kabitzen diren lekuetan egiten dituzte; eta zirkuituko batzarrak, berriz, bi egunekoak izaten dira.

Tokiko kongregazio gisa, Erresumako Aretuetan egiten dituzten jarduerak bost bilera motatan taldekatzen dira. Hortaz, liburuaren azterketa Biblia talde txikitik aztertzeko bilera izaten da. Ministerio Teokratikoaren Eskolak predikua eta oratoria erakustea du helburu,

ondoren, hobeto predikatu ahal izateko. Zerbitzu-bileraren helburua zerbitzurako ideia eta metodo praktikoak erakustea da. Laugarrenik, Konferentzia edo Diskurtso Publikoa kongregazio horretako edo beste bateko adineko batek emandako hitzaldia da, ministerioko zerbitzari batek, bestela. Helburua Bibliaren jakintzak eta aholkuak irakastea da. Azkenik, *La Atalaya* aldizkaria aztertze bileretan Bibliako hainbat gai arakutzen dira, aldizkarian argitaraturiko artikuluen bitartez.

Lekuko ospakizun gehienak tokiko ospakizunak izaten dira, kide diren eta normalean beren etxetik gertuen dauden kongregazioetakoak. Talde horiek 50 eta 150 kide bitarte izan ohi dituzte. Kongregazio batek kide kopuru handi samarra duenean, bitan banatzen dute, lana hobeto egin ahal izateko. Kongregazio horietako bakoitza zirkuitu batean biltzen da; bakoitzak 18 eta 22 kongregazio bitarte izaten ditu. Aldi berean, hogeitaz zirkuitu inguruk barruti bat osatzen dute. 2006an, 71 zirkuitu eta zazpi barruti zeuden Estatuan. Talde handiago horiek hainbat ospakizun eta bilera egiten dituzte; esaterako, bataio publikoak edo arestian aipaturiko batzarrak.

Elizako kide guztiak dira aldarrikatzaileak. Prediku-lanak egiten dituztelako jasotzen dute izen hori, eta komunitatea osatzen duten pertsona guztiak sartzen dira bertan. Astean egiten dituzten bileretan parte hartzeaz gain, aldarrikatzaileek gutxieneko denbora-tarte bat eskaini behar diote astero hitza predikatzeari. Elizaren kide oso izateko, ezinbestekoa da bataio publikoa jasotzea eta gutxieneko eskakizunak betetzen dituztela erakustea; horretarako, hainbat elkarrizketa egingo dizkiote hautagaiari, Elizaren doktrina ondo ezagutzen eta praktikatzeko duela egiaztatze.

Kideetako batzuek adineko maila lortzen dute. Adinekoek, elizan izan duten ibilbideagatik eta esperientziagatik, kongregazioaren gainbegiratze eta artzain lanak egiten dituzte. Superintendente izena ere hartu ohi dute, eta Bibliaren irakaskuntzan aurreratuta egotea da haien ezaugarri nagusia. Adinekoek eta aldarrikatzaileek gain, Jehovaharen Lekuko artean aitzindariak daude; hau da, predikuari denbora-tarte luzeagoa eskaintzen dioten pertsonak (hilean 50 eta 120 ordu bitarte), batez ere eliza behar bezain ezarrita ez dagoen lekuetan. Misiolari ere deitzen diete.

Elizaren finantzazioari dagokionez, ez du inolako diru-laguntza publikorik jasotzen. Elizaren mantenu ekonomikoa kideek beren borondatez egiten dituzten ekarpenen mende dago. Borondatezko ekarpenez gain, nabarmentzekoak dira Eraikuntzako Eskualdeko Batzordeak, Erresumaren Aretoak eraikitze beren denbora eta jakintzak erakundearen mende jartzen dituzten borondatezko kidez osatuak. Erresumaren Areto berriaren oinplanoa eta zimenduak ezarri ondoren, boluntario-talde horrek bestelako lanak egiten ditu barnealdean, kanpoan eta akaberetan.

Ezarpena EAEn

Arestian esan bezala, Jehovaharen Lekukoak XX. mendearen hasieran ezarri ziren Estatuan, baina, harrezkero, ez dute beti bilakaera uniforme izan. Hogeiko hamarkadan, lehenengo aitzindariak iristearekin batera, elizak nolabaiteko garrantzia izan zuen, baina Gerra Zibila amaitu eta diktadura garaian oso hedadura txikia izan zuen. Garai horretantxe iritsi ziren, hain justu, lehenengo aitzindariak Euskadira. Euskal Autonomia Erkidegora 50eko hamarkada amaieran etorri ziren Jehovaharen Lekukoak; zehatzago 1957. eta 1958. urteetan. Hala, zenbait aitzindari prediku-lanetan hasi ziren Gipuzkoan eta Bizkaian. Lan hori Euskadiko bi hirigune nagusien inguruan hasi zen; Donostia eta Bilbo inguruetan, hain

zuzen. Jehovaharen Lekukoen fedearen garapenak kutsu klandestinoak izan zuten hamarkada horietan. Zailtasunak gorabehera, hainbat kongregazio hasi ziren ezartzen eta, 70eko hamarkadaren erdialderako, beren presentzia nahiko nabarmena zen. Espainiako Estatuak Jehovaharen Lekukoak errekonozitu zituen Justizia Ministerioaren Erakunde Erlijiosoaren Erregistroan Jehovaharen Lekukoen Elkarte gisa jasota, eta horrek elizari finkatzen lagundu zion. Harrezkero, haien kopuruak gora egiten jarraitu du. Ondorioz, kultu-lekuen edo Erresumaren Aretoen kopurua ugarritu egin da lurralde historiko guztietan 1975 eta 2006 bitartean; hala, Bizkaian 19 egotetik 24 egotera pasatu zen; Gipuzkoan 9tik 16ra, eta Araban bi egotetik hiru egotera.⁷³

Erresumaren Areto kopuruaren bilakaerarekin batera ugarritu da kide eta kongregazio kopurua ere. 2010 hasieran, EAEn 61 kongregazio zeuden (36 Bizkaian, 21 Gipuzkoan eta lau Araban)⁷⁴. Kopuru hori kultu-lekuena baino handiagoa da, zenbait kongregaziok partekatu egiten dutelako Erresumaren Aretoa. Guztira, 4.670 lekuko daude Euskadin. Elizako kideen profila oso anitza da; bai termino sozio-ekonomikoetan, bai hezkuntza eta prestakuntza mailari dagokionez, euskal gizartearen oso antzekoak baitira. Gauza bera esan daiteke gizon-emakumeen arteko orekari buruz; emakume gehiago dago, baina aldea ez da oso handia. Linguistikari dagokionez, fededunen artean eta bileretan komunikazio-hizkuntza nagusia gaztelania da, baina badute materialik euskaraz ere.

Azken Eguretako Santuen Jesukristoren Eliza

Ezaugarri historikoak eta egitura

Azken Eguretako Santuen Jesukristoren Elizaren jatorria estu lotuta dago Joseph Smith jaunaren bizitzarekin eta Jesukristoren Elizaren berrezarpenarekin. Azken Eguretako Santuen Jesukristoren Elizako kideen sinesmenen arabera, Jesukristoren hamabi apostoluen heriotzaren ondoren iluntasun-aldi luze bat hasi zen; garai horri Apostasia Handia deitzen diote. Garai hori amaitu egingo litzateke, hala agindu baitzuen Jainkoak. Orduan, Ebanjelioaren eta apaizen boterea berriz ezarriko litzateke Lurrean. Joseph Smith izan zen berrezarketa gidatzeko izendaturiko pertsona.

Joseph Smith AEB iparraldeko familia xume batean jaio zen 1805eko abenduaren 23an, Vermont estatuan. Familiako arrazoiak direla-eta, AEBetako inguru horietako hainbat tokitan bizi izan zen. Garai hartan erlijioen eferbeszentzia zen nagusi inguru haietan. Horrek Smithen zalantza erlijiosoak elikatu zituen, eta eliza eta fede guztien artetik zein izan ote zitekeen zuzena hausnartzen hasi zen. Testuinguru horretan, 1820an Joseph Smithek bere lehenengo ikuspena izan zuen. Gerora askoz ere gehiago izan zituen eta horregatik erabaki zuen eliza sortzea 1830eko apirillean. Denbora-tarte horretan, Joseph Smithek Moroni aingeruaren hainbat bisita jaso eta hainbat agerkunde izan zituen, eta halaxe aurkitu zuen Mormoien Liburua.⁷⁵ Agerkunde horietan jakin zuen zer-nolako egitekoa izango zuen Elizaren Berrezarpenean, eta buru-belarri hasi zen lanean 1830eko

⁷³ Iturria: Askatasun Erlijiosoko Batzordea. Katolikoak ez diren elkarte konfesionalei buruzko Ebazpenak, 1975eko abenduaren 15era arte emandakoak, eta tokiko atalen, kultu-lekuen eta prestakuntza-zentroyen zerrenda. Justizia Ministerioa, Argitalpen Zentroa, Madril, 1976, eta Jehovaharen Lekuko Kristauen Eliza.

⁷⁴ Direktorioan Erresumako Aretoen banaketa ikus daiteke udalerrien arabera.

⁷⁵ Liburu honen Mormonen profeta batek urrezko xaflatan idatzirikoa testu zahar batzuk biltzen zituen. Mormoien semeak, Moronik, ezkatatu egin zuen liburua K.o. 421. urtean, Cumorah mendian. Liburuaren edukia Ameriketako zibilizazioen historia da, K.a. 2000. urtetik aurrera; bestalde, Jesukristoren etorrera kontatzen du.

apirilaren 6tik aurrera. Une horretan hasi zen bere ibilbide ofiziala Fayetteko (New York) txabola batean, 56 gizon-emakume, sinestun eta lagunekin batera. Harrezkero, garapen handia izan zuen elizak, eta 2009. urterako hamaika milioi kide inguru zituen mundu osoan.

Iberiar Penintsulan ezarri ziren garaiari buruz, jasota dago 1854an adar txiki bat sortu zela Gibraltarren, baina Eliza horretako kideak ez ziren modu egonkorrean ezarri harik eta XX. mendearen 60ko hamarkadara arte. En eta Francoren erregimenaren arteko hurbilketak asko lagundu zion elizari Espainian ezartzen, baita Espainian AEBetako base militarrek ezartzeak ere. Geroago, 1967ko ekainaren 28ko Erlijio askatasunerako eskubide zibila baliatzeko Legeak eskaintzen zuen aukera baliatuta, asko zabaldu zen Azken Eguretako Santuen Jesukristoren Eliza. Orduan hasi zituzten Justizia Ministerioaren Erregistroan izena emateko izapideak. Espainiaren eta en arteko garai hartako harreman onek prozesu guztia arintzen lagundu zuten. Justizia Ministerioak Erakunde Konfesional gisa errekonozitu zuen eliza 1968ko urriaren 22an. Zenbait hamarkada geroago bizi izan zuen hazkunde-prozesu naturalaren ondoren, Justizia Ministerioaren Askatasun Erlijiosoko Aholkularitza Batzordeak eliza hau Espainiako gizartean nabarmen errotuta dagoen erlijio gisa onartzearen alde egin zuen 2003an.

Azken Eguretako Santuen Jesukristoren Elizaren antolakuntza-egitura eta lana ia berbera da munduko edozer lekutan. Alde batetik, taldeen lidergoari eta antolakuntza moduei dagokionez, presidentetza bat izan ohi dute, presidenteak eta bi aholkularik osaturikoa. Komunitateen lurralde-egiturari dagokionez, elizako kideak honela antolatzen dira: taketak, barrutiak, auzoak eta adarrak. Izen bat edo bestea hartzea eremu geografiko jakin bateko kide kopuruaren araberakoa da. Adar batek lau kide ditu gutxienez eta 150 gehienez, eta zuzendari bat eta bi aholkulari ere bai. Hainbat adarrek auzo bat osatzen dute, eta auzoak, nahitaez, 150 kide baino gehiago izan behar ditu; zuzendaria apezpikua izango da. Hainbat auzo (gutxienez bost) biltzen dituen taldea, eta gutxienez 2.000 kide dituen, taketa izango da. Taketako presidenteak zuzenduko du. Ez bada 2.000 pertsonako gutxienerako kopurura iristen, taldean bildutako adarrek barruti izena hartuko dute. Taketa eliza gisa sendoagoa da barrutia baino, eta lidergo-autonomia handiagoa du, baita zuzeneko mendetasuna ere eskualdeko hiriburuarekiko (Europaren kasuan, Frankfurt am Main, Alemania). Barrutien kasuan, talde ez hain sendoa izateaz gain, beren goragoko egiturak dauden herrialdeko (edo eremu geografikoko) misioaren presidentetzaren mende daude.

Misioen lana elizaren mezua zabaltzea da, eta proselitismoaz eta eliza hazarazteaz arduratzen dira. Estatuan lau misio daude; horietako bat Bilbon dago, eta penintsulako iparralde guztia biltzen du. Misioko presidentea arduratzen da bere eragin-eremuko misiolariak⁷⁶ koordinatzeaz.

Azken Eguretako Santuen Jesukristoren Elizaren munduko egoitza Salt Lake City hirian dago (Utah, AEB), eta elizaren mundu osoko lidergoa Lehenengo Presidentetzak du, presidenteak eta bere bi aholkulariek osaturikoak. Hamabi Apostoluen Batzordeak Lehenengo Presidentetzaren jarraipena egiten du, eta, horretarako, Hirurogeita Hamarren Quorumaren laguntza du. Quoruma munduko hainbat lekutatik etorritako liderrek osatzen dute.

⁷⁶ Horiek dira Ebanjelioko hitza zabaltzen bi urte ematen dituzten 17 eta 25 urte bitarteko gazteak.

Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Eliza Euskadin

Eliza hau Euskadin zer datatan ezarri zen zehatz-mehatz ez badakigu ere, elizak berak dituen datuen arabera, 1978 eta 1979 inguruan izan zen. Gasteizko adarra 1978an osatu zen, eta lehenengo taldeak hamarkada horren amaieran iritsi ziren misiolariak sortu zituzten.

Harrezkero, Eliza erritmo motelean baina etengabe hazi da, eta 2009ra arte lau zentro edo kaperaren inguruan biltzen da; zehazkiago bi auzotan eta bi adarretan EAEn. Horiek guztiak, Logroñoko, Iruñeko eta Santanderreko auzoekin eta Burgoseko adarrekin taket bat osatzen dute. 2009ko irailean, Bilboko Barrutiko kide izatetik Gasteizko Taketeko kide izatera igaro ziren. Data horren aurretik auzo guztiak adarrak ziren, baina, azken urteetako hazkundeari esker, auzo izatera igaro dira. EAEn dagokionez, Bizkaian Areetako Adarra eta Bilboko Auzoa daude, guztira 500 kiderekin; Araban, Gasteizko Adarrak 140 kide ditu; eta Gipuzkoan, Donostiako Auzoak 200 kide inguru ditu. Guztira, Euskadin Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Elizak 850 kide ditu, gutxi gorabehera. Elizako kideen antolaketak mundu osoko beste edozer lekutako logikari jarraitzen dio. Egitura oso homogeneoa denez, aise ezagut daitezke munduko edozer lekutan.

Elizaren mendetasunari dagokionez, taketa eratu ostean, Europako eremuko presidentetzaren mende egongo da zuzenean; presidentetza Frankfurt dago (Alemania). Elizak erregistro zenbaki bakarra du erlijio gisa, Justizia Ministerioaren Erregistro Ofizialean. Tokiko kongregazioetako bat ere ez dago elkarte gisa izena emanda.

Elizaren espazio fisikoak topaketarako guneak edo kapera eta tenpluak dira. Leku sakratuak dira eta ez dute sarbide irekirik, bertan egiten baitira elizaren erriturik garrantzitsuenak; esaterako, hildakoen bataioak, konfirmazioak, betiereko ezkontzak eta bikoteen behin betikotzea. Tenpluetara sartu ahal izateko (Espainian Madrilekoa bakarrik dago, eta Portugaleko, Espainiako eta Frantzia Hegoaldeko kideei ematen die zerbitzua), elizako kide izan eta bertan sartzea merezi beharra dago. Asteko bilerak eta kultuaren gainerako zatiak (esaterako, Afari Santua) kaperetan egiten dira.

Elizako kide guztiak beren borondatez betetzen dituzte jarduerak eta erantzukizunak, beren lanbideen osagarri gisa. Hortaz, guztiak dute erantzukizun edo zereginen bat elizaren barruan. Zeregin horietako batzuk sexuaren eta adinaren arabekoak dira. Auzoei eta adarrei dagokionez, presidentetzaz gain (apezpikuak/presidentea eta bere bi aholkulariak) beste jarduera eta koordinazio-zeregin batzuk bete behar ditu talde bakoitzak. Halaber, arreta publikoko eta ebanjelioa irakasteko beste zeregin batzuk ere badaude.

Euskadiren kasuan, zentro guztiak igandeetan egiten dituzte jarduera nagusiak. Orduantxe ospatzen dute, kide guztiak batera, apezpikuak edo presidenteak zuzenduriko Afari Santua. Ondoren, kideak taldeka banatzen dira, adinaren arabera, irakasleen irakaskuntzak jasotzeko. Irakasleak irakasteko ardura duten elizako kideak dira. Azkenik, elizaren elkarte osagarrien arabera biltzen dira taldeka. Talde horiek kideen sexuaren eta adinaren arabera egituratzen dira. Hortaz, lehenengo taldea haurtzaindegikoa da, hamazortzi hilabetetik beherako haurrak biltzen dituena. Hurrengo taldean hamazortzi hilabete eta hamaika urte bitarteko haurrak daude, eta lehen mailako talde izena hartzen du. Talde hori igandero biltzen da, eta oinarrizko heziketa jasotzen du. Hamabi eta hamazazpi urte bitarteko neskek emakume gazteen taldean biltzen dira, eta hemezortzi urtetik gorako emakume guztiak sorospen-sozietatean biltzen dira; horixe da mundu osoko

emakume-talde zaharretako eta handienetako bat, emakumeek eduki ezin duten apaizgoaren osagarria.

Gizonak bakarrik izan daitezke apaiz; hemezortzi urtetik beherakoek apaizgo aarondarra jasotzen dute eta igandeetako bileretan batzen dira guztiak. Hemezortzi urtetik gorako gizonak, merezi dutenek eta Melkisedeken apaizgoa jaso dutenek *elders* taldea osatzen dute. Zentro askotan misiolariak parte hartzen dute (18 eta 25 urte bitarteko gizon-emakumeak); azken horiek beren bizitzako bi urte ematen dituzte ebanjelizazio-lanetan munduko hainbat lekutan. Bakoitza bere adin-taldeari atxikitzen zaio igandeetako bileretan, aste barruan bestelako bilera espezifikoak izaten baitituzte.

Jarduera kulturez edo barne-prestakuntzako jardueraz gain, elizako kideek bestelako lanak ere egiten dituzte. Elizatik kanpora zuzenduriko gizarte-ekintzaren arloan, *Helping Hands* (laguntzen duten eskuak) jarduera da nabarmentzekoa. Bertan kide guztiak parte hartzen dute, familiako jarduera izan ohi da, eta egun batez beren zerbitzuak eskaintzen dituzte bizi diren lekuko esparruren bat hobetzeko; adibidez, parke bat garbitzeko. Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Elizaren kanpoko beste zerbitzu ezagun bat Family History Centres edo Familia Historiako Zentroak dira. Kapera gehienetan aurki ditzakegu zentro horiek, eta ezarrita egon diren lekuetako erregistro genealogiko handia izaten dute. Zentroek mikrofilmak eta ordenagailuak izaten dituzte, beren arbasoei buruzko informazio genealogikoa lortu nahi duten elizatik kanpoko pertsonak (edo barrukoek) kontsultak egin ahal izan ditzaten.

Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Elizak ez du laguntza publikorik jasotzen, ez eta finantza-laguntzarik eskatzen ere. Elizaren mantenu ekonomikoa kideek beren borondatez egiten dituzten ekarpenen mende dago erabat. Munduko beste lekuetan bezala, kide guztiak beren familiako diru-sarreraren ehuneko hamar eman behar diote elizari: hamarrena. Ekarpinak elizaren Madrilgo bulegoetara joaten dira zuzenean, eta berriro banatzen dituzte nazioarteko egiturari eusteko, baita tokiko zentro bakoitzari eusteko ere, beharren arabera. Hortaz, ekarpen horiekin elizaren mantenuari laguntzen zaio mundu osoan, eta adar edo auzo bakoitzean jarduerak egiten jarraitzea ahalbidetzen du. Baraua aldizka egin izan da eliza sortu zenetik, eta hori ere dohaintzarako funtsak lortzeko beste iturri bat da. Baraua hilean behin egiten dute; hileko lehen igandean, hain zuzen. Egun horretako elikadura-kostuen kalkularen arabera lortzen dute hilabeteko dohaintza osagarri horren zenbatekoa.

Azkenik, EAEko Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Elizako kideen profilarik begiratu gero, esan genezake aniztasun handia dagoela sexuari, adinari, profil sozio-ekonomikori eta jatorriari dagokionez. Alde horretatik, gizon-emakumeen kopurua parekoa da. Adin-taldearen banaketa ere nahiko proportzionala da. Horren arrazoia Elizaren ospakizunak eta jarduerak familia osoari zuzenduta egotea izan daiteke, edota haiek oso-oso parte hartzea. Azken urteetan beste herrialde batzuetako biztanleen kopurua hazi bada ere, zentroetan ez dira gehiago. Edozer herrialdeetan Elizaren egitura bera denez, beste herrialdeetatik etorritako kideak nahiko erraz eta azkar integratzen dira EAEko zentroetan. Hain justu, pertsona horietako askok kargu garrantzitsuak dituzte eliza barruan.

Lectorium Rosicrucianum (International School of the Golden Rosycross)

International School of the Golden Rosycross (Escuela Internacional de la Rosacruz Aurea, Spainian) 1935ean sortu zen, Jan eta Zwier Leene anai holandarrek eta Catharose de Petrik *Rosicrucian Fellowship* izeneko AEBetako saretik banantzea erabaki zutenean. Mugimendua bigarren Mundu Gerraren ondoren sendotu zen, Jan Leenek berak Jan van Rijkenborgh ezizenarekin idatziriko *El misterio iniciático cristiano* liburua argitaratu ostean.

Rosacruz Aurea nazioarteko eskola mugimendu zabalago baten barnean sartzen da, eta sinesmen gnostikoetatik, kataroetatik edo manikeoetatik eratorritako alderdiak jasotzen ditu, baita bere doktrina klasikoak ere. Doktrina horiek, antza, Behe Erdi Arotik aurrera bilakatu ziren Alemanian, eta zenbait adar protestanterekin, mistizismoarekin eta framazoneriarekin lotu izan dira. Rosicrucianum mugimenduen ondorengo mendeetako bilakaera zaila da trazatzen, eta, gaur egun, hainbat talde dira tradizio horren jarraitzaile. Mugimendu horietako bat Rosacruz Aurea nazioarteko eskola da, inspirazio kristau-esoterikoa duena.

Komunitateak berak emandako informazioen arabera, Lectorium Rosicrucianum 1978tik dago Spainian, baina lehenengo egoitza efektiboa 1980an ireki zuten Bartzelonan. Ondoren, beste egoitza batzuk ireki ditu mugimenduak Estatuko hainbat udalerritan; Euskadiren kasuan, Ordizian. Estatuko egoitza nagusia Villamayorren dago, Zaragozan. Komunitatea Justizia Ministerioaren Erakunde Erlijiosoan Erregistroan jasota dago.

Komunitate horren presentzia 1982an nabarmendu zen Euskal Autonomia Erkidegoan, Irunen biltzen zen ikasle-talde baten bitartez. Hasieran, taldea Bartzelonako zentroaren mende zegoen, eta, ondoren, Zaragozakoaren mende. 1987. urtean ireki zuten lehenengo lokala Ordizian. Alokairuan dute lokala, eta beharrezko berritze-lanak egin zituzten indarreko legediari egokitzeko.

Rosicrucianum komunitateak ez daude federatuta. Tokiko zentro bakoitza zuzendaritza baten mende dago, eta, aldi berean, tokiko zuzendaritza guztiak herrialdeko beste batek zuzentzen ditu. Azken hori Presidium izeneko organo baten mende dago, eta hark hurbiltasun geografikoak edo hizkuntza-hurbiltasunak loturiko hainbat herrialde ditu bere mende. Nazioarteko Zuzendaritza Espiritualak bultzatzen ditu Presidiumak.

EAEko komunitateko kideei dagokienez, gizarte-jatorri heterogeneoa dute; bai kulturaren aldetik, bai ekonomikoki. Adin guztietako jendea dago, baina gehienek berrogei urtetik gora dute. Bi sexuen artean oreka dago. Fededunen jatorria ere anitza da. Gehienak EAEn bizi diren arren, Frantziatik datozen kideak ere badaude, hurbiltasun geografikoa dela-eta. Era berean, Venezuelatik edo Ukrainatik etorritako atzerritarrak ere ari dira sartzen.

Barne-antolamenduari dagokionez, komunitate bakoitzeko gainerako zentroak bezalaxe, Euskadiko taldea zuzendaritza baten mende dago. Zuzendaritza talde hori urtero berritzen dute. Langile erlijioso espezializatu bakoitza sozietatean egiten duten lanetik ateratako ordainsariekin bakarrik mantentzen da. Lectorium Rosicrucianum elkarteak autonomia-printzipioaren bitartez funtzionatzen du beti; horregatik, bere kideen ekarpenekin bakarrik mantentzen da, beste edozer elkarterekin gertatzen den bezala.

Kultu-jarduera nagusiak hilean asteburu batez egiten dituzte, eta jarduera bat ere egiten dute ostegunetan. Kultu-jarduerak gauzatzen dituzten pertsonak ikasleak dira; urteetan Eskola Espiritualaren irakaskuntzan nahikoa sakondu duten pertsonak, hain zuzen. Komunitateak bi arlotan egiten ditu jarduerak. Kultur arloan konferentzia publikoak egiten dituzte Euskadiko hiru hiriburuetan (hamabost bat urtean). Konferentzia horietan hainbat gai jorratzen dituzte, ikuspegi espirituala aintzat hartuta; esaterako, gai zientifikoak, sozialak, eta abar. Horrekin loturik, Rosacruz fundazioa sortu dute Espainian. Bere bitartez, eskolak pentsamendu hermetikoari eta gnostizismoari buruzko ikuspegi zorrotza eskaintzen dio gizarteari, baita beste kultura eta erlijio batzuetatik datozen bulkada zibilizatuei buruz ere (kabala, sufismoa edota budismoa, esaterako). Bestalde, haurrei eta gazteei zuzenduriko jarduera ludikoak eta kulturalak ere antolatzen dituzte.

Erljio-arteko elkarrizketarekin loturiko esperientzia asko izan ez duten arren, harremanak izan dituzte beste komunitate batzuekin; era berean, erlijio-arteko sinposioren batean ere parte hartu dute, baita mahai ingururen batean ere, beren ikuspegia azaltzeko. Alderdi hori hobetu nahi dute, gizartean bizikidetzak hobetzeko eta beren maila espirituala areagotzeko; bai alderdi konfesionaletik, bai soziokulturaletik, bai politikotik.

Komunitatearen helburu nagusia gizarteari printzipio etikoak eta espiritualak eskaintzea da, talde-bizitza harmonizatzeko eta zentzua emateko; hori bai, Jatorrizko Kristautasunaren printzipioetan oinarrituta. Egia bilatzen lagundu nahi dute. Helburu horrekin lan egiten dute beharrezko baldintzak eskaini ahal izateko (filosofia, tenpluak, eta abar), eta jendea jabetu dadin bizitzan zer benetako helburu duen.

Hain zuzen ere, gizartearengana hurbiltzeko eta Euskadin bokazio-printzipioak bultzatzeko, egoitza Gasteizera eramateko asmoa dauka taldeak.

Islama eta bere aniztasuna

Islama Mahoma profetak VII. mende hasieran sorturiko erlijio monoteista da. Mahoma Meka hirian jaio zen, kristau aroko 570. urtean. Meka eta bere Kaaba tenplua erromesaldi-gune garrantzitsu ziren arabiar penintsulako erlijio politeistentzat. Mahomak izan zuen harremanik kristautasunarekin eta judaismoarekin, merkataria baitzen. Berrogei urterekin etorri zitzaion errebelazioa. Errebelazio hori progresiboa izan zen, eta ahozkoa, ez baitzekien irakurtzen eta idazten. Hala, pixkanaka bere hurbileko pertsonei helarazten joan zen. Tradizio judutarra eta kristaua barneratu zituen, baita beren patriarkak eta profetak ere, Abraham, Moises, Nazareteko Jesus eta Maria barne. Mekako boteredunek interes ekonomikoak arriskuan zeudela sentitu zuten, eta 610. urtean Mahomak Jatrib hirira joan behar izan zuen; gerora, hiri horrek Medina izena hartu zuen, «Hiria». Horixe hartzen da egutegi musulmanaren abiapuntutzat. Fede berriari atxiki zitzaizkion pertsonak, beren hiriak utzi, eta Medinara joan ziren, edota Etiopiako errege kristauaren babespean jarri ziren. Urteetan talde tribal judutarrekin eta arabiarrekin borrokan eta itunak sinatzen ibili ondoren, Mahoma bere posizioa sendotzen joan zen, eta halaxe lortu zuen Meka hiriko agintari «paganoekin» akordioa (*sulh*). Akordio horrek garrantzi handia izan zuen, bata bestearen errespetua eta errekonozimendua aitortzen baitzituen. Musulmanen tribu aliatu bati egindako erasoaren ondorioz, Mahomak hiria hartu zuen eta santutegiko jainkoen irudiak suntsitu zituen. Baina angelu batean Harri Beltza duen Kaaba ez zuen ukitu. Gaur egun, huraxe da hiri horretako meskitarik garrantzitsuenaren erdigunea. Hil zenetik (632. urtea), islama azkar hedatu zen Afrika iparraldetik eta Iberiar penintsulatik mendebalderantz; baita ekialderantz ere, Indiara, Txinara eta, geroago, Indonesiara.

Profeta hil eta hogeita hamar urtera, islamak lehenengo zatiketak jasan zituen, ondorengotzari buruzko ezadostasunak eta eragin-eremu ezberdinen arteko tentsioak zirela-eta. Mahomaren oinordeko, haren suhia izendatu zuten, «ondo gidatutako» lau kalifetan azkena: Ali, hain justu. (Profetaren hurbileko lagunak eta kontsultaren edo *assuraren* bitartez aukeratuak). Aukera hori ez zitzaion gustatu Siriako gobernadore eta omeiatarren klaneko kide Muawiyah-ri. Gatazka horietatik sortu ziren gaur egun ezagutzen ditugun bi adar musulman handiak, xiitak eta suniak, baita jariyitarren adar txikiagoa ere. Musulmanen ia % 90 suniak dira eta balio berezia ematen diote Sunnari. *Hadizen* edo Profetak esandakoaren eta egindakoaren bilduma da Sunna, eta omeiatarren garaian egin zuten. Xiitek, ordea, Aliren ondorengoei ahoz transmitituriko jakintza nabarmentzen dute; horregatik, zenbait imanek transmisio hori gordetzeko egindako lanak berebiziko garrantzia du haientzat. Hala ere, korronte bakoitzean hainbat eskola daude, oso konplexuak guztiak, eta panorama erabat dibertsifikatzen dute. Hala, Pakistanen eskola hanafia da nagusi, betiere adar suniaren barruan.

Tradizio sufiak Jainkoarekiko hurbilketa indibiduala bultzatzen duen korronte suniaren barruan biltzen dira. Tradizio horiek Jainkoarekin batzea eta hobekuntza espirituala bilatzen dute, debozioaren garapenaren bitartez. Oro har, kofradia edo *туруqetan* (singularrean *tariqa*) biltzen dira eta, sarritan, sortzaileen izena jartzen diete.

Aipamen berezia merezi dute gure kasuan Senegaleko *туруqek*. Islamaren kulturaketagatik dira nabarmentzekoak, baita lanaren espiritualtasun garatuagatik eta gida espiritualari (*mara bout*) obeditzeak duen garrantziagatik ere. Batzuetan eragin handia izaten dute migrazio-sareetan eta elkartasun estrategietan, bai eta instalatzen diren inguru

berrian jatorrizko gizartearekiko beharrezko pertenezia- eta lotura-sentimenduak kudeatzeko lanetan ere.

Khadriyya XII. mendean sortu zuen Iraken Abdul Qadir Jilani mistiko sufi entzutetsuak, eta mundu musulman osoan zabaldu zen. Senegalen ez du beste kofradia batzuek beste jarraitzaile, zaharrena izan arren.

Bestalde, *Tidjaniyya* XVIII. mendearen amaieran sortu zuen Sidi Ahmed al Tijani-k; azken hori Algerian jaio eta Fezen (Maroko) hil zen. Tivaouane da haien hiri santua, baina Kaolackeko marabutak ere garrantzia du. Mendebaldeko Afrikaren kasuan, garrantzi handia izan zuen sortzailearen dizipulu eta Mendebaldeko Sudaneko Oumar Tall kalifaren eraginak. XIX. mendearen erdialdean ingurua txikitzen ari ziren erregimen ustelen aurka gerra santua aldarrikatu zuen Tallek. Horrek *Khadriyya* tradizionala berritzea ekarri zuen. Karabana-ibilbideetan zabaldu zen, eta kofradia oso garrantzitsua da Marokon, eta Ceutan ere bai.

Beste korrante txikiago bat *Layènne* izenez ezagutzen dena da, Seydina Limammou Laye-k sorturikoa. Eragin handia du Dakar (Senegal) inguruko arrantzaleen herrixketan; hortxe dago autonomia erlijiosoa eta politikoa dituen Yoff udalerrria.

Mouridiyya 1883an sortu zuen Cheikh Amadou Bambak, Khadir *tariqako mara bout* baten semeak. Azken horrek islamaren interpretazioa eta aldarrikapen antikolonialista batu zituen. *Tariqa* horren hiri santua Touba da, eta kalifak edo agintari erlijiosoak kudeatzen du. Hantxe dago herritarren ekarpenekin eraikitako meskita handia.

Islama primeran ezarri da kultura oso ezberdinetan, eta hainbat testuingurutara egokitzeko gaitasun izugarria duela erakutsi du. Hainbat tradizio daudela kontuan hartuta, eta, horrez gain, erlijio-erakunde gisa egitura globalik ez duela ikusirik, errazago ulertuko dugu erlijio oso plural bilakatu izana. Aldi berean, globalizazioak garrantzia eman dio zenbait tradizioari, eta beste batzuk estali egin ditu. Kulturari lotu gabeko islamaren irudia ere sortu da. Horrek tradizioz ez zituzten erroka eta arazo berriak ekarri dizkie komunitate jakin batzuei. Munduko musulman gehienak ez dira arabiarrek eta ez daude arabiar-tuta. Kultura arabiarren mugak Iran, Turkia eta Sahara dira, baina, muga horien barnean ere, oso gutxi arabiar-tutako kultura asko bizi dira; esaterako, Marokoko edo Algeriako bereberrak. Aldi berean, ordea, beste erlijio batzuk jarraitzen dituzten arabiar talde handiak daude, batez ere kristauak.

Aniztasun hori ez da oztopo batasun islamiarrarentzat. Batasun horren elementu nagusia Korana da; arabiera klasikoan dago idatzita eta hizkuntza horretan errezatu behar da. Gabriel aingeruak profetari eginiko errebelazioa jasotzen du, *aleya* izeneko bertsoetan idatzita eta kapituluak (*sura*) bilduta. Kapitulu bakoitzeko *aleyak* profetaren bizitzan eginiko errebelazioaren hainbat momenturi egoten dira lotuta; batzuk mekatarrak izaten dira, eta besteak medinatarrak (Mekatik irten baino lehen eta islamaren lehenengo urteetan errebelatu ziren edo Hejiraren ondoren errebelatu ziren aintzat hartuta).

Islamak oinarrizko bost zutabe ditu; hala nola, fedearen testigantza (*shahadah*), otoiitz errituala (*Salat*), hamarrena (*Zakat*), baraua Ramadan hilean (*Sawm*) eta Mekarako erromesaldia (*Hajj*).

Otoiitza pertsonala da, baina ona da elkarrekin egitea, egunean bost aldiz (goizean, eguerdian, arratsaldean, ilunabarrean eta gauean). Otoiitz-orduen koadroak meskitetan edo web orrietan ikus daitezke; aintzat hartu beharko dira, noski, hiri jakin bateko

egunsentiaren eta ilunabarraren orduak. Otoitza Mekara begira egiten da beti, oinutsik eta lurretik bereizten gaituen alfonbra edo objektu baten gainean, leku duin batean; aurretik eskuak, burua eta oinak behar bezala garbitu behar dira. Urik ez dagoen lekuren batean otoitz egin behar denean edo sinestunak bestelako trabaren bat duenean, errituak sinplifikatu egingo dira eta nahikoa izango da lurrarekin harremana duen objekturen bat igurztea. Lana edo ikasketak direla-eta ezin izan bada otoitza garaian egin, errezoak gaeuan pila daitezke. Ostiraletan meskitan egiten da otoitz, komunitate osoarekin. Otoitza imanak, edo, hala badagokio, prestakuntza komunitatean jaso duen pertsona batek zuzenduko du eta, ondoren, predikua (*jutba*) egingo du. Ostiraletan baterako otoitzera joatea nahitaezkoa da, batez ere gizon helduentzat. Gainera, komunitateko kideak agurtzeko eta haiekin topo egiteko unea izaten da.

Ramadana egutegi musulmanaren bederatzigarren hila da. Jainkoarekin harremanetan jartzeko eta hurkoarekiko enpatia sentitzeko garaia da. Denbora-tarte horretan, debekatuta dago elikagaiak jatea edo ura edatea eguzkia irteten denetik sartzen den arte. Pubertarora iritsi ez diren neskatok eta mutikok ez dute zertan Ramadana jarraitu, ezta gaixo, bidaian, haurdun edo hilekoarekin dauden pertsonak ere. Ahal duenak meskitako errezoarekin hautsiko du barua egunero, eta ilunabarrean lagunekin eta familiarekin elkartuko da denek batera afaltzeko. Hilaren barruan zenbait egun berezi daude, baina nabarmentzekoa da, zalantzarik gabe, *Aid-El Fitr*; hau da, Ramadana amaitu ondorengo hiru egunak, bereziki, lehenengo eguneko goizeko otoitza.

Aid-El Kebir (mendebaldeko Afrikako zenbait tokitan *Tabaski*) edo arkumearen festa da beste festa garrantzitsuetako bat. Abrahamek bere seme Ismael sakrifikatu izana ospatzen du. Hasteko, goizean otoitzaldi bat egiten dute batera; bai meskitan, bai leku irekietan. Ondoren ahari bat, arkume bat edo antxume bat sakrifikatzen dute, eta familian edo bizilagunekin jaten dute. Oiartzun txikiagoa badute ere, garrantzitsuak dira, halaber, urte berria, *Ashura* festa edo profetaren jaiotza.

Espainiako Estatuko lehenengo elkarte musulmanak 60ko hamarkadan sortu ziren, Erlijio Askatasunari buruzko 1967ko Legea onartu ondoren, baina ez zuten garrantzi handiegirik izan 80ko hamarkadaren amaierara arte. Elkarte horien sustatzaileak ondo kokatutako pertsonak ziren, asko politika-mundutik etorriak eta ezkerreko alderdietakoak, baita batez ere Ekialde Ertainetik etorritako ikasle atzerritarrak ere. Geroago, 90eko hamarkadatik aurrera, aldaketa handia antzeman zen, magrebtar askoren etorrerak eta familia mistoak areagotu izanak eraginda.

Erlijio Erakunde Islamiarren Espainiako Federazioa 1989an sortu (FEERI). Federazioa sortzen berebiziko garrantzia izan zuten islamari atxikitako pertsonak. Nolanahi ere, herrialde arabiar-musulmanetatik etorritakoen eta bertakoen artean izan ziren doktrinari eta ideologiari buruzko desadostasunek eraginda, federazioa banatu egin zen 1991n. Halaxe sortu zen Espainiako Komunitate Islamiarren Batasuna (UCIDE). 1992an Lankidetzak Hitzarmenak sinatu zituzten Espainiako Estatuarekin eta, esparru horretan, Espainiako Batzorde Islamiarra sortu zuten (CIE). Batzorde horrek aurreko bi federazioak biltzen ditu.

Nabarmentzekoa da FEERIn sorkuntzan Espainiako Batzar Islamiarrak izan zuen garrantzia; azken hori da, gainera, gaztelaniaz dagoen ataririk garrantzitsuenaren (*webislam.com*) sustatzailea 1997tik. Barne-etzabaidako prozesu sakonean murgilduta dago FEERI 2006tik. Bere egoitzarik enblematikoena 1992an irekitako Madrilgo Kultur Zentro Islamiarra izan da, M30 errepideko meskita izenarekin ezagunagoa. Erreferente da

Euskadiko komunitate islamiar askorentzat. Bestalde, UCIDEn egoitza Estrechoko Abu Bakr meskitan dago, Madrilen; azken hori 1988an ireki zuten.

Islamaren berrezarpena EAEn

Ezer gutxi dakigu Erdi Aroan eta Errenazimenduan hiru lurralde historikoetan musulmanek izan zuten presentziari buruz. Errioxan eta Nafarroan ez bezala, presentzia zenbait kokaleku eta familia jakinetara mugatu zen. Antza denez, moriskoak kanporatu zituzten unean, 1609an, zenbait familia Kantauriko portuetatik erbesteratu ziren. Harrezkero, XX. mendearen amaierara arte EAEn ez da komunitate musulmanik egon, eta oso gutxi dakigu islamarekin harremana izan zuten bidaiariei eta intelektualei buruz. Dena dela, gizartearen iruditerian «moroak» arrotza esan nahi zuen, besterena, eta, nolabait, arriskutsua ere bai. Horren adibide dira Euskal Herriko hainbat herritako inauterietan edo antzezpen herrikoi tradizioaletan oso errotuta dauden zenbait pertsonaia; esaterako, Zuberoako pastoraletan agertzen direnak.

Magreb aldetik etorritako familia ugari ezarri zen 70eko hamarkadan EAeko udalerrri industrialetan, batez ere Gipuzkoakoetan. Hala ere, ospakizun erlijiosoak eremu pribatuan egiten zituzten. Komunitate musulmanak 80ko hamarkadatik aurrera gehiago agertu ziren, migrazio-prozesu berriagoen ondoren. Musulmanen elkarrekin, hortaz, duela gutxi sorturiko immigrante-taldeen edo kultur elkarten antzeko ezaugarriak dituzte. Izan ere, immigranteek sortu zituzten lehenengo zuzendaritza-batzordeak, batez ere marokoarrek eta algeriarrek. Horregatik, EAeko meskita guztiak tradizio sunikoak dira. Horrez gain, meskitok oraindik antolamendu prekario samarra daukate erakunde gisa; hori dela eta, eskolak ez daude ongi definituta.

Izendapenari dagokionez, taldeek meskita hitza erabiltzen dute (*masyid*), baina jakin badakite espazioak eta jarduerak oso mugatuak direla, hitz horrek musulman gehiago dauden lekuetan dituen ezaugarriekin alderatuta. Egunen batean meskita nagusi bat edo *yamaa* bat izatea da gustatuko litzaieke. Kasu gehienetan, islamiar edo musulman komunitate hitza erabiltzen dute izen ofizialean; esaterako, Zumarragako Islamiar Komunitatea, Alhira meskita. Batzuek elkarte izena erabiltzen dute, baina meskita hitza jarri ohi diote ondoren; esaterako, Dosti Kultura Elkarte Pakistandarra, Al Madani meskita. Komunitate terminoa meskitaren sinonimo gisa erabiltzen dute kasu horietan. Edonola ere, beste testuinguru batzuetan beste esanahi bat ere izan dezake; hau da, pertsona sinestun guztiak osatzen duten komunitate ideala (*Umma*).

EAeko meskitak eta elkarte musulmanak

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatu iparraldeko lehenengo meskita Eibarren ireki zuten 1982an. Emakume musulman baten heriotzak eta hileta-erritualak egiteko baliabide faltak bultzatu zuen sorrera. Hasieran kultur elkarte itxura zuen, Arabiar Marokoar Kultur Elkarte. Lehenengo urteetan inguruko probintzietako fededunak joaten ziren hara. Meskitako boluntarioak, berriz, Bilbora eta beste hiri batzuetara joaten ziren une jakinetan laguntzera; esaterako, hileta-erritualetan.

1989 eta 1997 bitartean, iman-lanak boluntario batek egiten zituen. Une horretatik aurrera, iman marokoarrak izan dituzte. Egungo imana meskitak kontratatatu du, eta bertan

zuzendu dizkiote egoitza- eta lan-baimena lortzeko paperak, langile erlijioso gisa. Aurretik zeuden imanak, ordea, Espainian bizi ziren lehendik.

Komunitateak lokal bat erosi zuen 90eko hamarkadaren amaieran, Eibarreko Argatxa auzoan. Fededunen artean diru-bilketa egin zuten, eta laguntza eskatu zieten Frantziako meskitei. Gaur egun lokala etxebizitza-bloke baten behealdean dago, eta txikiegia da ostiraleko ospakizunetarako eta beste jaiegunetarako. Emakumeentzako gela bat ere badauka. Inaugurazio-egunean alkatea ere bertan izan zen. 2010ean, komunitateko 60 lagun inguruk espainiar herritartasuna zuten.

Gasteizko Al-Taqua meskita 1986an inauguratu zen, Pintore kalearen izkina batean, alde zaharrean. Ondoren, komunitatea San Bizente kaleko etxabe batera aldatu zen, lehen zuten lokalean Udalak museo bat eraikitzea erabaki baitzuen.

Bilboko Badr meskita, berriz, 90eko hamarkadaren hasieran eraiki zuten, Fika kalean. Egoitza hori hortxe dago oraindik, baina handitu egin dute, aldameneko etxabeak erosi baitituzte pixkanaka.

Euskadiko lehenengo komunitate islamiarrak 1996 amaiera eta 1997ko uda bitartean erregistratu zituzten Justizia Ministerioaren Erakunde Erlijiosoan Erregistroan, lurralde historiko bakoitzeko bana. Bilboko Badr meskita islamiarra erlijio-komunitateak 1996ko abenduan eman zuen izena. Hilabete geroago, Gasteizko Islamiar Komunitatea Al-Taqua meskitaren txanda izan zen. Azkenik, 1997ko abuztuan, Eibarko Ibagain auzoko Arrahma Meskita Islamiar Komunitateak eman zuen izena.

Ermuan Anor meskita eraiki zuten 90eko hamarkadaren erdialdean, baina ez zuten 2002ra arte erregistratu. Ermua berez Bizkaian egonagatik ere, oso hurbil dago Eibarretik. Errenteria aldean, berriz, Elmohacín Meskita Elkarteak sortu zuten 90eko hamarkadaren amaieran, eta, gaur egun, oraindik ere kultur elkarte da, nahiz eta ez dagoen Justizia Ministerioaren erregistroan izena emanda. Donostialdean, Pasaian eta Irunen erreferentzia meskita izan da. Zumarragako Islamiar Komunitatea, Alhira Meskitak 2000ko ekainean eman zuen izena, hainbat urtez irekita egon ondoren. Era berean, Orion ere ireki zuten meskita bat, baina ez zuten erregistratu harik eta 2006an lokala erosi zuten arte. Azkenik, Ermuan bigarren komunitate bat sortu zuten, eta 2003an El Hoda Meskita Islamiar Komunitatea izenarekin erregistratu zuten. Urte berean sortu zuten Azkoitiko Alrrahman Islamiar Komunitatea, baina 2009ra arte ez zuen izena eman Erakunde Erlijiosoan Erregistroan.

Gasteizen 2000. urtean eman zuen izena Sunna Islamiar Komunitateak. Meskita berriak irekitzeko ohiko arrazoiak, oro har, fededun-komunitatea ugartu izana eta ostiraleko otoitzerako lokala txiki geratu izana izaten dira. Edonola ere, kasu honetan beste bat ere badago; Gasteizen ezarritako iman baten presentzia, hain zuzen. Imanak lider-lanak egiten ditu komunitatean (*yama'at*) *Tabligh* taldearen ildoari jarraiki, oso aktiboa da lanean zein gazteen arteko predikuan, eta meskita pertsona sinestun ororen erdigune izatea nahi du. *Tablighak* onarpen handia du beste meskita batzuetan; esaterako, Arrahman. Bertako predikatzaile ibiltariak hainbat meskitatan hartu ohi dituzte, baina etxebizitza dutenetan bakarrik (esaterako, Badr meskitan, ostatua eskain baitiezaiekete).

Urte horietan sortu zen Mungia meskita, oraindik erregistroan sartu gabe dagoena. Bilboko meskitan ardurak zituzten mungiarrek sortu zuten, biztanle musulmanak ugartzen ari zirela-eta, inguruko fededunei meskita bat eskaintzeko helburuarekin.

Bilbon prozesu berezi bat gertatu zen lerro berritzaile baten sorrerarekin. 2003an Euskal Herriko Zentro Soziokultural Islamiarra sortu zen, eta hasieran egoitza Badr meskitan izan zuen. Bultzatzaileek egiaztatu zuten gero eta musulman gehiago zegoela. Hala, komunitate musulmanaren barruan eta gainerako euskal komunitateari begira, ezagutza ahalbidetzeko beharra ikusi zuten. Ondorioz, Euskadiko komunitate musulmanak batu eta hobeto antolatu nahi zituzten; hori dela-eta, estatutuen jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidego osoa da, nahiz eta sortu ziren unean berezko egoitzarik ez izan. 2006ko apirilean Badr meskitatik hurbil zegoen lokal bat ireki zuten; abuztuan Justizia Ministerioan erregistratu zuten, Bizkaiko Islamiar Komunitatea Meskita Assalam izenarekin. Nabarmentzekoa da islamera bihurtu diren zenbait tokiko pertsonaren lana; hala, web orria, bloga eta hedapen-triptikoak sortu dituzte, eta komunikazioetan euskara ere erabiltzen dute. 2009. urtearen hasieran Assabil Euskal Herriko Zentro Soziokultural Islamiarraren zuzendaritza-batzordea aldatu zuten, emakume immigranteak zein bertakoak sartu baitziren.

2010ean Islamaren Adiskideak elkarte sortu zen, musulmanek euskal gizarteari egiten dioten ekarpena ezagutarazteko.

Gipuzkoan ere agertu ziren euskal gizartearentzat zein Euskadiko komunitate islamiarrarentzat jarduerak eta zerbitzuak eskaintzeko asmoa zuten pertsonak, bai eta oinarrizko premiak betetzen laguntzeko beren burua eskaini zutenak ere (hezkontza, otoitzak, festak). Helburu horrekin sortu zuten An-nur elkarte. Lokal egoki baten bila ibili ziren 2005. urtetik, baina ez zen lan erraza izan. Azkenik, 2007an Irunen lortu zuten lokala.

Bizkaira itzuliz, 2002 amaieran Durangaldeko komunitatea artatzeko batzorde bat sortu zen. Horren ondorioz, 2003an kultur elkarte bat sortu zuten; 2007 amaieran Erakunde Erlijiosoan Erregistroan eman zuen izena, Axura Durangaldeako Islamiar Komunitatea izenarekin. Komunitateak meskita bat ireki zuen Matienako (Abadiño) lonja batean, baina laster geratu zitzaien txiki. Iurretan kokaturiko lonja handiago batera mugitzeko ahalegina egin zuten, baina, bizilagunak aurka agertu zirenez, industria-nabe bat alokatu zuten lehenengo lekutik gertu.

Bilbon otoiztegi bat (*musala*) ireki zuten Maiatzaren Biko kalean, bizilagun musulman dezente dauden gune batean; izan ere, eguneroko errezoetarako meskitak urrunegi zeudela uste zuten. Ondoren, meskita bilakatu zen eta Alforkan izendatu zuten. 2008ko uztailean eman zuen izena Erakunde Erlijiosoan Erregistroan, Bilboko Islamiar Komunitatea izenarekin. Al Azhar Unibertsitateak emandako beka batekin jarduten zuen Bilboko Assalam meskitako imanak; hala, 2009 hasieran, beka-aldia amaitzen ari zitzaionez, Alforkango ohiko fededunek beren gastuak ordaintzea proposatu zuten, imanari bertan eutsi ahal izateko. Meskita Gorte kalera eraman zuten eta, atean ipinita daukaten lizentziaren arabera, kultur elkarte gisa irekitzeko baimena du.

Gasteiz aldean, berriz, Al-Taqua meskitaren parean dagoen Annour meskita Gasteizko Islamiar Komunitate gisa erregistratu zuten 2006an. Ordura arte, meskita guztiak alde zaharrean zeuden. 2008ko azaroan, Gasteizko San Kristobal auzoan Gasteizko Alqods komunitatea, Alqods meskita erregistratu zuten. Era berean, Lakua inguruan ere beste komunitate bat sortze-prozesuan dago.

Izan ere, azken urteetan fededun kopurua ugartu denez eta etorkinak errotuago daudenez, areagotu egin da meskita kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan. Gipuzkoan hainbat meskita sortu dituzte Tolosan, Ordizian eta Elgoibarren; 2009an bigarren bat ireki

zuten Eibarren, Arabiar Islamiar Kultur Elkarte izenarekin erregistratuta. 2010ean beste meskita bat sortzen ari ziren Irunen.

Bizkaian Markinako Ibn Abdelwahab meskita ireki dute, udalerrian eta Ondarroan dagoen komunitate musulman handiari zerbitzu emateko. Oraindik ez dute komunitate erlijioso gisa erregistratu. Senegaleko fededun ugari joaten dira hara, eta pixkanaka zuzendaritza-batzordean ari dira sartzen. 2008ko uztailean El Yakin Komunitate Musulmanak eman zuen izena, Leioa eta Getxo inguruan bizi diren musulmanak artatzeko helburuarekin. Komunitate horrek izena emateko, sustatzaileetako baten etxebizitza ipini behar izan zuten egoitza moduan; izan ere, Leioako herritarrak meskita irekitzearen kontra agertu ziren. Horren ondorioz, Udalak ez zuen baimena eman, Eusko Jaurlaritzaren Biltzen kultura arteko bitartekaritza zerbitzuak bitartekari lanak egin zituen arren. Komunitate horrek izena emanda jarraitzen du, harik eta zerbitzua eskaini ahal izateko lokal bat aurkitu arte. Euskadiko Musulman Komunitateak 2009ko uztailean eman zuen, eta Portugaleten du egoitza. Helburua Bilbo ezkeraldeko komunitatea artatze da, hura ere meskita bat irekitzeko lokal baten bila dabil. Bi ekimen horiek Onda mugimenduko kide diren pertsonen babesa izan dute. Onda kultur elkarte gisa dago izena emanda Eusko Jaurlaritzaren erregistroan, Onda Euskadi izenarekin. Erakunde erlijiosoak ez den arren, elkarte konfesionala da; haurrentzako, helduentzako, emakumeentzako eta familientzako jarduerekin batera, hainbat jai erlijioso antolatu ditu, eta, horrez gain, emakume eta gizon kopuru handi samarra mobilizatzea lortu du. Elkarteak ez du lokal propiorik eta, orain arte, Bilboko auzo etxe batean eta Ellakuria zentroan egin ditu jarduerak.

Barakaldoko Attawhid Elkarte Soziokulturala 2009an sortu zen, eta meskita bat ireki du etxabe batean. Komunitate horrek beste jarduera batzuk egin nahi ditu erlijio-zerbitzuez gain, eta hasiera-hasieratik Barakaldoko Udalaren immigrazio-arloaren laguntza jaso du. 2010ean meskita txiki bat ireki zuten Zamudion, inguruko familia batzuen ekimenez eta Txorierrin lokal baten bila ibili ostean.

Euskal Herriko Komunitate Islamiarren Batasuna

2007 hasieran, Bilboko Assalam meskitaren ekimenez, Espainiako Komunitate Islamiarren Batasunaren eskualdeko federazio bat sortu zen EAEn. Federazioa urtebete geroago erregistratu zuten Euskal Herriko Islamiar Komunitateen Batasuna izenarekin. Bultzatzaileek diotenez, premiazkoa da euskal komunitate musulmanek federazio bat edukitzea gertu, Estatu osoan gertatzen den bezala. Federazio autonomikoak bultzatuta, Espainiako Komunitate Islamiarren Batasunak deszentralizazioaren alde egin duela diote, islamiar komunitateetara bideratutako lana komunitateetatik bertatik egiteko. 2010 hasieran, Gasteizko Annour meskita, Ermuko bi meskitak, Durangaldeako Axura, Azkoitiko meskita eta Bilboko Assa lam zeuden erregistratuta, eta Irunen sortze bidean zen komunitateak ere bazuen harremanik federazioarekin.

Espainiako Islamiar Batzordearen bitartez, erlijio irakasle bat jarri dute gutxienez hamar gurasok eskaera egin duten eskoletan, Estatuarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenek ezarritakoa betez. 2008-2009 ikasturtean egin zituzten lehenengo esperientziak Bizkaiko ikastetxeetan; Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezinezkoa izan zen irakasle bat jartzea. Aurreko ikasturtean kudeaketak egin zituzten gurasoen eskaerei erantzuteko, baina ezin izan zituzten bete denbora faltagatik. Eskaerak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak jasotzen ditu, baina erlijio-irakasleen eskumena Hezkuntza Ministerioarena da. Izan ere,

Euskal Autonomia Erkidegoak eta beste bost autonomia erkidegok ez dute eskumen hori transferituta.

Emakumeen elkarte musulmanak

Emakumeen elkarten sortze-guneak lehenengo meskitenen antzekoak dira. Izan ere, tankera horretako lehenengo elkarteak Eibarren sortu zen; elkarte soziokultural gisa eman zuen izena Eusko Jaurlaritzaren erregistroan, Safa Emakume Musulmanen Elkarte izenarekin. Sortzaileek Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko proiektu bat baliatu eta Eibarreko Udalaren laguntza jaso zuten. Elkarteak Emakumearen Etxean du egoitza, nahiz eta duela gutxi lokal bat alokatu duen udal zentroaren ordutegietatik kanpo bildu ahal izateko, baita aretoa beteta dagoenean elkartzeko ere. Halaber, festetarako ere baliatzen dute lokal hori, zaila izaten baita hainbat jai Emakumearen Etxean egitea; esaterako, Ramadanaren haustura-jaiak. Besteak beste, gaztelania ez dakiten emakumeak alfabetatzen laguntzen dute, baita integrazioa edota emakumeen jabetasuna bultzatzen ere. Horrez gain, erlijio-gaiei eta balioei buruzko tertulioak egiten dituzte. Bestalde, biztanle guztiei zuzenduriko arabiera eskolak ere eman dituzte. Elkarte gisa eratu aurretik, partikularren etxeetan biltzen ziren eta horrek galarazi egien ziren emakume gehiagorengana iristea; horregatik, eman zuten elkarte gisa eratzeko urratsa. Hainbat jardura publikotan parte hartu dute. Horrek harridura eragin du, Eibarreko meskitak bere komunitateari eskaintzen baitio zerbitzua batik bat. Gaur egun 75 emakume kide baino gehiago ditu, eta askoz ere gehiagok parte hartzen duten jardueretan. Hainbat adinetako emakumeak biltzen ditu, baina talde garrantzitsuena 40 eta 50 urte bitarteko emakumeak dira; batzuk algeriarrak edo pakistandarrak dira, baina gehienbat marokorak (nahiz eta herrialde horretako eskualde oso desberdinetakoak izan, haiek nabarmentzen dutenez).

Bidaya elkarteak Bilbon sortu zen, eta Bizkaiko eta Eibarreko emakume musulmanek osatzen dute; gehienetan islama itzulitakoak edo immigranteek alabak, batzuk ikasleak eta, neurri handi batean, gazteak. Bilerak egiteko Bilboko Ellakuria zentroaren babesarekin. Elkartearen izenak arabierako «hasiera» hitzarekin eta euskarazko «bidaiarekin» jotzen du. Elkarte independentea den arren, Espainiako Emakume Musulmanen Batasunarekin harremana du, baita Elkarrizketarako eta Bizikidetzarako Islamiar Ligarekin ere. Elkartearen helburuetako bat emakume musulmanak gizartean ikusaraztea da, eta, jardura erlijiosoz gain, pertsonen onurarako bestelako jarduerak egitea ere bai. Blog bat dute, eta, bilerez aparte, posta elektronikoz bidez egoten dira harremanetan.

Azkenik, Gasteizen ere hainbat ahalegin egin dute emakume musulmanen elkarte bat eratzeko.

Senegaleko Dahirak

Etorkin musulman askok oraindik ere harremana dute beren jatorrizko *dahirarekin*; edonola ere, kopuru koskor bat biltzen denean, gaur egun bizi diren udalerrietan antolatzen dituzte *dahirak*. *Dahira* topo egiteko, errezatzeko, errezitatze, aholkuak entzuteko, ospatzeko, laguntza eskaintzeko eta *tariqaren* lanari laguntzeko gunea da. Horixe da Bilboko Tidjaniyya *dahiraren* kasua ere; 2009an eman zuten izena Eusko Jaurlaritzaren elkarten erregistroan, Dahiratou Moutakhadma Filahi Kultur Elkarte izenarekin. Zenbait hilabete lehenago lonja bat alokatu zuten Bilbon, eta orain otoiztegi gisa erabiltzen dute astean behin. Dena dela, aurretik beste jardura batzuk ere antolatu dituzte; adibidez, *marabout* baten bisita eta

predikua 2008an, Bilboko auzo etxe batean. Erakundearen barruan garrantzia du erroturiko zenbait etorkinen presentziak; esaterako, inguruan negozio bat duen eta iman-lanak egiten dituen pertsona batenak. Une honetan kezka nagusietako bat lokala mantentzeko eta egokitzeko finantzaketa lortzea da.

Nabarmentzekoa da Subulu Subulu Elkarte, bere antolamendua dela-eta; Eusko Jaurlaritzaren elkarten erregistroan 2003an bildu zuten, eta Bizkaian *dahira mouride* bat osatzen du. Ez dauka meskita propiorik eta, hortaz, ostiralero partaide bakoitzak zer meskitatara joan erabakitzen du. Baina astero arratsalde oso batez biltzen dira errezatzeko eta predikua entzuteko. Hasieran alokaturiko lokal bat zuten, baina txikiegia eta garestiegia zen. Gaur egun Bilboko Ellakuria zentroko kapera uzten diete.

Salataz gain, otoitzaren barruan Korana ere irakurtzen dute; arabieraz irakurtzen dakitenek ahots apalean batera irakurtzen dute, logistikaz arduratzen diren *baifalek* banatzen dituzten orritxo batzuen laguntzarekin. Irakurketa osoak egiten saiatzen dira, ahalik eta irakurketa gehien. Irakurtzen ez dakiten pertsonak kontu-sistema bat erabiltzen dute, berez arabieraz idazten diren hainbat otoizlabur arbel batean alfabeto latinoz idatzita. Arabieraz irakurtzeko eskolak ematen dituzte, beste pertsona batzuek Korana irakur ahal izan dezaten. Bestalde, Koranaren bersetak abesteaz eta Cheikh Amadou Bamba sortzailearen testuak irakurtzeaz arduratzen den pertsona-talde bat dago; tonu errepikakorrean irakurtzen dute, bolumena igoz eta jaitsiz. Horretarako beste entsegu-egun bat izaten dute udal zentro batean. Hitzaldirako gonbidatu bat ekarri ohi dute, eta, gonbidaturik ezean, komunitatean prestakuntza sendoa duen pertsona batek ematen du. Edonola ere, askotan Europako komunitateak bisitatzen lan egiten duen predikari bat izan ohi da. Okasioren batean pertsona garrantzitsuago baten bisita edo *marabout* batena jasotzen dute.

Noizbehinka udal kiroldegi bat uzten diete, beste udalerrri edo probintzia batzuetatik etorritako pertsona-talde handia elkartzen denean. Otoitzean *baifalak* kafea banatzeaz arduratzen dira, eta, gaua beilan igarotzen duten ospakizun handietan, afaria ere antolatzen dute. Elikagaiak kontsumitzeak eta ordutegiak berak zaildu egiten die lokalak lortzea. Ospakizunen artean, musulman guztiak partekatzen dituztenez gain, nabarmentzekoa da Toubako Magal Handiaren jaia (kolonietako agintariek fundatzailea erbesteratzera behartu zutenekoa oroitarazten du). Ekonomia eta zuzendaritza-batzordeko beste pertsona bat sarreran esertzen dira ekarpenak idazteko liburuekin. Ekarpen espontaneoak ere egin daitezke, horretarako prestaturiko itsulapikoan. Harrotasunez ikusten dituzte beren *tariqako* agintariek mundu osoko fededunen ekarpenekin Touban eraikitzen dituzten gizarte-lanak.

Dahira hauek beren *tariqako* estatuko konfederazioaren zati dira, eta *mourideren* kasuan, laguntzak eman dituzte; esaterako, komunitateak bisitatzen dituzten *maraboutekin* topo egiteko eta haiei ostatu emateko eraikin bat erosteko. Ez dakite, ordea, konfederazioak erregistratuta dauden ala ez. Orain arte ez dute harremanik izan beste federazio musulman batzuekin.

Gasteizko Al madani meskita eta Pakistango beste komunitate batzuk

Gasteizen ezarritako pakistandar talde batek Dosti Pakistandar Kultur Elkarte sortzea erabaki zuen 2008an, komunitatea hazten ari zela eta beste meskitetan leku gutxi zegoela ikusita. Urte horretako ramadanean inauguratu zuten Al Madani meskita, alokaturiko lonja

batean. Komunitate horrek arabiera erabiltzen du otoitz egiteko, harremanetarako urdu hizkuntza baliatzen badute ere. Kultur elkarte gisa dago jasota Eusko Jaurlaritzaren erregistroan, eta zuzendaritza batzorde oso handia du. Hori horrela izanik, eta kideak leku batetik baino gehiagotatik joan behar izaten dutela kontuan izanik, zailtasunak izaten dituzte kudeaketak egiteko unean. Egiaz, meskita dinamizatzeaz bultzatzaileetako bat arduratzen da, erretiraturiko enpresaburu bat.

2009an meskita pakistandar bat ireki zuten Bergaran. Batzuetan, ostiraletako hitzaldirako Eibarko komunitatean iman boluntario izandako gizon bat joaten zaie laguntzera. Urte horretan bertan, Galdakaoko pakistandar talde batek, gehienbat merkatariak, erakunde erlijiosoan erregistroan sartu zuten Galdakaoko Komunitate Musulmana, meskita bat irekitzeko asmoarekin. Gaur egun, funtsak biltzeko eta lokala bilatzeko prozesuan daude.

Euskadiko komunitate musulmanen ezaugarri komunak

Demografia

Meskiten banaketa ez da orekatua EAEko lurralde historiko guztietan, eta joera bera dauka gehiengo musulmana duten herrialdeetatik etorritako immigranteen ezarpenak. Araban, Gasteiz da erlijio islamiarraren erdigunea. Bizkaian funtzio bera betetzen du Bilbok, batez ere, Bilbo metropolitarrako herriei dagokienez. Edonola ere, pixkanaka gainerako herrietan ere hasi dira meskitak irekitzen. Ermua salbuespena da, zerikusi handiagoa baitu Gipuzkoako errealitatearekin; han immigranteak askoz ere banatuago daude udalerrietan, eta horrek meskiten sorreran du isla. Nabarmentzekoa da Donostian ez meskitarik egotea, hiri horretan eta inguruetan atzerritar asko bizi bada ere.

Lehenengo komunitate musulmanak sortu zirenean, batez ere 90eko hamarkadatik aurrera, Gasteizen zeuden gehiengo islamiardun herrialdeetatik etorritako etorkin gehien. Bilbo magrebtar eta Saharaz azpiko herritar ugari zuen, eta erakarpen-gune zen beste udalerrri metropolitarrak batzuentzat (esaterako, Barakaldorentzat). Eibarren eta Ermuan lurralde historikoetako gainerako udalerriek baino magrebtar gehiago zegoen; arestian aipaturiko hiriburuetako etorkin kopuru bertsua zuten, askoz ere txikiagoak izan arren.

Senegaleko komunitateari dagokionez, Bilbok eta Ondarroak bakarrik dute biztanle-kopuru nabarmena 80ko hamarkadaren amaieratik. Senegaldarrak nabarmen ugari ziren Markinan 2004tik aurrera; 2006tik aurrera, berriz, Bilbo ezkerraldeko udalerrietan eta Durangaldean. Gasteizen 2003tik aurrera hasi zen Senegaleko biztanle kopuru handi samarra izaten; Gipuzkoan, aldiz, apenas dagoen komunitate bat osatzeko beste senegaldar, Hondarribian eta Mutrikun izan ezik (bi kasuetan ere duela oso gutxitik).

Pakistandarrei dagokienez, gehienak Gasteizen daude, eta alde handiagatik, gainera, EAEko beste hiri batzuekin alderatuta (ondoren Bilbo, Azkoitia eta Bergara leudeke).

Horrenbestez, lotura zuzena dago gehiengo musulmandun herrialdeetatik etorritako biztanleak ugartzearren eta meskitak irekitzen dituzten herrien artean. Donostia eta Nerbioi ibaiaren eskuinaldea bakarrik dira logika hori betetzen ez dutenak. Oionen, Agurainen (biak Araban) eta tankera horretako beste hainbat udalerrian, gorakada oso handia izan da urte gutxian; ondorioz, litekeena da hurrengo urteetan meskita berriak sortzea Euskadiko beste udalerrri batzuetan ere.

Ikuspegi demografikotik begiratuta, islamera heldutan bihurtu diren pertsonak ez dute eraginik izan meskita berrien sorreran, nahiz eta zenbait elkarte dinamizatzen eta sortzen lagundu duten.

Kultu-guneak

Adierazi bezala, meskitak herritar musulman ugari dagoen lekuetan bakarrik ireki dituzte. Balizko fededunen kopuruarekin batera, beste faktore batzuk ere ikusiko ditugu; esaterako, hobeto ezarritako edo kezka gehiago dituzten talde txiki bat egotea, sortze-prozesuaren lider izan daitezkeenak. Eredu diren beste meskita batzuetatik hurbil egoteak edo haiekin harremanak izateak lagundu egiten dio elkarte berri bati.

Era berean, Gasteizen, Ermuan, Bilbon eta Eibarren bakarrik ireki dute bigarren meskita bat; hau da, herritar musulmanen kopurua nabarmen hazi den edo ibilbide luzeagoa duen lekuetan. Eragina du, halaber, meskitarekin zer egin nahi duten argi duten pertsonak egotea, komunitate tradizionalagoarekin kontrastean. Elkarrizketaturiko pertsona guztiak jatorrizko meskitan lekua falta dela diote. Horrekin loturik, nabarmentzekoa da meskita guzti-guztiak betetzen direla jaiegunetan, baita zaharrenak ere. Gasteizko meskita eta beste hainbat hurbileko familiek bultzatu dituzten arren, zentro horietako arduradunek garrantzia kentzen diote fededunen jatorriari, Gasteizko Al Madani meskitaren kasuan izan ezik; azken hori jatorri pakistandarra izateagatik bereizi da, beste herrialdeetako pertsonak ere erabiltzen duten arren.

Behin baino gehiagotan ireki dute bigarren meskita lehenengotik gertu dagoen lonja batean; horrek informazio-sareen garrantzia erakusten du, eta alokairuko lokal bat aurkitzeko zailtasuna ere bai. Donostian meskitarik ez egotearen arrazoi nagusia lokala aurkitzeko zailtasuna da. Hori dela-eta, Irunen ireki dute bat.

Komunitatearen ezarpen-mailaren arabera, meskita denbora luzeagoz edo laburragoz egongo da irekita. Normalean, komunitateko hainbat pertsonak edukitzen dute giltza, eta txandatu egiten dira eguneko bost otoitzetarako ireki ahal izateko, bereziki ilunabarrekorako. Meskita txikien kasuetan, atea ez dute giltzaz ixten, errezatza edonor sar dadin.

Kultu-zentroak garrantzi handia du komunitateentzat. Musulmanentzat meskita ikasketa gunea da, praktika eta bilerak egiteko tokia; hortik abiatzen da bizitza islamiarra. Bestalde, kultura bereko pertsonekin topo egiteko lekua ere bada.

Sarritan lokalen tamainari egozten diote emakumeei erreserbatutako lekurik ezin eduki izana. Espazio faltak baldintzatu egiten du, halaber, beste jarduera batzuk egin ahal izatea. Oro har, ospakizunekin zerikusirik ez duten jarduera ohikoenak erlijio eta arabiera eskolak izaten dira. Komunitateetako arduradunek bertakoek arabiera ikastea nahi izaten dute, eta etorkinen haurrek familiaren kultura eta hizkuntza ez galtzea. Jarduera horiek otoitz-gelan bertan edo aldameneko gela txikietan egiten dituzte. Arduradunen ustez, lokalak ez dira egokiak erabilera horietarako. Fededunen lanari eta ekarpenei esker, birgaitze lan txikiak egiten dituzte.

Sarritan kexatu egiten dira lokalak erabilera erlijiosoari ez dagozkion araudietara egokitzeko birgaitu behar izateagatik; izan ere, ostalaritzako arauetara egokitu behar izaten dituzte maiz, baita beste jarduera batzuei aplikatzen zaizkien arauetara ere, sortzen duten

zarata dela-eta. Alde horretatik, zailtasunak izaten dituzte egokitzapen-lanak egiteko, garestiak baitira eta alokairu-erregimenean eduki ohi baitituzte lokalak. Ondorioz, ez dute jakiten komunitateak denbora luzea emango ote duen bertan.

Momentu jakin batzuetan, gatazkak eduki dituzte udaltzainekin; esaterako, 2008an Badr meskita zaharberritzeko itxi behar izan zutenean eta sinestunak Assalam meskitan sartzen ez zirenean, eremu publikoa erabiltzen baitzuten. Dena dela, egoera isolatuak izan dira.

Barne-funtzionamendua

Komunitateek garrantzi handia ematen diote kontsultari edo batzarrari (*assura*). Erakunde zaharra da, profetak berak ere erabiltzen zuena, erabaki garrantzitsuak batzarraren esku uzten baitzituen. Horregatik, erabaki garrantzitsuak pertsona bakar batek ez hartzearen garrantzia nabarmentzen dute, adostasuna bilatzearena. Zenbait meskitatan nahiago izaten dute elkarrizketak komunitateko kideen aurrean egitea. Kanpotik ikusten denaren arabera, ez dago oso ondo zehaztuta nor den batzarreko kide, sinestun guztiak baitaude gonbidatuta.

Meskitak ostiraletan eta jaiegunetan biltzen duten diruarekin finantzatzen dituzte, batez ere. Ohikoa da, bestalde, kide egonkorrek beste kuota bat ordaintzea, baina, oro har, borondatezkoa izaten da. Euskadiko zenbait meskitatan dohaintzak horman jartzen den orri batean idazten dituzte eta, batzuetan, diru-bilketa berezi bat egiten da konponketa edo erosketa jakin bat ordaintzeko. Sarritan, ekarpenak ozta-ozta iristen dira alokairuak eta kultu-guneetako gastuak ordaintzeko. Aparteko gastuetarako, komunitateek beste meskita batzuetara jotzen dute, eta komisio batek kasua beste zuzendaritza-batzorde bati aurkezten dio. Alde horretatik, zenbait meskita Espainiako edo Europako beste komunitate batzuei laguntza eskatuko ote dieten aztertzen ari dira. Era berean, norbaitek premia berezi bat edo arazo jakin bat izanez gero, ostiral batean azal dezake guztien aurrean, nahi duenak lagun diezaion.

Urte kopuru jakin bat daukaten meskiten bakarrik ordain ditzakete iman baten zerbitzuak Euskadin. Gainerako meskitetan, otoitza (*al-imama*) prestakuntza handiagoa duen komunitateko kideren batek egiten du. Batzuetan imana partekatzen dute, Ramadanera kontratatzen dute, edo prestakuntza egokia duen beste meskita bateko boluntarioren baten zerbitzuak jasotzen dituzte. Marokoko kontsuletxeak predikari baten bisita eskaini ohi du garai jakin batzuetan, bereziki Ramadanean. Batzuetan imanek ekarri ere egiten dituzte beka-programen bidez; horixe izan da Bilboren kasua, Espainiako Komunitate Islamiarren Batasunak Kairoko Al Azhar Unibertsitate ospetsuarekin duen hitzarmena baliatuta.

Iman suniak otoitza gidatzen du, aholkua eskaintzen du eta komunitateko kideei islamiar balioak irakasten dizkie. Bestalde, hitz egiteko konfiantzazko norbait behar dutenean, harengana jotzen dute. Baina komunitatea ez du imanek gidatzen, zuzendaritza-batzordeak baizik. Sarritan imanek ez du gaztelaniaz hitz egiten edo, egitekotan, kostata (batzuetan, gainera, Espainian denbora luzez bizi ondoren ere zailtasunak izaten dituzte). Hori arazo da arabiera klasikoa ulertzen ez duten fededunentzat, eta horixe gertatzen da, hain zuzen, herrialde ez arabiarretatik etorritako gehienekin. Imana Ekialde Ertaineko herrialde batetik denbora-tarte labur batez etortzen denean, zailtasunak izan ditzake beren herrialdeko arabiera bakarrik hitz egiten duten pertsonekin. Hala gertatzen da Marokotik etorritako pertsona askorekin.

Askotan, presidentez gain, batzordean edo batzordetik kanpo, gaztelania ongi hitz egiten duten konfiantzazko pertsonak egon ohi dira; hala, haiek arduratzen dira meskitarekin harremanetan jartzen diren erakundeekin edo elkarteekin komunikatzeaz.

Kasu gehienetan, EAEko meskiten batzordeak jatorri marokoarreko eta algeriarreko pertsonak osatzen dituzte, nahiz eta batzuetan Malikoak edo Ekialde Ertainekoak ere egon ohi diren. Meskitara joan ohi direnak, jatorriz, herrialde askotakoak dira; esaterako, Senegal, Mali, Gambia eta Pakistan. Horiez gainera, latinoamerikarrak eta euskaldunak ere aurki ditzakegu.

Komunitate gehienak gazteak dira, eta batzarretako kideen lanek, mugikortasunak eta betebeharrak asko baldintzatzen dituzte. Oso maiz, beste jarduera batzuk egin nahiko lituzkete, baina ez dute haiek egiteko pertsona bat liberatzeko aukerarik.

Euskadiko komunitate musulmanen ordezkariak ez dute elkarrekin koordinatzeko premia handiegirik sentitzen. Euskal Herriko Islamiar Komunitateen Batasuna egon badago, baina ez gehiegi garatuta; komunitate batzuk baino ez ditu biltzen. Normalean, arduradunek Estatuko federazioak ezagutzen dituzte, baina gai jakin batzuetarako bakarrik jotzen dute haiengana. Adierazi bezala, komunitateak oso oinarritzko arazoekin daude arduratuta. Gai jakinetarako koordinatu ohi dira; esaterako, festa handietako errezoak antolatzeke edota hilerri bateko premiak asetzeko. Halaber, kasuren batean, sintonia gehiago duten komunitateen artean ere antolatu izan dira, jarduera ludikoetarako edota kirol jardueretarako. Horietako batzuek harremanak dituzte geografikoki hurbilen dauden beste komunitate batzuekin, adibidez, Errioxakoekin.

Hilerriak

Islamak arau zehatzak ditu hildakoak ehorzteko. Arau horiei jarraiki, gorputza garbitzeko erritual bat bete behar dute; izerkari zuri batean bildu eta eskari batzuk errezitatu behar izaten dituzte, hilotza Mekari begira jarrita. Gorpua zuzenean lurperatu behar da, eskuineko aldearen gainean etzanda, aurpegia Mekara begira duela eta beste musulman batzuen alboan. Dena dela, aginduak agindu, ohiturak desberdinak dira toki batetik bestera.

Azterturiko komunitate guztiek hilerri bat eskatzen dute musulmantzat, hilerriaren zati bat, behinik behin. Gune horiek kokatzea zaila denez, kasu gehienetan aberriratu egiten dituzte hildakoak. Edonola ere, aukera garestia da hori, eta tokiko musulmanen edo ondorengo belaunaldien arazoa ekartzen du.

Zenbait kasutan, ordea, izan dira lorpenak. Ondorioz, Euskal Herriko Komunitate Islamiarren Batasunak hitzarmena sinatu du Bilboko Udalarekin, udal hilerriaren barruan hilerri musulmana jartzeko lursail bat bidera dezaten. Ekimen horren ondorioz, Gasteizko musulmanak gai horri buruzko aldarrikapenak planteatzeko bildu dira. Pakistandar komunitateak Logroñoko komunitateari begiratzen dio gai honi dagokionez, Udalak komunitatearentzat hilerri bat eraikitzea lortu baitu.

Aldiz, Senegaleko komunitateak eta tankerako beste zenbaitek oraindik nahiago du aberriratzea hemengo hilerri batean lurperatzea baino, eta, horregatik, elkarri laguntzeko sistema bat eratu dute aberriratze-gastuak ordaindu ahal izateko.

Jai garrantzitsuak

Aid-El Fitr eta *Aid-El Kebir* dira Euskal Autonomia Erkidegoan oihartzun publiko handiena duten festa musulmanak. Udalerri askotan, goizeko otoitza udalaren lokaletan edo kiroldegietan egiten da. Gasteizen, bi kiroldegi erabili behar izaten dituzte. Senegaleko *туруqek* eta tankerako komunitate txikiek erakunde katolikoren batek utzitako lokalak erabili izan dituzte. Zailtasunik handienetako bat ospakizunetan elikagaiak jatea da; era berean, ospakizunek asko irautea ere eragozpen bilakatzen da, gaua beilan igarotzeko ohitura baitute.

Ospakizun hori eta antzeko beste batzuk kokatzeko, ezinbestekoa da mundu musulmanak ilargiaren egutegia jarraitzen duela aintzat hartzea; egutegi horretan hilabeteak 29 edo 30 egunekoak dira, eta urteak 354 edo 355 egunekoak. Horrek esan nahi du, egutegi gregoriarrarekin alderatuta, datak 10 eta 12 egun bitarte aurreratzen direla urtero. Eguna ilunabarrarekin hasten da; hilabetea, berriz, ilberriren ostean ilgorako lehen ertza agertzearekin batera. Ohiturari jarraiki, ilargiari begiz erreparatzen diote, eta, ondorioz, ez dute hilabetearen hasierako data zehatza jakiten, bi edo hiru eguneko gorabeherarekin, eguzkia jartzen den arte. Normalean agintari erlijioso bati ematen diote data hori ezartzeko ardura, eta EAEn oraindik kasu bakoitzeko jatorrizko herrialdeari begiratzen zaio gai horietarako. Jaieguna alde aurretik ezin ezarri horrek zailtasunak ekartzen ditu espazioak erreserbatzeko, baina ez da eragozpena izan haiek lagatzeko. Gaueko otoitzek edo komunitate txikiagoenak (senegaldarrenak kasu) arazo handiagoak eragin dituzte, ordea.

Administrazioarekin duten harremana

Administrazio publikoarekin duten harremanari dagokionez, erlijio gaiak jorratzeko arlo bat ez izateak zailtasunak eragiten dizkie Euskadiko komunitate musulmanei. Kasu askotan, immigrazio arloa arduratzen da gai horretaz, eta zenbait esperientzia positibo izan dituzte eremu horretan. Dena dela, beste arlo batzuetan immigrante gisa ez tratatzeko aldarrikapena egiten jarraitzen dute, batez ere tokiko sinestunak ez dauden komunitateetan.

Bestalde, administrazio publikoen arreta berezia antzematen da, erlijio aniztasunaz hitz egitean lehendabizi erlijio islamiarrarekin lotzen baitute; sarritan, zailtasunarekin edo gatazkarekin ere bai. Administrazioari dagokionez, komunitateen kezka nagusia beren jardueretarako lokal eta bitarteko falta da.

Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztzak Eibarreko meskitako ziurtagiriak aintzat hartzen ditu, beloa daramaten emakume musulmanen argazkiak onartzeko.

Komunitate askok etsipena erakusten dute diru-laguntzak eskatzeko zailtasunengatik, eskatzen dizkieten baldintzak bete ezinagatik edota edo eskaerei ezezkoa ematen dietelako. Diru-laguntzak zer arlotan eskatu behar dituzten garbi zehaztuta ez egoteak ere etsipena sortzen die. Alde horretatik, oso gutxitan sentitzen dute administrazioak prozesu horietan laguntzen dienik; edonola ere, kasu batzuetan immigrazio teknikariak lagundu dietela aitortzen dute, eta Gipuzkoako Aldundiarekin esperientzia positiboak ere izan dituztela diote.

Gizarte etxeei dagokienez, askotariko esperientziak daude. Hasiera-hasieran, komunitateek bertan egiten zituzten bilera batzuk, baina berehala hasi ziren alternatibak

bilatzen. Bileretan otoitzak edo kultura sartzeko lokalak erabiltzeko zailtasunak ekartzen dizkie maiz.

Ohikoa da euskal komunitate musulmanak kultura arteko jardunaldietan gonbidatzea eta, ondorioz, erakundeek immigrante-taldeak direla uste dute, talde erlijioso gisa ikusi beharrean.

Erregistroak

Azterturiko komunitate musulman guztiak erregistratuta daude nolabait. Gehienak erakunde erlijioso gisa Justizia Ministerioaren erregistroan. Beste batzuk Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroan daude izena emanda. Ez dago desberdintasun horiek justifikatzeko irizpide argirik. Elkarte gisa erregistraturiko zenbait komunitate gazteak dira; esaterako, Barakaldokoa edo Gasteizko Dosti. Baina badago komunitate zaharrak ere kultur elkarte gisa erregistraturik; konparazio batera, Errenteriakoa. Bestalde, sortze-prozesuan dauden komunitateak ere badaude erakunde erlijiosoen erregistroan izena emanda. Gehienek beste komunitate baten aholkuari jarraiki egin dute. Zenbait komunitatek elkarte itxura dute; Irungoak edo Barakaldokoak, kasu. Komunitateok jarduera erlijiosotik harago doazen lanak egin nahi izaten dituzte. Bilboko Assabil elkartearen eta tankerako beste kasuren batean, bi entitate ezberdin sortzea erabaki dute, komunitate askoren ustez erlijioa eta kultura bereiztea artifizial samarra bada ere.

Komunitateren batek etsipena erakutsi du Udalean erregistratzeko aukerarik ez duelako, ez baitu erakunde erlijiosoen erregistrorik eramatea aurreikusita. Nolanahi ere, forma juridikoa ez da oso erabilgarria oro har; horren erakusgarri, batzuetan lokalen alokairu-kontratuak kide batzuen izenean egin izana, komunitateak nortasun juridikoa izan arren.

Beste diru-laguntza mota batean sartzeko zailtasunaren aurrean, zenbait komunitatek Pluralismo y Convivencia fundazio publikora jo dute; horretarako, erakunde erlijioso gisa egon behar dute erregistratuta. Pluralismo y Convivencia fundazioak kultura, hezkuntza eta gizarteratze proiektu finalistak diruz laguntzeko lerro bat ireki zuen 2005ean. Diru laguntza horietara Euskadiko bi komunitate musulman aurkeztu ziren 2005ean, 2007an eta 2008n; 2009an hiru eta 2010ean bost. Orotara, 2.000 eta 8.000 euro bitarteko laguntzak jaso dituzte. Komunitate horietako gehienak Euskal Herriko Komunitate Islamiarren Batasuneko kide dira edo Espainiako Komunitate Islamiarren Batasunaren abala eskatu dute. Orioko meskitak, dena den, FEERlri eskatu zion abala. Komunitate batzuen ustez, diru-laguntza horiek oso apalak dira eta ez dute ulertzen zergatik, erakunde erlijiosoei zuzenduta egonik, kultur ekintzak laguntzeko bakarrik erabiltzen diren.

Hedabideak eta iritzi publikoa

Hedabideek festak direla-eta hitz egin ohi dute Euskadiko musulmanez; batez ere, Ramadan garaian. Hedabideetan oihartzuna izan dute, halaber, Bilboko hilerriarekin loturiko albistek edo beste udalerrietan hilerriak irekitzeko eskaerek; baita ikastetxeetan erlijio islamiarrari buruzko eskolak ematen hasi izanak edota meskita bat irekitzeari buruzko albistek ere. Nolanahi ere, musulmanen ordezkarien ustez, gatazkak gertatzen direnean bakarrik agertzen dira hedabideetan.

Ordezkarien hitzetan, minik handiena ez diete ematen beren komunitatearekin zerikusi zuzena duen informazioa tratatzeko moduak, erlijio musulmanari etengabe erreferentzia negatiboak egiteak baizik. Bestalde, EAEko hedabideek arabiar, marokoar, musulman edo islamiar sinonimo gisa erabiltzen dituzte.

Immigrante gazteekin loturiko albisteek ere kezka eragiten diete, baita gazteok ustez egindako delituei buruzkoek ere; horrekin loturik, meskitek moralean eta balioetan hezteko duten garrantzia nabarmentzen dute. Komunitate musulmanek hedabideetan espazio gehiago eduki nahiko lukete, beren erlijioa azaldu ahal izateko. Beren esanetan, gizarteak eta zenbait funtzionario publikok ez dituzte ondo ezagutzen, eta ez dakite zer egiten duten.

Komunitate musulmanak beren irekiera-mailaren arabera definitzeko joera dago; irizpide hori sinpleegia da, ordea, ikuslearen jarreraren eta behatzen ari den alderdiaren arabera. Hainbat komunitatek gizartearekin elkarreragin handiagoa nahi dute, eta beren izaeraren berri eman; beste batzuek, ordea, arreta handiagoa eskaintzen diete ospakizunei edo komunitatearen beharrei eta bizitzari. Dena dela, ez da lan erraza jarrera horiek eta beren iritzi moralak eta erlijiosoak uztartzea.

Esparru juridikoa

Komunitate musulman askoren ustean, esparru juridikoa ez da oso garrantzitsua. Bertako fededunak dituzten komunitateek lehendik dauden legeak eta hitzarmenak ondo betetzea aldarrikatzen dute, eta ez antolamenduan aldaketak egitea. Komunitate batzuek bakarrik eskatzen dute laguntza erlijiosoa ikastetxeetan eta ospitaleetan gauzatzeko aukera, baina guztiek ikusten dute meskitek arlo horretan egin dezaketen ekarpen positiboa. Azkenik, zenbait pertsonak eremu publikoetan otoitz egiteko lekuak eskatzen dituzte eta, laneko egutegia dela-eta, hainbat festa ospatzeko zailtasunak izaten dituztela nabarmentzen dute, baita ostiraletan lana eta meskita uztartzeko nahia ere.

Budismoa

Budismoa munduko erlijio edo filosofiarik garrantzitsuenetakoa da, jarraitzaile kopuruari erreparatzen badiogu, behintzat. Duela 2.500 urte baino gehiago sortu zen India iparraldean, eta Asian barrena zabaldu zen batik bat. Halaxe sortu ziren budismo eskolak, ugari sortu ere. Bi tradizioen inguruan biltzen dira; batetik, *Theravada* (helduen eskola) eta, bestetik, *Mahayana* (ibilgailu handia), eta hortxe daude sartuta budismo tibetarra eta zen budismoa. Tradizio horietan lehenengoa zabalduago dago Sri Lankan, Bangladeshen, Vietnamen, Kanbodian, Tailandian, Myanmarren, Laosen, Malasian eta Indonesian. Mahayana budismoa, bestalde, nagusi da Tibeten, Japonian, Mongolian, Korean eta Errusian. Txinan, berriz, biak aurkituko ditugu. Har dezagun kontuan budismoa beste erlijio edo bizitzaren filosofia batzuekin batera praktikatu ohi dela, eta batera bizitzeko arazorik ez duela, haiekin batzen baita; halaxe gertatzen da, besteak beste, Txinako leku asko eta askotan edota Japonian. Kanpoko praktikei eta adierazpenei eragiten dien aniztasun hori gorabehera, eskola budista guztiek printzipio filosofiko komunak dituzte, eta guztiek ere Buda dute erreferentzia (*iratzarria*).

Gaur egun batez ere *zen* eta tibetar budismoa aurki ditzakegu Euskadin; bi eskola horiek Mahayana tradizioaren barnean sartzen dira. Budismo tibetarrari lamaismo ere deitzen zaio. Horixe da gaur egun mendebaldeko gizarteetan gehien ezagutzen den budismoa.

Adar hori Bhutanen, Mongolian eta Tibeten da nagusi, eta gutxiengo garrantzitsuak daude Indiako zenbait eskualdetan (Sikkim eta Ladakh), Nepalen, Errusian (Buriatia, Kalmukia, Tuva eta Yakutia) eta Txinan (barneko Mongolia). Budismo mota hori erlijio nagusia da herri mongol eta tibetarretan, eta Dalai Lama da guztien lider espiritualak.

Budismo tibetarrak lau eskola edo leinu nagusi bereizten ditu, baita maila txikiagoko beste batzuk ere. Eskola horietan lehena, alderdi kronologikotik begiratuta, *Nyingma* da; K.o VIII. mendearen amaieran Samye monasterioa sortu zuen Rinpoche Padmasambhava guruan du jatorria. Haren irakaskuntzaren oinarri *sutrak* dira; hau da, Budak edo bere dizipulu gertukoenetakoren batek emandako hitzaldiak dituzte oinarri. Bigarren leinua Kagyu tradiziokoa da, eta IX. mendean sortu zen; ahozko tradizioa eta meditazioaren esperientzia ditu oinarri. Adierazgarririk onena Milarepa da, XI. mendean bizi izan zen budista mistikoa. Sakya tradizioa XI. mendean azaldu zen, Konchok Gyalporen eskutik. Azkenik, budismo tibetarraren laugarren eta azken ordena nagusia Gelug izenekoa da, eta Je Tsongkhapak aurkitu zuen XIV. eta XV. mendeetan. Eskola hori tibetar lamaismoaren erdigune izan zen, eta, Kagyu eskolarekin batera, mendebaldeko herrialdeetan zabalduna da.

Espainiako Estatuan, Madrilen eta Bartzelonan ireki zituzten lehenengo ikasketa-zentro budistak, 70eko hamarkadaren amaieran. Zentro horiek budismo tibetarraren Kagyu ordenakoak ziren. Espainiako Komunitate Budisten Federazioa 1991 urtean sortu zen, eta, urtebete geroago, Justizia Ministerioari Erakunde Erlijiosoen Erregistroan sartzeko eskaera aurkeztu zioten; dena dela, ez zen bertan sartu 1995eko martxora arte. Espainiako gizarteetan nabarmen errotuta dagoen erlijio ofizial gisa 2007ko azaroan onartu zuten.

⁷⁷ 5.1, 5.2 eta 5.3 atalak Saioa Bilbao Urkidik idatzi ditu batik bat, eta 5.4 atala, berriz, Joxe Arregi Olaizolak.

Karma Teksum Tchöling (KTT)

Fede budistak ez zuen presentziarik izan Euskal Herrian 80ko hamarkadaren hasierara arte. Lehenago, zenbait pertsona Frantziara joan ohi ziren lamak eta monasterioak bisitatzera. Ondorioz, zenbait lama gonbidatu zituzten Euskadira, irakaskuntzak zabaltzeko eta budismoa praktikatzeko. Hala, 1982an sortu zen lehenengo kultur elkarte budista Bilbon: Karma Teksum Tchöling. Talde hori budismo tibetarraren lau leinuetako bateko kide da; Kagyu eskolakoa, hain zuzen.

EAEEn eskola edo leinu horretako kide den elkarte bat dago lurralde historiko bakoitzeko hiriburuan; dena den, hirurak ere Saint-Léon-sur-Vézère udalerrian (Dordoina, Frantzia) daude batuta, bertako «ama monasterioaren» mende baitaude. Komunitate horiek EAEEn izan duten bilakaera lamari zor diote, hura baitute zuzendari espiritual.

Bilboko zentroa irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa dago izena emanda 2007ko abendutik, 1982an sortu zen arren. Ez da Espainiako Komunitate Budisten Federazioko kide, eta ez dago Justizia Ministerioaren Erakunde Erlijiosoan Erregistroan izena emanda, ez baitute uste beren «esperientzia erlijiosoa» erregistro hori ulertzeko moduan ondo islatzen denik. Nolanahi ere, komunitatea Saint-Léon-sur-Vézèreko Dhagpo Kagyu Ling zentroko kide da; azken hori Kagyu budismoa zaintzeko eta hedatzeko Europa erdialdeko zentro nagusia da, eta Rigme Rimpoche lamak zuzentzen du. Edozer elkartetan bezala, karguak urtero berritzen dira bozketa bidez. Burua presidentea da, kide guztien iritzia jasotzeaz arduratzen da eta ordezkari-lanak egiten ditu. Edonola ere, erabakiak batzarrean adostuta hartzen dira. Diruzaina, bestalde, administrazio ekonomikoaz arduratzen da; idazkaria, berriz, elkartearen dokumentazioaz. Elkarteen funtzionamenduari jarraiki, hiru erregistro-liburu dituzte: aktena, kideena eta kontu-liburua.

Sei pertsona bakarrik dira elkarteko kide, baina presentzia hori ugaritu egiten da lamaren bat iristen denean; orduan, hogeit bat pertsona ere bildu izan dira. Rimpoché lama bat etorri gero, berrogei izatera ere irits daitezke. Komunitateko kideen ezaugarri nabarmenetako bat hezkuntza-maila jaso da, guztiek amaitu baitituzte unibertsitateko ikasketak. Zentroa hileko kuoten bitartez finantzatzen dute. Baina kuota horiek aldakorrik dira, bakoitzaren baliabideen arabera. Oraingoz ez dute inolako laguntzarik jaso eta, beren esanetan, ez dituzte eskatzeko prozedurak ezagutzen.

Kultua astean bitan egiten dute, eta saio bakoitzak ordubete eta ordu eta erdi inguru irauten du. Buruarekin egiten den barne-lana da. Zentroko kideen esanetan, ilargiaren faseetako bat berezia da meditazioarako. Urteberri tibetarra, alegia, otsailaren 25ean ospatzen dutena. Aste hori garbikuntza-praktikak egiteko aprobetxatzen dute, eta urrats bat gehiago ematen dute meditazioaren ohiko jardunean, praktika tantrikora hurbiltzeko. Adierazitako garbikuntza-praktikek hainbat fase dituzte; hasteko, norberari eta besteei egindako mina onartzea. Ondoren, asmoa; hau da, min hori berriz ez eragiteko kontzientzia hartzea. Gero damua dator; hots, mina aitortzeak dakarren lotsa osasungarria, zuzenketa deitzen diote. Eta, azkenik, hainbat antidotorekin praktikatzeari; hau da, mina eragin zuten emozioekin. Garai horretan, ahal duena Britainiara joaten da, erretiro-tara. Data seinalatu horretaz gain, beste batzuk ere badituzte; esaterako, Budaren argitzapenaren eguna, sufrimenduari eta askapenari buruz lehenengo eskola eman zuen eguna, bere jaiotza-eguna eta dizipuluei mirariak irakaskuntza-bide gisa adierazi zizkien eguna. Oroitzapen-egun horiek guztiak praktika eta meditazioa egiteko baliatzen dituzte. Praktika horietan gaztelania eta tibetara erabiltzen dituzte.

Zentroko kideen ustez, gizarteak ez du haiei buruzko iritzi onik. Sektatzat jotzen dituztela iruditzen zaie, baina onartzen dute errealitate horrek hobera egin duela azken urteetan eta ikuspegia hobetu egin dela. Budismoa eta bere funtsa ezagutarazteko aukera izanez gero, aurreiritzi asko hautsiko lituzketela uste dute. Bestalde, ez dute harremanik izan beste erlijio-komunitate batzuekin. Zentro budista bakarrarekin dute harremana, Bilboko Dag Shang Rime Chöling zentroarekin, hain zuzen; hura ere leinu bereko kide da baina *karmapa* ezberdina du.

Talde honen aspirazio nagusia lokalak edo aretoak lortzea da, hitzaldiak eta konferentziak egin ahal izateko eta meditazioa praktikatzeko. Beren baliabideekin ezin dute horrelako lokalik ordaindu eta lamak Euskal Herrira gonbidatu.

Drukpa leinuaren zentroa

Drukpa leinuaren zentroa Donostian dago, eta 2000. urtean hasi zuen ibilbidea. Hasieran budismoa ezagutzeko interesa zuen pertsona-taldea zen, eta, haietako batek Katmandun Gyalwang Drukpa ezagutu zuela aprobetxatuta, praktikak egiten hasi ziren. Halaxe jaso zuten Drukparen bisita 2003an. Garai hartan lokal bat zuten Donostia erdialdean, eta 2007an gaur egun dutenagatik aldatu zuten, Drukpa eskatuta. Azken hori ere Donostian dago, eta Euskadin tankera horretako zentro bakarra da.

Komunitatea kultur elkarte gisa erregistratuta dago Euskadiko Elkarten Erregistroan 2004tik. Beste edozer elkarteren antzeko antolaketa-modua dute: presidentea, diruzaina, idazkaria eta bi batzordekide. Gaur egun hemezortzi kide ditu, gehienak emakumeak eta guztiak bertakoak. Baina badago, kide izan gabe, praktiketan eta topaketetan parte hartzen duen jende gehiago ere. Lama garrantzitsuren bat etortzen denean eta tankerako egun berezietan, hainbat tokitatik inguratutako lauhun bat pertsona elkartu izan dira. Erabaki garrantzitsuak batzarretan hartzen dituzte, eta erabaki txikiagoak Zuzendaritza Batzordeak hartzen ditu. Ahalik eta burokrazia gutxien egoteko ahalegina egiten dute, baita jendeak praktikatzeko eta egunetik egunera hobetzeko ere. Komunitateko kide bakoitzak ondoen egiten dakiena egiten du; rolak eta zereginak ez dira beti berdinak izaten, eta, egoki irizitakoan, aldatu egin daitezke.

Komunitate hau Drukpa Europako kide da, eta Plourayn dauka egoitza nagusia (Britainia, Frantzia). Donostiako zentroak komunikazio handia du monasterio horrekin, eta kontsultak egiten dizkio edozer zalantza duenean. Ahal duten guztietan, kideak ere hara joaten dira, urrun egon arren. Plourayko lama-presidenteak antolatzen ditu Europa osoan dauden zentro guztiak. Era berean, komunitatea Nepalen bizi den Gyalwang Drukpa gidatzen du.

Komunitateak ez du, oraingoz, ordezkari erlijiosorik, baina Drukpa Ngawang lanean ari da zentro bakoitzera monje edo lama bat hiru astez bidaltzeko, etorkizun hurbilean tankerako norbait izan dezaten. Ideia Bruneikoaren antzeko granja tipiko bat edukitzea litzateke, tenplua ipintzeko; bertan, era berean, ostatu emateko lekua eta ospakizunetarako toki irekia ere ipiniko lirateke.

Praktikak egiten dituztenean funtzioak txandakoak izan daitezzen saiatzen dira, guztiak jakin dezaten zer prozedura eta modu izaten diren horretarako. Praktika horiek ordu eta erdi inguru irauten dute, eta astean hiru aldiz egiten dituzte. Praktiken barruan meditazioa

egiten dute gehienbat, baita otoitzak abestu ere. Gurasoek larunbatetako praktikak aprobetxatzen dituzte seme-alabak eramateko. Egun hori *tara* egiteko aprobetxatzen dute.

Tradizio budistari jarraiki, *tara* egunsentian egin behar da, baina, lana dela-eta egunero egitea zaila denez, denbora librean egiten dute. Kideetako batek yoga eskolak emateko aprobetxatzen du lokala; budistek positibotzat jotzen dute gainera jarduera hori.

Zentroak ez du kanpoko laguntzarik jasotzen eta bere burua finantzatzen du, kideek ematen dituzten kuoten bitartez. Biltzen duten diru horren arabera lokala alokatzen dute eta sortzen diren gastuak ordaintzen dituzte. Ez dute batere harremanik beste talde erlijioso batzuekin. Beren ikuspegiaren arabera, Donostiako gizartea oso katolikoa da, eta ez omen da inoiz haiengana beste komunitaterik hurbildu. Komunitatearen eskakizun adierazgarri bakarra lamari ostatu emateko tokia edukitzea da bisitan etortzen denean, baita fede budista praktikatu ahal izateko lokal bat edukitzea ere.

Dojo Zen Kyu San Do/Dojo Zen Bilbao

Zen Mahâyâna budismoaren tradizioetako bat da. Txinan sortu zen *Chán* izenarekin VI. mendean eta Dogen-ek Japonian ezarri zuen XIII. mendean. Europako gizarteek gehien ezagutzen eta preziatzen duten tradizio budistetako bat da eta, batez ere, 60ko hamarkadatik aurrera zabaldu zen.

Euskadin Dojo Zen Bilbao taldeak 1992an eman zuen izena Euskadiko Elkartearen Erregistroan, baina, berez, 1986an sortu zen, egoitza Parisen duen Association Zen International (AZI) elkartearen barruan. Horren aurretik, *zen*arekin interesa zuen talde bat bazegoen Bilbon, eta 1982an saioak eta erretiroak antolatu ere antolatu zituen. *Zen*arekin interesa zuten pertsonak eta taldeak ugaritzen hasi ziren eta, horregatik, ekimenak biltzea eta elkarte gisa eratzea erabaki zuten. Taldea Budismo Zen Escuela Sotoren barruan eta Association Zen International elkartearen barruan dago, eta, azken horren bitartez, Japoniako Soto Zen eskolaren barruan (Sotoshu).

Bilboko taldeak 30 pertsona ditu, baina Bilboko, Gasteizko, Donostiako eta Iruñeko kideak batuz gero, guztira 100 eta 120 pertsona bitarte dira. Bilboko komunitatea osatzen duten pertsonak bertakoak dira, Frantzia ez bezala; han, txinatar edo japoniar jatorriko pertsona asko dago. Euskal komunitateetan beste nazionalitate batzuetako pertsonen presentzia behin-behinekoa izaten da, ikasleak gehienbat. Taldea osatzen dutenen hezkuntza maila altua izan ohi da. Kasu gehienetan unibertsitateko ikasketak dituen jendea da, irakurtzen ohitua edo irakurtzeko ohitura duena. Gehienak 40 urte inguruko pertsonak izaten dira, baina badaude gazteagoak ere. Generoari dagokionez, Bilboko komunitatean gizon gehiago dago emakumeak baino.

Taldearen barne-antolamendua bikoitza da. Alde batetik, elkarte baten antzera antolatzen dira; presidentea, idazkaria, diruzaina eta erabaki-batzarrak dituzte. Bestetik, *zen* edo ikuspegi konfesionala kontuan hartuta, ordenaturiko pertsonak daude, mojak eta monjeak (funtzionamenduarekin eta praktikarekin konpromisoa duten pertsonak); horiez aparte, gainerako kideak daude, erantzukizunik ez dutenak. Monjeek batzorde antzeko bat osatzen dute; Nazioarteko Zen Elkarteari dagokionez, Japoniako hainbat maisuk «zaharren batzordea» osatzen dute. Maisu horiek autoritate morala dute, eta beren garrantzia batzordearen erabakietatik harago doa. Erabakiak aho batez hartzen saiatzen dira, printzipio budistak diotenari jarraiki.

Taldeak egiten duen jarduera nagusia yoga da. Gainera, budismoari, Txinako medikuntza tradizionalari edota akupunturari buruzko konferentziak ematen dituzte. Horretaz gain, bideo dantza egiteko ere erabiltzen dute lokala. Horrekin loturik, prest daude lokala uzteko, baldin eta antzeko jardueretarako erabiltzen bada. Taldea Japonian gertatutako praktika-aldaketa batetik sortua da. Gaur egun praktikatzeko moduak mendebaldeko berezko ezaugarriak ditu. Edonola ere, Japoniarekin gero eta harreman estuagoa dago berriro ere, eta praktika horien jatorriari berriro ari dira heltzen, antzekoago egiteko. Festa garrantzitsuetako bat abenduaren zortzia da; Budaren argitzapena ospatzen dute eta erretiroa egiten dute egun horretan.

Azkenik, taldeak kanpora begira adierazten duen premia edo eskakizun nagusia zera da, budismoari edo *zen* praktikari buruz informazio fidagarria eskuratzeko leku bat izatea eta Interneten ere horrelako zerbait jartzea; hau da, budismoa zer den eta haren alderdi konkretuenak azalduko dituen orri elektronikoak egotea, beraientzat ere gauza berriak baitira. Ildo beretik, beren aurkako gertakizun puntualak gizartearen ezjakintasunak eragindakoak direla uste dute.

Dojo Zen Gasteiz

Gasteizen yoga modu antolatuan egiten zuen talde bat zegoen hasieran, gerora *zen* meditazioa egiten hasi ziren, eta, azkenik, Gasteizko Dojo Zen taldea sortu zuten. Pixkanaka taldea zehazten joan zen eta, AZI erakundeko kideak ezagutu zituztenean, taldea modu formalagoan antolatzeko ideia aztertzen hasi ziren. 1989an hasi ziren praktikak maizago egiten, eta lokal bat lortu zuten. Handik denbora-tarte batera, Euskadiko Elkartearen Erregistroan eman zuten izena kultur elkarte gisa. Gaur egun Gasteizko zentroa da komunitateak EAEn duen egoitza, bertakoa izan baitzen erosi zuten lehengo lokala.

Taldearen barruan, erabakiak batzarretan hartzen dira, eta, kideen funtzioei dagokienez, guztiek modu ekitatiboan laguntzen dute zereginetan; salbuespena *zazen* edo irakasteko erantzukizuna da, ardurua hori maisuei edo zaharrek izendaturiko pertsoneri baitagokie.

Nazioarteko Zen Elkartearen barruan txertatuta dago, eta harreman estua du beste talde batzuekin ere; esaterako, Andaluziakoarekin, Alacantekoarekin edota Kataluniakoarekin. Gasteizko eta Bilboko lokalak taldeko kideen ekarpenekin erosi zituzten.

Taldea 25 pertsona inguruk osatzen dute. Horien artean, *zena* praktikatzen duten kristau katolikoak ere badaude. Alemaniar bat eta japoniar bat kenduta, gainerakoak arabarrak dira. Gizarte estatusari dagokionez, aniztasun handia dago kideen artean; funtzionarioak, langileak edota tarteko lanpostuak dituzten pertsonak aurki ditzakegu. Duela gutxira arte, emakumeak gehiago ziren gizonezkoak baino; dena den, joera hori aldatu egin da eta gizonen presentzia handiagoa da gaur egun.

Jarduera nagusiei dagokienez, praktiketan eta meditazioan oinarritzen dira. Horretaz gain, dietetikari, akupunturari eta osasun integralari buruzko hitzaldiak ematen dituzte. Hori guztia *zenari* eta osasunari eskainitako astebeteko jardunaldien barruan egiten dute. Jaiegun nagusia Budaren argitzapena da, abenduaren 8an.

Bahá'í fedea

Bahá'í erlijioa Pertsian sortu zen XIX. mendearen amaieran. Erlijio monoteista da, eta bere jarraitzaileek Mirza Husain Ali Nuri profeta eta sortzailearen irakaskuntzak hartzen dituzte oinarri. Profetak Bahá'u'lláh izena hartu zuen geroago (Jainkoaren distira). Azken hori Bab profetaren jarraitzaile izan zen; 1844an Jainkoaren gizakundea hemeretzi urteren buruan agertuko zela iragarri zuen profetaren jarraitzaile, hain zuzen. Bahaismoaren arabera, Jainkoaren Mezulariek ekarritako erlijio handietako bakoitzak etapa bat markatzen du zibilizazioaren garapen espiritualean, eta Bahá'u'lláh da mezulari horietan azkena. Bahá'u'lláhren zeregina gizateria osoa Jainkoaren inguruan eta Jainkoaren bitartez biltzea da. Bahá'iek gizateriaren batasuna defendatzen dute, aniztasunaren bitartez.

Bahá'í fedearen ibilbidea 70eko hamarkadan hasi zen Euskadin, erlijio hori praktikatzeko zuten Zaragozako bi familia iritsi zirenean. Familia horiek Algortan bizi ziren lehendabizi eta gero Bilbora joan ziren. Familiok pixkanaka bahá'í fedearen printzipioetan interesa zuen jendea topatu zuten, eta Euskadiko lehendabiziko komunitatea sortu zuten. Bi familia horiek ez ziren Euskadira kasualitatez iritsi, bahá'í komunitateak beti bultzatu izan baitu besteei zerbitzua emateko ideia; ondorioz, batzuetan, beharrezkoa den tokietara joateko deialdia egiten dute. Eta halaxe gertatu zen kasu honetan. Gipuzkoan, ordea, prozesua bestelakoa izan zen. Komunitatearen ibilbidea 1972an hasi zen, bahá'í fedeko Txileko bi artistaren bisitaren ondorioz. Bi artistak hainbat pertsonarekin jarri ziren harremanetan eta, horien artean, bahá'í erlijioarekin interesa zuen Donostiako gazte-talde batek sortu zuen Gipuzkoako lehenengo komunitatea. Ondoren, 80ko hamarkadaren hasieran, Gasteizko lehenengo bahá'í komunitatea sortu zen, Irango errefuxiatu familia baten inguruan.

Gaur egun bahá'í fedeak 200 jarraitzaile inguru ditu Euskadin. Jakin badakite komunitatea ez dela oso handia, baina fededunen funtzionamenduaren eta garapenaren barne-hazkundea positibotzat jotzen dute. Hainbat maila sozio-ekonomikotako pertsonak daude, eta generoen arteko banaketa orekatua da. Komunitateko pertsonen jatorriari dagokionez, Euskadin jaiotakoez gain, beste herrialde batzuetakoak ere badaude, migrazio-prozesuen ondorioz hona etorritakoak.

Euskadiko bahá'í komunitatea ez dago erregistratuta; salbuespena elkarte zibil gisa izena emandako bahá'í emakume-taldea da. Emakume horien ustez, erregistroan izena emanda errazago izango zaie besteek aintzat hartzea, espazio publikoetan parte hartzea eta gizartearekin elkarreragitea. Emakumeak euskal bahá'í komunitatean duen rola oso garrantzitsua da, lan oso aktiboa egiten baitute.

Euskadiko bahá'í komunitatea etxe partikularretan biltzen da. Bilerak hemeretzi egunean behin egiten dituzte. Hemeretzi hilabeteko eta hemeretzi eguneko egutegi propioa dute, eta, hil bakoitzaren hasieran, komunitatearekin loturiko gaiak jorratzeko biltzen dira, baita errezatzeko eta testu sakratuak aztertzeko ere. Erritual espiritual horretan, batzordeak komunitatea informatzen du eta hark iradokizunak egiten ditu. Lokala duen udalerririk bakarria Irun da, baina han ere ikasketa- eta errezo-talde txikien bilerak komunitateko kideen etxeetan egiten dituzte.

Lurralde historiko bakoitzean hausnarketa-bilerak egiten dituzte hiru hilean behin; bertan, sinestun guztiek parte har dezakete. Bilera horretan ikasketa- eta errezo-taldeen esperientziak koordinatzen eta partekatzen dituzte, baita haurrentzako eskolak eman ere. Bizikidetzajardunaldi horretan jakiak eta musika ere partekatzen dituzte.

Bahá'í egutegian bederatzi egun santu daude, eta orduan egiten dituzte ospakizunak; horien artean, nabarmentzekoa da Naw Rúz festa (egun berria), urtero martxoaren 21ean egiten dutena, hori baita bahá'í urtea hasten duen eguna. Ospakizun horietaz gain, duela hamabost urte EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko bahá'iek Batasun Festa ospatzen dute Ridván jaialdiaren barruan (apirilaren 21etik maiatzaren 2ra arte). Festa horretan hurrek protagonismo berezia dute, eta bahá'í lagunek eta bahá'í ez direnek emanaldi artistikoak, otoitzak, bazkaria eta dantza egiten dituzte.

Funtzionamenduari dagokionez, udalerrri bakoitza nahiko autonomia da. Erabakiak hartzeko bahá'í sistema tokian-tokian, herrialdean eta munduan aukeraturiko kontsulta-organoen inguruan antolatzen da. Hauteskunde guztiek ezaugarri berak dituzte. Horietan, zuzenean edo zeharka, 21 urtetik gorako sinestun guztiek parte hartzen dute, eta ez dago alde aurreko hautagairik. Hauteskunde horiek demokratikoak dira espirituz eta metodoz, eta betebeharrak sakratutzat hartzen dituzte. Urtero, apirilaren 21ean, 21 urtetik gorako bederatzi bahá'í edo gehiago dauden udalerrietan, zuzenean eta gehiago soilarekin komunitateko bederatzi pertsona aukeratu dituzte; batzarreko kide horiek zuzenduko dute komunitatea urte horretan. Boluntarioak izaten dira beti, eta ez dute inolako klerorik.

Gaur egun, Bilbon, Gasteizen, Irunen eta Donostian egiten dira hauteskunde horiek Euskal Autonomia Erkidegoan. Urtean behin, EAEko eta Nafarroako komunitate osoa bildu egiten da Espainiako batzorde nazionalera ordezkari gisa joango diren pertsonak aukeratzeko. Batzorde nazionala maiatz hasieran izaten da. Nazioarteari dagokionez, batzorde nazional guztiak bost urtean behin biltzen dira, munduko komunitatea hurrengo hauteskundetara arte zuzenduko duen kontsulta-organoa aukeratzeko.

Bahá'í komunitateak hezkuntzaren eta artearen arloetan ere jarduten du. «Bertuteen eskolak» izeneko proiektu bat dute. Irakaskuntzaren barruan, bahá'í fedearen historiari lotuago dagoen ikastaro bat eta izaera hezteari eskainitako beste bat dituzte; izan ere, hezkuntza funtsezkotzat jotzen dute norberaren ahalmenak garatzeko. Helburu horrekin bi urtetik hamabost urtera bitarteko haurrentzako taldeak dituzte. Bahá'í jarduera guztiak bezalaxe, eskola horiek bahá'í ez direnentzat ere irekita daude, baldin eta eredu berak partekatzen badituzte.

Mantenu ekonomikoari dagokionez, printzipioetako bat funtsik eta diru-laguntzarik ez jasotzea da; horregatik, borondatezko kuota anonimoekin funtzionatzen dute.

Bestalde, bahá'í komunitateak hasieratik parte hartu zuen Unesco Etxeak antolaturiko erlijio arteko lehen elkarrizketa mahaian. Ondoren, Ellakuria zentroak sustatutako erlijio arteko DIAR taldean eta Talaie⁷⁸ proiektuan parte hartzen ari dira, baita GUNE elkartearen antolaketan, Lizarrako Foro Espiritualean eta Pax Romanak sustaturiko erlijio arteko topaketetan ere. Bistakoa denez, oso positibotzat jotzen dituzte horrelako ekimenak, bai eta haietan parte hartzea ere.

Azkenik, EAEn duten premiarik handiena, bahá'í komunitatearen ustez, eskoletarako, hitzaldietarako edota tankerako beste hedapen-jardueretarako lokalak lortzea da. Bahá'í emakumeen elkarte lanean ari da helburu hori lortzeko eta, erakundeekin hitz egin ondoren, haurrentzako hobeto prestatutako lokala aurkitu dute. Hitzaldiak emateko edo jardueraren bat egiteko gizarte etxeak erabiltzeko zailtasunak dituztela ere jakinarazi dute,

⁷⁸ Talaie 2008ko irailean sorturiko erlijio-arteko taldea da. Ikus behean Euskal Herriko erlijio-arteko elkarrizketa ekimenei eskainitako kapitulua.

ez baitute helburu erlijiosodun bilerak egiteko aukerarik ematen. Ezezko horien atzean aurreiritziak daudela uste dute, eta administrazioei eskatzen diete ezagutza erlijiosoak bultzatzea, aurreiritzi edo erreparatu horiek alde batera utzi ahal izateko.

Zientziologiaren Eliza

Ronald Hubbardek sinesmen- eta irakaskuntza-sistema bat biltzen zuen filosofia laikoaren proposatu zuen 1952. urtean, eta Zientziologia izena jarri zion. Hurrengo urtean, 1953an, orientazioa pixkatxo bat aldatu eta «filosofia erlijioso aplikatu» izena eman zion. Aurretik norbere buruari laguntzeko Dianetika metodologia sortu zen, 1950ean argitaraturiko *Dianetics: The Modern Science of Mental Health* lanaren bitartez. Hubbardek Dianetika Zientziologiaren azpi-ikasketa mailara jaitsi zuen, nahiz eta gaur egun Zientziologiak hura sustatzen eta zabaltzen jarraitzen duen. Dianetika sekularra da izatez, eta norbanakoaren egungo bizitzan eta arazo fisikoetan oinarritzen da; Zientziologiak, ordea, kutsu erlijiosoagoa du, eta, egungo bizitzaz gain, iraganeko bizitzak biltzen dituzten gai espiritualetan oinarritzen da.

Zientziologiaren Eliza izenarekin 1953an eratu zen, AEBetan sorturiko irabazi-asmorik gabeko elkarte baten bitartez. Gaur egun mundu osoan zabalduetako elkarte-sare konplexu baten ardatza da, eta Hubbarden doktrinak bultzatzea da bere lana.

Zientziologiaren sinesmen nagusia zera da, gizakia *thetan* izeneko adimena eta gorputza dituen izaki hilezkorra dela. Sinesmen horren arabera, pertsonak zintzoak dira izatez.

Pertsonen bizitzan garrantzi handia dute hezkuntzak, jakintzek, hobekuntza espiritualak eta etika jarraituak, behin betiko salbazioa lortzeko eta mundu hobea sortzeko garaian praktikoago izateko bide gisa. Horretarako, metodologia espezifiko batzuk proposatzen dituzte. Zientziologiaren metodologia nagusiak «auditazio» du izena, eta «auditore» edo elizako ministro batekiko harreman pertsonalean oinarritzen da. Auditore horren zeregina pertsonen beren buruak ulertzen laguntzea da, baita beren buruko alderdi errektiboak ulertzen ere; esaterako, karga emozionalak edo bizi izandako esperientzia traumatikoak. Aldi berean, Hubbardek «triangelua» deiturikoarekin lan egiten dute. Hubbarden esanetan, triangelu horrek «arrakastaz bizitzeko» egoerara eramango gaituzten hiru oinarritzko osagaiak biltzen ditu; hala nola, kidetasuna, errealitatea edo akordioa, eta komunikazioa. Osagai horiek ulermenarekin parekatzen ditu. Azkenik, Zientziologiaren Elizak dioenaren arabera, bere amaierako helburua gerrarik eta krimenik gabeko mundua da.

Lehenengo zientziologia taldeak 1980 inguruan iritsi ziren Espainiako Estatura, eta hasieran Madrilen ezarri ziren. Euskadira 1982. urtean iritsi ziren aurrenekoz, Barakaldoko parrokiaren antolaturiko konferentzia baten bitartez. Esperientzia horren ondoren interesdun talde bat sortu zen eta, geroago, zientziologiaren zentro bat ireki zuten Bilbon. Lehen une horretan erlijioa ez zen Zientziologia izenez ezagutzen, Dianetika izenez baizik. Zentro horren ondoren beste bat ireki zuten Negurin (Getxo), eta geroago Gasteiza eraman zuten. Bilboko lehen lokala 1997an itxi zuten, eta gaur egungoa 2008ko abenduan ireki zuten. Une honetan EAEn zientziologiak bi egoitza ditu, bat Gasteizen eta bestea Bilbon.

Estatuko zientziologia zentro guztiak harremanetan daude bata bestearekin. Elkarri laguntzen diote zereginetan. Madrilgoa da «ama eliza», baina ez daude federatuta. Gauza bera gertatzen da nazioartean ere, baina guztiak daude harremanetan eta erakunde bereko kide dira.

Euskadin zientziologiak 1.500 fededun inguru ditu, eta horietatik milak parte hartzen du modu aktiboan, gutxi gorabehera. Euskadin jaiotako pertsonak ez ezik, etorkinak ere badaude. Ez dute profil jakin bat, gizarte-kapa guztietakoak dira oro har. Erantzunak bilatzeko prozesuan buru-belarri aritu ohi dira, eta hori izan daiteke maila kultural jasoago izatearen arrazoia. Nolanahi ere, hainbat gizarte-kapatako jendea da. Ordezkarrien arabera, bizitzan zerbaiten bila aritzea da kontua. Horrexegatik izan liteke, agian, adin-tartea 18tik 40ra bitartekoa. Generoari dagokionez, nahiko orekatuta daude. Esaterako, Gasteizko egoitzako zuzendaria emakumea da, eta, bertan, emakumeak dira gehiengoa.

Ronald Hubbardek, zientziologiaren sortzaileak, administrazio-sistema oso garrantzitsua sortu zuen, hainbat taldetatik bildutako guztia oinarri hartuta. Informazio hori guztia antolatu zuen, eta zenbait enpresa modernotan aplikatzera ere iritsi zen. Nabarmenezkoa da, batez ere, talde gisa eraginkor izateko modua, antolatuta lan egitekoa. Taldeek publizitaterako arduradun bat dute, beste bat harreman publikoetarako, erregistroaz arduratzen den bat eta zerbitzuak entregatzeko beste bat. Gune handietan, arduradun bat baino gehiago egon daiteke. Antolatzeko modua enpresa batenaren antzekoa da. Talde guztiek, hau da, planetako zientziologiaren eliza guztiek, antolamendu-sistema bera dute. Organigramak bederatzi lan-dibisio biltzen ditu. Dibisio bakoitzak hiru sail ditu, eta sail bakoitzak zeregin bat edo lan bat. Erabakiak tokian-tokian hartzen dituzte, beren arloak zer premia dituen aztertu ostean.

Mantenu ekonomikoari dagokionez, zientziologiaren taldeak autofinantzatu egiten dira eta ez dute inolako diru-laguntzarik jasotzen. Ematen dituzten zerbitzuetatik lortzen dute dirua; esaterako, ikastaroetatik. Parte-hartzaileek finantzatzen dute komunitatea, jasotzen duten zerbitzua ordainduta.

Erlijosoen antzik handiena ministroek dute. Zerbitzurako prestaturiko pertsonak dira. Pertsona horiek hiletez, ezkontzez, bataioez eta igandetako zerbitzua emateaz arduratzen dira. Zerbitzua bilera bat izan ohi da eta, bilera horretan, pertsonen integritateari, ezkontideekin eta lagunekin harremanak hobetzeari eta abarri buruzko Ronald Hubbarden idatziak irakurri ohi dituzte. Idatzi inspiratzaileak izaten dira eta, horiekin batera, taldeko ariketak egiten dituzte, hobetzeko dinamika gisa. Jaiegun orokor bat dute mundu osoan: martxoaren 13a, Ronald Hubbarden urtebetetzea. Ospakizunean sortzailea eta harengandik jasotako laguntza guztia gogoratzen dituzte. Floridan egiten da, Tanpa inguruan, eta han ematen dira zerbitzu gorenak. Munduko beste lekuetan, zientziologia zentroek aurrez grabatutako emanaldia jarraitzen dute.

Zientziologo taldeak elkarte zibil gisa daude erregistratuta sortu zirenetik. Dena den, talde erlijioso gisa funtzionatzen dute, Espainiako zientziologia 2007ra arte erlijio gisa ofizialki onartu ez bazuten ere.

Zientziologiaren gizarte-jarduerak lau arlotara daude zuzenduta: hezkuntza, moralitatea, kriminalitatea (kartzeletan eta kartzeletatik kanpo) eta drogazaletasuna. Azken arlo horretarako, prebentzio-kanpainak egiten dituzte eta errehabilitazio zentroak dituzte. Euskal kartzeletan dauden pertsonekin egiten duten lanari dagokionez, zientziologoek diote Estatuko arauen konplexutasunak oztopoak sortzen dizkie.

Gizarte-harremanetan, Nueva Acropolis eta tankerako taldeekin izan dituzte harremanak Bilbon; guztiek ere prestakuntzaren eta ezagutzaren alde egiten dute,

antzinako greziarren idazki zaharrak baliatuz. Gizarteak erantzun positiboa ematen dietela diote.

Bilboko elizaren ordezkariak dioenez, errespetua dio gizarteak, zientziologiaren ordezkari den aldetik. Dena dela, pertzepzioak okerrera egiten du Gasteizko zentroaren hitzak entzutean; han, gizarteak ez dituela ondo onartzen uste dute. Hedabideek irudi negatiboa eskaintzen dutela diote, hutsaldu egiten dituztela eta gaizki esaka ibiltzen direla.

Erljio horretako taldeek nolabaiteko publizitatea izan dute hedabideetan, eta, beren esanetan, komunikabideei esker gehiago ezagutzen dituzte. Publizitate-iragarkiak erabiltzeko interesa eta asmoa dute, ÆEBetan egiten duten bezalaxe; hala, zerbitzu publikoarekin edo giza eskubideekin loturiko mezuak zabalduko dituzte. Dena dela, oraingoz garestiegia iruditzen zaie bide hori. Harremanak dituzte zenbait talde erlijiosorekin, batez ere Estatuan, eta irekita daude beste batzuk ezagutzeko eta haiekin harremanak izateko. Gaur-gaurkoz, kultura orokorrarekin loturiko foro bat sortu nahi dute, eta, bertan, talde erlijiosoz gain, musikarekin, literaturarekin, artearekin, eta abarrekin loturiko jendea bildu nahiko lukete.

Oztopo nagusia mendebaldeko gizarteetan jendeak duen kontzientzia maila da. Elizaren ordezkarien esanetan, mundu zibilizatua oso mundu kontserbadorea da, oso materializatua, eta ez dago bizitzaren alderdi espirituala ulertzeko irekita. Hori dela-eta, bere mandatuen artean, bizitza ulertzeko modu hori aldatzeko prest dagoen jendearengana iristea dago. Helburu gisa Bilboko eremu metropolitarrako biztanleen % 1arengana iritsi nahi dute urtebetean, dianetikari buruzko beren liburuak gehiago zabaldu ahal izateko.

Espiritualtasun mugimendu berriak

Jarraian labur-labur aurkeztuko dugu «espiritualtasun berriaren» panorama Euskadin, aurreko kapituluetan azaldutako erlijio gutxi gorabehera klasikoetatik harago. Zehazkiago, Euskadin oraintsu ezarritako «mugimendu berri» nagusietako batzuk deskribatuko ditugu.

Esparru oso zatitua, aldakorra eta gehiegi instituzionalizatu gabea izanik, ezinezkoa da gauzak sakon aztertzea, eta, horregatik, mugimendu eta talde adierazgarrienez hitz egingo dugu, ordena logikorik edo kronologikorik jarraitu gabe.⁷⁹

Yogaren mundu anitza

Ekialdearen eragina behin eta berriz errepikatzen da mugimendu berrietan, beste hainbat elementuz gain. Edonon aurki ditzakegun yoga ikastaroez aparte, talde egonkor asko dago Euskal Herrian banatuta, reiki saioak, esaterako. Yoga-eskola zabalduen artean honako hauek dira nabarmentzekoak: Manuel Paz jaunak (Madhava) zuzentzen duen Sanatana Dharma eskola, egoitza Tolosan eta beste zentro garrantzitsu bat Zestoan dituen; Carlos Fiel jaunak sorturiko eta zuzenduriko Sadhana eskola, Donostian; Nicolás Roerich margolari eta pentsalariak bere emaztearekin batera sorturiko Agni Yoga eskola (Espainian Leonardo

⁷⁹ Batik bat, Koldo Aldaik eskainitako ahozko informazioa izan dut oinarri. Mundu osoko ikuspegi zabalagoa izateko: Barrett, David (2001), *The new believers: a survey of sects, cults and alternative religions*, Cassell, Londres; Bosch, Juan (1994), *Para conocer las sectas. Panorámica de la nueva religiosidad marginal*, Verbo Divino, Lizarra; Mardones; José María (1994), *Para comprender las nuevas formas de la religión*, Verbo Divino, Lizarra; Díez de Velasco, Francisco (2000), *Las nuevas religiones*, Ediciones del Orto, Madril.

Olazabalek gidatzen du, Bediako Bandera de la Paz Nicolás Roerich museoaren zuzendariak); eta Javier Satrustegi buru duen Soaham eskola, Esatik gertu.

Emilio Fiel en mugimendua

Emilio Fiel donostiarra lider espiritual garrantzitsua izan da Euskadiko eta Espainiako milaka gazterentzat 80ko hamarkadaren hasieratik. Fielek sortu eta zuzendu zuen Lizasoko Comunidad del Arco Iris ezaguna (Nafarroa). Komunitatea ekialdeko espiritualtasunaren gune bilakatu zen Euskal Herriko hainbat eta hainbat gazterentzat. Komunitatea desegin egin zen 80ko hamarkadaren amaieran, eta Emilio Fiel tradizio indigena aztekak (tradizio *concherokoak*) eta praktika xamanikoak egiten hasi zen; ondorioz, Batzorde Tribala sustatu zuen (penintsula osoan zabalduzako komunitate-konfederazioa).

Ameriketako mugimendu indigenak

Taldeok izerdi-bainuak (*temascal*) egiteko eta mendietan eta basoetan «irudipenen bilaketa» praktikatzeko biltzen dira. Haien artean bi korronte nagusi bereizten dira. Alde batetik, Santo Daime korrontea, Brasilgo Amazonian sorturikoa XX. mendeko 30eko hamarkadan (munduan 90eko hamarkadan zabaldu zen). Talde horien zeremonietan kantua, dantza, meditazioa eta *daime* edaria («emaidazu» portugesez) uztartzen dituzte. Bestalde, Mexikoko peyotearen korrontea dago. Kaktus horrek meskalina dauka, eta haluzinazioak eragiten ditu. Tolosa, Etxalar eta Lizarra inguruan talde garrantzitsuak daude.

Mugimendu esoterikoak

Horien artean, nabarmentzekoa da Samuel Aun Weor (V́ctor Manuel Ǵmez Rodŕguez) maisu kolonbiarrak sorturiko Mugimendu Kristau Gnostiko Unibertsala. Mugimendu horretatik eratorritako bi korronte aurki ditzakegu Euskadin. Tradizio esoterikoaren barruan, Euskadiko Talde Metafisikoa edo Euskadiko Filosofia eta Metafisika Ikasketen Kultur Elkarte (Asofymet) dira aipatzekoak. Talde horiek sarritan antolatu dituzte Rubén Cedeño poeta, musikari eta abeslari venezuelarraren konferentzia publikoak. Venezuelan Mugimendu Metafisiko Kristaua sortu zuen Conny Méndez en dizipulua da Cedeño, aldi berean.

Alalba elkarte

Ez da mugimendu bat, ez du berezko filosofiarik, ezta inolako egiturarik ere. Hainbat sinesmen eta espiritualtasunetako topaketa-esperientziak sustatu nahi dituzten pertsona gutxi batzuk dira, eta erabateko neutraltasuna da haien oinarria. Horien artean Koldo Aldai kazetari donostiarra da aipatzekoa; 80ko hamarkadaz geroztik, Aldaik erabateko konpromisoa du gure gizartearentzat alternatiba sozial, politiko eta espiritualen bilaketarekin. Sozietate Teosofikoko kide Alice Baileyren (1880-1949) ikasketak ditu oinarri; zehazkiago, Omraam Mikhaél Aivanhov (1900-1986) Anaitasun Zuri Unibertsalaren sortzailearenak. Gaur egun, Argiaren Sare Iberikoa antolatzeko lanean ari da. Portal Dorado atari elektronikoaren arduraduna da eta, besteak beste, aurrerago adieraziko dugun Lizarrako Foro Espirituala antolatzen du.

Amma mugimendua

Mata Amritanandamayi Devi, Āmma (ama) izenez da ezagunagoa; 1953an jaio zen eta Indiako egungo pertsonalitate handietako bat da. Birak egiten ditu mundu osoan *darshan*aren bitartez (besarkada baten bitartez egiten duen harrera pertsonal labur bat), amatasun eta zaintza unibertsala gauzatzeko. Lizarrara etorri zen, eta harrezkero dezentetan izan da Iberiar Penintsulan, betiere Patricio Hernándezek eta José María Goñik Iruñean sorturiko Filocalia elkartearen bitartez.

Nazioarteko Byakko mugimendua

Mugimenduak Byakko Shinko Kai izena ere hartzen du. Japonian sortu zen, Fuji mendiaren magalean. Zeregin nagusi gisa, 50 urte daramatza bakearen aldeko meditazioak antolatzen, erlijio eta kultura aniztasunaz harago. Bere leloa lurrean bakea gailentzea da; erritu nagusia, berriz, banderen zeremonia. Mugimenduak bilera garrantzitsuak egiten ditu Euskal Herriko hainbat udalerritan; esaterako, Iruñean, Donostian, Orion eta Hernanin.

Mugimendu sintergetikoa

Jorge Carvajal zirujau kolonbiar ezagunak urte asko daramatza bionergetikaren barruan bildutako terapiak ikertzen eta garatzen. Sintergetika edo terapia guztien batura proposatzen du. Donostian eta Iruñean jarraitzaile-talde garrantzitsuak ditu.

Kontaktismoa

Estralurtarrekiko, aingeruekiko eta beste izakiekiko kontaktua lantzen du mugimendu honek. Bere lider handietako bat, Lice Moreno, Nafarroan bizi izan zen denbora batez eta bere mugimenduak garrantzia izan zuen Euskal Herrian 80ko hamarkadan, baina ez du jarraipenik izan.

Brahma Kumaris

Mugimendua Indian sortu zen XX. mendeko 30eko hamarkadan; meditazioa bultzatzen du eta mundu hobearen eraikitze lan egitea proposatzen. Aktiboki parte hartzen du erlijio arteko ekitaldi guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoan ere aurki ditzakegu, batez ere Bilbon.

Amalurra

Irene Goikoleak Amalurra elkarte sortu zuen 90eko hamarkadan, gerora Amalurra hotela bilakatu zuten zentro batean, Artzentalesen. Proiektu utopiko horren oinarria bizitza komunitarioa zen. Taldea hainbat gatazka judizialekin sartuta ibili da, eta manipulazio eta deuseztatze psikologikoko salaketak izan ditu.

Lanza del Vasto jaunaren Arka

Arka komunitateen sortzailea Lanza de Vasto (1901-1986) pentsalari, idazle eta bakezalea izan zen; sakontasun eta aberastasun handiko maisu espiritual, espiritu zinez ekumeniko, indarkeriarik ezaren apostolu eta Gandhiren dizipulu kristau izan zen. Mugimenduaren eta komunitatearen bizitzaren zutabe nagusia erlijio arteko espiritualtasuna (asteko egun bakoitza hainbat erlijio tradizioetako praktikei eskaintzen diete), nekazaritza-ekoizpen biologikoa eta indarkeriarik eza aktiboki praktikatzeko dira. Miguel Ángel Mediavilla bilbotarrak, Lanza de Vastoren jarraitzaileak, komunitate bat ireki zuen Ape-Martzaan 1979an, eta, handik bi urtera, Argiñaritzera eraman zuen. Hantxe desegin zen komunitatea, etorkizun handia izango zuela zirudien arren. Euskal Herrian eragin bizia izan zuen, asko zabaldu edo iraun ez zuen arren. Europan zenbait komunitate ditu oraindik, batez ere Frantzian.

Euskal paganismoa

Terminoak ez da oso egokia, esanahi negatiboa duen aldetik («pagano» hitza kristaua, judutarra edo musulmana ez dena izendatzeko erabili izan da)⁸⁰; dena den, «neopaganismo» hitza leku batean kristautasunak indarkeriaz bertan zegoen erlijioa ordeztu edo ezabatu aurretik leku horretako jatorrizko kultua aldarrikatzeko erabili ohi da. Badago, bestalde, «euskal paganismoa» birbiztu nahi duen mugimendu bat. Horixe da 2006an EAEn eta 2007an Nafarroan sorturiko Sorginkoba kultu eta kultur elkartearen helburua. Elkarrekin Lurrari oso loturiko erlijioetasuna aldarrikatzen du, eta Ama Lurraren haragitzea den Mari jainkosa gorenaren, lamien eta arbasoen kultua berreskuratzen saiatzen da. Kutsu matriarkal handia du. Taldea Wicca tradizioetik hurbil kokatzen da (neopaganismo zelta), baina ez da harekin identifikatzen. Talde gisa egiten duten jarduerak nagusia Sorgin Martxa da. Anboton sortu zen, baina Oiartzunen du egoitza.

Erreferentziok Euskal Herrian aurki ditzakegun «mugimendu espiritual berrien» aniztasunaren lagin gisa nahikoa izango direlakoan gaude. Bati baino gehiagori etorriko zitzaion burura sekta hitza, mugimendu horietako batez edo batzuek irakurtzean. Nolanahi ere, izendapen horrek tranpa ugari ditu ezkutuan. Gaur egun kutsu negatiboa besterik ez du, eta, pentsatzekoa den moduan, inork ez du bere buruaz hitz egiteko erabiltzen, besteez hitz egiteko baizik. Inork ez du gehiengo mugimenduez hitz egiterakoan erabiltzen, gutxiengoz hitz egiterakoan baizik. Hala, mormoiak sektatzat hartzen ditugu batzuetan hemen, ez luke, ordea, zentzurik edukiko AEBetako Utah estatuan, gehiengoa baitira bertan. Erlijioei buruzko liburu askotan, sekten artean aurkituko ditugu mugimendu edota talde bat baino gehiago; beren gaitz bakarra minoritario izatea da, eliza maioritarioen ikuspegitik, betiere: baptistak, metodistak, kuakeroak, mendekostearrak, salbazio-armada, teosofismoa, bahaismoa... Gutxiengoa edo disidentea izatea, noski, ez da nahikoa talde bat sektatzat jotzeko. Disidentziak, sarritan, berebiziko emaitzak eman ditu erlijioetan.

Argi dago adi egon behar dugula edozer mekanismo sektarioen aurrean, bai besteengan, bai guran: hermetismoa, proselitismoa (metodo maltzurak kide berriak erakartzeko), liderrarekiko mendetasun handiegia, askatasuna ukatzea, nortasuna manipulatzeko, xantaia, legez kanpoko jarduerak (zerga-iruzurra, prostituzio esplotatzailea, adin txikikoak erabiltzea, terrorismoa, suizidio kolektiboak...). Baina sekta hitza horrelako delituzko ekintzak modu sistematikoan erabiltzen eta bultzatzen dituzten mugimenduekin

⁸⁰ *Paganus* hitzak, jatorriz, landako biztanle esan nahi du. Erromatar Inperioko hiriak nahiko goiz kristautu baziren ere, landako gune askok pagano izaten jarraitu zuten.

bakarrik erabiliko dugu. Gainontzean, erlijio handiak edo gehiengoen elizak ez daude sektarismoaren arriskuetatik mugimendu marjinalak baino askeago.

Edonola ere, auzitegiek izango dute azken hitza, eta ez da nahikoa izango kide batek delitu bat egitea mugimendu osoa kondenatzeko. Delitu ez den edo besteren askatasunaren aurka ez doazen alderdi guztietan sinesmen- eta jarrera-askatasuna izango da nagusi; bai pertsonala, bai taldeena.

V. ERLIJIO ARTEKO ELKARRIZKETA

Joxe Arregi Olaizola

Euskadi erlijio-artekeo elkarrizketarako hainbat proposamen interesgarriren agertoki izan da azken urteetan. Proposamen horietan hainbat tradizio erlijiosotako pertsonen parte hartu dute, bai gutxiengoaren tradizioetakoek, bai gehiengoetakoek. Azpi-kapitulu honen lehenengo zatian azken bi hamarkadetan Euskal Herrian sortu diren erlijio-artekeo elkarrizketarako ekimen nagusien berri emango dugu. Bigarren zatian, bestelako erregistroaz baliatuta, gure gizartean gero eta handiagoa den pluralismoan aurki ditzakegun erlijio eta mugimendu espiritual ezberdinak gidatzeko zenbait irizpide etiko eta hermeneutiko aipatuko ditugu.

Erljio artekeo elkarrizketarako egungo zenbait ekimen

Sinesmenentzat eta erakunde erlijiosoentzat ez dago elkarrizketa etengabea baino gauza osasungarri eta eraldatzaileagorik. Eta sekten deriba errazen aurka eraginkorrena besteekiko harremana, besteei adi entzutea, errespetuzko kritika eta autokritika apala da. Azken hamarkadan, erlijio eta mugimendu espiritual ezberdinen artean topaketa-bideak irekitzeko zenbait ahalegin interesgarri egin dituzte Euskal Herrian. Hurrengo orrialdeetan, ildo horretan sortu diren foro eta ekimen garrantzitsuenak aipatuko ditugu, nolabaiteko ordena kronologikoari jarraiki. Ekimen txiki eta hauskorak dira oraindik, eta horixe bera da haiek zaintzeko arrazoietako bat.

Côte Basque erlijio artekeo elkarteak

Hamabost bat pertsonak Côte Basque erlijio artekeo elkarteak eratu zuten Baionan 2000. urtean, Bakearen Aldeko Munduko Konferentziari atxikitako tokiko talde gisa (frantsesez Conférence Mondiale des Religions pour la Paix). Batez ere kristauak (katolikoak eta protestanteak), bahá'íak eta budistak ziren, baina bazeuden taldean hinduismoari loturiko zenbait pertsona, bai eta taoismoari loturiko beste bat ere. Taldeak bazuen beste meritua erantsi bat ere; alegia, Euskal Herri osoan gorpuzturiko lehen erlijio artekeo ekimena izan zela.

Elkarteak, Bakearen Aldeko Munduko Konferentziaren gutuna bere eginda, bakea eta indarkeriarik eza sustatzea zuen helburu, baita erlijioen ezagutza sustatzea eta erlijio artekeo elkarrizketa gauzatzea ere, hasteko eta behin, jatorri espiritual desberdineko pertsonen artean harreman baketsuak ezarrita.

Taldea hilean behin biltzen zen bahá'í komunitatearen etxe batean. Dena dela, bada denboralditxo bat bilerarik edo jarduerarik egin ez dutela. Formalki desegin ez diren arren, nekea, etorkizun falta eta Eliza Katolikoak babes instituzionalik eman ez izana oztopo izan dira taldeak aurrera jarrai dezan.

Bizkaiko Erlijio Arteko Elkarrizketa Mahaia (Unesco Etxea, Bilbo)

Unesco Etxeak 2003. urtearen amaieran Bartzelonan 2004ko udan egin asmo zuten Erlijioen Munduko IV. Legebiltzarra herritarrei aurkezteko jardunaldi bat antolatu zuen. Jardunaldi horretan sortu zen Bizkaiko Erlijio Arteko Elkarrizketa Mahaiaren kimua.

Harrezkero, mahaia talde irekia da, hainbat konfesiotako kristauek, musulmanek, bahá'iek eta beste batzuek osaturikoa. Hilean behin bildu izan dira Unesco Etxearen lokaletan, eta koordinatzaile-lanak munduko erlijioetan aditu den apaiz diozesiar batek egiten ditu (Deustuko Unibertsitateko irakasle ere bada). Duela zenbait hilabetetik hona, mahaiaren koordinazioaz Unesco Etxeko zuzendaritza batzordeko kide bat arduratzen da.

Kultura eta Erlijio Arteko Kongresua (Barandiaran Kristau Elkartea – Pax Romana, Bilbo)

2005eko abenduan, Barandiaran Kristau Elkartek (Pax Romana elkarteko kidea) kultura eta erlijio arteko kongresu garrantzitsu bat antolatu zuen Bilbon, «Bakea kulturen artean, bakea erlijioen artean» lelopean.⁸¹ Kongresua Unesco Etxeak babestu zuen eta Euskadiko hainbat erakunde administratibok, kulturek eta ekonomikok lagundu zuten diruz. Arestian aipaturiko Bizkaiko Erlijio Arteko Elkarrizketa Mahaiak egiteko garrantzitsua izan zuen kongresuaren amaierako adierazpenak prestatzeko lanetan. Bilboko Euskalduna jauregian eginiko kongresu handi honetan 40 herrialdeetako 600 adituk baino gehiagok parte hartu zuten, bai eta munduko hamar erlijiotako eta hogeik konfesio kristau baino gehiagotako pertsonalitate garrantzitsuek ere. Euskalduna jauregiaren zabalgunean Bakearen Zutabea ipini zuten, honako legenda honekin: «Bakea gailen dadila Lurrean». Nabarmentzekoak dira Bilboko Elizbarrutiaren babesa eta parte-hartze aktiboa; bertako apezpiku titularra da buru. Kongresuko txostenak eta jakinarazpenak argitalpen batean bildu zituzten.⁸²

Kongresuaren aurreko egunetarako, Haretxa elkartek Kultura eta Erlijio Arteko Elkarrizketari buruzko Nazioarteko Gazteen I. Mintegia antolatu zuen, eta 2006an eta 2007an ere errepikatu zuten. Kongresuak hainbat helburu zituen. Lehenik eta behin, topaketa, hausnarketa eta baterako lana bultzatzea hainbat herrialdeetako eta tradizio kultural eta erlijiosotako gazteak bakean bizi daitezen. Bigarrenik, aparteko gazte-talde bat beren herrialdeetan elkarrizketarako eta bizikidetzarako eragile izan dadin ahalbidetzea. Eta, hirugarrenik, Euskal Herria kultura eta erlijio arteko nazioarteko prestakuntza eta topaketa ekimenekin lotzea. Ekimen horretan parte hartu zuten, besteak beste, zenbait jesuita euskaldunek, Bilboko bahá'í komunitateak, Baionako judutarren komunitateak eta Euskal Herriko Zentro Soziokultural Islamiarrak (Assabil).

Arantzazuko erlijio arteko topaketak eta saioak

2004 eta 2009 bitartean Arantzazuko Asis Topaguneak (Espiritualtasunaren Etxea) erlijio arteko hainbat topaketa eta saio antolatu zituen apaiz frantziskotar batek zuzenduta.

⁸¹ Hura antolatzeaz HARETXA, Erlijio eta Kultura Arteko Elkarrizketarako Elkartea, arduratu zen (Barandiaran Kristau Elkartek [Pax Romana] eta Unesco Etxeak helburu horretarako sortua).

⁸² Chia, Edmund eta Heisig, James W. (arg.) (2006), *A Longing for Peace. The Challenge of a multicultural, multi religious world*, Haretxa, Bilbo.

Elkarrizketa horietan budistek eta kristauak parte hartu zuten, bahá'í fedeari buruzko sarrera bat egin zuten, eta hainbat korrontetako yoga tailerrak antolatu zituzten, baita sufi mistika-tailerrak eta *zen* eta *se shin* praktiketarako hastapenak eman ere. Horretaz gain, hainbat erlijiotako emakume mistikoek parte hartu zuten eta erretiro budistak egin zituzten. Helburua hastapen teorikoa eta bizipenak uztartzea zen, eta erlijio-artekotasun kutsuko espiritualtasun-eskola praktikoa izan nahi zuen. Hainbat baldintza direla-eta, ekimen hori bertan behera utzi behar izan dute, etorkizun handia izango zuela bazirudien ere.

Nolanahi ere, Arantzazun bertan 2006an sorturiko Baketik fundazioaren Bakearen Zentroak kulturen eta erlijioen arteko elkarrizketa sustatzea du helburuetako bat; ikuspegi formalago batetik edo formatu ofizialagoarekin, agian. Azken horrek erlijio-arteko topaketa bat antolatu zuen 2009an. Bertan, Madrilgo meskitako iman batek, Madrilgo rabbi nagusiak, Bilboko apezpikutzako idazkari nagusiak, Espainiako Gotzain Eliza Erreformatuko (anglikanoa) apezpikuak, eta Espainiako eta Portugaleko Artzapezpikutzak Ortodoxoko artximandrita kantzelariak parte hartu zuten.

Lizarrako Foro Espirituala

Lizarrako Foro Espirituala garrantzi handieneko erlijio-arteko ekimena da eta, zalantzarik gabe, Euskal Herriko gure garaiko historia espiritualaren gertakaririk esanguratsuenetako bat. Lau urtez (2006-2009), ekain bukaeran eta Ega ibaiaren ertzean, «bideak elkartzen diren lekuan» (Lizarra Donejakue bidearen bidegurutze nagusietako bat izan da Erdi Arotik), jatorri geografiko, espiritual edo erlijioso anitzenetako milaka pertsona deitu ditu foro honek. Helburua espirituaren bihozkada sentitzea eta zabaltzea da, sinismenetatik eta pertenezietatik harago.

Koldo Aldai izan da ekimen horretako *alma mater*, eta halaxe da egun ere, Alalba elkartearen nukleoarekin batera. Pertsona horiek urteetan erakutsi duten espiritua, ahalegin interesgabea eta eskuzabaltasuna goraiatzeko modukoak dira. Kontzientzia Berriaren esparruan mugitu da taldea 1991. urtetik hona, eta hainbat gizarte-ekimen bultzatu eta jarraitu dituzte; esaterako, Donostiako bakearen aldeko meditazioak. Bartzelonan 2004an eginiko Erlijioen Munduko IV. Legebiltzarrean parte hartzea erabakigarria izan zen haientzat. Sinesbideak sinesbide, elkartasun bila zebiltzan hainbat erlijio-tradiziotako taldeekin eta pertsonekin elkartzeak grina handia piztu zuen haiengan, eta desio horren gainean hasi ziren Lizarrako Foro Espirituala eraikitzen.

Aste oso bat iraun zuen foroak, 2006ko ekainaren 23tik 29ra. Bertan bildu ziren, besteak beste, hainbat konfesiotako kristauak, musulmanak, judutarrak, sufiak, hinduak, Brahma Kumaris, Sai Babaren eta Anandamargaren jarraitzaileak, hainbat korrontetako budistak, bahá'í komunitatea, Kontzientzia Berriko mugimenduak, Ama Lurrarekiko maitasunaren kontzientzia xamanikoa, terapia alternatiboak, maiak, huicholak edo ortzadarraren gerrariak.

Lehenengo foro horren amaierako manifestuak ederki islatzen du ekitaldia zer espirituk bultzatu zuen:

Hemen bakean bizi izan gara erlijio-tradiziorik eta mugimendu espiritualik anitzenak. Elkarrekin hitz egin dugu, elkarri galde egin diogu, bai eta elkarri entzun ere. Elkar errespetatu dugu. Gure lurraren mina eta grina geure egin ditugu, zauritutako lur guztiena, mehatxatutako Lur oreana. Elkarrekin sartu gara isiltasunean, eta elkarrekin

hartu dugu gainditzen gaituen eta gudan bizi den Misterioa. Elkarrekin adierazi nahi ditugu gure ondorioak.

Batez ere, barkamena eskatu nahi dugu sakratu den horren izenean egindako min guztiagatik, bai iraganean, bai gaur egun egindakoagatik. Jakin badakigu sektarismotik, fundamentalismotik, intolerantziatik eta indarkeria modu orotatik askatu behar dugula. Badakigu, era berean, desberdintasuna modu positiboan onartzea dela oraindik ere gure erronka handia. Badakigu malgutasuna, sormena, tolerantzia, apaltasuna, baldintzarik gabe elkar errespetatzea eta benetako elkarrekikotasuna egiazko espiritualtasunaren zantzuak direla. Eta espiritualtasun horrexetara joan nahi dugu.

Konbentzituta gaude gure egunotan espiritualtasun sakona behar dugula lehenbailehen, gizateria eta planeta babesteko. Izaki guztiak mirespenez eta esker onez begiratzen erakutsiko digun espiritualtasuna. Adore eman eta askatu egingo gaituen espiritualtasuna. Gaiztakerian baino zintzotasunean sinetsaraziko digun espiritualtasuna. Izaki guztien duintasunarekin konprometituriko espiritualtasuna. Munduan nagusi den desordenaren aurrean amore ez ematera animatuko gaituen espiritualtasuna. Esplotazio, ekoizpen eta kontsumo zurrumbilo kezkarri honetarako alternatibak asmatzen eta sortzen lagunduko digun espiritualtasuna. Norberaren eta besteen zaintzan oinarrituriko etika inspiraturiko digun espiritualtasuna.

Geure gain hartzen ditugu gizarte laiko, akonfesional, pluralista eta demokratikoaren esparrua eta eskakizunak. Eta ulertzen dugu, era berean, erlijioa eta espiritualtasuna gizakiaren eta kulturaren funtsezko dimentsio direla. Horrexegatik uste dugu ibilbide espiritual ezberdinek eremu egokia izan behar dutela esparru publikoetan; adibidez, hezkuntzan.

Kategorikoki adierazten dugu inork ez duela egiaren eta ongiaren monopolioa, guztiok dugula zerbait eskaintzeko eta jasotzeko, tradizio eta mugimendu espiritual guztiek; filosofia eta mundu-ikuskerak agnostiko guztiek elkarrekin hitz egin eta elkar aberastu behar dutela. Baieztatzen dugu kultura guztiak bidegurutze direla eta gurutzatzen jarraitu behar dutela bizitzeko, eta bidegabekeriatik sorturiko desberdintasunak bakarrik direla kaltegarriak. Eskuzabaltasun eta justizia ahalegin berezia eskatzen dugu gure herrialdera beren min historiarekin eta eskubideak makurrarazita iristen diren immigranteak gure artean onartzeko; beren hizkerak, kulturak eta erlijio-tradizioak onartzeko. Guztiontzako etorkizuna eraiki behar dugu, guztiona den herrialde batean, guztiona den mundu bizigarri batean.

Lizarratik itxaropenez beteta agurtu nahi ditugu azkenean gure lur honetan kimatu diren bakearen haziak. Bilaka daitezela haziok benetako bake, bidezko bake iraunkor, harik eta zuhaitz hostotsu eta seguru egin arte! Hildako guztiek aurki dezatela erabateko atsedenak! Senda daitezela zauri guztiak, eta senda daitezela lehendabizi zauri handienak dituztenak! Bakea bide askotatik irits dakigula! Eraman dezagun bakea bide guztietatik!

Bideak elkartzen diren leku honetan, Erlijioen Arteko Foro Espiritual hau etorkizunaren hasiera izan dadila adierazi nahi dugu, ibiltzen jarrai dezagun, bide beretik ez bada ere, helmuga bererantz.

Erlijioen Munduko Legebiltzarraren ereduari jarraiki, foroak funtsezko hiru arlo izaten ditu urtero: aurkezpenak, testigantzak eta elkarrizketak. Gainera, ikasketa-tailer eta gune artistiko ugari ere izaten ditu. Tenplu unibertsala batasun-sinbolo da; sinesmenak

sinesmen, isilean eta otoitzean pertsona guztiak elkartzeko toki. Egunero aire librean eginiko ospakizunarekin hasten dira, erdian Bakearen Zutabea ipinita duen zirkulu sakratuaren inguruan, eta egunero erlijio-tradizio edo mugimendu espiritual desberdin batek prestatutako eta zuzendutako eskariarekin. Beste erlijio-arteak ekitaldi batzuk ez bezala, Lizarrako Foroak elkarrizketari baino bizipenari ematen dio garrantzi handiagoa.

Orain arte eginiko lau foroak arrakasta eztaba daezina izan da, baina, hura urtero prestatzeko esfortzua handiegia zenez, taldeak erritmoa jaitea erabaki du. Hemendik aurrera, bi urtean behin antolatuko dute eta hurrengo 2011rako dago aurreikusita.

Bilboko Ellakuria zentroa

Bilboko Ignacio Ellakuria Gizarte Gunea Ignacio Ellakuria Gizarte Fundazioaren topagunea da. Jesusen Lagundiko eta Andre Mariaren Lagunarteko laikoek zein erlijiosoek osatzen dute fundazioa. Gizarte Gunearen lana immigrantei zuzenduta dago batik bat, eta helburua kultura arteko gizartearen eraikitzea da. Besteak beste, gure gizartearen erlijio-aniztasunari balioa emango dioten eta erlijio arteko elkarrizketa sustatuko duten balioak sustatzea, espazioak eskaintzea eta esperientziak sortzea ditu helburuak.

Azken alderdi hori garatzen saiatzen ari da DIAR taldea (Diálogo Interreligioso, Aceptación y Respeto), erlijio arteko munduan esperientzia zabala eta ibilbide luzea duen jesuita euskaldun batek koordinatuta. Hainbat herrialdeetako eta tradizio erlijiosotako pertsona-talde bat aldizka biltzen da erlijio desberdinen mundua hobeto ezagutzeko, ikuspegiak partekatzeko eta elkarrekin ekintzak prestatzeko. Ellakuria zentroa eta, bere barruan, DIAR taldea nabarmendu egiten dira dinamismo sozial, kultural eta erlijio-arteak, bai eta beste erakunde eta talde sozial eta erlijioso batzuekin lankidetzan aritzeko nahiagatik ere.

Zumaia Gune elkarte

«*GUNE, Topaketarako, elkarrizketarako eta bizitza esperientziarako Gunea*», 2008an sortu zen Zumaian. Elkartearen sortzeko prozesu luzea Joseba Ossaren nekazintasunari eta gogoari esker mamitu zen. Hala, Ossak jakin zuenean bere herriko Karmeldar Ahizpek lauhun urteren ondoren Hondarribiko komunitatearekin bat egin eta Zumaia erdi-erdian dagoen komentua hutsik utzi behar zutela, eraikinaren mendeetako historia luzatzeko eta eguneratzeko ideiarekin bueltak ematen hasi zen, eta halaxe bururatu zitzaion komentua espiritualtasunaren lanketa laiko, akonfesional eta erlijio-arteak jorratzeko gune bilakatzea. Pixkanaka arlo oso ezberdinetako interesa zuten pertsonen sare zabala eraikitzen joan zen, harik eta GUNE elkartearen sortu zuten arte.

Gure gizarte ekonomikoki eta teknologikoki garatuak, eta gure bizitza- eta aldaketa-erritmo azkarrak bultzada espiritual sakona behar dutela egiaztatu ondoren abiarazi zuten GUNE elkartearen bultzada espiritualak, hain justu, barneko bakea berreskuratzeko, horrenbeste zor diogun Lurrarekin harmonian bizitzeko, eta planeta osoarentzat bidezkoak izango diren alternatiba ekonomiko eta politikoak sustatzeko. Hori guztia lortzeko premia-premia da erlijio-tradizio, kultura eta sentzibiltate espiritual guztien arteko elkarrizketa. Horiexek dira GUNEren helburu handiak. Erlijio eta espiritualtasun guztiak gizarte laiko eta pluralean elkarrekin bizi daitezten eta elkarrekin hitz egin dezaten interesa duten pertsonalitate eta erakunde garrantzitsu asko dago atzean; esaterako, Francesc

Torradeflot (Kataluniako Erlijio Arteko Elkarrizketarako Unesco Elkartearen [AUDIR] zuzendaria), Francesc Rovira (Bartzelonako Centre Interreligiós guneko zuzendaria), CETR (Centre d'Estudis de les Tradicions Religioses) eta Salvador Guasch (Monvir, Monasterio Virtual ekimenaren bultzatzailea), besteak beste. Bestalde, duela oso gutxi, URiko (United Religions Initiative) kide izateko beharrezko urratsak eman ditu GUNEk. Mugimendu horrek, erlijio-arteko tokiko taldeen bitartez, hainbat sinesmenen eta usteren arteko lankidetzaren sarea sortzea du helburu, jatorri erlijiosoko indarkeria amaitzeko eta bakearen kultura sortzeko.

Arestian esan bezala, proiektua Zumaiaiko karmeldarren monasterioaren inguruan sortu zen. Gaur egun monasterioa udalerrinari da, baina harekin duen lotura espaziala zintzilik dago, baita udal gobernuak komentuari eta bere baratzari eman nahi dion erabilera ere. GUNEren ametsa leku berean hainbat proiektu uztartzea litzateke; adibidez, Done Jakue bideko erromes gazteentzako ostatu bat (GUNEk kudeaturikoa 2008an eta 2009an, udagarian), helburu hezitzaileak dituen udal-ekobaratze bat, isiltasunerako, hausnarketarako eta espiritualtasunaren lanketa pluralerako gune bat, munduko erlijioak interpretatzeko zentro bat eta GUNErenak ez diren beste balizko proiektu batzuk.

GUNEk mahai-inguru ziklo bat antolatu zuen 2008/2009 ikasturtean, Comte Sponville filosofoaren espiritualtasun laikoaren, heriotzaren, entzutearen eta tankerako gaien inguruan. 2009/2010 ikasturtean Gune Tertuliak izeneko ziklo interesgarria antolatu du euskal idazleen partaidetzarekin, honako galdera honen inguruan: «Zertan sinesten duzu?».

TALAIPE (Euskal Herriko erlijio arteko mahaien sarea)

2008ko irailean, GUNEk deituriko pertsona-talde batek (batzuek beren izenean, beste batzuek hainbat erakunde ordezkatuz), TALAIPE plataforma eratu zuen Zumaian, Euskal Herriko erlijio eta sinesmen arteko elkarrizketa foroak eta mahaiak koordinatzeko helburuarekin. Plataforma hori Kataluniako erlijio-arteko foroaren sarearen ereduari jarraiki eta Kataluniako Erlijio Arteko Elkarrizketarako Unescoren Elkartearen (AUDIR) aholkularitzarekin sortu zuten. Ekimenean, Unesco Etxea (Bilbo), Ellakuria zentroa (Bilbo), Baketik (Arantzazu), Asis Topagunea (Arantzazu), Baionako Erlijio Arteko Elkartea, Lizarrako Foroa eta Bahá'í Komunitatea (Zumaia) zeuden ordezkatuta. Oraingoz, GUNE elkartea da idazkaria, eta, bere bitartez, URik ere parte hartzen du.

Goiz da oraindik ekimen horien guztien balorazioa egiteko; edonola ere, zenbait ohar egin daitezke. Lehenik, deigarria da azken urteetan euskal geografia osoan sortu diren ekimenen ugaritasuna eta aniztasuna. Bestalde, ekimen horiek laiko eta akonfesional izateko joera gero eta handiagoa dute. Espiritualtasuna erakunde erlijioso tradizioetatik askatzen ari da argi eta garbi. Espiritualtasuna eta, bereziki, erlijio-tradizio ezberdinen arteko elkarrizketa gero eta gehiago ari dira gai sozial bilakatzen; alderdi publiko eta politikoa argia dute, baina ez konfesionala. Ildo horretatik, erakunde publikoek horrelako ekimenen alde duten konpromisoa funtsezko bermea izan daiteke, eta, horrez gain, gizarteren ongizaterako, justiziarako eta bizikidetzarako ezinbesteko zerbitzua ere bai. Azkenik, onartu beharra dago adierazitako ekimenak ahulak direla, eta pertsona kopuru txiki samarraren inplikazio aktiboaren mende daudela. Nolanahi ere den, babestea eta zaintzea merezi dute, egungo eta etorkizuneko euskal gizartearen ongizaterako ezinbesteko baitira.

Erlijio-arteko elkarrizketaren oinarritzko zenbait gako

Raimundo Panikkar filosofoak orain dela zenbait urte zioen bezala, erlijioen arteko elkarrizketa saihestezina, garrantzitsua, premiazkoa, arriskutsua, nahasgarria eta garbigarria da. Saihestezina, halabeharrezkoa delako; garrantzitsua, erlijioaren oinarria konprometitzen duelako; premiazkoa, kolokan dagoelako gizateriaren etorkizuna, baita naturarena ere; arriskutsua, uste guztiak hankaz gora jar ditzakeelako; nahasgarria erlijioaren aldamiok goitik behera kolokan jar ditzakeelako; garbigarria, erlijioari behar ez duen guztia kentzera behartzen gaituelako.⁸³

Hori erlijio guztiei aplika dakieke, baina bereziki monoteismo biblikoari; zehazkiago, kristautasunari eta islamari. Jarraian elkarrizketa horren funtsezko zenbait irizpide adieraziko ditugu.

Erdigunerik gabeko unibertsoa

Erdigune ezagunik gabeko unibertsoan bizi gara. Eguzki-sistema ez da gure galaxiaren erdigunea, eta gure galaxia ere ez da galaxia guztien erdigunea. Kosmosa elkarri lotutako zirkuluek osatzen dute. Bertan, errealitate bakoitza zirkulu baten erdigunean dago kokatuta, eta,aldi berean, beste milioika zirkuluren puntu imajinagarri guztietan ere bai.

Balio al du irudi berri honek unibertso erlijiosoa irudikatzen? Sinestun askok halaxe bizi eta sentitzen dute. Teologo askok paradigma pluralista horren bitartez adierazten dute beren fede erlijiosoa. Hara zer zioen Claude Geffré teologo kristauak: «Gure fede erlijiosoa ez luke besteen gaineko nagusitasun sentimendurik sortu behar, guk sinesten dugun egia gainerako egien baztertzailerik eta barne-hartzailerik ez dela ulertzen dugun aldetik. Nirea egia erlatiboa da, bere jatorriaren berezitasun historikoa dela-eta».⁸⁴ Horrek ez gaitu erlatibismora kondenatzen; aitzitik, elkarloturen aukerak irekitzen dizkigu.

Gizartean beste sinesbide batzuk egotea erronka berria eta erabakigarria da erlijioentzat. Agerian jartzen du, adibidez, topagune lanak egingo dituen espazio publiko laiko baten beharra, baina baita erlijioak paradigma pluralista baten barruan bizitzeko eta ulertzeko premia ere. Inork ez instalatzeko premia. Inork bere burua lurraren edo egia jabetzat ez hartzeko premia.

Arthur Peacocke apaiz anglikano eta biokimikari-fisikariak ikerketa zientifikoetan eta zientziaren eta erlijioaren arteko harremana aztertzen eman zuen bizitza osoa. Bere azken liburuan testamentu intelektual eta espiritual moduko bat idatzi zuen, eta hau zioen: «Erljio guztietako sinestunei eta erlijiorik ez dutenei gizateriaren bilaketa komun eta kooperatiboan bat egiteko agintzen diet, Jainkoaren Azken Errealitatearen hautemate argi eta barnekoagoa lortzeko bidean; izan ere, errealitate horretan "bizi eta mugitzen

⁸³ Panikkar, Raimundo (1993), *La nueva inocencia*, Verbo Divino, Lizarra, 353-355. or. Cfr. Halaber: Basset, Jean Claude (1999), *El diálogo interreligioso*, Desclée de Brouwer, Bilbo; Knitter, Paul (2002), *Introducing theologies of religions*, Orbis Books, Maryknoll; Küng, Hans (1987), *El cristianismo y las grandes religiones*, Europa, Madril; Melloni, Javier (2003), *El uno en lo múltiple*, Sal Terrae, Santander; Ibid. (2007), *Vislumbres de lo real. Religiones y revelación*, Herder, Bartzelona; Rodríguez Panizo, Pedro (arg.) (2002), *Cristianismo y religiones*, Desclée de Brouwer, Bilbo; Talbi, Mohamed (1999), *Las vías del diálogo en el Islam*, G. Agnelli fundazioa, Torino; Hainbat egile (2006), *Diferencias de religión. El verdadero obstáculo para la paz*, Erasmus Ediciones, Bartzelona; Vigil, José María (2005), *Teología del pluralismo religioso*, El Almendro, Kordoba.

⁸⁴ Geffré, Claude (1999), «Para un cristianismo mundial», *Selecciones de Teología* 151, 207. or.

gara, eta hortxe existitzen gara”. Bakoitzak bere baliabide sinboliko, kontzeptual eta irudimenekoak ditu; hala eta guztiz ere, onartu beharra daukagu guztiok saiatzen garelazken Errealitate Sortzaile beraren sakontasunean ulertzen».⁸⁵

Mendebaldeko modernotasun garatu honetan, informazioaren eta harreman globalen arloan, sinesbideek, kodeek eta erakundeek osatutako erlijio-sistemak erabat erlatibizatu behar ditugu; hala, funtsezkoa, nuklearra dena birbirtuko da, barnean duguna, espiritualtasuna, esperientzia mistikoa, senidetasun kosmikoa eta ekologikoa zaintzeko eta sustatzeko.

Erljioaren arriskurik handiena fundamentalismoa da

XX. mendeko azken hamarkadetak eta XXI. mendeko lehenengo urteek erakutsi dutenez, erlijioaren amaiera iragarri zutenak profeta txarrak izan ziren. Sentimendu erlijiosoak bizirik jarraitzen du, eta, are gehiago, indartzen ari dela dirudi. Baina erlijioaren susperraldia anbigua da, sarritan fundamentalismoarekin batera etorri ohi baita. Ulrich Beck Municheko soziologia irakaslea fenomeno paradoxiko horretaz mintzatu zen «Jainkoa arriskutsua da» izeneko artikuluan⁸⁶; modernotasunaren garapenak ez baitu erlijioaren desagertzea ekarri, fundamentalismo erlijiosoak baizik. Aro obskurantista berri baten mehatxua sekularizazioaren porrotaren beste aldea izango litzateke.

Duela gutxi argitaratutako beste artikulua batean, Jean Daniel kazetariak «inperialismo erlijiosora itzultzea» ere salatu zuen. «Garai batean, erlijio bilakaturiko ideologia marxista eta naziaren aurka borroka egin genuen. Gaur, munduko zenbait lekutan, alderantziz gertatzen da. Ideologia bilakatzen diren erlijioei egin behar diegu aurre: batik bat oraindik ere Irak, Afganistan eta Pakistango zati bat astintzen jarraitzen duen islamismoa; sionismo judutar-amerikarraren modu mesianiko bat; AEBetako ebanjelikoen modu mistikoa, George Bush Irakeko gerra piztera eramanezuen».⁸⁷

Gure gizartearen arrisku handia ez da sekularizazioa; hau da, herritarrek demokratikoki adierazitako borondatearen arabera gizarteak funtzionatzea, eta, ondorioz, erakunde erlijiosoaren edo erlijiosoen tutoretzapetik askatzea. Gure gizartearen arriskua fundamentalismoa da; dela kutsu politikokoa, dela erlijiosokoa. Erljioentzat arrisku handiena ez da gizartearen sekularizazioa (laiko bihurtzea), baizik eta erlijioaren barruan dagoen fundamentalismoa. Erljioek amore ematen badute arrisku obskurantista horren aurrean, ez du esan nahi sekularizazioak porrot egin duenik, erlijioak berak porrot egin duela, baizik. Erljioak huts egiten du fronteak sortzen, mugak eraikitzen eta gerrak sustatzen edo legitimatzen dituenen. Indarkeriak eta fundamentalismoak bat egitean erlijioak erabat egiten du porrot. Izan ere, erlijioaren alderdirik sakon eta egiazkoenak egiten du huts; errespetuaren esperientziak eta bere funtsarekiko begiruneak, hain justu. Antidotarik onena elkarriketa irekia eta errespetuzkoa da.

⁸⁵ Peacocke, Arthur (2008), *Los caminos de la ciencia hacia Dios. El final de nuestra exploración*, Sal Terrae, Santander, 236. or.

⁸⁶ *El País*, 2008-01-12. Cfr. Mardones, José María (zuz.) (1999), *10 palabras clave sobre fundamentalismos*, Verbo Divino, Lizarran.

⁸⁷ Daniel, Jean (2010), «¿Será 2010 el año de Camus?», *El País*, 10-01-11. Rotterdango Erasmus Unibertsitateko soziologia-talde batek 1970-1996 bitartean mendebaldeko hemezortzi estatutan bildutako datuekin eginiko azterlan baten arabera, erlijio aniztasunaren goraldiak eta kristauen gutxitzeak azken horiek asertiboago izatea eragiten du, baita eragin politiko handiagoa aldarrikatzea eta beste erlijioekiko mesfidatiago izatea ere: (http://www.tendencias21.net/TENDENCIAS-DE-LAS-RELIGIONES_r18.htm).

Erljioak zubi izan behar du, ez muga

Adierazitako artikuluan, Ulrich Beck soziologoak honako hau ere idatzi zuen: «Pertsonen artean hierarkiak eta mugak dauden lekuetan, erlijioek zubiak eraiki ditzakete; baina, aldi berean, zuloak ireki ere egiten dituzte lehen ez zeuden lekuan».

Gaiztoak eta zintzoak, sinestunak eta sinesgabeak bereizten laguntzen duen erlijioa, erlijio faltsuen egiazko erlijioa, ez da egiazko erlijio. Erljioak, egiazko izateko, batzuk eta besteak batu beharko lituzke, hemengoak eta «atzerritar» deitzen ditugunak, sinesmen batzuk dituztenak eta bestelakoak dituztenak. «Elkar gorrotatzeko badugu nahikoa erlijio, baina ez elkar maitatzeko» (J. Swift). Intolerantziarako eta elkarren arteko gorrotorako erlijio gutxi behar da. Ostera, erlijioa gogotik behar da errespeturako, elkarrizketarako eta elkar maitatzeko. Zenbat eta erlijio gehiago (egiazkoa), orduan eta tolerantzia, begirune eta elkarrizketa gehiago.

Bakea egiaren ginetik

«Sekularizazioaren ideala faltsua dela aurrez onartuta –ideal horren arabera modernotasunak erlijio gutxiago esan nahi du–, erlijio handien arteko bizikidetzaz zibilizatuari buruzko galdera egitea premiazkoa da: Posible izango ote da batzuekiko maitasunak besteekiko gorrotoa sortzen ez duen erlijio–arteko tolerantzia–eredu bat lortzea? Egia bilatu beharrean bakea bilatzen duen tolerantzia–eredua, hain zuzen».⁸⁸

Erljioek (kristautasuna eta Eliza Katolikoa buru dutela) gehiegitxotan ematen diote egiari garrantzi handiagoa bakeari baino, ziurtasunari bilaketari baino, sinesmen batzuen garbitasunari elkarrekiko errespetuari eta tolerantziari baino. Erljioak zalantza patxadaz eramaten erakutsi beharko liguke, gauza guztietan ziurtasuna bilatu beharrik gabe.

Izan ere, erlijioaren esentzia konfiantza da, ez ziurtasuna edota kredoa. Erljioak eskain dezakeen onena bakea da, ez egia edota ezagutza. Erljioaren helmuga ezberdinak errespetatzea da, ez otzantasuna edota ahobatezkotasuna.

Oso ezaguna eta argigarria da elefante baten aurrean zeuden bost itsuen istorioa. Bakoitzak alderdi bat baino ez du ukitzen, eta berak egindako irudia bakarrik dela egiazkoa iruditzen zaio. Erljioak, batez ere monoteistak, errebelazio bidez ezaguturiko egia absolutu eta mugiezinetara ohituta daude. Askok kostutzen zaie gaur egun edozer haurrentzat begibistakoa den zerbait onartzea; alegia, inork ez duela egiaren eskusibotasuna, ez dugula inoiz egia absolutua aurkituko, eta ezin dugula errealitate osoa ulertu bere misterio neurgaitz horretan.

Helburua ez da egiaren gaia gutxiestea. Guztia ez da berdina. Etxe bat diseinatzen ari den arkitektoa kalkuluetan erlatibistegia ez izatea komeni da. Hegazkin batera igotzen garenean, pilotua erlatibistegia ez izatea komeni da. Zientzian ez dago erlatibismo absoluturik, ez behintzat datuei eta aplikazio teknikoei dagokienez; eredu edo paradigma zientifiko handiak beti dira erlatiboak (adibidez, Newtonen fisika mekanikoa). Etikan ere ez dago erlatibismo absoluturik. Ez da gauza bera nire eskubideak hurkoaren eskubideek mugatzen dituztela onartzea edo ez onartzea (batez ere premia handiena duten hurkoaren

⁸⁸ Beck, Ulrich (2004), *Dios es peligroso...* cit. Cfr. Tamayo, Juan José (zuz.) (2004), *10 palabras clave sobre paz y violencia en las religiones*, Verbo Divino, Lizarra.

eskubideez ari garenean). Erlijioan ere ezin daiteke erlatibismo absoluturik egon. Ez da gauza bera munduaren kreazioa sei egunetan gertatu zela pentsatzea edo eboluzioaren eredia onartzea; ez da gauza bera gizon-emakumeen arteko berdintasuna onartzea edo ez onartzea; ez da gauza bera askatasun erlijioso eta laikotasuna gizarte pluraletako bizikidetzatza-esparru gisa onartzea edo ez onartzea.

Dena dela, errebelazio bidez egiaren jabe izateko nahia da erlijio baten arriskurik larriena. Erlijio baten egiaren probarik onena elkarrizketa, bilaketa partekatua eta elkarrekikotasuna sustatzea da. Hitz bakarrean, bakea. Justizian eta giza eskubideen errespeturik handienean oinarrituriko bakea. Eta horrexek beharko luke izan espiritualtasunaren eta erlijioen ekarpenik handiena.

Giza eskubideak ez dira unibertsalak modu abstraktuan. Kultura edo tradizio erlijiosoek ez dute ulertzeko eta aplikatzeko beren modu berezia inposatu behar. Baina aipatu beharra dago, bestalde, erlijio guzti-guztiek errespetatu behar dituztela giza eskubideak, eta beste kultura eta erlijio guztiek irizpide horren arabera epai dezaten ahalbidetu behar duela. Egiaz, giza eskubideak dira erlijio ororen muina. Erlijio guztiek errespetatu behar dituzte giza eskubideak, eta erlijio bati ere ez zaio ukatu behar giza eskubideen aplikazio unibertsalari ekarpen erabakigarria egiteko gaitasuna. Erlijio guztiak «giza eskubideak eta beren betearazpena gehiago errespetatzen laguntzeko kolaboratzaile gisa ikusi behar ditugu. Kultur testuinguru bereziak errekonozitzeak eta preziatzeak lagundu egingo luke giza eskubideen errespetua eta betearazpena errazten, eta ez hura mugatzen».⁸⁹

Mintzaira esperientziaren bitartekaria da

Bada hausnarketa teorikoago bat ere, itxuraz gordinagoa; baina beharrezkoa, inondik ere. «Esperientzia erlijioso» kontzeptua eta esperientzia horrek mintzairarekin duen harremana gai oso konplexua da eta, seguruenik, erlijio-arteke eztabaidaren nukleo nahasgarriena eta korapilorik bihurriena. Raimundo Panikarren obra osoa gai horren inguruan egituratzen da.⁹⁰

Esperientzia eta interpretatzen eta adierazten duen mintzaira ezin bereiz daitezke, baina mintzaira hori beti aldez aurrekoa den bizipen baten interpretazioa da (aldez aurrekoak ez du esan nahi denboran aurretik gertatutakoa). Errealitatearekin topo egitea da mintzairaren jatorria. Egia da mintzairaren bitartez bakarrik irits gaitzkeela errealitateaz jabetzera, hura partzialki «ulertzera». Baina errealitatean murgilduta gaudelako hitz egiten dugu, eta errealitatea ez du berez gure mintzairak sortzen. Bestalde, mintzaira orokorrik ez dago, eta ez litzateke egongo mundu osoan hizkuntza bakarra inposatuko balitz ere. Hizkuntza horrek berezi izaten jarraituko luke. Are gehiago, «errealitatean egotea» ere berezia da; izan ere, leku, denbora, egoera jakin batean gaude (gorputz bat, familia bat, harreman batzuk, klima bat, elikadura bat...).

Antzeko zerbait gertatzen da erlijioekin ere. Erlijioak hizkuntzak dira, zeinu partikularrez, kulturaleraz, partzialeraz eginiko sistema simbolikoak. Zer alderdi dira unibertsalak erlijioetan? Sinpleegia litzateke «esperientzia erlijioso» edo «esperientzia mistikoa» dela esatea, «ulertzen» dugun aldetik, behinik behin. Esperientzia mistikoa, Panikarrek dioen bezala, «bizitzaren esperientzia osoa edo integrala da». Edonola ere, inork ezin du esperientzia osoa

⁸⁹ Jahanbegloo, Ramin (2010), «Derechos humanos y diálogo transcultural», *El País*, 2010-01-13.

⁹⁰ Cfr. berezikiki Pannikar, Raimundo (2005), *De la mística. Experiencia plena de la Vida*, Herder, Bartzelona. Egilearen obra osoaren sintesi moduko bat da.

izan («inork ez du Jainkoa ezagutzen»), esperientzia jakin bat baizik. Bestalde, adierazi dugun esperientzia ez da esperientzia berez, baizik eta mintzaira jakin baten edo erlijio jakin baten arabera neurtutako esperientzia.

Mintzaira edo erlijio guztiak esperientzia beraz hitz egiten al dute? Nola jakin hala den? Hobe litzateke esperientzia oro bakarra dela esatea, besterenezina, menderaezina. Baina esan beharra legoke, halaber, deskribapenek esperientzia mistikoen beste hainbat baliokide homeomorfitikoa dituztela⁹¹. Hau da, esperientzia erlijiosoaren deskribapenak desberdinak direla, nahiz eta pertsonentzat eta taldeentzat betetzen duten funtzioa antzekoa izan. Irudiak eta kategoriak desberdinak dira, baina xede-helburua berdintsua da. Azpiko mundu-ikuskerak eta antropologia, eta, ondorioz, erlijioen interpretazio-esparrua anitzak dira. Litekeena da bateraezinak izatea ere, baina, funtsean, egiteko bera dute. Visnu Krishna bezala haragitzea, Hitz Nazaretoko Jesusengan haragitzea edota Mahomaren Koran zerutarraren errebelazioa, inondik ere, mintzaira oso desberdinak dira; desberdinak dira, halaber, haien esanahi esplizitu eta objektiboak ere. Baina funtzio oso garrantzitsua betetzen dute (pertsonala zein komunitarioa), eta egiteko hori oso antzekoa da Visnuren jarraitzaileentzat, kristaudentzat edo musulmanentzat. Mintzaira erlijiosoari esanahiaren (objektiboak) eta erreferentziaren (objektiboak ezinezkoak) arteko bereizketa linguistikoa aplikatzen badiogu, esan beharra legoke «lehenengo» errealitatearen «azken» esperientzietan buruz hitz egiteko hindu batek, budista batek, kristau batek, musulman batek eta sinesten ez duen batek erabiltzen duten mintzairaren esanahia desberdina dela. Baina lehenengo errealitatea bera da (mintzairan adierazi ezin daitekeena), eta lengoaiaren jatorrian dagoen hondoko gizakiaren esperientzia konparagarria edo baliokidea da.

Alda dezagun irudiz. Mendi baten tontorrera iristeko hainbat bide daude. Bide bakoitza desberdina da, eta desberdina da bidea egiten dutenen ibilera; desberdina izango da, nahitaez, bakoitzak bere bidea eta ibilera deskribatzeko erabiliko duen mintzaira. Baina esan liteke bide guztiak funtzio bera dutela, gailurrera iristea. Bidegile bakoitzak bere bidea deskribatzeko erabiltzen duen mintzairaren funtzioa baliokidea dela esan genezake: helmugara iristeko bidearen esperientzia paregabea adieraztea. Eta esan liteke helmuga ere bera dela, baina inork ezingo du esan nolakoa den helmuga ibiltari den bitartean, eta guztiok gara ibiltari. Bidea egiten dugun bitartean, erlijio bakoitzak (edo jakituria bakoitzak, erlijiosoa ala ez) bere modura deskribatuko du (modu sinbolikoan, aurreratuan, beti partzial eta probisionalean) helmuga edo bere bidearen «azken» helburua, Jainkoaren Erresuma, zerua, zorientasuna, askapena, argitzapena, nirvana... Azken xedea hainbat erataria ulertzen eta definitzen dugu, baina espero dugun betetasuna berbera izango da, gure esperantzen itxuratik harago. Horrenbestez, onena bakoitza bere erlijioaren, espiritualtasunaren, jakituriaren bidea amaieraraino egiten saiatzea izango da, eta aurkituko dituen bidegurutzetan bere esperientzia beste ibiltari batzuekin partekatzea. Inork ezin ditu bi bide aldi berean egin, baina inork ezin du sinetsi bere bidea baliozko bide bakarra izango denik.

Elkar entzutea eta hitz egitea gaizkiulertuak argitzeko

Gatozen mintzairaren kontura. Gure mintzaira gaizkiulertuz beteta dago, eta elkarrizketa da haiek desegiteko modu bakarra. Kristauak uste du hindua ez dela hurkoarekin arduratzen, eta hinduak uste du kristaua nahitaez dela harroa eta intolerantea; musulmanak uste du kristauek hiru jainko gurtzen dituztela, eta kristauak uste du musulmanak nahitaez direla

⁹¹ Pannikar, Raimundo (2005), *De la mística*, cit., 208. or.

fundamentalistak eta bortitzak; kristauak uste du budistek ez dutela Jainkoagan sinesten, edo nirvana ezerez hutsa dela, eta budistak uste du kristautasuna ideia kontua besterik ez dela... Islamari, hinduismoari edo budismoari buruzko bi orokortasun topiko baino ez dakizkigu, eta haiei buruz guztia edo ia guztia dakigula iruditzen zaigu. Baina horiek karikaturak besterik ez dira. Baina, gaizkiulertuak ez dira karikaturak alde batera utzita bakarrik desagertzen. Budistek ukatzen eta kristauak berresten duten «ni»a ez da berdinberdina; budistek ukatzen eta kristauak berresten duten Jainkoa ez da bera; kristauak ukatzen eta budistek berresten duten haragiztatzea ez da bera. Hitz berberekin gauza desberdinak esaten baditugu, nola ulertuko dugu elkar? Behar-beharrezkoa da hitz egiten jarraitzea.

Erljio bakoitza beti dago hizkuntza bati eta kultura bati lotuta. Eta hizkuntza eta kultura bakoitzak bere erara adierazten du errealitatea, baita «errealitate», «misterio», «absolutu» edo «Jainko» deitzen dugun errealitate hori ere. Eta ez dago hizkuntza edo kultura neutrorik. Kultur aniztasunak berekin dakar, nahitaez, erlijio-aniztasuna. Ez da gauza bera erlijioaren inguruan herrialde miserable batean edo aberats batean hitz egitea; ez da gauza bera Jainkoari buruz ingelesez edo bantuz hitz egitea; ez da gauza bera betiereko bizitzari buruz Europan, Indian edo Afrikan hitz egitea. Europar batek sarritan pentsatzen du historikoki egiazkoa ez den gertakizun bat ez dela benetakoa. Jesukristo ez litzatekeela ezer izango pertsonaia historiko bat ez balitz, eta kasu horretan kristautasunak ez lukeela inolako baliorik izango; hindu batek, ordea, guztiz kontrakoa pentsatzen du: Krishna pertsonaia historikoa izatea muga bat litzateke, ez balio bat. Europarren ustez, errealitate anitz asko dago, baina egia bakarra («bi gehi bi lau», eta kito); hinduentzat justu kontrakoa da, errealitate guztiak, azkenean, errealitate bakarra dira, baina gure «egiak» asko dira nahitaez, ikuspegi engainagarriak bezain beste. Europarrok harri bat definitu nahi dugunean, espezifikotasuna bilatzen dugu, beste gauzetatik desberdintzen duena, eta «lurraren azaleko geruzan masa trinkoetan aurkitzen dugun materia mineral bigun» gisa deskribatzen dugu; hinduak, aldiz, esentziari erreparatzen dio (harriaren amaierako esentziari), gainerako gauzetatik desberdintzen duenari erreparatu beharrean, haien arabera «harria minerala da» eta, azken buruan, «harria Brahman da». Kristau europarrak esaten du Jesukristo Jainkoaren semea dela, eta horrekin Jesusen alderdi espezifikoa eta eskusiboa adierazi nahi du. Hinduaren aburuz, ordea, esaldi horrek ez du ezer espezifikorik; bere ustez, gauza guztiak dira Jainkoaren seme eta alaba.⁹² Ondorioz, ez da posible hizkuntza neutroa baliatzea erlijioak adierazten dituen errealitatez jarduteko. Eta ezin da inoiz egia modu bakar batean esan. Horrenbestez, ezingo dugu inoiz ere esan: «Honek arrazoi du eta besteak ez».

Elkarrizketak, hortaz, bestearen ikuspegia ulertzeko ahalegina eskatzen du. Eta besteak esango dit bere ikuspegia ondo jasotzen dudan ala ez. Bere fedeari buruz ondo osatutako iritzia dudan ala ez. Irizpide erabakigarria da hori. Adibidez, nola jakin genezake musulmanei buruz dakidana zuzena den ala ez? Nire interpretazioarekin ados dauden ala ez beraiei galdetuta. Ez badatoz bat beren fedeari buruz esaten dudanarekin, oker nagoen seinale. Horixe da irizpiderik sinple eta zuzenena. *Yihad* (gerra santua) ezagunari buruz pentsatzen duguna ez da zuzena izango, baldin eta musulmana ez badago gure interpretazioarekin ados. (*Yihad*aren izenean erabilitako indarkeria salatze eskubidea eta betebeharra izatea beste gauza bat da.) Koranaren inguruan egiten dugun interpretazioa ez da zuzena izango, musulmanak ez badu onartzen. Mahomari buruz dioguna ez da zuzena musulmanari okerra iruditzen bazaio.

⁹² Mintzairaren nahasmendu horiei guztiei buruz, cfr. Panikkar, Raimundo (1993), *La nueva inocencia... cit.*, 351-374. or.

Aplika dezagun hori Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko topaketan. Peter Berger eta Ulrich Beck jaunek aipatzen duten Nakamura filosofo japoniarrak honako hau idatzi zuen: «Mendebaldea funtsezko bi akatsen arduradun da. Bata monoteismoa, Jainko bakarra dagoela defendatzea. Eta bestea, Aristotelesen kontraesan-printzipioa; horren arabera, zerbait ezin da aldi berean A izan eta \bar{A} ez izan. \bar{A} siako edozer pertsona argik daki jainko asko dagoela eta gauzak aldi berean izan daitezkeela A eta ez \bar{A} ». Ekialdean eta Mendebaldean, hizkuntza desberdinak ez ezik, logika desberdinak ere erabiltzen ditugula dirudi.

Litekeena da hainbat oinarritzko auziren jatorria hizkuntzaren nahasteak izatea; hala nola, Jainkoa existitzen ote den ala ez, jainko bakarra edo bat baino gehiago ote dagoen...

Dena dela, elkarrizketaren helburua ez da akordio betera iristea, ados ez gaudenean elkar ulertzea eta onartzea baizik. Baliteke gaizkiulertu asko eta desadostasun asko gainditzea, baina inoiz ez dugu erabateko adostasunik lortuko. Baina desadostasunetan elkar errespetatzea posible da. Eta hitz egiten jarraitzea. Ez dugu guztiok gauza bera pentsatzeko eta gauza bera egiteko hitz egiten, baizik eta, desberdinak izanda, elkarrekin bizitzeko eta elkarrekin lan egiteko gai izateko.

VI. ONDORIOAK

Eduardo J. Ruiz Vieytez

Lan honen aurreko kapituluetan egiaztatu dugunez, duela gutxira arte, erlijioa ez zen Euskal Herriko gizartea anitz egiten zuen faktoreetako bat. Izan zen erlijio-aniztasun handiagorik historiaren lehenagoko garaietan; mundu-ikuskerara benetan berezituak bizi izan ziren lurralde berean. Aro Modernotik eta Garaikidetik hona, ordea, homogeneizazio erlijioso handia izan da Euskal Herriaren ezaugarri nagusietako bat; homogeneizazio hori laikotasunak eta antiklerikalismoak baino ez dute jarri zalantzan, ez, ordea, esperientzia erlijiosoen aniztasunak. Lan honetan egiaztatu dugunez, errealitate honek aldaketa nabarmena izan du azken bi hamarkadetan eta, ondorioz, esan dezakegu gaur egun euskal gizartea anitza dela erlijioari dagokionez. Pluraltasun hori, indar handiagoz edo txikiagoz, espazio publikoan eta eztabaida sozial eta instituzionalean ageri dela ere baieztatu dezakegu.

Dena dela, erlijioa kohesio-faktore izan da zenbait mendez Euskal Herrian, baita nortasun-faktore ere; gizartea funtsean homogeneoa izan baita erlijio-adierazpenei dagokien bezalako behinik behin, nahiz eta erlijio nagusi hori alienazio-elementu ere izan den inoiz. Gaur egun, ordea, esperientzia erlijiosoa aniztasun eta pluralismo faktore da. Gizartearen ikuspegi erlijiosoen eta ez erlijiosoen arteko dikotomia klasikoari, gaur egun, ikuspegi erlijiosoen aniztasuna erantsi behar diogu. Erlijio-aniztasuna errealitate bilakatu dela Euskal Herrian ez dago zalantzarik, eta, seguruenik, behin betiko eta itzulezin bilakatuko da errealitate hori.

Hainbat faktorek lagundu dute panorama anitzago hori sortzen, erlijio-aniztasuna ikusgarriago egiten; horien artean, biztanle-mugimenduek eta bereizitako taldeen arteko gizarte-elkarreraginerako aukera handiagoak. Komunikazio edo elkarreragin modu berriek, teknologiaren eta komunikazioen alorreko aurrerapenek eta bizi-esperientzien gizarte-eskaintza handiagoak erlijioen arloa ere anitzago bihurtzen dute, panorama irregularragoa egiten dute, alderdi anitzekoa. Zalantzarik gabe, azken hamarkadetan erlijio-aniztasuna ugartu egin da kalitatean zein kantitatean; bai euskal gizartean, bai Europako gizarte garatuetan. Baina ez litzateke zuzena izango erlijio-aniztasunaren gorakada azken bi hamarkadetakoa biztanleria-mugimenduekin bakarrik lotzea. Zalantzarik gabe, euskal gizartean azken hogeitaz gertatu den immigrazio-prozesu esanguratsuak nabarmen lagundu du erlijio-aniztasun hori sendotzen. Edonola ere, hori ez da azalpen bakarra, ezta aniztasunak eragiten dion esparru bakarra ere. Immigrazioa eta erlijio-aniztasuna elkarri lotuta daude Euskadin zalantzarik gabe, baina harreman horrek ez ditu bi fenomeno horien balizko aukerak agortzen. Erlijioak zeresan garrantzitsua du integrazio-faktore gisa zenbait kasutan; beste kasu batzuetan, harreman sozial gisa ere bai, etorkinen zenbait komunitateren barruan. Baina erlijio-aniztasuna immigrazioarekin zerikusirik apenas duten gizarte-eremuetatik ere elikatzen da; aldi berean, etorkin askok parte hartzen dute gehiengoaren adierazpen erlijiosoa (eta eraldatu egiten dute), eta beste hainbatek ez dute batere parte-hartze sozialik erlijio-kontuetan.

Aztertu dugunaren eta irakurleari aurreko orrietan aurkeztu diogunaren arabera, euskal esperientzia erlijiosoa antolatzekeko modu asko eta oso anitzak daudela ondorioztatu genezake. Zalantzarik gabe, fededunak elizen tankerako erakundeen inguruan antolatzekeko modua da nagusi, baina, aldi berean, elizok parametro objektiboen arabera antolatzea oso zaila da.

Sinesmenen aniztasuna biderkatu egin dela dirudi, Euskal Herriko erlijio-aniztasuna islatzen duten erakundeei, elkarteei edo izendapenei erreparatuz gero. Esanenez askoz ere handiagoa dela fededunak antolatzeke moduan, sinesmenetan baino.

Hala ere, Euskal Herriko gutxiengo erlijioei buruz hitz egiten dugunean, desberdintasunak desberdintasun zenbait azterna komun ere identifika ditzakegu. Interesgarria da zehaztea zenbat komunitateetako ordezkari ez dauden pozik gizartearen gehiengoak beren taldeei buruz duen ikuspegiarekin. Alde batetik, ezjakintasun handia dago hainbat gutxiengo erlijiosoren existentziaren inguruan, baita haien errealitatearen inguruan ere. Ezin esan liteke gizarteak gutxiengo gertakizun erlijiosoei buruzko ezagutzarik duenik, ezta oinarritzorik ere; izan ere, ez dago haiei buruzko informazio handiegirik hezkuntza-curriculumetan eta, oro har, hedabideen, argitaletxeen edo bestelako erakunde publiko edo pribatuaren dibulgazio-lanean. Euskal Herrian ez dago erlijio-aniztasunari buruz esperientzia handirik (edo, hobeto esanda, ahaztuta du Euskal Herriko esperientzia hori, garai bateko egoerari erreparatzen badiogu), eta gabezia hori agerian geratzen da, bai gizartean alderdi honetan, bai beste batzuetan.

Bestalde, gutxiengo talde erlijiosoen ordezkariak diotenez, gizarteak haiei buruz duen ikuspegi eskasa ez ezik, oro har, okerra eta bidegabekoa ere bada; beren esanetan gehiegi erabiltzen baitute «sekta» hitz peioratiboa komunitateez hitz egiterakoan. Dударik gabe, pertzepzioen pertzepzioaz ari gara hemen, horrek dituen arrisku guztiekin. Baina adierazitakoak koherentea dirudi aurretiaz aipaturiko esperientzia faltarekin eta ezjakintasunarekin (eta, beraz, ukatze edo beldurrarekin); horregatik, askotan anekdotatzat jotzen dute, herritar askoren nortasunaren funtsezko elementu gisa baino.

Esperientziarik eza gure administrazio publiko askoren jardunean ere antzeman daiteke, aniztasun erlijiosoaren aurrean duten erantzuna irregular samarra izaten baita, kasurik onenean. Planteaturiko errealitatearen azterketa aintzat hartuta, zalantzak sortzen dira gaur egun aparatu publikoak zenbait sinesmen minoritariorekin dituen harremanak arautzen dituen araudia ezagutzen ote dugun eta benetan eraginkorra ote den. Jasotako informazioa aztertu ondoren, sarritan interesa duten komunitateek eta erakundeek ere ez dute ezagutzen esparru juridiko horren edukia, ezta bere eremuan dituen inplikazioak ere. Aipatzekoa da, halaber, azterturiko erlijio-komunitate gehienek diotena; hau da, jarduerak eta baliabideak beren funtsekin finantzatzen dituztela. Eta agian horrexegatik, erakunde gehienek esanetan, premia nagusietako bat beren jardueretarako lokalak edukitzea da. Auto-finantzazioak azaldu egingo luke, hein batean, ideia hori. Lokalak izateko aukera ez da ekonomikoa soilik, zenbait administrazio publikok espazio horiek egokitzeko edo mantentzeko ezartzen dituzten baldintzekin ere badu zerikusia. Hori gutxiengo komunitateek duten erronka edo eskaera material esanguratsuena. Eskaera ez-materialei dagokienez, gehien antzeman dugun nahia haiei buruz irudi egokiagoa eta normalizatuagoa edukitzea da.

Azkenik, nabarmen dezagun, Euskal Herria azken urteetan erlijio-arteko elkarrizketen ugalketarako lur ongarritu bilakatu dela itxura guztien arabera. Elkarrizketa horietan hainbat komunitatek eta konfesiok parte hartu dute. Dena dela, ekimen horietako batzuek lorturiko arrakasta partzialak eta erlijio-komunitateetan izan duten eraginak (dela gehiengo komunitateetan, dela gutxiengoetan) oso eskasa dirudi oraindik, termino errealean. Ez dirudi hurbilketa dialogiko horien balio kualitatiboa bat datorrenik beren pisu kuantitatiboarekin, ezta hemen azterturiko taldeetako liderrek emandako babes solidoarekin ere. Baina horrek ez die garrantzia kentzen islatu ditugun mugimenduei eta

bultzadei, euskal konplexutasunaren zati den erlijio-aniztasunaren adibide iruditzen zaizkigun aldetik.

Egiaztapen horiek guztiek erlijio-aniztasunaren etorkizuna ikusminez begirarazten digute, optimista zein pesimista izateko elementuak baitaude. Lehenik eta behin, zalantza sakona daukagu gure gizarteak eta ordezkatzan duten erakunde publikoek aniztasuna elementu positibotzat eta behin betikotzat onartzen ote duten. Diskurtso politikoki zuzenak dioten bezala, aniztasuna gure egungo gizartearen elementu positiboa bada, aniztasun erlijiosoak ere halaxe izan behar du, ez ezagutzari dagokionez bakarrik, baita onarpenari eta gizartearen eta erakundearen babesari dagokionez ere.

Erlijio-aniztasuna balio positibo gisa onartu ondoren eta erlijio askatasuna pertsona ororen oinarrizko eskubidetzat hartu ostean (erlijioa gehiengoena edo gutxiengoena den gorabehera), aparatua publikoak errealitate horren aurrean eman beharreko erantzuna antolatu beharko luke gutxienez; era berean, bitartekoak jarri beharko lituzke aniztasun horri eusteko eta oinarrizko eskubide hori aitorturiko beste edozer oinarrizko eskubide gisa garatzeko. Hori horrela izanik, nahiz eta erakunde publikoek laikotasuna irizpide gisa baliatzen duten, gakoa laikotasun horretaz dugun ikuspegia da. Eta ikuspegi hori, zalantzarik gabe, gizartearen gehiengoak duen ikusmoldearekin lotuta egongo da. Laikotasun zurrun eta negatiboak erlijioa bizitza publikotik desagertzeko eskatuko luke, eta, horren arabera, bateraezina litzateke esperientzia erlijioso (eta ez-erlijioso) batzuk eta besteak araudi edota praktika egokiek uztartzea. Laikotasun irekiak, aitzitik, tolerantzia eta iritzi aniztasuna bultzatu beharko lituzke. Dударik gabe, erlijio-askatasunarekin loturiko berdintasun-printzipioak ez du esan nahi herritar guztiak berdin tratatu behar direnik sinesmenei dagokienez. Baina gizarte batean erlijio-aniztasuna ageri dela egiaztatu ondoren, komunitate politikoak zer betebeharrak edo modulazioak hartu behar dituen bere gain eztabaidatu behar da, desberdin edo gutxiengo direnen askatasun erlijiosoak ez behartzeko, gehiengoen ikuspegi erlijioso edo sekularrak iragazitako gizarte batean.

Etorkizunean erlijio konbikzioak, erabilerak edo praktika erlijioso edo filosofikoak gero eta konplexuagoak, hibridoagoak edo berritzaileagoak izango dira, eta oso litekeena da Euskadin ere hala izatea, komunitate ezberdinen arteko kontaktu gero eta handiagoak eta bizitza-estiloen aniztasun progresiboak eraginda. Komunitate erlijioso izaten jarraitzea edo izateari uztea ere zabaldu egin beharko da, arrazoizko muga batera arte. Berriz ere, gure gizartearen azaltzen ari diren errealitate berri horiei erantzun egokia emateko, alor publikoak aniztasuna elementu positibo gisa zenbateraino eta zer zintzotasunekin hartzen ote duen hartu beharko dugu kontuan (gure kasuan, erlijio-aniztasuna).

Nolanahi ere, zenbait gertaera gatazkatsuk, masa-hedabideen rola eta eremu intelektualean eta politikoan sortutako eztabaidek zalantza ipintzen dute erlijio-aniztasuna gure ingurunean modu positiboan ikusten ote dugun. Euskal gizartearen bost mende luzez ezaugarri nagusi izan den kristautasunaren gailentasun izugarria bazterrean geratzen ari da, beste erlijio-tradizioen presentzia gero eta handiagoaren ondorioz; horien artean dago islama, askorentzat benetako bizitza erlijioso mehatxagarria. Gertakizun hori alarma gisa erabil dezakete zenbait sektorek, nortasun kolektiboaren balizko galera gisa aurkezten baitute. Izan ere, sarrerako kapituluaren esan bezala, erlijioak hainbat modutan jarraitzen du markatzen eta baldintzatzen pertsona kopuru nabarmen baten nortasuna. Horrek beste hainbat eztabaida eta galdera planteatzen ditu beti aniztasuna eta gatazkatsua izan den gizarte batean, batez ere termino linguistikoetan, kulturaletan eta politikoetan. Nahiz eta erlijioak izan duen euskal konplexutasunaren aniztasun txikiena, gaur egun aniztasun faktoreen zerrendan bat egin du. Ikusteko dago bereizketa-faktore berri horrek zer nola

eragiten dien tradizioz gizarte hau egituratu duten gainerako faktoreei. Erlijio-aniztasuna, azken finean, euskal nortasunaren ezaugarri berri gisa aldarrika daiteke; gure konplexutasunari eta aberastasunari erabateko ekarpena egiten dion ezaugarri gisa, alegia.

ERANSKINA: GLOSARIOA

Francisco Díez de Velasco⁹³

Glosario honetan munduko erlijioen konplexutasuna eta aniztasuna ulertarazten saiatuko gara labur-labur, bai eta Espainian duten oihartzuna ere. Espainian inolako kutsu negatiborik gabe gutxiengo gisa har daitezkeen erlijioei buruz jasotako ikerketak hartu ditugu oinarri orrialde hauetan. Gutxiengo adjektiboa erlijio horien jarraitzaile kopuruaren arabera jarri dugu, ez baitugu haiek izendatzeko hitz egokiagorik aurkitu.

Erljioen sailkapena egiteko garaian, oso zaila da bi ikusmoldeak uztartzea sailkapen berean; hau da, batetik, erlijioen jarraitzaileen ikuspegia (sinestunen ikuspegia) eta, bestetik, erlijio jakin baten nortasun-diskurtsoetan inplikatu gabe kanpotik aztertzen duenaren analisi-eredua (azken horiei hurbilketa ez-erlijiozentriko deitzen zaie). Glosario honetan, F. Díez de Velascoen *Introducción a la historia de las religiones* lanean (Madril, 3. argitalpena, Trotta, 2002) eta *Breve historia de las religiones* dokumentuan (Madril, Alianza, 2006) xehetasun handiagoz garaturiko sailkapen-irizpideei jarraituko diegu. Bi lan horiek, bestalde, erreferentzia bibliografiko osoagoak dituzte.

Adbentistak (kristau independenteak). Zazpigarren eguneko adbentistak AEBetan sortu ziren XIX. mendearen hasieran. Beren nortasuna definitu zuen ezaugarria Kristoren bigarren etorreraren hurbiltasuna planteatzea izan zen; hala, Bibliako Apokalipsi liburuan adierazitako promesak betetzera etorriko litzateke Kristo. Beste ezaugarri bat larunbata santutzea (igandearen tokian, gainerako kristauek bezala) eta Bibliako edukiak, bereziki Itun Zaharrekoak, beste kristau batzuek baino modu arduratsuagoan betetzea da (esaterako, dieta-kontuetan, judutarren antzeko dieta baitaukatete).

Lehen adbentistak XX. mendearen hasieran iritsi ziren Espainiara. Gaur egun, ehun bat eliza dituzte, eta FEREDEn (Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelisten Federazioa) bilduta daude; edonola ere, oro har, nazioartean ez dituzte kristautasun ebanjelikoaren barruan sailkatzen, kristautasun independentearen barruan baizik. Espainian «kristau» terminoa txertatzen dute beren izendapenean (Zazpigarren Eguneko Eliza Kristau Adbentista).

Afroamerikarrak, erlijioak. Afrikako esklaboen eta kristautasunaren arteko mestizaje-prozesu konplexuen ondorioz Amerikan sorturiko erlijio sinkretikoak, Ameriketako indigenen elementu erlijiosoak eta hainbat jatorritako aztikeria-elementuak bildu ohi dituztenak, baita espiritismoaren moduko praktika esoterikoak eta bestelako ezaugarri batzuk ere. Gaur egun gorakada nabarmena bizi dute. Balio handia ematen diote praktika zeremonialen eta erritualen eraginkortasunari, bai eta trantzearen ikusgarritasunari ere;

⁹³ La Lagunako Unibertsitateko katedraduna, Erljioen Historia Orokorrean eta Alderatuan espezialista (<http://webpages.ull.es/users/fradive>).

azken hori funtsezkoa da beren erlijio-ereduan. Eragin nabarmena dute Kuban (santeria), Haitin (budua), Brasilen (candomblé, umbanda, eta abar), baina Europan eta Estatu Batuetan ere hasi dira ugaritzen.

Espanian arrunt bilakatzen ari dira praktika horietarako imajinak, objektuak eta tresnak saltzen dituzten dendak. Era berean, gero eta arruntagoak dira jarraitzaile-taldeak (normalean Amerikan hezten dituzte, baina gero eta gehiago Espainian ere), bai eta zerbitzu erlijioso horien kontsumitzaileak ere.

Anglikanoak (kristau ebanjelikoak). Ingalaterrako Eliza edo Eliza Anglikanoa 1531n sortu zen, kleroak eta parlamentuak Ingalaterrako erregea Elizako agintari goren gisa aitortu ostean. Ondorioz, katolizismotik bereizi zen. Antolamenduaren ikuspegitik (apezpikuak eta artzapezpikuak dira buru), Eliza Katolikotik gertuen dagoen eliza ebanjelikoa da. Eliza nazionala da, eta goraldi nabarmena izan zuen Britainiar Inperioa munduko potentzia handiena izan zen garaian; hau da, XIX. mendean eta XX. mendearen zati handi batean. Izan ere, bere eliza-eredu nazionala kontrolatu zituen lurraldeetan zabaltzeko aukera izan zuen, onarpen-maila handiagoarekin edo txikiagoarekin (adibidez, Asian, ez zen batere handia izan; Afrikan bai, ordea). Ingalaterratik kanpo, kristautasunaren eredu anglikanoaren jarraitzaileek episkopaliar izena ere hartzen dute. Eliza anglikanoak Komunio Anglikanoan biltzen dira mundu osoan. Emakume bat da talde horren buru 2006tik; Katherine Schori apezpikua, hain zuzen. Horrez gain, Ameriketako Estatu Batuetako Gotzain Elizako buru ere bada.

Eliza Anglikanoak Espainian izan duen inpaktuak zerikusi handia du, alde batetik, Gibraltar Britainiaren mende egotearekin eta, bestetik, jarduera ekonomikoetan (bereziki merkatariak), diplomatikoetan edota turistikoetan aritzen diren britainiarrei emandako zerbitzuarekin.

Jainkoaren Batzarrak: ikus mendekostearrak.

Askenaziak (judutarrek). Jatorriz Europa erdialdekoak diren judutarrei eta haien ondorengoei deitzen zaie horrela. XIX. mendetik aurrera Amerika aldera joan ziren, bereziki AEBetara. Ondorioz, herrialde horretan bizi da gaur egun munduko judutar kopururik handiena. Horrez gain, gerora Israel aldera ere egin zuten. Egungo judaismoaren talde handiena da.

Migrazio-prozesuen ondorioz, azken hamarkadetan judutar askenazi gehiago etorri da Espainiara, bereziki Argentinatik. Izan ere, herrialde horretan orain ehun bat urte ingurutik judutar komunitate handi samarra baitago (gaur egun 200.000 kideetik gora).

Baptistak (kristau ebanjelikoak). European sortu ziren XVII. mendean, baina beren doktrina-oinarriak XVI. mendeko anabaptistekin lot daitezke. AEBetan hedapen nabarmena izan dute, eta mundu osoko hiru baptistatik bat bertan bizi da. Helduen borondatezko bapismoa defendatzea da ezaugarri nagusia, baita antolamendurako eredu kongregazionalak aukeratzea ere, komunitateen edo kongregazioen garrantzian oinarriturik.

Espanian 1870etik daude, eta, eliza bakoitza independentea den arren, haietako asko federazioen inguruan antolatu dira, antolaketarako kongregazio-ereduekin bat (Espainiako Batasun Ebanjeliko Baptista [UEBE] eta Espainiako Eliza Ebanjeliko Independenteen Federazioa [FIEIDE]). Gainera, XX. mendearen hasieratik, mundu mailako federazio handi bat ere badute: Munduko Aliantza Baptista.

Brahma Kumaris: ikus hinduismoa eta erlijio berriak.

Budismoa. Ekialdeko erlijioetan geografikoki zabalduena da; jarraitzaile kopuruaren arabera, berriz, munduko laugarren erlijioa. Duela 2.500 urte baino lehenago sortu zen India iparraldean, Sidarta Gotamaren predikuaeren ondorioz. Gotama Buda («iratzarria») izenarekin da ezaguna. Meditazioaren edo otoitzaren bitartez iratzaraldia bilatzea da budismoaren ezaugarri nagusia. Helburu gorena nirvanara iristea da; hau da, jakituria gorenera. Garai hartako Indiako erlijio-ereduei aurre egin zien, eta zalantzan jarri zituen brahmanen rola (apaizen kasta), Vedak (testu sakratuak) eta mundua kontrolatzeko erritualak, nirvanara heltzeko inolako baliorik ez zutela baitzioen. Nabarmen zabaldu zen Asian IV. mendetik aurrera, eta lehenengo milurtekoan mundu osoan jarraitzaile gehien zuen erlijioa izan zen. Hainbat doktrina ditu. Eskola batzuen arabera, Buda gizaki eredugarri besterik ez zen izan, eta jainkoak ez dira existitzen edo ez dute garrantzirik iratzaraldiaren bilaketan. Beste batzuen arabera, Buda (hau da, Buda historikoa edo Buda Sakyamuni) lurreko izakiak zaintzen eta laguntzen dituen naturaz gaindiko izate bat da. Hortaz, hainbat budista ez-teista edo ateo gisa ere sailkatzen dira; beste batzuek, berriz, nolabaiteko politeismo konplexu bat defendatzen dute. Dena dela, budismo guztiek dituzte «hiru aterpeak»: Buda, eredu gisa; dharma, ulertzeko, bizitzeko eta izateko modu zuzen gisa; eta sanga edo budisten komunitatea, babes gisa. Budismoa erlijio **unibertsalista** da, eta aktiboki misiolaria. Gainera, hainbat tokitara, testuingurutara eta aukera pertsonaletara egokitzeko gaitasun handia dauka. Denboraren poderioz erlijioa ulertzeko hainbat eta hainbat modu sortu dira; hala, budismoaren korranteak, eskolak eta leinuak biderkatu egin dira. Gaur egun, askorentzat deserosoak diren doktrina-banaketa handietatik harago, «ibilgailu handiaren» (mahayana) eta «ibilgailu txikiaren» (hinayana) artean budismoa ulertzeko hiru eredu handi ezar daitezke. Eredu horietako bakoitza Asiako eremu geografiko bati dagokio, ezarrita dauden eremuaren arabera. Kontuan hartu behar da budismoa jatorrizko herrialdean, Indian, XIII. mendean desagertu zela: hegoaldeko budismoa, iparraldekoa eta ekialdekoa. Horiei budismo berria erantsi behar zaie; hau da, Asiatik kanpo ezarritakoa eta duela gutxi berebiziko gorakada izan duena. Gaur egun, 400 milioi budista dago; horietatik lau bat milioi Amerikan daude, eta European milioi bat inguru. Batzuk

konbertituak dira, baina gehienak Asiako herrialde budistetatik etorritako immigranteak dira. Budista gehienak, ordea, Asian daude.

Ez dakigu zenbat budista dagoen Txinan; izan ere, **Txinako sinkretismoaren edo erlijioaren** funtsezko elementu izanik, ez da elementu independente gisa zenbatzen. Hegoaldeko budismoak 150 milioi jarraitzaile inguru biltzen ditu, iparraldekoak hogeita milioi inguru, eta ekialdekoak berrehun milioi baino gehiago.

Espanian batik bat konbertituek osaturiko erlijioa da, eta zenbait monasterio handi eta meditazio-zentro ditu. Eskola zabalduenak tibetarra eta *zen* eskola dira, baita japoniar jatorriko beste batzuk ere (Soka Gakkai, adibidez). Dena dela, oro har, talde eta maisu aniztasun handia dago. Espainian 30.000 budista daude, zaleak aintzat hartuta. Baina **budismo berriaren** modu lausoak zenbatzen baditugu, hirukoiztu ere egin daiteke kopuru hori (edo agian gehiago). 2007ko urrian Justizia Ministerioaren Erlijio Askatasuneko Aholku Batzordeak budismoa Espainian nabarmen errotuta dagoela aitortu zuen. Espainiako Komunitate Budisten Federazioa arduratu da Espainiako agintariekin elkarrizketak izateaz.

Ekialdeko budismoa. Txinan, Japonian, Korean, Vietnamen eta lurralde mugakideetan dago errotuta; mundu osoan jarraitzaile kopuru handiena duen budismoa da. Budismo horren eskola gehienek Txinan dute jatorria; inperio horrexek izan zuen urte luzeetan eraginik handiena herrialdeotan, eta handik zabaldu ziren ekialderantz. Adibidez, Txan eskolak Txinan garatu ziren (sustraiak Indian badituzte ere) eta Korean zein Japonian barrena hedatu ziren. Korean Son eskolak sortu zituzten; Japonian, berriz, hainbat *zen* eskola. Azken horiek Asiatik kanpo eragina izatea lortu zuten, eta Ameriketan, Australian eta Europan barrena hedatu zuten *zena* (baita Espainian ere). Dena dela, azken urteotan gora egin du Koreako eta Vietnameko zenbait maisuren eraginak. Txinan, «kanon txinatarra» izeneko idazki sorta zabala bildu zuten; paliarekin eta tibetarrarekin batera, budismoaren literatura sakratuaren hiru multzoak osatzen ditu. Ekialdeko budismoan erlijioa ulertzeko eredu asko dago. Alde batetik, debozioan oinarriturikoak; esaterako, Lur Purua eskola. Bestetik, indarra meditazioaren esfortzuan jartzen dutenak daude; konparazio batera, *zena*. Halaber, beste eredu laiko batzuk ere badaude, Soka Gakkaik planteatzen dituenaren modukoak. Horien guztien ordezkariak aurkituko ditugu Espainian.

Iparraldeko budismoa. Batez ere Tibetean, Mongolian eta Txina iparraldean zein mendebaldean ezarritakoa. Budismo mota honen aburuz, naturaz gaindiko izaki errukiorrek funtsezko egitekoa dute. Izaki horiei –budak eta bodhisattvak– eskariak, zeremoniak eta kultu-lekuak eskaintzen dizkiete. Bestalde, lamak daude, maisu espiritual eta komunitateko liderrak, bai eta *tulkuak* ere, hildako lama handien haragitzeak, buden edo bodhisattven agerpen ere izan daitezkeenak. Idazki multzo oso handia dute: kanon tibetarra. Tibetar budismoak lau eskola handi ditu: Nyingma, Sakya, Kagyu eta Gelug. Botere erlijiosoa eta politikoa Gelug eskolako agintari erlijioso gorenaren esku egon zen Tibetean XV. mendetik 1959. urtera arte; Dalai Lama dinastiaren eskuetan, hain zuzen. 1959an, egungo lamak,

hamalagarrenak, ihes egin zuen Tibetetik beste lama eta monje askorekin batera, Txinako Herri Errepublikak Tibet osoa bere egin osteko presio militarrek bultzatuta. Iparraldeko budismoa minoritarioa bada ere jarraitzaile kopuru osoari erreparatuta, hedapen nabarmena izan du mundu osoan barrena zabaldu diren lama eta monje kopuru handiaren ondorioz, baita egungo dalai lamak lider espiritual gisa eta bakearen eta erlijio-arteko elkarrizketaren defendatzaile gisa egin duen lanari esker ere. Lamak Bakearen Nobel saria irabazi zuen 1989an.

Tibeteko budismoaren eskola guztiak Espainian ezarrita daude: Gelug eskolak ez ezik, eragin handia dute Kagyu eta Sakya eskolek ere. Gero eta kultu-leku, monasterio eta erretiro-gune gehiago dago, eta zenbait lama tibetar edo butandar bertan bizi eta irakasteaz arduratzen dira. Halaber, dagoeneko badaude espainiar jatorriko lamak eta monjeak ere. Kasurik ezagunena Osel Tenzin Rimpoché *tulkua* da. Haren jatorrizko monasterioa Seran dago, Indian, eta 1984an aitortu zuten Yeshé lamaren haragitze gisa. Yeshé budismoa Asiatic kanpo zabaldu zuen lehenengoetarikoa izan zen, bereiziki Espainiara. Hala, Mahayana Tradizioa Gordetzeko Fundazioa sortu zuen. Gaur egun hainbat zentro ditu fundazio horrek Espainian.

Hegoaldeko budismoa. Batez ere Sri Lankan, Myanmarren, Tailandian, Kanbodian eta Laosen dago ezarrita, budismoaren eskola zaharrenetako baten jarraitzaileak biltzen ditu; Theravāda eskolarenak, hain zuzen. Nirvanarako bideak aldentzea behar du, eta monasterio-bizitzarekin lortzen da hori. Ideala monje perfektua edo *arhata* da. Idazki sorta bat gordetzen dute (haien esanetan, budismoaren zaharrenak), eta Pali Kanona deitzen diote idatzi dauden hizkuntzagatik (palia). Asiatic kanpo, budismo mota honek nolabaiteko eragina du Britainia Handiko eta ÆEBetako immigranteen artean. Horretaz gain, eskola horrek gehien garaturiko meditazio-teknikak irakasten dituzten maisuen inguruan konbertitu taldeak ere badaude; *samatta* eta *vipassana* dute izena.

Espainian gutxiengoaren budismo modu bat da, eta, vipassana meditazioak jarraitzaile dezente dituen arren, budismotik kanpoko autoezagutzarako teknika gisa ere erabil daiteke, **espiritualtasun berrien** ildotik.

Kalbinistak (kristau ebanjelikoak). Erreformatu edo presbiteriano izenez ere ezagunak. XVI. menderen erdialdeko Joan Kalbin erlijio-erreformatzaileak garaturiko doktrinak jarraitzen dituzte, bereziki predestinazioari eta ekintza pertsonalen balioari dagokienez (salbaziorako predestinatuen taldeko kideak hezi egiten direla erakusteko balio dute ekintza hauek). Kristautasun ebanjeliko mota honek garapen nahiko handia izan du Suitzan eta Herbehereetan (eta haren inperio kolonialean), baita ÆEBetan ere.

Espainian, tradizio kalbinistako zenbait elizak rol garrantzitsua izan du Espainiako Eliza Ebanjelikoa (IEE) izendapenaren inguruan biltzen den kolektiboaren sendotzen.

Karismatikoak (kristau ebanjelikoak). Katolizismoak ere kutsu karismatikoko joerak badituen arren, kristautasun ebanjelikoan garatu dira nabarmenago, azken lau hamarkadetan batez ere. Garrantzi izugarria ematen diote esperientzia pertsonalari, Espiritu Santuaren karismak adierazita; horregatik, bilerak inspiratutzat jotzen dituzten ahots askori irekita egoten dira (edozer fededunek adieraz ditzake ahots horiek) eta zeremoniak ospatzerakoan askatasun handia izaten da. Egia bilakatutako errebelazio-aukerak, horrenbestez, oso dinamiko bilakatzen ditu taldeon doktrina eta sinismenak; hala, Bibliaren errebelazioa esperientzia karismatikoarekin osatzen da. Izendapen ebanjeliko askotan aurki ditzakegu karismatikoak, baina haien doktrina talde mendekostearretatik hurbilago dago; azken horietan, esperientzia karismatikoak Mendekostearren bizipena definituko luke. Dena dela, hainbat eliza karismatikok independente direla aldarrikatzen dute, eta beste guztietatik bereizi nahi izaten dute, baita mendekostearretatik ere.

Katolikoak (kristauak). Glosario honetarako ikerketaren testuinguruko ezaugarriak aintzat hartuta, jarraian katolizismoari buruzko apreziatio gutxi batzuk baino ez ditugu jarriko; beste kristautasun-eredu batzuekin dituen aldeak azalertzeko besterik ez. Zenbakiei erreparatuta, katolizismoa da, oro har, kristautasunaren talde maioritarioa. Lidergo-ereduari dagokionez, erabakiak hartzen dituen figura nagusia Aita Santua da; hots, Erromako apezpikua. Elizaren funtzionamenduak egitura piramidal eta zentralizatu du, oso eraginkorra hainbat alderditan; esaterako, historian eta gaur egun ere garrantzi handia duen misiolaritzan. Dena dela, zentralizazio handi hori gorabehera, katolizismoa anitza izan da, eta hainbat leku, une eta testuingurutara egokitzeko gaitasuna izan du. Horrek azaltzen du, hein batean, munduan izan duen eta daukan eragin iraunkorra. Gehiengoan erlijioa da Europa hegoaldean (Italia, Frantzia, Espainia, Portugal), edota Europako beste lurralde batzuetan (Alemania hegoaldea, Austria, Polonia, Irlanda, Belgika, eta abar). XV. mendetik aurrera, Europako potentzia katolikoek agindu zuten munduko beste eremu batzuetan; hala nola, Espainiako, Portugaleko, Frantziako eta Belgikako inperioetan. Ondorioz, Ameriketako kontinentearen zati handi batean, Afrikako hainbat lekutan edota Asiako puntu jakinetan, katolizismoa da erlijio nagusi.

Espainian katolizismoa da biztanleen zati handi baten aukera erlijiosoa, eta 1978ra arte erlijio ofiziala izan da. Nagusitasuna du hainbat maila sinbolikotan, kulturaletan eta iruditeria kolektiboaren osaketan, baita bizikidetzaren ereduaren eraikuntzan eta abarretan ere. Aintzat hartu behar da, bestalde, gainerako aukera erlijiosoa askatasunez praktikatu ahal izateko trabak jarri zituztela Espainiako historiaren azken bost mendeetan, salbuespen gutxi batzuk kenduta. Espainiako katolizismoak betetze-maila apalak izan ditu azken hiru hamarkadetan (elizkizunetara joatea eta bestelako praktika erlijiosoa), baina pertenezia, lausoa izan arren, etengabekoa da (biztanleen % 70ek katolikotzat du bere burua, baina ohiko praktikatzaileak % 20 bakarrik dira). Betetze-maila askoz ere konstanteagoa izaten da talde kristau ebanjeliko eta independente gehienetan, baina aintzat hartu behar da azken aldiaren praktika erlijioso katolikoak ere gora egin duela Iberoamerikako herrialdeetako immigranteen etorreraren ondorioz, han betetze-maila Espainian baino handiagoa eta konstanteagoa baita.

Xiitak (musulmanak). Munduko islamaren jarraitzaileen % 12 dira eta, beren ustez, musulman komunitatearen agintari legitimo bakarrak Mahoma profetaren senideak eta ondorengo zuzenak dira; hau da, islameko laugarren kalifa Alirekin ezkontuta zegoen Fatima profetaren alabaren ondorengoak. Xiiten ustean, Alik eta bere ondorengoek, imam edo iman deiturikoek (suniten homonimoek baino askoz ere eskumen gehiago dituzte), santutasun berezia dute. Xiiten barruan hiru talde daude, segun eta zenbat imanetan sinesten duten: imamiak, hamabi imaneko zerrenda dutenak. Azken horiek dira talderik jendetsuena, bai eta talde nagusia ere Iranen eta Iraken. Bestalde, ismailiek lehen zazpi imanetan sinesten dute, eta horien artean alawiak gailentzen dira, batez ere Turkian eta Sirian.

Azkenik, zaidiak daude, bost imanen aldekoak. Katea eten egiten da hiru kasuetan «ezkutuko imanaren» desagerpenagatik. Iman hori *mahdiarekin* identifikatzen dute; hau da, noizbait itzuliko dela espero duten pertsonaia mesianiko eta salbatzailearekin. Xiitek, herrialde sunitetan ez bezala, klero antzeko bat dute, molaz eta aiatolahz osaturikoa. Klero horrek hierarkia konplexua osatzen du Iranen, eta eskumen politikoak ditu.

Espainian islam xiitaren jarraitzaile-talde txiki bat dago, eta poliki-poliki hazten ari da, biztanle xiitak dituzten herrialdeetatik etorritako immigrazioaren ondorioz (esaterako, Pakistanetik). Hara hor zergatik hasi diren Bartzelonan eta antzeko beste hiri batzuetan xiitak beren festak ospatzen; adibidez, axura. Dena dela, Espainian islam sunita da nagusi.

Txinako erlijioak. Batzuetan Txinako sinkretismo ere deitzen zaie. Txinako antzinako erlijioaren, konfuzianismoaren, taoismoaren eta **budismoaren** arteko nolabaiteko konbinazio aldakorra dira, bakoitzaren eragin-eremuan eta mundu osoan barrena zabaldutako txinatar migratzaileen komunitateen artean. Desberdinak diruditen elementuak konbinatuta eta gainjarrita lortzen den eraginkortasun espiritualeko irizpidea du oinarri. Adibidez, tenpluetan irudi asko egoten da, eta hainbat erlijiotako praktikak eta zeremoniak egiten dira, baldin eta gurtzen dituztenek uste badute eraginkorrak direla. Estatistika orokorrak ez dira fidagarriak, Txinako erlijio-praktiken inguruan inkognita baitago. Hala, Txinan erlijioaren aurkako politikak arindu badira ere, ezin esan daiteke erabateko erlijio-askatasuna dagoenik; hori dela eta, litekeena da Txinako erlijioen jarraitzaileak gutxietsita egotea, eta, edonola ere, 400 milioi baino gehiago izango lirateke mundu osoan.

Espainiako txinatarren komunitatea, sakabanatuta dagoen arren, handi samarra da. Askok ateoak, erlijiorik gabekoak edo kristauak (katolikoak zein ebanjelikoak) badira ere, kultu-leku txiki asko dituzten Txinako sinkretismoaren jarraitzaileak ere badaude; askotan familiarentzako edo talde txikientzako lekuak izaten dira. Bestalde, taoismoaren jarraitzaileak ere badaude, eta bileretarako zentro informalak dituzte, baita kultu-leku egonkorragoak ere. Horretaz gain, Falun Dafa taldearen jarraitzaile-kolektibo txikiak daude. Falun Dafa inspirazio budistako mugimendu erlijiosoa da, eta Txinako agintariak gogor jazarri izan dute. Batzuetan, Txinako erlijioek herrialde horretako gorputz-tekniken gorakadaren ondorioz izan dute inpakturik beren herrialdetik kanpora. Espainian, adibidez, tankera horretako proposamenak ugaritu egin dira.

Zientziologia (Scientology eliza): ÆEBetan sorturiko talde erlijiosoa. L. Ronald Hubbardek kutsu erlijiosoko eredu bat aurkeztu zuen 1954an gizakiaren garapen-aukerei buruzko bere *Dianetics* best-sellerrean. Eredu horrek garapen espiritualeko bide mailakatu proposatzen zuen, pertzepzioaren eraldaketa eragingo zuena (argitzapen-prozesua, harik eta *clear* egoerara iritsi arte), bai eta gizakiaren potentzialtasun maximoak handitzea ere (gorpuzdunetik harago *thetana* dagoela diote, hainbat mailatan eraginkor bilaka daitekeena). Hubbard jaunak eta bere jarraitzaile-talde aukeratu batek, 1967an Kanariar Uharteetan zeudela, garatu zuten Zientziologia («Itsasoko elkarte» deiturikoa).

Egitura erlijiosoak hainbat erritual eta zeremonia biltzen ditu (ezkontzak, hiletak, eta abar), baita kultu-lekuak, kultu-ministroak, eta abar ere. Zientziologiaren estatus erlijiosoa (Eliza izaera) aitortzeak arazoak ekarri izan ditu batzuetan. ÆEBetan eta beste hainbat herrialdetan legezko erlijio estatusa dauka (Church of Scientology izenarekin). Espainian urte askoz ukatu zitzaion Justizia Ministerioaren konfesio minoritarioen erregistroan izena emateko aukera, eta kultur elkarte gisa aritzen ziren (Dianetikaren Elkarte Zibila izenarekin), baina, azkenean, lege-borroka bati ekin eta irabazi egin zuten 2007ko urrian. Urte horretan, Espainiako Justizia Ministerioak erakunde erlijioso gisa erregistratu zuen Iglesia de Scientology izenarekin.

Konfuzianismoa: ikus Txinako erlijioak.

Kristautasuna. Jarraitzaile kopuru handiena duen liburu erlijioa da; fededun kopuruari erreparatuta, baita munduko erlijio handiena ere. Munduko leku askotan aurki dezakegu. Palestinan sortu zen duela bi mila urte eskas, Nazaretoko Jesus profeta judutarraren predikua ostean. Jarraitzaileen arabera, Jesus Jainkoa da eta Jesukristo izena ematen diote. Judaismotik eratorritako erlijioa da, eta erlijio horren mezuaren zati bat onartzen du, birdefinitu egiten badu ere. Erlijio monoteista izanik, Jainko bakarra dagoela esan arren, hiru pertsona daudela dio: Aita, Semea –Jesukristo– eta Espiritu Santua. Judaismotik liburu sakratua onartzen du; hau da, Itun Zaharra. Era berean, zati kristau bat eransten dio, Itun Berria. Azken horren muina Jesusen predikua azaltzen duten Ebanjelioak dira. Bi zati horiek osatzen dute Biblia kristaua.

Kristautasunak mezu erlijioso **unibertsalista** aurkezten du: edozer gizaki izan daiteke kristau, eta ez du erlijioak eskaturikoez gain beste ezaugarririk bete behar (batez ere Jesukristo jainkotasun salbatzaile gisa onartzea). Kristautasunera bihurtzea fenomeno arrunta da, eta kristautasuna erlijio misiolari oso eraginkorra da. Mundu mailako potentzia hegemonikoak XVI. mendean geroztik kristauak izan direnez, gorakada handia izan du azken mendeetan. Horrenbestez, garai haietatik hona munduan jarraitzaile kopuru handiena erlijio honexek izan du.

Kristautasuna zatituta agertu da oso antzinatek. Ez dago sailkapen erabat egokirik, baina, oro har, lau multzo handi bereiz daitezke: katolikoak, ortodoxoak eta ekialdekoak,

ebanjelikoak eta, laugarrenik, independenteak. Talderik handiena **katolikoak** dira; munduko bi kristautik bat.

Kristau ortodoxoak eta ekialdekoak 250 milioi inguru dira, **ebanjelikoak** 600 milioi pasatxo, eta **independenteak**, aurrekoetatik bereiztea zaila den arren, 200 milioi inguru dira. Nabarmendu beharra dago, halaber, kristautasunaren barruan erlijioa ulertzeko eredu indibidualek eta ez-afiliatuek gero eta presentzia handiago dutela.

Sentsibilitate kristauen arteko doktrina desberdintasunak handiak dira; batez ere, ebanjelioei, tradizioari edo komunitateen gobernu-erakundeei emandako garrantziaren inguruan. Ondorioz, zenbait taldetan komunitateak edo kongregazioak dauka erabakitze ahalmen nagusia; beste batzuetan notableek (agureak, presbiteroak) eta gainerakoetan, berriz, pertsona bakar batek kontzentratzen du erabakitze gaitasuna (katolikoek kasuan, aita santuak). Desberdintasun horiez gain, azken mende erdian nabarmenak izan dira ekimen edo mugimendu ekumenikoak. Mugimendu horiek hainbat eliza kristau elkartzearen aldekoak dira eta beste erlijio batzuetara ere ireki nahi dute, **erlijio-arte elkarriketaren** bitartez.

Gaur egun, bi milioi jarraitzaile baino gehiago ditu kristautasunak; munduko biztanleriaren herena dira eta munduko herrialde guztietan daude. Gehiago erlijiosoa dira Europa, Ameriketako eta Ozeanian. Afrikan ere gehiago erlijiosoa da, baina islamak oso hurbiletik jarraitzen du. Asian erlijio minoritarioa da.

Kristautasunaren presentziak III. mendetik aurrera izan du garrantzia Iberiar penintsulan. Islamak ere eragin numeriko oso handia izan zuen hiru mende inguruko aro batean (IX. mendetik aurrera); garai hori salbuetsita, kristautasuna izan da Espainiako historian gehiengoa izan duen erlijioa, Erromatar Inperioa kristautu zenetik. Espainiako kristau gehienak **katolikoak** dira.

Erljio-arte elkarriketa. Aurretik zenbait ahalegin izan baziren ere, modu ofizialean eta globalean 1893an hasi zen Chicagon, Erljioen Munduko Legebiltzarrean. Erljioen arteko harremanetan nolabaiteko aldaketa erakusten du, eta haren ezaugarri nagusia errespetuan oinarrituriko eta borroka gabeko elkarriketa da; betiere aintzat hartuta erlijio batek ere ezin duela erabateko hegemonia izan eta erlijio-askatasuna guztiek errespetatu beharreko oinarritzko eskubidea dela. Kristau-talde artean elkarriketa horri ekumeniko deitzen zaio, eta azken helburua eliza kristau guztiak batzea da. Maila globaleko erlijio-arte elkarriketan (kristautasunetik harago) ez dago adierazitakoa bezalako helmugarik; aitzitik, erlijioen arteko adiskidetasunaren aldeko apustua egiten da, bakea bultzatzeko eta gatazkak arintzeko, sinesmen aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta.

Espainian erlijio-arte elkarriketan aritzen diren hainbat talde daude, eta ekintzarik garrantzitsuena Bartzelonan 2004an eginiko Erljioen Munduko Legebiltzarra izan zen.

Ebanjelikoak (kristauak). Talde kristau ebanjelikoen ezaugarri nagusia ebanjelioei eta, oro har, Bibliako idazkiei ematen dieten nagusitasuna da, funtsezkotzat jotzen baitituzte kristautasuna ulertzeko. Bibliaren irakurketa zuzena funtsezkoa da. Hori horrela izanik, XVI. mendean talde kristau ebanjelikoak sortu zituen Erlijio Erreformatik eta bere abiarazle Lutherrek berebiziko ahalegina egin zuten Biblia itzultzeko. Horren helburua Biblia ahalik eta pertsona kopuru handienak irakurtzea zen, eta ez elizgizonek bakarrik, katolikoen eta ortodoxoen artean gertatzen zen bezala. Ebanjelikoek ez dute onartzen aita santua, kontzilioetako erabakiak eta, oro har, tradizioak eskrituren gainetik egotea. Era berean, erakunde batek (aitasantutza), doktrina batek (adibidez ogiaren eta ardoaren eukaristiako substantzia-aldaketa Kristoren gorputz eta odol bilakatzeko) edo praktika erritual jakin batek (santuak edota Andre Maria gurtzea) ez badute berariazko konfirmazioa eskrituretan, ez zaie kristau gisa onargarri iruditzen.

Ez dago izendapen erabat egokirik hein handiagoan edo txikiagoan Lutherrek eta Kalbinek abian jarritako Erreformatik datozen kristau-talde horiek biltzeko. Protestante terminoa erabili izan dute, baina, zenbaiten ustez, ez da egokia, Espainian eta beste hainbat tokitan duen zama estigmatizatzaileagatik.

Hori dela eta, ebanjeliko terminoak onarpen handiagoa du Espainian ere. Hala, Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioak (FEREDE) eliza asko eta asko biltzen ditu. Kristautasun ebanjelikoan fededun-komunitateak oinarritzeko egitekoa dauka, katolikoak (Aita Santuaren boterepean aglutinatuta) edo ortodoxoak ez bezala (kontzilioek eta sinodoek, apezpikuek eta patriarkek kohesionatua). Hori horrela izanik, egitura kolektibo anitzak sortzen ahalegintzen da, denboran eta espazioan sortzen diren hainbat eta hainbat sentsibiltate azaleratu nahi dituzten eta elkarren artean independentzia-maila handia duten eliza kopuru handi baten bitartez.

Europan XVI. eta XVII. mendeetan sorturiko eta protestantismo historikoaren barruan sarturiko izendapen zaharrenez gain (**luteranoak**, **kalbinistak** –erreformatuak edo presbiterianoak–, kongregazionistak, **anglikanoak** edo **metodistak**), kristautasun ebanjelikoak modu berriak sortu ditu gerora; bereziki, XIX. mendeaz geroztik. Indar handia hartu duten modu berri horiek batez ere AEBetan sortu ziren, eta handik abiatuta zabaldu. Aurrekoekiko independente izan nahi dute. Ugariak eliza **baptistak** eta **mendekostearrak** dira, eta, oro har, mugimendu **karismatikoak**. Baina aintzat hartu behar da talde ebanjelikoak oso ugariak eta anitzak direla, eta sentsibiltate eta ekintza komunitarioko eremu asko biltzen dituztela, baita antolamendu-eredu asko ere. Adibidez, kuakeroek edo Anaien Batzarrek eredu oso kongregazionalen alde egiten dute; amishek, modernotasunaren alderdi materialen ukazio deigarriaren alde (elektrizitatea edo eztanda-motorra erabiltzeari uko egiten diote, adibidez); Salbazio Armadak, bestalde, gizarte-bazterkeria hartu du ardatz, eta egitura militarra eman dio misio horri. Gaur egun, gehien hazten ari diren elizak mendekostearrak (eta karismatikoak) dira, munduko ebanjelikoen herena baino gehiago biltzen baitute. Britainiar Inperioaren goraldiaren ondorioz, XIX. mendean eliza anglikano-episkopalek izan zuten arrakastarik handiena; XX. mendearen zati handi batean, ordea, eliza baptistak hazi ziren gehien. Gaur egun, eliza askotan aintzat

hartu behar dira izendapen-arteke joerak. Horien helburua izendapen ezberdinen arteko hurbilketa bultzatzea da; hala, berdintasunak desberdintasunen gaintik nabarmentzen dituzte, eta kultueterako zein beste hainbat auzitarako espazio komunak sortzen dituzte, izendapenak izendapen. Horretaz gain, oso garrantzitsua da gaur egun talde ebanjelikoen artean elizen independentzia bultzatzearen aldeko joera; hala, joera horrek kristautasun **independenteak** loratu ditu, eta batzuetan oso zailak dira bereizten kristautasun ebanjelikoetatik.

Espainiako ebanjelikoen kopurua nabarmena da, eta hazten ari da. Hala, zerbitzu erlijiosoak jatorrizko hizkuntzan jasotzen dituzten iraupen luzeko turista atzerritarren kopurua aintzat hartuko bagenu (batez ere Balearretan, Kanarrietan eta Mediterraneoko kostaldean), seguruenik musulmanak baino gehiago izango liriateke. Edonola ere, kontuan izan behar dugu denboran asko aldatzen diren parte-hartzaileak direla, nahiz eta igandetik igandera asistentzia antzekoa izan (turismoaren goi-denboraldietan izan ezik). Espainiako ebanjeliko gehienak (turista atzerritarrak ez direnak) duela gutxi konbertitutakoak dira; azken 30 urteetan, hain zuzen. Nolanahi ere, kristautasun-modu horrek antzina Espainian izandako eragina aintzat hartuta, bigarren eta hirugarren belaunaldiko ebanjeliko kopurua ugartzen ari da, baita lehenagokoak ere.

Kristautasun ebanjelikoak 1992tik hona posizio pribilejioduna du legearen aurrean Espainian, FEREDeren (Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioa) eta Espainiako Estatuaren artean sinaturiko hitzarmenen ondorioz. Hitzarmen horiek Espainian kristautasuna ulertzeko ereduok errotzea aintzat hartzen dute, Erreforma luteranoaren garaian eta duela gutxira arte jazarpen handia jasan bazuten ere.

Falun Dafa: ikus Txinako erlijioak.

Bahá'í fedea. Erlijio global berrienetako bat da. Iranen sortu zen XIX. mendearen erdialdean, Bahá'u'lláh fundatzailearen (1817-1892) predikua ostean. Monoteistak dira, eta profeten bitartez agertzen den jainkotasun transzendente eta ezagutezina defendatzen dute. Profeta horien artean nabarmentzekoa da Bahá'u'lláh, bahá'í zikloa irekitzen duena. Ez dute ez erriturik, ez sakramenturik. Fededunaren eta jainkoaren arteko harremana zuzena da; bahá'í testu ugarien azterketa pertsonala funtsezkoa da, baita komunitatearen bilerak ere, erabaki kolektiboak hartzeko, arazoak konpontzeko, laguntza eskaintzeko eta ekintza misiolarrirako. Aro Garaikidean sorturiko erlijioa da eta jarrera nolabait «moderno» du; esaterako, zientziak eskaintzen duen mundua ulertzeko ereduak onartzen ditu, edota erlijio-askatasunaren eta gizakien arteko berdintasunaren garrantziaz jabetzen da. Bahá'í fedea **unibertsalista** da. Mundua muga nazionaletatik harago doan batasun gisa ulertzen dute, eta nahiko ohikoa da bahá'í elizako kideak herrialde batetik bestera joatea taldeak sortzeko. Ez dago doktrina-banaketa nabarmenik, eta Haifan (Israel) dagoen bahá'í egoitza zentralaren mende daude; hantxe daude taldearen munduko gobernu-erakundeak. Bahá'íak gutxiengo erlijiosoa dira, eta gaur egun zazpi milioi kide inguru dituzte, oro har. Asian garrantzi handia dute, kideen erdia hantxe baitago. Afrikan bi milioi inguru daude, baina kide aktiboak ia munduko herrialde guztietan dituzte. Jatorri pertsiarreko bahá'í kopurua

eta posizioa nahiko nabarmena da, Iranen jazarri egiten dituzten arren. Europan 150.000 inguru dira.

Espanian bahá'í fedea 1946an hasi zen ezartzen eta, gaur egun, 4.000 jarraitzaile inguru ditu, oso aktiboak **erlijio-arteko elkarrizketa** foroetan. Bi batzar nazionaletan antolatzen dira (Justizia Ministerioan erakunde erlijioso gisa bi erregistro desberdin dituzte): Espainiako batzar nazionala eta Kanarietako (Kanariar Uhartetako Bahá'í Batzar Espirituala).

Filadelfia, eliza: ikus mendekostearrak.

Hare Krishna: Krishnaren Kontzientziarako Nazioarteko Sozietatearen izen arrunta da (ISKON, ingelesezko siglen arabera, International Society for the Krishna Consciousness), eta, Indiatik kanpo, hinduismo vaisnavaren talde aktiboenetako bat. Hainbat herrialdetan dago ezarrita. Proselitismo eta ikusgarritasun ekintza nabarmena egiten dute Espainian ere, jarraitzaileen guztizko kopurua eskasa izan arren. Jarraitzaile gehienak mendebaldeko herrialdeetako konbertituak dira. Hinduismo berriaren talde trinko eta hedatuena dira, eta literatura vedikoa itzultzeko eta argitaratzeko lan handia egin dute, literatura sakratu hori mundu osoko irakurleei helarazteko helburuarekin.

Hinduismoa. Hinduismo terminoarekin Indian milaka urtean erlijioa eta nortasuna ulertzeko osatutako moduen amalgama konplexua definitzeko ahalegina egiten da, baita sinesmenak eta praktikak ulertzeko modua ere, nahiz eta zehazten erraza izan ez. Fededunen kopuruari erreparatuta, munduko hirugarren erlijioa da. Garrantzi handia ematen diote herentzia vedikoari. Vedetatik hartzen du izena; hiru mila urte ere izan ditzaketan idazki erlijioso oso anitzen bildumetatik, hain zuzen. Funtsezkoa da, bestalde, dharma kontuan hartuta bizitzea; hau da, pentsatzeko eta jarduteko modu egokia, une bakoitzean dugun posizioarekin bat etorriko dena. Era berean, kide garen familia-taldearekin edo talde profesional zein sozialarekin bat bizi beharko genuke.

Erlijioaren arloko espezialistei dagokienez, brahmanek zeregin garrantzitsua izaten dute, erritual-emaile eta testu sakratuen ezagutzaile diren aldetik. Hinduismoak ez dauka fundatzaile jakinik, baina mezu erlijiosoaren igorle pribilegiatutzat jotako jakintsu eta maisu kopuru handia dago. Dena dela, aintzat hartu behar da talde hinduista guztiek ez dituztela agintari berak errekonozitzen, eta ez dietela mezu erlijioso berei garrantzia ematen, ezta jainko berei ere. Hainbat eredu hinduistak politeismo oso konplexua proposatzen du, milaka jainko dituztenak; bai funtzionalak, bai tokikoak edo eskualdekoak. Beste batzuen ustez, ordea, jainko-figura ugari egoteak erakusten du fededunek izen asko ematen dizkiotela azken finean jainko bakar baino ez den horri.

Hinduismoaren ezaugarri nagusia, hortaz, aniztasuna da; batzuetan, erlijioa ulertzeko moduetan alde nabarmenak egoten dira jatorri sozial, geografiko edo familia ezberdinetako pertsonen artean. Egungo hinduismoan hiru talde nagusi daude; **vaisnavak**, shaivak eta shaktak. Horiei hinduista berriak erantsi behar zaizkie; alde batetik neovedantak, Indian gutxiengoa baina botere handikoa, eta, bestetik, hainbat bide espiritualen eta gururen

(maisú espiritualak) jarraitzaile indiarrek eta mendebaldarrak. Vaisnaven figura nagusia Vishnu da. Shaivena, berriz, Shiva, ohiko bidea utzi eta aszesia aukeratuta askapena bilatzen duten uko-egileak babesten dituená. Shaktak emakumezko indar jainkotiarraren jarraitzaileak dira. Indar hori Devi edo jainkosaren agerpenetan nortzen da. Neovedantak monoteista zorrotzak dira; haien ustez, Absolutuak (Brahmanak) guztia biltzen du, ez da pertsona-jainkotasuna eta ezin da forma jakin batekin lotu.

Gaur egun 800 milioi hinduista baino gehiago daude. Batik bat Indiako erlijioa da, herrialde horretan baitago praktikatzaileen gehiengoa; hala eta guztiz ere, aspalditik egon dira hinduistak Asiako beste leku batzuetan. Gaur egun, gutxiengoak daude Bangladeshen, Pakistanen, Sri Lankan, Malasian eta Indonesian. Migrazio-mugimenduek Asiatik kanpora bizitzera eraman ditu zenbait hinduista; adibidez Amerikara, Europara edota Afrikara. Batez ere AEBetan (milioi bat inguru daude), Britainia Handian (milioi erdi inguru) eta XIX. mendean eta XX. mendearen lehenengo erdialdean India menderatu zuen potentziaren agindupean egon ziren mundu oso herrialdeetan; hau da, Britainiar Inperioaren agindupean egondakoetan (bereziki Hegoafrikan, milioi erdia baitago bertan). Gehiengoan erlijioa da Amerikako bi herrialde txikitán: Guyana eta Surinam.

Proselitismoa ez da oso ohikoa hinduisten artean; izan ere, erlijioa familia hindu batean jaió den norbaiten nortasun-ezaugarrietako beste bat dela uste dute.

Dena dela, hainbat maisú espiritual hinduk mezu hinduista zabaldu dute Indiako mugetatik at XIX. mendeaz geroztik, eta, batzuetan, mendebaldeko sentsibilitateari egokituriko erlijioa ulertzeko moduak eskaini dituzte, zenbaiten ustez modu horiek hinduismo estandarretik aldentzen badira ere. Dena dela, horrelako erlijio anitzaren kasuan, zaila da estandarra zer den definitzea edo bereiztea. Gaur egun, nabarmentzekoa da Sai Baba, Aurobindo, Osho eta tankerako beste hainbat gururen (maisú espiritualak) edo kolektiboan jarraitzaileen presentzia, baita Espainian ere. Batzuetan hinduismo estandarrekiko independentzia areagotu nahi izaten dute, Brahma Kumaris-en kasuan bezala. Bestalde, **Hare Krishna** taldea ere aipatu behar dugu, egiten duen proselitismo aktiboa dela-eta. Horrez gain, yogak European eta Amerikan izan duen gorakada ere ezin dugu ahaztu. Praktika hori gorputz-teknika da, eta ez ditu Indian funtsezkoak diren balio erlijiosoak. Dena dela, badaude kutsu erlijioso handiagoa duten zentroak; batez ere, praktika-maila jakin batetik aurrera.

Espainian, jatorriz Indiakoak diren hinduista kopurua ezin da Britainia Handiarekin eta beste herrialde batzuetakoarekin alderatu. Hala eta guztiz ere, ehun urtetik gora daramatzate bertan (Kanarietan 1880 aldera iritsi ziren lehenengo hinduak). Hindu komunitateak Kanariar Uharteetan (Espainian kide gehien duen lekua), Ceutan, Melillan, Mediterraneoko kostaldean eta hiriburu handietan aurki ditzakegu, bereziki merkataritzan aritzen diren familien artean. Oro har, ez dira 20.000 lagun baino askoz ere gehiago izango. Bestalde, konbertitu talde txikiak ere badaude erro hinduistako beste hainbat mugimenduren artean; hala nola, Hare Krishna, Brahma Krishna (oso inplikatuak aspalditik erlijio-arteko elkarrizketan) edota hainbat gururen jarraitzaileak (adibidez Sai Baba). Nabarmentzekoa da, esan bezala, batzuetan nortasun independentea nahi izaten dutela

sortu diren tradizio erlijiosoarekiko, eta nahiago izaten dute hinduistatzat ez jotzea. Bestalde, Espainian yoga praktikatzeko zentro-sare zabala dago, baina ez da ohikoa identifikazio erlijioso hinduistaren alde egitea.

Independenteak (kristauak). Kristau independente terminoa Erreformatik sortutako kristauen doktrina- edo antolamendu-adostasunekin bat egiten ez duten taldeez hitz egiteko erabiltzen da; izan ere, ez dute beren burua talde horiekin identifikatzen, ezta haietatik eratorritako beste batekin ere. Dena dela, zaila da eliza ebanjelikoen eta independenteen arteko bereizketa-marra ipintzea; izan ere, tokian-tokian irizpideak aldatu egiten dira, eremu jakin batzuetako historia zehatzaren arabera.

Hortaz, Espainian, FEREDeren (Espainiako Erakunde Erlijiosoaren Federazioa) barruan, beste herrialde batzuetan independente gisa sailkatuko liratekeen izendapenak biltzen dira; adibidez, eliza **adbertista**. Eliza independenteen goraldia nabarmena da Amerikan eta Afrikan.

Kristau independenteek hitz egitean, nabarmendu beharra dago gero eta kristau gehiagok bestelako izendapen ereduak nahi dituela; dela izendapen arteko ereduak (hainbat izendapen uztartzearen aldeko joerak), dela izendapenik gabeko ereduak (izendapen bakoitza karakterizatzen duen nortasunarekiko hurbilketa askea proposatzen dutenak). Nabarmentzekoak dira, halaber, kristautasunaren adar ez afiliatuak.

Adar horiek ez dituzte egitura kolektibo egonkorrik behar edo nahi beren sinismena adierazteko; nortasun erlijioso ulertzeko modu zehaztugabeak dira, eta bat datoz gizarte industrialetan eta industrializazio ondoko gizarteetan agertu ohi den indibidualismoarekin.

Espainiaren kasuan, eragin handiena **Jehovaren Lekukoek** eta **mormoiek** dute, herrialdeko hainbat biztanle konbertitzea lortu baitute.

Islama. Liburu erlijioetatik berrienetakoa da; munduko bigarrena, jarraitzaile kopuruari erreparatzen badiogu. Arabian sortu zen VII. mendean Mahoma profetaren predikaren ostean, eta oso azkar zabandu zen Afrika iparraldetik eta Ekialde Ertainetik barrena. Erlijio monoteista zorrotza da, eta planteatzen dituen errore erlijioso handienetako bat jainkotasuna (arabieraz Allah) beste edozer entitate edo izakirekin lotzea da. Islamaren oinarritzko liburua Korana da, eta bertan biltzen dira, tradizioaren arabera, Allah Mahomari inspiratutako hitzak. Horrez gain, garrantzitsuak dira hadizeetan jasotako profetaren esanak eta ekintzak.

Musulman izateak jainkoaren bakartasuna onartzea esan nahi du, bai eta Mahoma behin betiko errebelazioa ezartzen duen profeta dela onartzea ere. Hori guztia egunero berretsi behar da Mekara begira errezatuz (eta are modu irmoagoan ostiraletan, meskitan, horixe baita otoitz komunitariorako gune nagusia). Musulmanen beste bereizgarrietako bat ramadan hilabetearen egunsentitik iluntzera arte baraualdia egitea da; baita behar dutenei laguntzea ere, bakoitzak duenaren zati bat ahal den guztietan emanda. Horrez gain,

gutxienez bizitzan behin Mekara joan behar dute, eta lege islamiarreko portaera-arauen arabera bizi behar dute.

Islama erlijio **unibertsalista** da, eta, azken bost mendeetako jarduera misiolaria kristautasunaren kasuan baino geldoagoa izan bada ere (munduko hegemonia herrialde musulmanen esku ez baita egon azken boladan), konbertsioa ez da harritzeko kontua gaur egun, ÆEBetan esaterako; han, islamera bi milioi lagun inguru bihurtu dira, gehienak ere Æfrikatik joandako biztanleen ondorengoak.

Hasiera samarretik, islama hainbat taldetan banatu zen. Talde nagusia **sunitak** dira, eta horiek dira gehiengo (musulmanen % 80 baino gehiago); ondoren, xiitak, munduko musulmanen % 10 inguru. Suniten eta xiiten desberdintasunen artean, nabarmentzekoa da azken horiek erlijio-agintariei ematen dieten garrantzia; hau da, aiatolahei eta molei. Sunitentzat, aldiz, jainkoaren eta fededunen arteko harremana zuzena da, eta bitartekariak (meskitez arduratzen diren imanak) ez dute horrenbesteko garrantzirik. Azken hamarkadetan indarra hartu du islamismo politikoak, gutxiengoan aukera den arren. Islamismo mota horrek proposatzen duenaren arabera, erlijioak, politikak eta gizarteak batera joan behar dute, eta ez zaie kasurik egin behar modernotasuna islamera egokitzeko ahaleginei. Proposamen horiek praktika politiko aktiboa ekarri dute, eta, zenbaitetan, indarkeria aukeratu dute beren ikuspuntuak inposatzeko. Islamak erlijioa ulertzeko eredu mistikoak ere baditu, sufismoaren barruan sartzen direnak, alegia. Sufiak anaitasunetan antolatzen dira (tariqa); talde horiek lan aktiboa egin dute islama erdialdeko eta ekialdeko Asian eta Sahara azpiko Æfrikatik ezartzeko (Senegalen eragin berezia dute anaitasun sufiek).

Islama jatorriz erlijio arabiarra bada ere, egungo musulman gehienak ez dira arabiarrek eta ez daude arabiar-tuta. Islam arabiarren mugak Iraken eta Sirian daude ekialdean; hegoaldean, berriz, Saharan. Hala, herrialde musulmanenak ez dira arabiarrek; esaterako Indonesia, Pakistan, Iran edota Turkia.

Egun 1.200 milioi musulman baino gehiago dago munduan. Æfrika iparraldetik eta ekialdetik Indiako azpikontinentearen iparraldera eta Indonesiara doan lur-zerrenda zabalean, etenik gabe, biztanleen gehiengo dira. Europa ÆAmeriketarako zabaldutako aurreko mendeetan, jarraitzaile kopuru handiena erlijio honexek zuen. Herrialde musulmanen dinamismoa dela-eta, hazkunde nabarmenenetakoa duen erlijioetako bat da, eta, gainera, eragin garrantzitsua du Europako herrialdeetan eta ÆAmeriketarako, azken hamarkadetakoa migrazio-dinamikaren ondorioz.

Fededun kopuruari erreparatuta, islama bigarren erlijioa da Espainian, kristautasun katolikoaren ondoren. Milioi bat fededun musulman baino gehiago daude. Horren arrazoi nagusia azken aldiko immigrazioa izan da, batez ere Æfrika iparraldetik etorria. Erregularizatutako marokoarrak milioi erdia baino gehiago dira, eta tarte handiarekin jarraitzen diete aljeriarrek (35.000). Senegaletik etorritako islamak ere izan du eraginik; talde horietan anaitasun sufiek dira nagusi. Horretaz gain, islamera konbertitzen gutxiengoak ere badaude. Konbertitzearen arrazoietako bat musulman batekin ezkontzea

da, baina, konbertituen artean, nabarmentzekoak dira hainbat sufismo modu jarraitzen dituztenak.

Esan beharra dago Espainia aparteko kasua dela European, aintzat hartu behar baita Erdi Aroan islamak zeresan garrantzitsua izan zuela Iberiar penintsulan. Bertan, aniztasun erlijioso zen nagusi eta **hiru erlijio** batera bizi izan ziren. Mendeetan erlijio nagusia izan zen lurraldean (garai hartan, Al Andalus) eta zenbait musulmanek, konbertituak zein immigranteak, herentzia hori baloratzen edo aldarrikatzen dute. Islamak lege-egoera pribilegiatua du Espainian 1992az geroztik, Espainiako Batzorde Islamiarrak (CIE) eta Espainiako Estatuak izenpetutako hitzarmenak direla-eta. Hitzarmenok aintzat hartzen dute erlijioen arteko bizikidetzaren historia, erlijio horiek Espainian duten errotze-maila nabarmentzeko (gauza bera gertatzen da judaismoarekin ere). Mesquita, elkarte eta kulturgune islamiarren kopurua etengabe ari da hazten Espainian. Haien zati handi bat bi federazioren inguruan dago bilduta: Espainiako Komunitate Islamiarren Batasuna (UCIDE) eta Erakunde Erlijioso Islamiarren Espainiako Federazioa (FEERI). Bi federaziook Espainiako Batzorde Islamiarreko kide dira.

Japoniako erlijioak. Txinako erlijioetan gertatu bezala, Japonian sinkretismo-prozesu bat gertatu da, sintoismoaren eta budismoaren artean. Sintoismoa da erlijio nazionala eta zaharra. Erlijio-adskripzio bikoitza ohikoa da, eta japoniar asko budista eta sintoista sentitzen dira aldi berean; zenbaitetan tenplu budistetako zerbitzuak baliatzen dituzte, eta, beste batzuetan, sintoistetakoak.

Espainian, batez ere, budismo japoniarraren jarraitzaileak daude (*zen* eskola, Nichiren eskola eta Soka Gakkai dira garatuen dauden taldeak). Edonola ere, kutsu sintoista handiko erlijio berrien jarraitzaile-taldeak ere badaude; gehienetan konbertituak izaten dira.

Judaismoa. Liburu erlijioetan lehena da, denborari erreparatuta, baita bizirik dauden erlijioen artean antzinatasun handiena duenetako bat ere. Ekialde Hurbilean sortu zen duela hiru mila urte baino gehiago. Erlijio monoteista da, eta garrantzi handia ematen dio memoriari. Hortaz, judutar asko iraganean bizi zirenekin identifikatzen dira gaur egun, denboran eta espazioan gertatutako aldaketak eta egokitzapenak gorabehera. Halaber, judutarrek jasandako jazarpenaren ondorioz eta historian kokaleku berri ugari aukeratu behar izanagatik sakabanatuta badaude ere, memoria gailentzen da. Berebiziko garrantzia ematen diote Biblia liburu santuari. Tanak izena ematen diote liburuari, hiru zati nagusien hasierako hizkiak direla-eta: Tora, lehenengo bost liburuak biltzen dituena; Nebim, liburu profetikoak; eta Ketubim, jakinduriazko liburuak eta hainbat idazki. Erlijio-lege eta bizitzagida gisa hartzen dute, batez ere lehenengo zatia (Tora). Bertako mezua hainbat garaitara eta egoerataraz egokitzea da erlijio honetako fededunen beste nortasun-seinale bat. Judaismoak ez dauka sortzaile jakinik. Abraham eta Moises figura erdi-legendarioak garrantzitsuak dira, baita David eta Salomon erregeak, edota hainbat garaitako Toraren profeta eta interpreteak ere. Orain ia bi mila urtetik hona, erlijio judutarraren praktika errabinoek kohesionatzen dute, eta komunitatea biltzen den lekuak sinagoga izena du.

Aintzat hartu behar da judaismoa, irizpide erlijioso ez ezik, irizpide etnikoa ere badela. Judutar izateko ez da derrigorrezkoa judutarren praktika eta erlijio-arauak jarraitzea; nahikoa da gurasoak judutarrak izatea (batez ere ama). Jaiotzez judutarrak diren kopuru handia dago, ez-erlijioso edo ateo direnak. Bestalde, judaismora bihurtzea ez da batere ohikoa; inoiz gertatzen bada ere, aparteko kontua izaten da, ez baita ez erlijio **unibertsalista**, ez misiolaria.

Jatorriaren arabera, judutar **askenaziak** eta **sefardiak** bereiz ditzakegu. Sefardiek Iberiar penintsulako judutarretatik datozela diote. Askenaziek, berriz, Europa erdialdeko judutarretatik, eta, gaur egun, talde horrexek ditu kide gehien. Beste banaketa batzuek fededunen eta komunitateen bizitza ulertzeko modu modernoekin dute zerikusia; hau da, bizitza ulertzeko modu moderno horiek erlijioan zer-nolako inpaktua duten aintzat hartuta egindako sailkapena. Hiru talde dira: ortodoxoak, kontserbadoreak eta erreformistak (edo liberalak). Ortodoxoek iraganari loturiko erlijioa ulertzeko moduen alde egiten dute, ahal den heinean. Erreformistak (edo liberalak) egungo ohitura aldakorrei irekita daude, eta halaxe bizi dute erlijioa; kontserbatzaileak, berriz, tarteko posizioan daude, eta garrantzi handia ematen diote tradizioari eta identitateari mundu aldakor honetan.

Gaur egun, gutxiengoen erlijioa da mundu osoari erreparatuta: hamasei milioi judutar inguru dago, eta, batik bat, ÆEBetan eta Israelen biltzen dira. Edonola ere, gutxiengo txikiak ere badaude Europako zenbait herrialdetan (Frantzia eta Britainia Handian, esaterako) eta Æmeriketean (Kanadan eta Ærgerntinan, adibidez).

Espainian ez dituzte 40.000 kide baino gehiago izango, eta horien artean ez-erlijioso ugari daude. Edonola ere, Espainian bizirik dirauen erlijiorik zaharrena da, Iberiar penintsulan judutarrak eta sinagogak kristautasuna ezarri aurretik baitzeuden. Judutarrak Gaztela eta Æragoiko erresumetatik 1492an kaleratu zituzten, itzultzeko aukerarik gabe (Nafarroatik 1498an). Ordura arte, ordea, judaismoa Iberiar penintsulan gora egin zuten hiru erlijioetako bat izan zen (gutxiengoa zuen hala ere).

Judaismoak 1992az geroztik lege-egoera pribilegiatua dauka Espainian, Espainiako Israeldar Komunitateen Federazioaren (FCIE) eta Espainiako Estatuaren artean sinaturiko akordioen ondorioz.

Liburu erlijioak. Liburu sakratu bati berebiziko garrantzia ematen dioten erlijioak; haien ustez, liburuak Jainkoaren errebelazioa jasotzen baitu. Erlijio askok beren doktrina idatziz eta liburu baten bitartez transmititzen badute ere, oso gutxik uste dute liburu bakar batek biltzen duela errebelaturiko mezuaren funtsa. **Judaismoaren** kasuan, judutarren Biblia da liburu hori; **kristauen** kasuan, Biblia kristaua, eta **islamaren** kasuan, berriz, Korana. Horiexek dira eragin handiena duten hiru liburu erlijioak. Gainera, Biblia eta Korana munduan gehien argitaratzen diren liburuetako bi dira. Beste hainbat liburu erlijio ere badaude; esaterako, oinarria Ædi Granth liburuan duten sikh-ak eta Ævesta liburua oinarri

duen mazdeismoa (jatorria Iranen du, eta Espainian ez du nabarmentzeko moduko lekukotasunik).

Luteranoak (kristau ebanjelikoak). Martin Luther erlijio-erreformatzailearen jarraitzaileak. Hark sortu zuen kristautasunaren interpretazio ebanjelikoa. Salbaziorako bidean, idazkiei, fedeari eta graziari berebiziko garrantzia aitortzen diote. Alemanian gehiengoan eliza dira, baita Eskandinaviako herrialdeetan ere. Baina, herrialde horiek Europatik kanpo gehiegi zabaldu ez direnez, batez ere Lehenengo Mundu Gerraren ondoren Alemaniak inperio koloniala galdu izanaren ondorioz, luteranismoak ez du hedapen global handiegirik izan.

Espainian Inkisizioak erabat moztu zuen Lutherrek sustaturiko erreformaren eragina. XIX. mendean hainbat talde luterano iritsi ziren Espainiara, eta taldeok garrantzi handia izan zuten Espainiako Eliza Ebanjelikoa izenarekin ezagutzen den izendapen-taldearen doktrina konfiguratzeko garaian. Nabarmentzekoa da, halaber, joera luteranoko elizen presentzia, Espainian bizi diren alemaniarrei eta eskandinaviarrei eskainitako zerbitzu erlijiosoetan. Kultu horiek fededunen hizkuntzan egin ohi dira, batez ere leku turistikoetan.

Metodistak (kristau ebanjelikoak). Ingalaterran sortu ziren XVIII. mendean, eta pietismoa da haien ezaugarri nagusia. Haien ustez, ekintza pertsonalek garrantzi handia dute salbaziorako bidean. Garrantzi handia izan dute kristautasuna ÆEBetan osatzeko, eta talde ugarietako bat dira herrialde horretan, mendekostearrekin eta baptistekin batera.

Espainian metodismoa Gibraltarretik barrena sartu zen, 1824rako misio metodista bat baitzegoen bertan. Gaur egun metodistak Espainiako Eliza Ebanjelikoaren ingurune komunean txertatuta daude.

Mormoiak (kristau independenteak). Azken Eguretako Santuen Jesukristoren Elizako kideak mormoi izenarekin dira ezagunagoak, haien liburuetakoa bat dela-eta: *Mormoiren Liburua*. Liburu hori Jesukristoren Ameriketako predikuaen islatzat jotzen dute, eta ÆEBetan sortu zen XIX. mendearen hirugarren hamarkadan. Talde ikusgarria da, bere misiolarien ekintza dela-eta.

Madriilen eraiki duten tenplu handiak inpaktu handia eragin du Espainian. Gaur egun 30.000 jarraitzaile baino gehiago dituzte, konpromiso sendoarekin; ehun kultu-leku baino gehiago dituzte. Faktore horiek guztiek garrantzi handia dute Espainian 2003an errotze nabarmena aitortzearekin.

Espiritualtasun berriak. Izendapen inklusibo honen bidez, erlijio izendapenaren pean gustura ez dauden sinismen-ereduen jarraitzaileak biltzea da helburua. Erlijio terminoari espiritualtasun terminoa kontrajartzen diote. Duela gutxi sorturiko talde askoren ezaugarria da hori; talde horiek instituzionalizazioari baino garrantzi handiagoa ematen diote

autolaguntzari eta autoerrealizazioari, eta, gainera, hainbat jatorritako gorputz-teknikak ere tartean sartzen dituzte (baina, batez ere ekialdekoak), baita meditazioa eta hainbat proposamen ere (igarpenak; heriotzari, gaixotasunari eta abarri aurre egiteko erro psikologikoko teknikak; *new age* proposamen etnikoak; eredu neopaganoak, eta abar). Espiritualtasun berrien kontzeptua eta erlijio berriena elkarrengandik hurbil daude, eta, zentzu zabalean, batak bestea biltzen duela esan daiteke.

Erljio berriak. Aro industrialean eta industria ondoko aroan sorturiko erlijioak, mezua modernotasunaren ezaugarrietara egokitzen dutenak: zientzia onartzea mundua azaltzeko modu gisa, indibidualismoa erlijioaren foku nagusitzat jotzea (autolaguntzako eta autoerrealizazioko praktiken gorakadak agerian uzten du) eta erlijioan eredu globalak eta sinkretikoak bilatzea. Modernotasunak eragiten dituen zalantzei zentzua eman nahi izaten diete; esaterako autoerrealizazio-premiei, barneko espiritualtasuna aldarrikatzeari, zahartzaroko faktore zehaztugabeei, heriotzari, iraungipenari eta abarri. Zientziologian, **bahá'í fedean** eta tankerako eredu erlijioso zentralizatuetan har dezakete oinarri, **baita *new age* edo erabat deszentralizaturiko sareetan ere** (haien alderdi ugarietan). Hainbat kasutan, erlijio zaharragoekin loturiko mezuetan oinarritzen dira. Hala, Batasunaren Elizak, adibidez, erro kristaua du; Meditazio Transzendentalek eta Brahma Kumaris taldeak erro hinduista dute; Sukyo Mahikarik sintoista, eta Falun Dafa taldeak, berriz, jatorri budista. Beste batzuetan, mezu berria izaten dute; horixe da, esaterako, zientziologiaren kasua. Oro har, duela gutxi sortutako taldeak izaten dira, eta aukera ugari proposatzen dituzte. Sarritan, erlijio tradizionalak baino espiritualtasun taldeak izaten dira (askotan nahiago izaten dute erlijio-taldetzat ez hartzea eta **espiritualtasun berriko** talde gisa ezagutzea). Jarraitzaile kopurua ez da oso handia izaten; dena dela, taldekideen profil indibidualak aintzat hartuta, zaila da zenbatzea edo antzematea.

Espanian erlijio berriek (eta espiritualtasun berriek) ez dirudi inpaktu handirik dutenik, jende-kopuruari dagokionez, behintzat. Kontuan izan behar dugu antzematen zailak izaten direla kideok, ez baitute ikuspen handirik nahi izaten, salbuespen gutxi batzuk kenduta.

Budismo berria. Asiatik kanpo ezarritako budismoa da; batez ere, Ameriketean, Australian eta Europan. Hainbat korrontetako konbertituek osatzen dute. Eskoletatik eta ereduetatik harago doazen mintzaira komunak bilatu eta osagai etnikoak minimizatu ohi dituzte.

Gainera, modernotasunera egokitzen saiatzen dira; bereziki, generoarekin, diziplinarekin edota lidergoarekin lotutako auzietan, baita meditazioaren eta bizitza aktiboaren arteko oreka bilatzeari dagokionez ere. Bestalde, tokian tokiko gaiak islatzen ere saiatzen dira. Budismo berria lausoa eta antzematen zaila ere izan daiteke; izan ere, praktika pertsonalak baino ez dira izaten, eta praktika kolektiboak tarteka baino ez dituzte egiten (gehienetan, meditazioa eta autolaguntza lantzeko ikastaro intentsiboak). Budista berri horiek aintzat hartzeko ahalegina dela-eta, zenbait estatistikak budista kopurua nabarmen ugazitzen du.

Espainiaren kasuan, kontaketa eskuzabal horiek budismoa hirugarren erlijio bilakatu dute (lehendabizi kristautasuna eta bere aldaerak, bigarrenik islama, eta hirugarrenik budismoa). **Hinduismo berria:** ikus hinduismoa.

Ortodoxoak eta **ekialdekoak** (kristauak). Kristau ortodoxoen eta ekialdeko kristauen ezaugarri nagusia Bibliari eta tradizioari ematen dioten garrantzia da. Tradizio hori hainbat mendetan garatu dute kontzilioetako erabakien eta pentsalari erlijiosoen idazkien bitartez. Apezpikuen eta patriarken autoritateari ere berebiziko garrantzia ematen diote. XI. mendearen erdialdean bereizi ziren behin betiko ekialdeko eliza kristaua eta mendebaldekoa (katolikoa), eta bi kristautasun moduok 1964an heldu zieten berriro bien arteko harremanei.

Erritu eta liturgia desberdinak izateaz gain, ortodoxoek eta ekialdeko katolikoek ez dute Aita Santuaren nagusitasuna onartzen; katolikoek aburuz, berriz, Aita Santua tradizioaren eta gainerako praktika nagusien gainetik dago. Eliza ortodoxoek osatzen dute kristau mota horretako talderik ugariena; orotara, 150 milioi fededun baino gehiago dira, eta gehienak Europa Ekialdean biltzen dira. Eliza independentetan antolatu dira (autozefaloak; hau da, elkarrengandik autonomo diren patriarkek zuzendutakoak), irizpide nazionaleri jarraiki. Eliza ortodoxoetan handiena Errusiakoa da, eta 50 milioi fededun inguru ditu; horren atzetik, Ukrainakoa, Errumaniakoa eta Greziakoa.

Ekialde Ertaineko eta Afrikako ekialdeko elizek, bestalde, aurrekoen aldean doktrina desberdinak dituzte, baita gainerako eredu kristauen aldean ere. Tamainari eta jarraitzaile kopuruari dagokionez, aniztasun handia dute; ugariak eliza koptoa (zazpi milioitik gora), etiopiarra (35 milioitik gora) eta armeniarra (lau milioi fededunetik gora) dira. Europa Ekialdeko herrialdeetatik izandako emigrazioak zabaldu egin ditu kristautasun modu horiek mendebaldeko Europan eta Ameriketan.

Espainiako errumaniarren komunitatea oso handia denez, Errumaniako eliza ortodoxoa hazten ari da eta, hein txikiago batean, gainerako eliza ortodoxoak (errusiarra, kasu) eta ekialdekoak ere bai. Dena dela, azken horien kultu lekuak ere ugartzen ari dira (askotan eliza katolikoak uzten dizkiete kultu-erako, harik eta fededun-taldea eliza bat eraikitzeko adina ugartzen den arte). Justizia Ministerioaren Erlijio Askatasuneko Aholku Batzordeak kristautasun ortodoxoa Espainian nabarmen errotuta dagoela aitortu zuen 2010eko apirilaren 15ean.

Mendekostearrak (kristau ebanjelikoak). Mendekostearrak AEBetan sortu ziren, XX. mendearen hasieran.

Apostoluen Egiteen hasieran kontaturiko Mendekoste eguneko esperientzia aldarrikatzen dute; hau da, Espiritu Santuaren bataioa, fededunen artean karisma itxura hartzen duena. Kontatzen dutenaren arabera, halaxe gertatu zen kristautasunaren hasieran apostoluekin ere. Erritu mendekostearrak oso ikusgarriak eta zirrargarriak dira. Karismak

hainbat modutan agertzen dira bertara joaten diren fededunen artean; esaterako, sendatzeko dohain espiritual gisa, predikazio profetiko moduan edota hizkuntzetarako dohain itxuran.

Mendekostearrak gaur egun gehien hazten ari diren kristau ebanjelikoak dira; bai mundu osoan, bai Espainian.

Espainian eliza mendekostear ugari dago. Askok independenteak dira, baina federazioak ere sortu dituzte: Espainiako Eliza Apostoliko Mendekostearren Federazioa (FIAPE, gaztelaniazko siglen arabera) eta Espainiako Eliza Ebanjeliko Mendekostearren Federazioa (FIEPE, gaztelaniazko siglen arabera). Jainkoaren Batzarra eta Filadelfiako Eliza dira Espainian presentzia handiena duten eliza mendekostearrak. Filadelfiako Elizak arrakasta nabarmena du Espainiako ijitoen artean (ijito mendekostearrak % 20 inguru dira).

Protestanteak: ikus ebanjelikoak (kristauak).

Sefardiak (judutarrak). Iberiar penintsulako judutarrak (hebreeraz Sefarad) eta haien ondorengoak dira. XV. mendearen amaieran kanporatu zituzten Sefaradetik, eta batez ere Mediterraneo arroan barrena zabaldu ziren. Erritu sefardiaren jarraitzaileak dira, eta haietako gutxi batzuek oraindik ladinoz edo judu-gaztelaniaz hitz egiten dute familia barruan. Hizkuntza hori gaztelaniaren aldaera da, eta hebreerazko hitz asko ditu.

Askok, gainera, abizen espainiarrak dituzte. Gutxiengoa dira egungo judaismoaren barruan (sei judutarretik bat da sefardia), eta batez ere Israelgo Estatuan daude, hara emigratu baitzuten herrialde arabiarrekin izandako gerren ondoren, Afrika iparraldetik eta Mediterraneo ekialdetik. Nabarmendu beharra dago, bestalde, Marokotik etorritako judutar sefardi talde batek Espainia aukeratu zuela jomuga gisa. Sefardiek eutsi egiten diote Sefaradeko judaismoaren goraldi kultural eta intelektualaren oroimenari, eta oraindik ere judutar sefardien ondorengoek Espainiako herritartasuna eskuratzeko aukera aldarrikatzen dute haietako askok.

Shaivak: ikus hinduismoa. **Shaktak:** ikus hinduismoa.

Sikh. Sikhismoa India iparraldean sorturiko erlijioa da, eta Nanak guruak (1469-1539) islamaren eta hinduismoaren ikuspegiak hurbiltzeko egindako ahaleginaren ondotik jaio zen. Erlijio monoteista da, eta Adi Granth izeneko liburu sakratua du. Liburu hori komunitatearen guru iraunkor gisa hartzen dute, eta kultu zentro edo *gurdwara* guztietan aurki dezakegu. Gehiengoa dira Indiako Punjab estatu txikian, eta hantxe dago haien hiriburua, Amritsar. XIX. mendearen hasieran estatu independente izatera iritsi ziren, harik eta britainiarrek beretu zuten arte. Gaur egun ez dituzte 20 milioi baino gehiago.

Historian jazarpen ugari jasan ditu erlijioa honek; horregatik, batzuetan, emigratu egin behar izan dute. Indiatik kanpo milioi bat sikh dago. Sikh gehien dituzten herrialdeak Britainia Handia, AEB eta Kanada dira; edonola ere, herrialde horietako bakoitzean ez dute milioi laurdena gainditzen.

Espanian Indiatik etorritako sikh komunitate txikiak daude. Haietako batzuek *gudwarak* osatu dituzte, batez ere Katalunian eta Mediterraneoko kostaldean.

Sintoismoa: ikus Japoniako erlijioak.

Soka Gakkai: ikus Japoniako erlijioak eta ekialdeko budismoa.

Sunitak (musulmanak). **Islamaren** barruko talderik handiena dira, alde handiz. Musulmanen % 80k baino gehiagok horrela ulertzen du erlijioa. Europako eta Amerikako musulman gehienak sunitak dira; are gehiago Espainian, etorkin musulman gehienak Magrebetik eta Sahara azpitik etorriak baitira (eremu horietako islamismoa sunita da). Sunismoak garrantzi handia ematen die tradizioari (*sunna* terminoak tradizioa esan nahi du) eta tarteko posizioei (bidezko erdibidea bilatzea), interpretazio pertsonalen eta muturrekoen aurrean; bai erlijio gaietan, bai ohituretan. Edonola ere, interpretazio sunita oso gogortzaleak ere badaude; esaterako, wahhabismoa. Islamaren korrante hori nagusi da Saudi Arabian, eta, herrialdearen botere ekonomikoa hain handia izanik, mundu islamiar osoan izan ohi du eragina. Sunismoa islam ortodoxotzat jotzen da (baldin eta nomenklatura horrek zentzurik badu erlijio horretan). Sunismoaren bihotzean interpretazio berezituak egiten dute bat; batzuk gogorragoak, beste batzuk posibilistagoak. Joera horiek lau eskola juridikotan banatzen dira: hanafia, Otomandar Inperioan nagusi; malikia, Afrika iparraldean ezarria; shaafia; eta hanbalia, literalistena (azken horren barruan dago wahhabismoa).

Taoismoa: ikus Txinako erlijioak.

Jehovaren lekukoak (kristau independenteak). AEBetan XX. mendearen hasieran sorturiko kristau-mugimendu independentea. Jarraitzaileek Bibliaren irakurketa literalista sustatzen dute, eta zorrotz aztertu eta itzuli dute liburua (itzulpena ez dator bat zenbait puntutan beste kristau batzuen irakurketarekin). Hala, zalantzan jarri dute interpretazio kristau tradizionala zenbait gairen inguruan; esaterako, Eguberriak santutzearen edo heriotzondoaren inguruan. Horrexek identifikatzen eta bereizten ditu. Proselitismo-lan handia egiten dute; haien ustez, Kristoren Erresuma azkar iritsiko baita. Etorrera hori Errebelazioen liburu biblikoan edo Apokalipsian dago bilduta eta, horri jarraiki, ahal den

pertsona kopuru handiena eraman nahi dute salbaziora, baita etxez etxeko bisitak eginez ere.

Espanian presentzia handienetakoa duen erlijio-taldeetako bat dira. Konpromiso osoko 100.000 bat jarraitzaile ditu, eta kultu-zentro ugari, milatik gora. Espainiako gutxiengo erlijiosoen artean geografikoki gehien banatuta dagoena da. Inpaktu hori dela-eta, 2006an errotze nabarmena aitortu zieten Espainian.

Hiru erlijio. Termino honen bidez, Iberiar penintsulan Erdi Aroan elkarrekin bizi izan ziren hiru erlijioak izendatzen dira, garaiaren eta lekuaren arabera adiskidetasun maila handiagoa edo txikiagoa izan bazuten ere; alegia, judaismoa, kristautasuna eta islama. Guztien arbaso legendario da Abraham, eta guztiek aitortzen dute haren herentzia komuna; hirurek ere Jainko bakarra gurtzen dute, jainko bera dela irizten diote, nahiz eta bakoitzak bere izena eman.

Unibertsalistak (erlijioak). Balizko fededun gisa gizadi osoa hartzen duten erlijioak dira. Ez dute inolako muga etnikorik, nazionalik edota bestelakorik. Erakartzeko gaitasun handia duten erlijiook, eta haietako asko misiolari eraginkorrak dira. Gaur egun fededun kopuru handiena duten erlijioak mota honetakoak dira. Horrek erakusten du erlijio unibertsalista eta ez-unibertsalista baten artean zer-nolako aldea dagoen fededun kopuruari dagokionez, bi erlijioak ahaide izanagatik ere. Kristautasunak mezu unibertsalista du eta bi mila milioi fededun baino gehiago ditu; judaismoak, ordea, hamasei milioi.

Vaisnavak (hinduismoa). Hinduismoaren barruan gehiengo taldea dira. Vishnu edo haren haragitzeetako bat da beren debozioaren xede nagusia; bereziki, Krishna. Askoren ustez, Krishna da jainkotasun nagusia edo bakarra. Indiatik kanpo, gizartean ikuspen eta eragin proselitista handiena duen joera vaisnavako talde nagusia **Hare Krishna** da.

Vedikoa: ikus hinduismoa eta Hare Krishna.

Zena: ikus ekialdeko budismoa.

ERANSKINA: ELIZEN, KOMUNITATEEN, KRISTAU-IZENDAPENEN EDOTA KRISTAU-TRADIZIOKO IZENDAPENEN SAILKAPENA⁹⁴

Eranskin honen bidez, obra honetan aipatutako eliza nagusien edota kristau-izendapenen sailkapena egingo dugu. Eskema honen helburua irakurleari testuak aipatzen dituen kristau-erkidegoak kokatzen edota identifikatzen laguntzea da; bai gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan ageri direlako, bai sarrerako ataletan aipatu ditugulako.

Nolanahi ere, hasiera-hasieratik argitu nahiko genuke eskema hau elizen, erkidegoen edota kristau-izendapenen inguruan egin daitekeen eskema posible bat baino ez dela, eta ez dela erabat zorrotza, gaur egun gero eta izendapen gehiago ari baitira agertzen. Sailkapen honen ikuspegia historikotasun-irizpideei loturik dago; izan ere, elizak eta erkidegoak kokatzeko baliatuko ditugun irizpideak sortzeko prozesu historikoekin zerikusi estua dute. Ondorioz, eskemak ez dio erantzuten islatutako elizen harreman juridikoari; hala eginez gero, mendebaldeko Eliza Katolikoak eta ekialdeko Eliza Katolikoak atal berean sartu beharko genituzke, guztiek ere Eliza Katoliko bakarra osatzen duten aldetik. Aitzitik, ikuspegi historikoari eta geografikoari heldu diogu eskema hau egiteko, pedagogikoagoa eta argiago izango delakoan. Horrelaxe azalduko genuke, esaterako, komunio anglikanoa eliza metodisten azpialdean berean egotea; izan ere, ideia horren arabera, eskema hori ondoren sortu ziren taldeak sorrarazi zituen tradizioetatik abiatuta artikulatzen da (batez ere mundu protestante konplexuari dagokion zatian). Edonola ere, horrek ez du esan nahi gaur egun elizak lotura instituzionalak dituztenik jatorrian dituzten elizekin.

Sailkapenaren ikuspegi historiko hau, halaber, kristautasuna bi adar geografiko handiren arabera antolatzean ere ikus dezakegu. Adar horietako bakoitzak lehendabiziko patriarkatuei egiten die erreferentzia: Erroma, Alexandria eta Antiokia, eta, ondoren, Konstantinopla eta Jerusalem. Sailkapen hau eta beste edozein da eztabaidagarri eta baliagarri, baina irakurleari nolabait ere eskema koherentea eta osoa eskaintzea da helburua; hau da, kristautasunak zer-nolako dibertsifikazioa izan duen bi milurtekootan, eliza- eta erkidego-antolaketari dagokionez. Azkenik, eskema honetan argi eta garbi ikusten da zenbat erlijio-mugimendu, -erkidego eta -erakunde sortu ziren protestanteen, ebanjelikoen, erreformatuen edota biblikoen barruan; hori horrela izanik, lan nekeza da haiek guztiak modu bakanean kontuan hartzea. Ondorioz, izendapenak multzokatu egingo ditugu, ahalik eta argien ematearren. Aitzitik, ekialdeko kristautasunaren barruan, eskema zehatzagoa dela esan genezake, ezin baititzakegu argiago identifika eliza gisa aitortutako komuniadun eliza multzoak. Hala eta guztiz ere, alor horretan hainbat eratako erlijio-erakunde ugari dago, zatikatzen, erreformen edota erreforma ofizialen oposizioen ondorioz sortuta; horrenbestez, izendapen generiko baten barruan multzokatuko ditugu horiek guztiak. Aurrekoarekin bat, ezinbestekoa da argitzea eskemaren ekialdeko zatian, epigrafe bakarrean, aitortutako elizak elkarrekin komunioan daudela; hori ez da gertatzen eskemaren mendebaldeko zatian, eranskin hau taxutzeko jarraitu ditugun irizpideen konbinazioa dela-eta.

⁹⁴ Anexolaboradopor Lidia Rodríguez Fernández y Eduardo J. Ruiz Vieytes.

A. Ekialdean sortutako kristautasuna (Konstantinoplako, Alexandriako, Antiokiako eta Jerusalemeko patriarkatuak)

a. Eliza ortodoxoak

i. Eliza ortodoxoa (lehen zazpi kontzilio ekumenikoen inguruko komunioa)

1. Konstantinoplako patriarkatua
 - a. Finlandiako eliza ortodoxo autonomoa
 - b. Estoniako eliza ortodoxo autonomoa
2. Alexandriako patriarkatua
3. Antiokiako patriarkatua
4. Jerusalemeko patriarkatua
 - a. Sinai Mendiko eliza ortodoxo autonomoa
5. Errusiako Eliza Ortodoxoa (Moskuko patriarkatua)
 - a. Ukrainiako eliza ortodoxo autonomoa
 - b. Japoniako eliza ortodoxo autonomoa
 - c. Txinako eliza ortodoxo autonomoa
 - d. Errusiako eliza ortodoxo autonomoa, Errusiatik kanpora
6. Georgiako Eliza Ortodoxoa eta Apostolikoa (Tiblisiko patriarkatua)
7. Serbiako Eliza Ortodoxoa (Belgradoko patriarkatua)
8. Errumaniako Eliza Ortodoxoa (Bukaresteko patriarkatua)
9. Bulgariako Eliza Ortodoxoa (Sofiako patriarkatua)
10. Zipreko Eliza Ortodoxoa
11. Greziako Eliza Ortodoxoa
12. Albaniako Eliza Ortodoxoa
13. Txekiako eta Eslovakiako Eliza Ortodoxoa
14. Poloniako Eliza Ortodoxoa
15. Ameriketako Eliza Ortodoxoa (Konstantinoplak aitortu gabea)

ii. Kaltzedoniakoak ez diren eliza ortodoxoak edota Ekialdeko komunio ortodoxoa (lehen hiru kontzilio ekumenikoen arteko komunioa)

1. Armeniako Eliza Apostolikoa
 - a. Armeniako Eliza Apostolikoa (Zilizia)
 - b. Armeniako Eliza Apostolikoa, Konstantinoplan
 - c. Armeniako Eliza Apostolikoa, Jerusalemen
2. Alexandriako Eliza Ortodoxo Koptoa
 - a. Erresuma Batuko Eliza Ortodoxo britainiarra
 - b. Frantziako Eliza Ortodoxo britainiarra
3. Etiopiako Tewahedo Eliza Ortodoxoa
4. Eritreako Tewahedo Eliza Ortodoxoa
5. Antiokiako Eliza Ortodoxo siriarra (eliza jakobita)
6. Siriako Eliza Ortodoxo indiarra (Malankara)

iii. Beste hainbat eliza ortodoxo, beren burua Kaltzedoniako edota bestelako eliza ortodoxoekin komuniorik gabekotzat dutenak (sinestun zaharren elizak, erritu zaharreko elizak edota aitortu gabeko beste hainbat eliza nazional).

b. Ekialdeko Eliza Asiriar Katoliko Apostoliko Santua (eliza nestortarra edota asiar-kaldeoa) (Antiokia) (lehendabiziko bi kontzilio ekumenikoen inguruko komunioa, kredo nizeno-konstantinopolitarra)

c. Ekialdeko Eliza Katolikoak (Erromarekin komunioan, mendebaldeko Eliza Katolikoaren batera, Eliza Katolikoa osatzen dute. Eliza horietako gehienak ekialdeko eliza ortodoxoetatik zatituak dira).

1. Armeniako Eliza Katolikoa
2. Bielorrusiako Eliza greko-katolikoa
3. Bulgariako Eliza Katolikoa
4. Eliza Katoliko Kaldeoa (Ekialdeko Eliza asiriarretik batua)
5. Eliza Katoliko Koptoa
6. Kroaziako Eliza greko-katolikoa
7. Eslovakiako Eliza greko-katolikoa
8. Etiopiako Eliza Katolikoa
9. Georgiako Eliza Katolikoa
10. Greziako Eliza Katolikoa
11. Hungariako Eliza greko-katolikoa
12. Eliza Katoliko greko-italiarra edota italiar-albaniarra
13. Mazedoniako Eliza Katolikoa
14. Eliza Katoliko maronita
15. Eliza greko-katoliko melkita
16. Errumaniako Eliza Katolikoa
17. Errusiako Eliza Katolikoa
18. Eliza Katoliko erruteniarra
19. Siriako Eliza Katolikoa
20. Eliza siriar-malabarra
21. Eliza Katoliko siriar-malankarra
22. Ukrainiako Eliza greko-katolikoa
23. Serbia eta Montenegroko Eliza greko-katolikoa

B. Mendebaldeko kristautasuna

a. **Mendebaldeko Eliza Katolikoa** (Erromako patriarkatua) (Ekialdeko eliza katolikoekin batera, Eliza Katolikoa osatzen dute).

i. Erromarekin komunioan ez dauden tradizio katolikoko elizak.

b. **Eliza erreformatuak** (protestanteak edota ebanjelikoak).

i. **Jatorri anglikanoko elizak**

1. Komunio anglikanoa
2. Metodistak
3. Anaien Elizak

ii. Erreforma Magisterialetik sortutako elizak

1. Eliza luteranoak
2. Eliza kalbinistak
 - a. Eliza presbiterianoak
 - b. Eliza erreformatuak

iii. Erreforma Erradikalarekin sortutako elizak

1. Eliza anabaptistak
 - a. Menonitak
 - b. Huteritak
 - c. Amishak
 - d. Anaïen erlijio-elkartea (Kuakeroak)
2. Eliza baptistak
3. Eliza ebanjeliko askeak
4. Eliza mendekostarrak
 - a. Filadelfiako eliza
5. Eliza neomendekostear edoneokarismatikoak

c. Beste hainbat kristau-eliza

d. Kristau-inspirazioko beste eliza batzuk

- i. Zazpigarren Eguneko Eliza Adbentista
- II. Azken Eguneako Santuen Jesukristoren Eliza
- III. Jehovaharen Lekuko Kristauen Eliza

ERANSKINA: ESPAINIAN ERLIJIO-ALORRA ARAUTZEN DUEN ESPARRU JURIDIKOA

José María Contreras

Espainiako erlijio-historia garaikidea konfesionaltzat jo dezakegu; konfesionaltasun erradikala, doktrinala edo soziologikoa, okasioaren arabera. Erlijio katolikokoak ez diren kultu ez-ofizialen intolerantzia absolutuenetik nolabaiteko onargarritasun pribatura igaro da. XIX. mendeko Espainiako konstituzionalismoaren ezaugarri nagusia, erlijioaren alorrean, konfesionaltasun katolikoaren aldeko eta beste fede edo erlijioen kontrako adierazpenak egin izana da. Mende horretan apenas izan den beste erlijiorik edo talde erlijiosorik Espainian; hori agerian geratzen da atzerritarrei bakarrik eta atzerritarren eraginez ematen zaielako bestelako erlijioak praktikatzeko aukera, Estatuaren erlijio ofiziala katolikoa baita.

Hala, 1808 eta 1868 artean nolabaiteko erlijio-tolerantzia ezartzeko ahaleginak egin zituzten, **1812ko Espainiako Konstituzioan** (12. art.)⁹⁵ ezarritako Estatuaren konfesionaltasun erlijiosoa gainditze aldera. Aipatutako testua erabat intolerantea da, eta kontraste handia egiten du gainerako artikulua aurreratu eta progresistekin; esaterako, botereen banaketari eta Nazioaren subiranotasunari buruz hitz egiten dutenekin (3. art.).

Prozesu horretan, **1837ko Konstituzioak** nolabaiteko aurrerapena ekarri zuen, konfesionaltasun katolikoaren adierazpena ez baitzen doktrinarekin lotu, baizik eta elementu soziologikoekin (11. art.)⁹⁶. Hori horrela izanik, konfesionaltasun katolikoa espainiarrekin lotu zuten, eta ez Espainiako nazioarekin. Erlijio Katolikotik aldentzen desamortizazio politikaren garaian hasi ziren; politika haren azken urratsa Madrilgo Nuntziatura Apostolikoa ixtea izan zen.

Edonola ere, **1845eko Konstituzioarekin** konfesionaltasun doktrinal katolikoko postulatueta itzuli zen Espainia, eta, ondorioz, aurrekoaren egindako bidean atzerantz egin zen (11. art.)⁹⁷. Era berean, 1837an nolabaiteko erlijio tolerantziarantz abiarazitako bilakaerak atzerakada are handiagoa izan zuen, Egoitza Santuak eta Estatuak egindako hurbilketarekin eta **1851ko Konkordatuarekin**. Konkordatuak konfesionaltasun katolikoko adierazpen baztertzaila biltzen zuen (1. art.)⁹⁸, eta bere egiten zuen Eliza Katolikoaren Zuzenbidearen zati mardul bat ere.

1869ko Konstituzioa irekiagoa da, 1868ko iraileko iraultzaren isla baita eta liberalismoaren postulatuak argiago islatzen baititu arauetan. Erlijioa 21. artikuluan⁹⁹

⁹⁵ 12. art.: «Espainiako Nazioaren erlijioa katoliko, apostolico eta erromatarra da, eta beti izango da egiazko erlijio bakarra. Nazioak babestu egiten du lege zuhur eta bidezkoekin, eta beste edozer praktikatzeari debekatzen du».

⁹⁶ 11. art.: «Nazioak espainiarrek praktikatzeko erlijio katolikoaren kultuari eta ministroei eusteko betebeharra hartzen du bere gain».

⁹⁷ 11. art.: «Espainiako Nazioaren erlijioa katolikoa, apostolicoa eta erromatarra da. Estatuak bere gain hartzen du kultuari eta bere ministroei eusteko betebeharra».

⁹⁸ 1. art.: «Erlijio katoliko, apostolico, erromatarri, Espainiako Nazioaren erlijio bakar denari, beti eutsiko zaio berorren maiestate katolikoaren lurretan, Jainkoaren legearen arabera eta arau sakratuetan ezarritakoari jarriki izan behar dituen eskubide eta pribilegio guztiekin, beste edozer kultu alde batera utzita».

⁹⁹ 21. art.: «Nazioak erlijio katolikoaren kultuari eta ministroei eusteko betebeharra hartzen du bere gain».

Espainian bizi diren atzerritar guztiek beste edozer kulturen praktika publiko edo pribatua bermatuta izango dute, eta ez dute moralaren eta Zuzenbidearen arau unibertsalek ezarritakoak baino muga gehiagorik izango.

arautu zen, eta kultu guztien praktika pribatua eta publikoa onartzen zuen. Horrez gain, konfesionaltasunari buruzko adierazpen oro desagertu egin zen Konstituziotik. Azken finean, Konstituzio horrek lehenengo aldiz onartu zuen espainiar ez-katolikoak egotea, eta, gainera, zenbait eskubide ematen eta bermatzen zizkien. Horrek guztiak erakusten du tolerantzia jarrera baino zerbait gehiago dela; kultu-askatasuna erakusten du, kultuok publikoki zein pribatuan praktika baitaitezke. Are gehiago, espainiarren eskubide zibilak eta politikoak arrazoi erlijiosoengatik urratzea ere zigortu egiten zuen testuak (27. art.)¹⁰⁰. Konstituzio hori indarrean oso denbora laburrean egon zenez, ikuspegi praktikotik ez zuela eragin handirik izan zehaztu beharra dago; edonola ere, denbora-tarte hori inflexio-puntu izan zen Espainiako gutxiengo erlijiosoak tratatzeko planteamendu teorikoan. Tratamendu hori tolerantzia erlijioso soil izatera igaro zen 1876ko Konstituzioan, berriz ere konfesionaltasun katolikoa aldarrikatu baitzuen (11. art.)¹⁰¹. Horren ondorioz, erlijio katolikoarenak ez ziren zeremoniak eta adierazpen publikoak debekatu zituzten; hortaz, bestelako konfesioak zituzten espainiarrek eremu pribatuan baino ezin zuten baliatu erlijio-askatasuna.

Labur esanda, XIX. mendeko Espainiako konstituzioetan egiten den konfesionaltasun katolikoaren eta Nazioaren arteko lotura Espainiaren inguruan ideia jakin bat oinarri hartuta egiten da. Ideia horren arabera, Espainiako Nazioaren funtsa katoliko izatea da, eta katoliko ez izatea ez dator bat espainiar izatearekin. Hori argi eta garbi ikus daiteke 1869ko Konstituzioan, nahiz eta toleranteena izan. Testu horren arabera, katolikoa ez den beste erlijio bat izatea zuzenean lotzen da atzerritar izatearekin. Planteamendu hori bera aurkituko dugu XX. mendean, erregimen frankistaren nazionalkatolizismo kontzeptuan.

Bigarren Errepublika eta **1931ko Konstituzioa** izan dira Espainiako historiako erlijio askatasun maila handieneko garaiak. Konstituzio horretan jaso zen lehenengo aldiz Estatuak erlijio ofizialik ez izateko aukera (3. art.), eta, hasiera-hasieratik¹⁰², kontzientzia-askatasunerako eskubidea aitortu zuen (27. art.)¹⁰³. Nolanahi ere, jarrera hori osatzeko, neurri laizistak hartu zituzten; adibidez, Konstituzioaren 26. artikuluan ezarritakoetako

Espainiarren batek katolikoa ez den beste erlijioaren bat praktikatzeko badu, haiei ere aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko zaie».

¹⁰⁰ 27. art., 2. lerroka: «Enplegu eta kargu horiek lortzea eta betetzea espainiarrek praktikatzeko duten erlijiotik at daude, , baita eskubide zibilak eskuratzea eta baliatzea ere».

¹⁰¹ 11. art.: «Erljio katolikoa, apostolikoa eta erromatarra da Estatuaren erlijioa. Nazioak bere gain hartzen du kultuari eta haren ministroei eusteko betebeharra. Inork ez du eragozpenik jasango Espainia barruan erlijioaren inguruko iritziak esateagatik, ezta bere kultura praktikatzegatik ere, betiere moral kristauari zor zaion errespetuarekin.

¹⁰² Behin-behineko Gobernuaren aldi baterako Estatutua onartzen duen 1931ko apirilaren 14ko Dekretua, 3. lerroka: «Behin-behineko gobernuak publikoki azaldu nahi du gizabanakoaren kontzientzia erabat errespetatzeko erabakia sinesmen eta kultura askatasunaren bitartez; horri jarraiki, Estatuak ezingo die herritarrei beren erlijio-sinesmenak azaltzeko eskatu inoiz ere». Kultura-askatasun hori, ondoren, 1931ko maiatzaren 22ko Dekretuak arautu zuen. Dekretu horren 3. artikulua honela zioen: «Erljio guztiek dute beren kultura praktikatzeko baimena, bai pribatua bai publikoa, eta haien muga bakarrak Ordena Publikoko Legeak eta erregelamenduek ezarritakoak izango dira».

¹⁰³ 27. art.: «Kontzientzia askatasuna eta edozer erlijio modu askean praktikatzeko eskubidea bermatuta dago Espainian, betiere moral publikoaren eskakizunak errespetatuta».

Hilerrak jurisdikzio zibilaren pean egongo dira. Haietan ez da eremurik bananduko erlijio-arrazoiak direla-eta. Sinesmen guztiek praktikatu ahal izango dute beren kultura pribatuan. Kulturen adierazpen publikoak Gobernuak baimendu beharko ditu. Inor ezingo da bere erlijio-sinesmenak ofizialki aitortzera behartu. Erljioa ez da izango iazera zibil edo politikoa aldatzeko arrazoi, Konstituzio honetan Errepublikako presidentea izendatzeko eta Ministro Kontseiluaren presidente izateko ezarritakoa kenduta».

batzuk¹⁰⁴, legegintza arruntean¹⁰⁵ bildutakoak, edota erregelamenduzko araudiari dagokionez jasotakoak.¹⁰⁶ Erljioa arlo indibidual edo pribatura baztertu, eta berdintasunaren planoan jaso zuten. Helburua Estatu eta Eliza bereiziko zituen eredu neutrala lortzea zen, baina eredu horrek jarrera liskartsuagoa hartu zuen erlijioaren alderdi publikoari dagokionez; bereziki, Eliza Katolikoak bi arlori buruz adierazitakoari dagokionez: hezkuntza eta merkataritza. Ikuspegi horren arabera, kultura eta bere adierazpen publikoak ez ziren bateragarriak bakearekin eta gizarte-bizikidetzarekin, eta, hortaz, Estatuaren helburuen kontra zeuden.¹⁰⁷

Espainiako Elizaren eta Estatuaren arteko harremanek oinarri izan duten printzipio pendularren barruan, Errepublika garaia amaitu eta erregimen frankista iristearekin bat, Estatu berri ere konfesional aitortu zuten; batasun erlijioso/batasun nazionala binomioari jarraiki, gainera. Helburua ez zen izan erlijio katolikoa Estatu erlijio ofizial izendatzea bakarrik, baizik eta erlijio batasuna nazioaren funts izatea. Horren ondorioz sortu zen «nazionalkatolizismo» kontzeptua.¹⁰⁸ Eredu horretako arauak **Erresumako Funtsezko Legeetan** bildu zituzten. Hala, nabarmentzekoak dira 1945eko uztailaren 18ko Espainiarren Foruaren 6. eta 33. artikulua; 1946ko uztailaren 26ko Estatu Buruzagitzako Ondorengotza Legearen 1. artikulua; 1958ko maiatzaren 18ko Mugimendu Nazionalaren Printzipio Legearen II. printzipioa eta 1967ko urtarrilaren 10eko Estatu Lege Organikoaren 3. artikulua.

Sistemaren printzipio modulatuaren ikuspegitik, nabarmendu beharra dago Espainiarren Foruaren 6. artikulua Espainiako Estatuaren konfesionaltasun adierazpena egin zuela eta, aldi berean, beste fedeen aldeko tolerantzia pribatua ere baimendu zuela.¹⁰⁹ Konfesionaltasun hori doktrinaltzat jo behar dugu, eta ez gertaeren egiaztatze soiltzat.

104 26. art.: «Erljio guztiak lege berezi baten mendeko elkartetzat hartuko dira. Estatuak, eskualdeek, probintziek eta udalerriek ez dituzte elizak, eta erlijio elkarte eta erakundeak mantenduko, faboratuko, ezta ekonomikoki lagunduko ere. Lege berezi batek arautuko du gehienez bi urteko epean apaizen aurrekontuaren erabateko desagertzea. Desegin egingo dira hiru boto kanonikoen gain Estatuaren agintaritza legitimoa ez den beste bati obeditzeko botoa ezartzen duten erlijio-ordena guztiak; haien ondasunak nazionalizatu egingo dira eta ongintzazko helburuetarako eta irakaskuntzarako erabili. Gainerako erlijio-ordenak Gorte Konstituziogile hauek bozkaturiko lege berezi baten mende egongo dira, honako oinarri hauetara egokiturikoa:

1^a. Beren jarduerak direla-eta Estatuaren segurtasunarentzat arriskutsuak direnak desegitea.

2^a. Iraun behar dutenak Justizia Ministerioaren erregistro berezi batean sartzea.

3^a. Bere kabuz edota izendatutako pertsonaren bidez etxebizitzarako edota helburu pribatuarako ez den bestelako ondasunik ezin erosi eta mantendu izana.

4^a. Industrian, merkataritzan edo irakaskuntzan aritzeko debekua.

5^a. Herrialdeko zerga-lege guztiak bete beharra.

6^a. Urtero elkarrearen xedearekin lotutako ondasunen inbertsioaren kontuak Estuari emateko betebeharra. Ordena erlijiosoen ondasunak nazionalizatu ahalko dira».

105 Cfr. Itsas armadako elizako zerbitzu militarrek desegiteari buruzko Legea, 1931ko azaroaren 24koa; Dibortzioaren Legea, 1932ko martxoaren 2koa; Ezkontza zibilar buruzko Legea, 1932ko ekainaren 28koa; Armadako elizako zerbitzu militarrek desegiteari buruzko Legea, 1932ko ekainaren 30koa; Estatuaren eta aitortza, ordena eta kongregazio erlijiosoen arteko harremanak arautzen dituen Legea, 1933ko ekainaren 2koa.

106 1931ko maiatzaren 22ko Dekretua; 1932ko uztailaren 14ko Agindu Zirkularra, 1932ko ekainaren 30eko Legea betearazteari buruzkoa; 1932ko abuztuaren 1eko Dekretua, 1931ko azaroaren 24ko Legea betearazteari buruzkoa.

107 Cfr. Alcalá-Zamora, N.; *Los defectos de la Constitución de 1931*, Ed. Civitas, Madril 1981, 105-118. or.;

Albeloa, V.; «La separación de la Iglesia y el Estado en la Constitución de 1931», in *Revista Española de Derecho Canónico*, 34. zk. (1978), 347-374. or.

108 Ikus honen inguruan: Díaz-Salazar, R.; *El factor católico en la política española. Del nacionalcatolicismo al laicismo*, PPC, Madril, 2006.

109 Espainiarren Foruko 6. art.: «Erljio katolikoaren profesioak eta praktikak babes ofiziala izango du, Espainiako Estatuaren erlijio den aldetik. Inork ez du eragozpenik jasango bere erlijio-sinesmenengatik ezta bere kultura modu pribatuan praktikatzegatik. Ezingo da erlijio katolikoari ez dagozkion zeremoniarik ezta kanpo-adierazpenik egin».

Ondorioz, Estatuak eta zegoen Zuzenbidea irakaspen katolikoaren agindupean zeuden.¹¹⁰ Aurrekoak berekin ekarri zuten erlijioa zuzenbide berezi baten mende egotea denbora-tarte horretan. Zuzenbide hori Eliza Katolikoaren aldekoa zen, eta itunetan oinarritzen ziren bere arauak¹¹¹; beste fedeentzat, ordea, kaltegarria eta intolerantea zen, baita ez-sinestunentzat ere. Arlo honetan, aipamen berezia merezi du Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren artean 1953an egindako Konkordatuak. Konkordatu horren bidez Elizaren eta Estatuaren arteko harremanen eredia uler dezakegu (Elizaren zuzenbide publikoaren printzipioetan oinarrituta zegoen); horrez gain, konkordatu hori erregimena kanporantz irekitzeko eta nazioarteko isolamendua gainditzeko laguntza handia izan zen, AEBekin sinaturiko Adiskidetasun Itunarekin batera. Konkordatuak Estatuaren konfesionaltasun katolikoa berretsi zuen (1. art.), eta Eliza Katolikoaren aldeko eskubide eta pribilegio sorta ezarri zuen; horien artean, Elizaren jurisdikzioa onartzea eta apaizak eta erlijio gizon-emakumeak jurisdikzio zibilarren mende egotetik salbuestea (foru-pribilegioa); ezkontza kanonikoari erabateko eraginkortasun zibila aitortzea eta Elizako jurisdikzioari ezkontzoi dagozkien gaitan eskumena aitortzea; erlijio katolikoa irakasgai arrunt eta nahitaezko gisa ezartzea ikastetxe guztietan; Estatuak Eliza Katolikoa ekonomikoki mantentzea; Eliza zergak eta kontribuzioak ordaindu behar izatetik salbuestea, eta Elizak Indar Armatuak laguntza ematea.

Bestalde, erlijio ez-katolikoek nolabaiteko tolerantziako lege-erregimena bizi izan zuten. Katolizismoa zen garai hartan egiazko erlijio bakarra, erlijio ofiziala; baina, legeak zioenez, erlijio ofizialaz gain beste bat egonez gero toleratu egin behar zela, talde horiek oker zeudela ahaztu gabe, dena den.

Sistemak, ordea, huts egin zuten; hain zuzen ere, Eliza Katolikoaren barruan gertaturiko bilakaera zela-eta. Vatikanoko II. Kontzilioa 1965ean amaitu zen, eta harekin, besteak beste, *Dignitatis Humanae* adierazpena onartu zuten. Adierazpen horren arabera, Eliza Katolikoak erlijio-askatasuna gizakiaren eskubide naturaltzat jotzen zuten gizarte zibilarren barnean. Eskubide horrek zioenez, inor ezin da behartu bere kontzientziaren aurka jokatzera eta ezin zaio inori galarazi bere kontzientziaren arabera jokatea, ez pribatuan, ez publikoan, bakarrik edo beste batzuekin elkartuta, betiere beharrezko mugen barruan.¹¹²

Egoera berri horren ondorioz, Espainiako Estatuak neurriak hartu zituen gizaki orenen eskubide hori egokitzeko eta txertatzeko, batez ere, legedian. Horrekin lotuta, adierazgarria da estatuburuaren jarrera; bere aburuz, ez zen beharrezkoa erreforma substantziala egitea, ezta Espainiarren Foruaren erreforma ere (adierazitako 6. artikulua bigarren paragrafoa baino ez zen aldatu¹¹³); izan ere, estatuburuaren espiritua, «kristau-pertsonalismoan oinarriturikoa eta guztion ongiaren ideiak orekatua, etengabekoa da». Planteamendu horretatik abiatuta, erreforma partziala egin zuten, eta minimoak baino ez zituen aldatu. Bestalde, Funtsezko Legeetan bildutako beste agindu batzuek indarrean jarraitu zuten;

¹¹⁰ Horri dagokionez, adierazgarria da Mugimendu Nazionalaren Printzipioen Legearen II. printzipioan ezarritakoa, horren arabera: «Espainiako Nazioak ohorezko ekintzatzat dauka Jainkoaren Legea errespetatzea, Eliza Katoliko, Apostoliko eta Erromatar Santuaren doktrinari jarraiki, hura baita bere legedia inspiratuko duen kontzientzia nazionalaren egiazko fede bakarra».

¹¹¹ Cfr. 1950eko Hitzarmena eta 1953ko Konkordatuak.

¹¹² 2. zenbakidun *Dignitatis Humanae* adierazpena.

¹¹³ Espainiarren Foruko 6. art.: «Estatuak bere gain hartuko du erlijio-askatasuna babesteko lana; askatasun hori morala eta ordena publikoa zainduko dituen babes juridiko eraginkorrak bermatuko du».

esaterako, Espainiarren Foruaren 33. artikulua¹¹⁴ eta Mugimendu Nazionalaren Printzipioen Legeen II. printzipioak.

Gauza bera gertatu zen garapeneko lege-arauarekin, erlijio-gaietan askatasunerako eskubide zibila baliatzea arautzen zuen 1967ko ekainaren 28ko Legearekin¹¹⁵; nahiko tolerantea zen eta katoliko ez ziren taldeei bakarrik eragin zien. Talde horiek zuzenbide pribatuaren mende geratu ziren «konfesio elkarten» figuraren bitartez. Legeak edozer erlijio modu pribatuan ala publikoan praktikatzeko eskubidea aitortzen badu ere, askatasun horrek, aldi berean, Espainiako Estatuaren konfesionaltasunarekin bateragarria izan behar duela ere aitortzen du (Funtsezko Legeen I. artikuluan jasota bezala); ondorioz, oinarrizko ondasun juridiko babestu bat (erlijio katolikoa) eta bigarren mailako ondasun bat (gainerako erlijioak) bereizten ditu legeak, Fernández-Coronadok dioen bezalaxe.¹¹⁶

Hitz batez, esan dezakegu etapa horretan guztian konfesionaltasunak Elizaren eta Estatuaren arteko harremanen oinarrizko printzipio izaten jarraitzen duela; aldaketak aldaketa, bai ondo hausnarturikoak (Vatikano II.a Kontzilioa), bai bat-batekoak (konstituzionalak zein legegintzakoak, Espainiarren Foruaren 6. artikulua edota Erlijio Askatasuneko Legea, hurrenez hurren). Azken etapa honetan, tolerantzia-erregimenetik erlijio-askatasuneko erregimenera aldaketa nabarmena gertatu bazen ere, oraindik ez da printzipio hori behar bezala betetzen; izan ere, gure ordenamenduak oso modu bitxian ulertzen du erlijio-askatasunaren eta konfesionaltasunaren arteko harremana, eta lehenengoak bigarrenaren alde amore ematen du. Erlijio katolikoa erlijio-askatasunaren muga gisa jartzen da, eta hori oztopo latza da erlijio-askatasuna egiaz eta eraginkortasunez aplikatzea lortzeko; bai kultura publikoaren ikuspegitik, bai eskubide indibidualaren ikuspegitik.

Espainiako Konstituzioa indarrean jarri ostean, antolamendu juridikoa errotik berritu behar izan zen Espainiaren konfigurazio berrira egokitzeko, zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko bilakatu zen aldetik (I.I. art.). Erlijio-aniztasunaren lege-esparruari dagokionez, garrantziaren arabera ordenaturiko honako arau sorta honen arabera antolatu zen: 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioa¹¹⁷, Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa¹¹⁸, Espainiako Estatuak eta Egoitza Santuak 1979ko urtarrilaren 3an sinaturiko lau akordioak¹¹⁹ eta azaroaren 10eko 24, 25 eta 26/1992 Legeak (azken horien bitartez, Espainiako Estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Judutar Komunitateen Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamiarrarekin sinaturiko akordioak onartzen dira, hurrenez hurren).¹²⁰ Eta horrek adierazitako arauetako bakoitza zehatzago aztertzea behartzen gaitu.

1978ko **Espainiako Konstituzioak** egoera berria ekarri zuen; hain zuzen, adostasuna eta erlijio gaietan gertaturiko porrot historikoak gainditzea zuen helburu. Hala, Estatuak erlijioarekin izandako harremanei buruzko zenbait printzipio ipini behar dira mahai gainean. Harreman horiek hainbat ardatz izango dituzte; hala nola, askatasun

¹¹⁴ Espainiarren Foruko 33. art.: «Foru honetan aintzatetsitako eskubideak ez dira Espainiako batasun espiritualaren, nazionalaren eta sozialaren aurka joango».

¹¹⁵ Ekainaren 28ko 44/1967 Legea (156. zenbakidun BOE, 1967ko uztailaren 1ekoa, 9.191-9.194. or.).

¹¹⁶ Fernández-Coronado, A.; «La tutela penal de la libertad religiosa», in *Anuario de Derecho Eclesiástico del Estado*, II. liburukia (1986), 39-40. or.

¹¹⁷ 311.1 zenbakidun BOE, 1978ko abenduaren 29koa.

¹¹⁸ 177. zenbakidun BOE, 1980ko uztailaren 24koa.

¹¹⁹ 300. zenbakidun BOE, 1979ko abenduaren 15ekoa.

¹²⁰ 2727. BOE, 1992ko azaroaren 12koa.

ideologikoaren, erlijiosoaren eta kultu askatasunaren errekonozimendua eta babesa (16.1. art.); guztiok legearen aurrean berdinak izatearen bermea eta arrazoi erlijiosoetan oinarrituriko bazterkeriarik eza (14. art.); edota erlijio batek ere izaera estatala ez izatea (16.3. art.). Hortaz, erlijio arloko oinarritzko printzipio konstituzional gisa honako hauek nabarmen daitezke: a) kontzientzia askatasuna; b) berdintasuna sinesmen kontuetan; c) Estatuaren laikotasuna eta d) sinesmen eta komunitate erlijiosoekin lankidetzatza.¹²¹

- a) Kontzientzia-askatasunak ikuspegi bikoitza du Konstituzioaren eremuan eta Espainiako erlijio-sistema politikoari dagokionez: lehenik Espainiako sistema juridikoaren oinarritzko printzipio gisa, eta Estatu/kontzientzia-askatasuna harremanaren eredu bitxia mugatzen duena; eta, bigarrenik, funtsezko naturaren eskubide subjektibo gisa.

Lehenengo ikuspegiaren arabera, kontzientzia- eta sinesmen-askatasuna gizartea eta politika antolatzeko printzipioa da, eta Espainiako Estatu definitzen duen ideia biltzen du.¹²² Horrek esan nahi du Estatuak kontzientzia- eta sinesmen-askatasuna onartzen dituela erlijio arloko sistema politikoaren oinarritzko informazio-printzipio gisa, edo botere publikoek jarrera jakin bat hartzen dutela erlijioaren aurrean. Horri jarraiki, botere publikoek ez dute eskumenik gai erlijiosoetan eta ezin diete gizabanakoei ezer inposatu; ez indarkeria bidez, ez ordezkapenez. Eta ezin dute gizabanakoekin fede-egintzen edo erlijio-praktiken titulartasuna partekatu, ezta sinesmenen edo konbikzio ideologiko edo erlijiosoen titulartasuna ere. Horren guztiaren ondorio hurbilekoena konfesionaltasun-adierazpen bat egiteko orduan botere publikoen erabateko aginpiderik eza da, ezta adierazpen horrek kutsu soziologikoa badu ere; hain zuzen, Espainiako herritarrekiko konkurrentzia-ekintza izango bailitzateke beren ideiak, sinesmenak edo konbikzio ideologikoak hartzerakoan, eta bateraezina izango bailitzateke kontzientzia-askatasunaren printzipioarekin. Fede-egintza konpontzeko beste modu batzuei ere soluzio bera aplika dakieke; esaterako, eduki negatiboa dutenen kasuan (ateismoa), edota agnostizismoaren edo indiferentziaren kasuan, egoera horietan ere Estatuak gizabanakoak behartzen arituko bailitzateke, edo haiek ordezkatzan edo haiekin lehian fede-egintzaren titular gisa. Aldi berean, aukera horiek edukiaren gainerako eskumena norena ote den planteazaziko ligukete, eta, kasu honetan, kutsu negatiboa duen ekintza batekin baino ez lirateke konponduko. Ondorioz, kontzientzia-askatasuna Espainiako Estatu definitzen duen printzipio gisa hartuta, Estatuak debekatuta edukiko du edozer derrigortze edo ordezkatzeko egitea herritarrei, baita edozer konkurrentzia eta baterako existentzia ere, kutsu ideologikoko edo erlijiosoko ekintzen edo jarreraren subjektu aktibo gisa. Gure egungo sistema politikoan Estatu Estatu besterik ez da, eta bere funtzioa pertsonen kontzientzia eta konbikzio askatasunerako oinarritzko eskubidea bermatzea da.

Bigarren ondorioa da botere publikoek ezin dutela inor behartu beren fede, erlijioa, sinismenak edo konbikzio ideologiko edo erlijiosoak aitortzera, inondik inora ere.¹²³ Eduki hori arau orokorra bada, zehaztu beharra dago eskumen honen babesa ez dela guztiz bateraezina zenbait arlotan botere publikoek ideiei, sinesmenei, konbikzioei edo erlijioari buruz galdetzeko aukerarekin (erlijioaren irakaskuntza edo erlijio-laguntza besteak beste), baina horren justifikazio bakarra pertsonen oinarritzko eskubideak errazago baliaraztea

¹²¹ Erlijioaren arloko iter konstituzionalean, ikus: Llamazares, D. eta Suárez Pertierra, G.; «El fenómeno religioso en la nueva Constitución de 1978», in *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense*, 61. zk. (1979), 7-34. or.

¹²² Viladrich, P. J.; «Los principios inspiradores del Derecho eclesiástico español», in *Derecho eclesiástico del Estado español*, 2. argitalpena, EUNSA, Iruña 1983, 193. or.

¹²³ EKko 16.2 artikulua: «Inor ezingo da behartu bere ideologia, erlijioa edo sinesmenak aitortzera».

izango da (kasu honetan, kontzientzia-askatasuna¹²⁴), eta ezingo da inolako bazterkeriarik gauzatu; ez eginiko adierazpenagatik, ez adierazpenik ez egiteagatik.

Horrekin batera, adierazi beharra dago botere publikoek kontzientzia-askatasunaren aurrean izandako portaera oro ez dela abstentzionista izango; horregatik, alderdi positibo bat ere aipatu beharra dago. Horrekin lotuta, 1978ko Konstituzioak botere publikoen esku uzten du funtzio positibo bat; alde batetik, oztopoak kentzea eta, bestetik, askatasuna sustatzea, eta, kasu honetan, kontzientzia-askatasuna ere bai.¹²⁵ Funtzio horren isla kontzientzia-askatasunerako funtsezko eskubidea arautzeko jarduera juridikoa izango da, funtsezko eskubide hori aitortzeaz gain, babestu eta sustatuko duten gizarte-baldintza objektiboak bermatzeko. Ondorioz, nabarmendu beharra dago Espainiako Estatuaren begietarako kontzientzia-askatasuna ez dela jarduteko muga, baizik eta askatasunari hedadura handiena ematen dion balioa. Hori horrela izanik, gure konstituzio-sistemak erlijioarekin loturiko honako axioma hau aplikatzeko aukera ematen du: «Ahalik eta askatasun handiena, beharrezko murrizketa txikiena». Estatuaren zuzeneko ekintza «Asistentzia Estatu» izenekoan mamitzen da, eta haren helburua egitera behartzea da, eta bi arlotan du eskumena: kontzientziaren eraketa askean eta gizakiaren nortasunaren garapen askean.

b) Kontzientzia-askatasuna legearen aurrean berdinekin osatzen da (14. art.)¹²⁶; berdinekin «legearen aurrean» eta «legearen berdintasuna» ekintzen aurrean. Gainera, bazterkeriarik ezarekin lotutako alderdi negatibo bat ere biltzen du.¹²⁷ Berdintasuna, hortaz, funtsezko eskubide subjektibo izateaz gain, askatasun-eskubideak osatzen eta sakontzen dituen elementua da; hori dela-eta, berdintasun-printzipioa askatasunaren sinonimo bilakatzen da, eta, zehazkiago, kontzientzia-askatasunarena.¹²⁸ Ikuspegi horretatik, berdintasuna printzipio generiko bilakatzen da; haren korrelatua, generikoa halaber, ideologian edo erlijioan oinarrituriko diskriminazio oro debekatzea da, baldin eta horrek gizarteko kide guztiek partekatzen duten funtsezko giza eskubideen titular erradikal eta paritario kutsua hautsiko badu. Horrek berekin dakar legeek herritarren artean bazterkeria-egoerak sortu ezin izatea; ez edukiaren ikuspegitik (berdintasuna legearen aurrean)¹²⁹, ez ondorio juridikoei dagokienez. Hori dela-eta, egoera berdinen aurrean ondorio juridikoak ere berdinekin izango dira (legearen berdintasuna).¹³⁰ Baina bi ekintza berdinekin izango dira legearen aurrean, biak ere bereizten dituen elementuak ez badauka behar beste garrantzi edo oinarri arrazional.¹³¹

¹²⁴ Ikus: 1976ko urriaren 27ko Europako Komunitateen Justizia Auzitegiaren Epaia, Prais kasua (*Reçueil de jurisprudence...*, 1976, 1589. or. eta hurrengoak).

¹²⁵ EKren 9.2. art.: «Botere publikoei dagokie gizabanakoaren eta hura sartuta dagoen taldeen askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta efektiboak izan daitezen; haren osotasuna galarazten edo zailtzen duten oztopoak kentzea, eta gizabanako guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturalan eta sozialean parte har dezaten erraztea».

¹²⁶ Cfr. Konstituzio Auzitegiaren 103/1983 Sententzia, azaroaren 22koa (32. zenbakidun BJC [1983+, 1529 or. eta], 5. oinarri juridikoa.

¹²⁷ 14. artikulua: «Espainiarrak legearen arabera berdinekin dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta».

¹²⁸ Llamazares, D., «Actitud de la España democrática ante la Iglesia», en *Iglesia Católica y regímenes autoritarios y democráticos (Experiencias española e italiana)*, EDERSA, Madril 1987, 148. or.; *idem: Derecho de la libertad de conciencia, op. cit.*, 246-254. or.

¹²⁹ Cfr. Jiménez Campo, J., «La igualdad jurídica como límite frente al legislador», in *Re-vista española de Derecho constitucional*, 9. zk. (1979), 79. or.

¹³⁰ Cfr. Jiménez Campo, J., *ibid.*, 80. or. eta hurrengoak.

¹³¹ Konstituzio Auzitegiaren 103/1983 Epaia, azaroaren 22koa, 5. oinarri juridikoa.

Ondorioz, erlijio-berdintasunaren printzipioa bermatuta egoteak esan nahi du herritarrek (beren ideologiaren, sinesmenen edo konbikzioen arabera) tratamendu juridiko anitza jasotzeko aukerarik ez edukitzea, eta, aldi berean, kontzientzia-askatasunaren oinarriko eskubideaz gozatzeko eskubide bera izatea.¹³² Nolanahi ere, tratu hori ez da uniformetasun gisa ulertu behar¹³³, baizik eta proportzionaltasun kualitatibo gisa; bestela esanda, egoera jakin bakoitzeko zirkunstantzien arabera legezko tratamendu desberdinak egiteko aukera bezala ulertu behar dugu.¹³⁴ Hortaz, gerta liteke pertsonen tratamendu anitza ematea, eta litekeena da, halaber, zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko batean, Konstituzioak antolamendu juridikoaren gainetik ematen dituen balioen eraginkortasuna dela-eta (alegia, justizia eta berdintasuna), tratamendu hori exijitzea (1.1. art. EK).

Horrekin batera, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua tipikotzat jo daitezkeen diskriminazio-egoera sorta bat biltzen du¹³⁵; horien artean, erlijioan oinarritutako tratu juridiko desberdina. Horrek debekatu egiten du justifikaziorik ez duen legezko tratu desberdin oro¹³⁶, arrazoizko ez izateagatik; justifikazioa helburuarekin eta hartutako neurriaren ondorioekin egongo da lotuta, eta justifikagarri izateko erabilitako bitartekoak eta bilatutako helburuaren arteko harremana arrazoizkoa izango da.¹³⁷ Ondorioz, berdintasun juridikoaren printzipioa hautsi dela esango dugu, arauaren eraginpeko subjektuen egoera berdina denean tratu desberdina jasotzen badute, arrazoi arbitrario bategatik edo justifikaziorik ez duen arrazoi bategatik, sinesmenekin edo ideologiarekin eta erlijioarekin zerikusia duten arrazoiak direla-eta.¹³⁸ Aurrekotik abiatuta, erlijio-bazterkeria arrazoi erlijiosoetan oinarrituriko bereizketa-ekintza oro dela esan dezakegu, baldin eta ekintza horrek guztiontzat berdina diren kontzientzia-askatasuna eta gainerako funtsezko eskubideak ezin baliatzea edo ez babestea badakar. Baina bazterkeria debekatzea ezin da identifikatu subjektuengan eragina izan dezaketen elementu desberdin guztiak preskribatzearekin; izan ere, Konstituzioaren antolamenduak bazterkeria debekatu du, Suárez Pertierra dioen moduan, baina ez du galarazten objektiboki desberdinak diren egoerak bereiztea. Eta bereizketa eta bazterkeria ez dira gauza bera; hain zuzen, lehenengoa arrazoi subjektiboetan oinarritzen baita, baina ez bigarrena.¹³⁹

Ondorioz, esan beharra dago erlijio-berdintasunaren printzipioa babesteak ez duela esan nahi, nahitaez, espainiar guztiak erlijio sinesmen edo ideologia bera eduki behar izatea, ezta herritar guztiak berdina tratatu behar izatea ere, beren ideiei, sinesmenei eta konbikzioei dagokienez. Printzipio bat izateak kontzientzia-askatasunerako eskubidea babestea esan nahi du, legearen aurreko kalitate eta tratu berarekin, espainiar herritarren ondare juridiko komunean dagoela bilduta. Alde horretatik, legearen aurreko erlijio-berdintasunak esan nahi du erlijio- eta kontzientzia-askatasunerako eskubide beraren titular izatea. Ondorio gisa, esan liteke Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua berdintasun juridikoaren ezaugarri nagusia «berdintasun formala» eta «erlatiboa» dela, «proportzionaltasun»

¹³² Cfr. Konstituzio Auzitegiaren 24/1982 Epaia, maiatzaren 13koa, 1. oinarri juridikoa.

¹³³ Cfr. Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1981eko uztailaren 2koa (4. zenbakidun BJC [1981], 249 or. eta hurrengoak), 3. oinarri juridikoa.

¹³⁴ Cfr. Konstituzio Auzitegiaren Epaia, uztailaren 10koa, 4. oinarri juridikoa.

¹³⁵ Cfr. Konstituzio Auzitegiaren 103/1983 Epaia, azaroaren 22koa, 5. oinarri juridikoa.

¹³⁶ Cfr. Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1981eko azaroaren 10koa (7. zenbakidun BJC [1981+] 513. or. eta hurrengoak), 5. oinarri juridikoa, Luis Díez Picazo magistratuak eginiko boto partikularra, *op.cit.*, 515-516. or.

¹³⁷ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia, 1968ko ekainaren 27koa eta 1975eko urriaren 27koa, in *Tribunal Europeo de Derechos Humanos. Veinticinco años de jurisprudencia (1959-1983)*, Diputatuen Kongresua, Madril, 1984, 67. or. eta hurrengoak, eta 271. or. eta hurrengoak, hurrenez hurren.

¹³⁸ Cfr. Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1981eko uztailaren 10koa eta martxoaren 30koa.

¹³⁹ Suárez Pertierra, G., «Artículo 14», en *Constitución española de 1978. Comentarios a las leyes políticas*, II. liburukia, EDERSA, Madril, 1984, 286. or.

printzipioan oinarritua; horren isla da «bazterkeria ezaren» korrelatu negatiboa, «berdintasun materialarekin» eta «absolutuarekin» kontrajarria.

Nabarmendu beharra dago, halaber, orain arte aipaturiko edukian ez dela agortzen berdintasun-printzipioaren irismena, eta beharrezkoa dela adierazitako 14. artikulua 9.2 artikuluekin lotzea. Agindu horrek osatu eta sakondu egiten du berdintasun juridikoko printzipioa, alderdi formaletik alderdi substantzialera igarotzea proposatzen baitu, eta horrek bi edukitan du isla: lehenengoa, berdintasun-printzipioa babesteko edo defendatzeko ekintza, eta, bigarrena, berdintasuna efektiboki ezartzeko beharrezko ekintza gisa. Eduki bikoitz horrek botere publikoen bi ekintza desberdin eragiten ditu: bat negatiboa eta bestea positiboa. Jarduera positiboak botere publikoen esku-hartzea eskatzen du pertsonen arteko berdintasuna eta askatasuna egiazkoak izan daitezen, baita pertsona horiek osatzen dituzten taldeena ere. Alderdi negatibotik, ekintza hori berdintasunaren edo askatasunaren osotasuna eragozten duten edo zailtzen duten oztopoak kentzeko prozesuaren bitartez gauzatuko da. Bi funtzioak berdintasuna eta askatasuna babesteko berme positibo beraren zati dira, eta botere publikoek biak baliatu ahal eta behar dituzte. Horren ondorio izan dira Estatuak talde jakin batzuen desorekak gainditzeko planteatu dituen jarduerak eta diskriminazio positiboko neurriak. Hala ere, agindu hau aplikatuta, ezin dira antolamendu juridikoak debekatutzat jo berdintasun-printzipioari aurka egitegatik.

c) Gure sistema politikoaren hirugarren oinarritzko printzipioa laikotasuna da (betiere erlijioaz hitz egiten ari garela)¹⁴⁰. Laikotasunak, Espainiako Estatuaren begietarako, ideiak, sinismenak edo konbikzio ideologiko edo erlijiosoak ezin direla bere izaeraren barnean sartu esan nahi du. Horrekin batera, zehaztu beharra dago botere publikoak jarduera bikoitza egitera behartzen dituela, estatu laiko den aldetik: positiboa lehenengoa eta negatiboa bigarrena. Alderdi positiboari erreparatuta, botere publikoek herritarren duintasunaren zerbitzura egoteko konpromisoa hartzen dute (Espainiako Konstituzioaren 10.1 art.). Alderdi negatiboak, ordea, berekin dakar Estatuaren erabateko aginpiderik eza, erakunde erabat ez-totalitario gisa fedeari dagokionez; bai ikuspegi positibotik, bai negatibotik.

Hortaz, laikotasun-printzipioaren berezko ezaugarria da Espainiako Estatuak dogmak, sinesmenak edo konbikzio erlijiosoak defendatu ezin izatea, edonolakoak direla ere, eta ezin du bizitza publikoa ikuskera erlijioso espezifikoko baten pean jarri. Halaber, ezin du fede bat bere gain hartu sinesbide, edo konbikzio bakar gisa, nahiz eta herritar gehienek edo gizartearen zati baten fede izan. Izan ere, jarrera horietako edozeinek urratu egingo luke «berdintasun printzipioa kontzientzia-askatasunean», baita laikotasuna bera ere. Testuinguru horren barnean, nabarmendu beharra dago laikotasunak galarazi egiten duela erlijioaren helburuak edo estatuarenak nahastea, eta horrek, aldi berean, galarazi egiten duela erlijio-balioak edo interesak botere publikoen arauen edo ekintzen zilegitasuna zein justizia neurtzeko parametro bilakatzea.¹⁴¹ Nolanahi ere, laikotasunak esan nahi du erlijioa Espainiako gizartearen ondare komunaren balio positiboa dela; baina ez erlijioa bere horretan hartuta, baizik eta pertsonen eta erlijio-taldeen kontzientzia-askatasunerako edo erlijio eta kultu-askatasunerako oinarritzko eskubidearen errekonozimendutzat, babestzat eta sustapentzat hartuta.

¹⁴⁰ Espainiako Konstituzioaren 16.3 artikulua, «*Erljio batek ere ez du izango estatu-izaerarik*».

¹⁴¹ Cfr. Konstituzio Auzitegiaren 24/1982 Epaia, maiatzaren 13koa, 1. oinarri juridikoa.

d) Azkenik, aipatu beharreko laugarren eta azken printzipioa Estatuaren eta erakunde erlijiosoen arteko harremanei dagokie.¹⁴² Zehaztu beharra dago, ordea, gure ustez lankidetzaharreman horiek kontzientzia-askatasuna eraginkor egiteko teknika gisa jarduten dutela gure sisteman. Eta ez botere publikoei onartzen zaien aukera gisa bakarrik, baizik eta bete beharreko mandatu gisa. Erakunde erlijiosoekin sinatutako lankidetzaharreman horiek Estatuaren laiktasun printzipioarekin erabat bateraezinak ez diren arren, gerta liteke Espainiako Estatuaren neutraltasun konfesionala zalantzan jartzea. Hori horrela izanik, zehaztu beharra dago konfesio erlijiosoekin izandako harremanak, batez ere haien jarduerari dagokienez, ezin direla interes erlijiosoen zuzeneko balorazioarekin identifikatu, bateraezina izango bailitzateke Estatu laikoarekin. Adierazitako guztitik lankidetzaren kontzeptu negatiboa atera dezakegu; hau da, lankidetzak ez luke inoiz helburu komunak lortzeko erakunde erlijiosoen eta botere publikoen arteko lotura izan behar. Ondorioz, Espainiako Estatuak positiboki balora dezakeen lan bakarra, lankidetzaren ikuspegitik, bere herritarren kontzientzia-askatasunaren aurreko berdintasuna babestea eta sustatzea da, baita erlijioen estatutu juridikoa ezartzea ere.

Kontzientzia-askatasunaren arloko askatasunaren antolamenduaz hitz egiten duten Konstituzioko printzipioen irismena eta edukia aztertu ostean, esan beharra dago Espainiako Konstituzioak laiktasun-formularen alde egin duela, askatasunaren eta erlijioberdintasunaren printzipioei jarraituz. Espainiako eredia neutraltasun-sisteman sar daiteke, eta, horren barruan, estatu laiko deiturikoetan.

Horrekin batera, nabarmentzekoa da funtsezko eskubideak indibidualki harturiko pertsonen eskubide gisa eratzen direla, eta, hortaz, pertsonak hartzen direla subjektu aktibotzat. Gizabanakoak dira, hortaz, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen berezko titular, eta halaxe da haien eremu kolektiboa eta komunitarioa ere; baina eratorritako subjektu edo subjektu instrumental gisa, erabilera kolektiboko eskubide indibidualak baitira. Horrek esan nahi du erlijio-aitormenak bigarren mailan edo mendean geratzen direla, eta haien helburua erlijio- eta kontzientzia-askatasunaren eskubidea egiaz lortzea dela. Horrekin batera, zehaztu behar da aniztasun ideologikoa (eta, ondorioz, erlijioso) pertsona aske bizitzeko, garatzeko eta prestatzeko esparru egoki bakar bilakatzen dela. Hori horrela izanik, Espainiako Konstituzioaren 1.1. artikulua aipatzen duen justiziak esan nahi du askatasunean berdinez izatea; hau da, pertsonaren izaera eta duintasuna bere askatasunean datzala, baina pertsona guztiei dagokiela, modu berean eta jaiotzetik (pertsonalizazio printzipioa). Askatasun hori posible izateko, subjektuak hainbat aukera eta prestakuntza-aukera (pluralismo printzipioa) izan beharko ditu eskura, baita bere bizitzako eta bizi den gizarteko erabakietan parte hartzeko aukera ere (parte-hartze printzipioa).

4. Kontzientzia-askatasunaren printzipioari jarraiki, erlijio gaietan Espainiako Estatuaren jarduna mugatzen duen irizpide sorta bat ondorioztatzekotan, eskubide gisa eratzeak ematen du irismena eta oinarrizko edukia zehazteko aukera; labur esanda, Espainian duen egiazko eraginkortasuna. Horri dagokionez, adierazi da kontzientzia-askatasunak, oinarrizko eskubide den aldetik, gizaki ororen izaeraren berezko justizia-eskaera dakarrela berekin, eta neurri horretan pertsonaren ideia edo definizioa ematen duela.¹⁴³

¹⁴² Espainiako Konstituzioaren 16.3. artikulua «[...] Botere publikoek kontuan hartuko dituzte Espainiako gizartearen erlijio-sinesmenak, eta Eliza Katolikoarekin eta beste erlijioekin lankidetzaharremanak».

¹⁴³ Viladrich, P. J., «Los principios inspiradores...», *op. cit.*, 251-252. or.

Kontzientzia- eta konbikzio-askatasuna funtsezko eskubide subjektibo¹⁴⁴ gisa dago jasota Espainiako Konstituzioan; horrek esan nahi du gizabanakoei eta haiek integratuta dauden taldeei autonomia aitortzen zaiela, eta, hortaz, eskubide bat dela Estatuaren zein hirugarrenen aurrean. Beraz, pertsona orok arlo horretan botere publikoen edo beste edozer pertsonaren edo talde sozialen aurrean erabateko koakzio-immunitatez jarduteko eskubidea du. Nolanahi ere, adierazi berri dugun kontzeptu negatiboarekin batera, Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua aginduz kontzientzia- eta konbikzio-askatasunaren kontzeptu positiboa ere adierazi behar da; Konstituzioak kreditu-eskubide bilakatzen du eta, haren arabera, eskubide horren titularrek eska dezakete botere publikoek portaera jakin bat edo prestazio jakin batzuk ematea. Horrek esan nahi du botere publikoek berme bikoitza eskaini beharko luketela; ez pertsonen eta konfesioen koakzio-immunitatea babestea bakarrik, baizik eta oinarrizko eskubidea erabat eraginkor izateko eta giza balioak erabat garatzeko gizarte-baldintzak sortzea ere bai.

Erljio-askatasunaren kontzeptualizazio bikoitza lege-garapenean islatuta agertzen da; hau da, uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoan.¹⁴⁵ Oinarrizko eskubidetzat hartzeak eta babes positiboak esan nahi du eskubide hau Estatuaren aurreko eskubide izatetik (eraginkortasun bertikala) Estatuaren barruko eskubide izatera igaroko dela, babes maila gorena duena. Horren erakusgarri da edukia Lege Organiko bidez garatu izana (Espainiako Konstituzioaren 81. art) eta Konstituzio Auzitegiaren aurrean babes-errekurtsoaren mende egotea (Espainiako Konstituzioaren 53.2 art.). Horrenbestez, uko egin ezinezko eskubide gisa dago jasota, baita partikularren eremuan ere (eraginkortasun horizontala); hala, azken horiek bermatuta daude eskubide hori bermatzera eta, batez ere, errespetatzera.

Erljio Askatasuneko Lege Organikoan bermaturiko erljio-askatasunerako eskubidearen funtsezko edukari dagokionez, eduki bikoitza duela nabarmenduko dugu: lehenengoa indibiduala, eta bigarrena, kolektiboa edo komunitarioa. Ikuspegi indibidualetik ere bi alderdi bereizi behar dira: lehenengoa negatiboa eta, bigarrena, positiboa. Alderdi negatiboaren ezaugarri nagusia botere publikoen jarduna mugatzen duen berme abstentzionista da. Eremu horren barruan sartu behar dugu Askatasun Erljiosoko Lege Organikoaren 2. artikuluko 1. paragrafoko edukia; haren elementu nagusia koakzio-immunitatea da; ondoren, erljio-askatasuneko funtsezko eskubidearen oinarrizko edukia osatzen duten eskubide sorta zerrendatzen du. Hau da: askatasunean aukeraturiko sinesmenak edo konbikzioak izatea; horien barruan posizio teistikoez gain, ateoak, agnostikoak eta interesik gabekoak ere sartuta daude (a paragrafoa); norberaren erljioa, sinesmenak edo konbikzioak aldatzea eta uztea (a paragrafoa); norberak dituen sinesmenak edo konbikzioak askatasunez adieraztea, baita halakorik ez badugu ere, eta horien inguruan azalpenik ematera ez behartzea (b paragrafoa); kultura praktikatzeko (b paragrafoa); konfesioak berak emandako erljio-laguntza jasotzea (b paragrafoa); jai erljiosoak ospatzea (b paragrafoa); ezkontzetako erritu erljiosoak ospatzea (b paragrafoa); duintasunez ehorztea, norberaren sinesmenekin eta konbikzioekin bat (b paragrafoa); mota guztietako erljio-informazioa jasotzea eta ematea, bai ahoz, bai idatziz, bai beste edozer prozeduraren bitartez (b paragrafoa); irakaskuntza erljiosoa jasotzea eta ematea, baita norberarentzat edo emantzipatu gabeko edo urritasunak dituzten mendeko adingabeentzat gure konbikzioekin bat datorren prestakuntza erljioso eta morala aukeratzea ere, eskolan zein eskolatik kanpo (c paragrafoa); era guztietako erljio-informazioa jasotzea eta zabaltzea, ahoz, idatziz edo beste edozer prozeduraren bitartez (c paragrafoa); publikoki biltzea eta manifestatzea helburu erljiosoekin (d paragrafoa); eta ekintza erljiosoak egiteko elkartzea

¹⁴⁴ Konstituzio Auzitegiaren 24/1982 Epaia, maiatzaren 13koa, 1. oinarri juridikoa.

¹⁴⁵ 177. zenbakidun BOE, 1980ko uztailaren 24koa. Aurrerantzean L.O.R.

(d paragrafoa). Eskubide horiek guztiak modu positiboan aitortzen dira eta pertsona orok askatasunez balia ditzakeen eskumenak dira; edonola ere, eskubideok ez baliatzeko edo baliatzeari uzteko aukera ere badute, eta horrek ez du esan nahi eskubideei eurei uko egiten dietenik.

Arlo kolektiboari dagokionez, nabarmendu beharreko lehenengo elementua konfesio erlijiosoei eta haien federazioei nortasun juridikoa aitortzea da; horretarako, aldez aurretik Justizia Ministerioak helburu horrekin sorturiko erregistroan izena eman behar dute (5. art.). Nortasun juridikoari dagokionez, erakunde erlijioso gisa izen-emate horrek izaera juridiko konstitutiboa dauka, baina Erakunde Erlijiosoen Erregistroko arduradunak izena emateko betekizunak egiaztatzeko unean, izaera aitortzailea hartzen du.¹⁴⁶

Adierazi bezala, errekonozituriko konfesio edo erakunde erlijiosoak beren estatutu juridikoan bildutako eskubide sorta baten jabe dira, eta, horien artean, nabarmentzekoa da barne-autonomiarako eskubidea, eta, hortaz, beren antolamendu-arauak, barne-erregimeneko arauak eta beren kideen arauak ezartzeko aukera (6. art.); kultu-lekuak edo bilerarako lekuak ezartzeko eskubidea, helburu erlijiosoekin (2.2. art.); beren kultu-ministroak izendatzeko eta prestatzeko eskubidea (2.2. art.); helburu erlijiosoa duten elkarteak, fundazioak edo beste edozer erakunde sortzeko eskubidea (6. art.); dogmak eta printzipioak irakasteko ikastetxeak sortzeko eskubidea, baita beren kultu-ministroak trebatzeko ere; fedea zabaltzeko eskubidea (2.2. art.) eta Espainian zein atzerrian beren erakundeekin eta beste konfesio erlijiosoekin harremanak izateko eskubidea (2.2. art.).

Ikuspegi positibotik, erlijio-askatasunaren sustapena hiru eremu materialetan zehaztu eta proiektatu da Erlijio Askatasuneko Lege Organikoan; hala nola, laguntza erlijiosoa ikastetxe publikoetan (2.3. art.), erlijio-irakaskuntza ikastetxe publikoetan (2.3. art.) eta Estatuaren eta konfesio erlijiosoen artean lankidetzat hitzarmenak egitea (7. art.).

Hortaz, eskubide baten esparru global malgu eta berezia eskaintzen duen lege organikoaren aurrean gaude (kasu honetan, erlijio-askatasunaren esparru espezifikoa), eta ez konfesioei edo estatuaren eta egungo askatasunaren arteko harremanen antolamenduaren aurrean, harreman horien erreferentzia instituzionala erantsi bada ere.

5. Azken eremu horrek erreferentziazko hirugarren arau-eremuan ipintzen gaitu; hau da, «zuzenbide paktizioaren» aurrean. Zehazkiago esateko, Estatuak orain arte konfesio erlijioso jakin batzuekin sinatutako hitzarmenek edo itunek mugatzen dute zuzenbide hori, Estatuko agintariak duten aginte-gaitasunarekin bat. Konfesio horiek, orotara, lau dira, horietatik hiru baitute Espainian errotze nabarmena: Eliza Katolikoa (1979ko urtarrilaren 3ko hitzarmenak), eliza ebanjelikoak (azaroaren 10eko 24/1992 Legea)¹⁴⁷, judutar komunitateak (azaroaren 10eko 25/1992 Legea)¹⁴⁸ eta musulman komunitateak (azaroaren 10eko 26/1992 Legea).¹⁴⁹

Arau mota hori erabilgarria dela egiaztatu ahal izan da, konfesioen estatutu juridiko zehatza islatzeko aukera eskaintzen baitu; horregatik erlijio-askatasunerako oinarritzko

¹⁴⁶ Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 2001eko otsailaren 15ekoa, 8. oinarri juridikoa.

¹⁴⁷ Azaroaren 10eko 24/1992 Legea, Estatuaren eta Espainiako Erlijio Ebanjelikoen Erakundearen Federazioaren arteko Hitzarmena onartzen duena (272. BOE, 1992ko azaroaren 12koa). Aurrerantzean 24. Legea.

¹⁴⁸ Azaroaren 10eko 25/1992 Legea, Estatuaren eta Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren arteko Hitzarmena onartzen duena (272. BOE, 1992ko azaroaren 12koa). Aurrerantzean 25. Legea.

¹⁴⁹ Azaroaren 10eko 26/1992 Legea, Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko Hitzarmena onartzen duena (272. BOE, 1992ko azaroaren 12koa). Aurrerantzean 26. Legea.

eskubidea eraginkor egiteko teknika egokia da. Baina, aldi berean, kritikak jaso dituen desberdintasun formal eta materiala ere bada; estatuaren laikotasunaren printzipio konstituzionalarekin bateraezintzat jo izan dena, hain zuzen.

Ikuspegi formaletik, jatorri paktiziodun arau sorta dugu, eta haien izaera juridikoa ez da unibokoa; horregatik, bi arau mota bereizi behar ditugu: alde batetik, Espainiako Estatuak Egoitza Santuarekin eginiko akordioak eta, bestetik, Espainiako Estatuak ebanjelikoekin, musulmanekin eta judutarrekin eginiko lankidetzak-hitzarmenak. Horrekin loturik, zehaztu beharra dago lehenengoak nazioarteko itunekin parekatzen direla¹⁵⁰; bigarrenak, berriz, Gorte Nagusien legetzat hartzen dira, Erljio Askatasunaren Lege Organikoaren 7. artikulua aurreikusitakoari jarraiki. Ikuspegi horretatik, akordio mota bat eta bestea bereizi egin behar dira. Hori horrela izanik, Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko hitzarmenentzat arau-oinarria Espainiako Konstituzioaren 94. eta 96. artikulua dira, eta Kode Zibileko 1.5 artikulua ere bai; hortaz, adierazitako aginduak edozer eragile juridikoren erreferentzia-puntu nagusia dira. Lankidetzak Hitzarmenei dagokienez, haien erreferentzia-puntua arestian aipaturiko Erljio Askatasunaren Lege Organikoaren 7. artikulua da.

Egoitza Santuarekin eginiko hitzarmenei dagokienez, gaur egun honako hauek daude indarrean: Elizako Unibertsitateetan¹⁵¹ eginiko ikasketa ez-eklesiastikoen errekonozimendu zibilari buruzko 1962ko apirilaren 5eko Hitzarmena; 1976ko urtarrilaren 28ko Akordioa¹⁵²; auzi juridikoei buruzko 1979ko urtarrilaren 3ko Akordioa;¹⁵³ irakaskuntzari eta gai kulturei buruzko 1979ko urtarrilaren 3ko Akordioa;¹⁵⁴ Indar armatuei laguntza erlijiosoa emateari eta apaizen eta erlijio-gizonen zerbitzu militarri buruzko 1979ko urtarrilaren 3ko Akordioa;¹⁵⁵ auzi ekonomikoei buruzko 1979ko urtarrilaren 3ko Akordioa;¹⁵⁶ eta Lur Santuko interes komuneko auziei buruzko 1994ko abenduaren 21eko Akordioa¹⁵⁷.

Arau mota horretan aurreikusitako eduki materialari dagokionez, eskubide indibidualak eta eskubide kolektiboak bereizi behar dira. Eskubide indibidualen barruan sartzen dira, esaterako, ezkontza eta bere eragin zibilak (AAJ VI. art., 24. Legearen 7. art., 25. Legearen 7. art., 26. Legearen 7. art.), laguntza erlijiosoa egoitza publikoetan, bereziki Indar Armatuei (AAR, 24. Legearen 8. art., 25. Legearen 8. art., 26. Legearen 8. art.) eta beste egoitza publiko analogoetan (AAJ IV. art., 24. Legearen 9. art., 25. Legearen 9. art., 26. Legearen 9. art.), erlijioaren irakaskuntza ikastetxe publikoetan (AEAC, 24. Legearen 10. art., 25. Legearen 10. art., 26. Legearen 10. art.) eta jai erlijiosoak ospatzea eta asteko atsedenaldiak egitea (AAJ III. art., 24. Legearen 12. art., 25. Legearen 12. art., 26. Legearen 12. art.).

Ikuspegi kolektibotik, aldiz, honako hauek dira nabarmentzekoak: kultu-eskubideak eta kultu-leku eta hilerri propioak jartzea (AAJ I. art., 24. Legearen 2. art., 25. Legearen 2. art., 26. Legearen 2. art.); kultu-ministroak izendatzea eta aukeratzea (24. Legearen 3. art., 25. Legearen 3. art., 26. Legearen 26. art.); lanbideko sekretua (24. Legearen 3. art., 25. Legearen 3. art., 26. Legearen 5. art.) eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean

¹⁵⁰ Parekatze horrekin lotuta, ikus Konstituzio Auzitegiaren 66/1982 Epaia, 5. oinarri juridikoa; 187/1991 Epaia, 4. oinarri juridikoa; 155/1997 Epaia, 2. oinarri juridikoa; eta Konstituzio Auzitegiaren 480/1989 Autoa.

¹⁵¹ 1962ko maiatzaren 29ko berresteko tresna (173. zenbakidun BOE, 1962ko uztailaren 20a).

¹⁵² 1976ko abuztuaren 19ko berresteko tresna (230. zenbakidun BOE, 1976ko irailaren 24koa).

¹⁵³ 1979ko abenduko berresteko tresna). Aurrerantzean AAJ.

¹⁵⁴ 1979ko abenduko berresteko tresna). Aurrerantzean AEAC.

¹⁵⁵ 1979ko abenduko berresteko tresna). Aurrerantzean AAR.

¹⁵⁶ 1979ko abenduko berresteko tresna). Aurrerantzean AAE.

¹⁵⁷ 179. zenbakidun BOE, 1995eko uztailaren 28koa.

sartzeari buruzkoa (24. Legearen 5. art., 25. Legearen 5. art., 26. Legearen 5. art.); eskaintzak eta diru-bilketak jasotzea eta antolatzea (24. Legearen 11. art., 25. Legearen 11. art., 26. Legearen 11. art.) eta zenbait zerga-salbuespeni buruzkoak (AAE III. eta IV. art., 24. Legearen 11. art., 25. Legearen 11. art., 26. Legearen 11. art.); ongintzazko zentroak ezartzea eta laguntza-zerbitzuak ematea (AAJ V. art.), beren erakundeekin eta bestelako erlijio-aitortzeekin harremanak izatea, bai Espainian bai atzerrian, (AAJ II. art.); erlijio-intereseko kultur ondarearen babesa, hedakuntza eta sustapena bermatzen da (AEAC XV. art., 25. Legearen 13. art., 26. Legearen 13. art.) eta, azkenik, norberaren elikadurarekin loturiko gaien babesa (25. Legearen 14. art., 26. Legearen 14. art.).

6. Horren guztiaren ondorioz, esan dezakegu Askatasun Erlijiosoko Lege Organikoak ezartzen eta zehazten duela konstituzioaren agindua termino materialetan; halaber, baiezta dezakegu itun-sistemak garrantzi oso handia hartu duela eta funtsezko elementu bilakatu dela harreman-eredua kalifikatzeko, baita gure antolamenduko erlijio-aitortzen estatutu juridikorako ere.

Arau-sistema honek laikotasun positibozko harreman-eredu batean ipintzen gaitu, eta Espainiako erlijio-erakundeak aniztasunetik abiatuta tipifikatzen ditu; horrek berak eragin dezake bazterkeria. Tipifikaziok Eliza Katolikoaren estatutua jartzen du maila gorenean, Espainiako Estatuarekin sinaturiko akordioen izaera juridiko-nazioartekoan oinarrituta. Beherago Estatuarekin lankidetzak akordioa duten aitortzak egongo lirarteke; hau da, ebanjelikoak, judutarrak eta musulmanak. Hirugarren mailan leudeke errotze nabarmeneko aitortzak, une honetan Askatasun Erlijiosoko Aholkularitza Batzordearen aldeko botoa dutenak; hala nola, Azken Eguneko Santuen Jesukristoren Eliza, Jehovaren Lekuko Kristauen Eliza, Espainiako Erakunde Budisten Federazioa eta Eliza Ortodoxoa. Laugarren mailan, Justizia Ministerioaren Erakunde Erlijiosoen Erregistroan izena emandako erlijioak leudeke; eta azkenekoan, berriz, Elkarteen Erregistroan izena eman duten baina beren buruak elizatzat, aitortzatzat edo komunitate erlijiosotzat dituztenak.